

## 1. MEMORIA 2004-2005. HITZAURREA

Hirugarren urtez jarraian, gure *Memoria* aurkeztuko dizuegu, Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen Araudian ezarritakoa bete baitugu; 2001eko iraileko osoko bilkuran onartutakoa, hain zuzen ere.

Memoria hau 2004ko martxoaren 1etik 2005eko otsailaren 28ra bitartekoa da.

Denboraldi horretan, *544 esku-hartze* burutu ditugu, eta horietatik 162 espediente atera dira; gainerakoak aholkularitza bidez konpondu ditugu, pertsonalki, telefonoz edota e-postaz. Udaleko Sailentzat 56 gomendio egin ditugu, eta memoria honen amaieran 26 behintzat onartu dira; beraz, horrek esan nahi du gomendioen %60 arrakastatsua izan dela. Halaber, aipatu behar da herritarrek aurkeztutako kexen artean, 44 kexa gaitzetsi direla, Udalak kasu horietan behar bezala jokatu zuela uste izan baita. Era berean, 10 kexa baztertu ditugu, Bulego honen eskumenekoak ez diren gaiak izategatik, Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen Araudian jasotakoaren arabera.

Memoriaren edukia egituratu egin dugu, kontsulta egin nahi duenak bilatu nahi duen hori errazago bilatzearren. Lehenik eta behin, *aparteko txostenak* nabarmendu behar ditugu, normalean ofiziozko bezala agertuak, edota interes orokorra pizten duten hainbat kexa biltzen dituztenak. Txosten horien artean, bereziki aipatu behar dugu Oto-Paula Montal plazaren urbanizazioaren *birgaitzeari* dagokiona, aspalditik datorren kexa baita, eta azkenik, badirudi konpontzeko bidea hartu duela.

Gure hainbat txostenetan proposatu da *Udaltzaingoak* parte hartzea; esaterako, Erdi Aroko hiriguneko segurtasuna bermatzeko, edota gaueko lokalen *ordutegia* kontrolatzeko. Izan ere, lokal horiek ez dute *Eusko Jaurlaritzak* ezarritako ordutegia betetzen; hori dela-eta, inguruan bizi direnak kaltetuak izaten dira, jende asko pilatzen denez, auzotarrek lasai egoteko duten eskubidea urratzen baitute gaueko zaratek.

Gainera, esan behar dugu Udaltzaingoari zuzendu dizkiogun gomendio *guztiak* kontuan hartuak izan direla, agenteen zerbitzu hobezinarekin. Ez da hori gertatu, ordea, beste Sail batzuekin.

Egindako txosten eta gomendioez gain, nabarmendu nahi dugu *Inmigrazioaren Tokiko Planean* parte hartu dugula, beste agente sozial batzuekin batera.

Inmigrazio Plana Administrazioari Jardunbide Egokien benetako Katalogoa da; izan ere, behar bezala aplikatzen bada, nabarmen hobetuko ditu gure eguneroko hiritar bizitzan etorkinak *gizarteratzeko* prozesuak. Horrela, inmigratioak dakartzan aukerak aprobetxatu ahal izango ditu hiriak, eta aldi berean arriskuak gutxitu.

Halaber, aipatu nahi dugu *Vitoria-Gasteizen hiri-zarataren* inguruan Ingurumen Sailak antolatutako Biltzarra. Biltzar horretan Espainiako aditu onenek parte hartu zuten, eta horien artean, noski, gure udal teknikariek. Besteak beste, Zarataren Lege

berriak, kutsadura akustikoari dagokionez, Udalentzat dakartzan aukera eta lan berriak jorratu zituzten.

Bestalde, badira oraindik *aztertze* geratu diren gai batzuk, eta denbora gutxi barru gomendioren bat beharko dutenak. Esaterako, Gune Soziosanitarioa delakoaren arazoa daukagu: botere publikoek *patologiak* dituzten pertsonen eskura jartzen dituzte zenbait baliabide, baina patologia horiek ez dira osasun-zentro eta ospitaletan aztertzen, eta gizartearen marjinazioa (zaletasuna, gaixotasun mentalak,...) eta soziabilitate-arazoak jasaten dituzte.

Urtean zehar, era berean, kexa ugari aurkeztu dizkigute prostituzio-etxeak jarri dizkieten eraikinetako auzotarrek. Helduen arteko prostituzioa berez ez da delituzko jarduera bat, baina askotan zenbait deliturekin lotua dago; hala nola, adin txikiko sexu-esplotazioa, indarkeria, etorkinen salerosketa,... Eta horrelako etxe bat eraikin batean jartzeak bizikidetzarazoz ekarri ohi ditu. Gainera, kasu askotan, etxea iruzurrez lortzen da, pisua norberaren bizilekua dela adieraziaz alokairuaren kontratuan. Beraz, horrelakoetan legeek zer adierazten duten jakinarazi dugu: alde batetik, Hiri Errentamenduen Legeak errentariaren kontra; eta bestetik, Jabetza Horizontalaren Legeak errentatzailearen aurka. Dena den, eta prostituzioaren<sup>1</sup> arazo sozialaren inguruko iritzitan sartu gabe, badirudi jarduera horretarako etxebizitza baten erabilera (publikoaren sarrera duena), kontrolatua egon behar duela, gutxienik beste ostatur-jarduerak kontrolatzeko dauden antzeko bideekin.

Aztertze geratu zaizkigun gaien artean, hiriko TAO zonen banaketa daukagu, baita Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreko arazoa ere, zaratei, trafikoari, pneumatikoak jasotzeko ontziei eta abarri dagokienez. Gainera, alde zaharreko auzotarrak dira Sindiko honetan kexa gehien aurkeztu dituztenak.

Bestalde, esan behar dugu bertako komunikabideek jakin-min handia agertu dutela gure lanaz eta Vitoria-Gasteizko auzotarrek azaltzen dituzten arazoez. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu, gure lana baloratzeaz gain, gure gomendioak ere zabaltzen baitituzte. Eta, horri esker, eraginkorragoak izatea lortzen dugu Udalaren aurrean, baita Sindikoaren-Herriarren Defendatzailearen erakunde-eredua hobeto ezagutaraztea ere; horrela, eragin handiagoa izango baitugu gure gainekoengan, eta gure hiritarrei ere hobeto lagunduko diegu.

---

<sup>1</sup> Nazio Batuek (NBE) salerosketa eta prostituzioaren gaia giza eskubideen ikuspuntutik jorratu dute, bietan ere eskubideen bortxaketa gertatzen dela uste baitute. Testuinguru horretan, badira hainbat baliabide espezifikoki: Pertsonen Salerosketaren Errepresiorako eta Besteen Prostituzioaren Esplotaziorako Hitzarmena (1949), Pertsonen Salerosketa Prebenitzeko, Zapaltzeko eta Zigortzeko Protokoloa (batez ere emakume eta haurrena), eta hori bera Nazio Batuen Hitzarmenak osatua Nazioz haraindiko Delikuentzia Antolatuauren aurka (2000). Halaber, gaia beste hainbat baliabidekin antzeko jorrazten dute; esaterako, honako hauen xosten eta ebazpenek: Idazkaritza Nagusiarenak, Batzarrarenak, Azterketa-taldeak, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluarenak, Errefuxiatuentzako Goi Komisarioarenak. Eta azkenik, emakumeen aurkako diskriminazio- eta indarkeria-mota guztiak ezabatzearen gaineko beste Hitzarmenak.

## **2. VITORIA-GASTEIZKO SINDIKOAREN-HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN JARDUERAREN LABURPENA**

### **2.1 Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen bulegoak egindako aparteko txostenak**

Memoria honetan (2004ko martxotik 2005eko otsailera bitartean), Vitoria-Gasteizko hiritarrentzat garrantzi handia duten gaietarako buruzko hainbat txosten burutu ditugu. Eta txosten horien helburua izan da eragina jasan duten Udal Zerbitzuen funtzionamendua hobetzea.

Gai horiek benetan garrantzitsuak iruditu zaizkigunez, eta Vitoria-Gasteizko hiritarren artean interesa pizten dutenez, horien inguruan Udalarari zuzendutako aparteko txostenak egin ditugu, Udalaren zerbitzuak hobetzeko proposamenak definitzearen.

Gaien artean, besteak beste, ondorengoak jaso ditugu: erabilera publikoko baina titulartasun pribatuko plaza bat mantentzea, Alde Zaharreko auzotarren aldeko sustapen-neurriak, Erdi Aroko Merkatua egitearen eragozpenak, Arkupeetako zikinkeria, e.a.

#### **2.1.1 Oto Montal plazaren mantentzearen eta egoeraren gaineko txostena**

Oto Montal auzo-elkartea Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen bulegora joan da bere arazo larria adieraztera; gizarte-laguntzako etxebizitzaren jabeentzako zaila dela Oto Montal plazaren mantentzea burutzeko, hain zuzen ere.

Elkartek neurriak hartzeko eskatu du plazari dagozkion hainbat arazo konpontze aldera: baldosak irristakorrak izatea eta hautsita egotea, lorategiak zaintzea, itxiturak egitea, beheko pisuetako hezetasuna ondoan dituzten lorategiak direla-eta, argitasun-falta, larrialdiko ibilgailuak plazara sartzeko zailtasuna.

Gure aldetik, gomendio bat egin dugu, eta Memoria honetan jasota dago: (HIRIGINTZA SAILA

\* Oto Montal plazaren mantentzea eta bere egoera (Erreg. Zkia.: 284/03))

#### **2.1.2 Erdi Aroko hiriguneko auzotarren aldeko sustapen-neurrien gaineko txostena (Barrenkale elkarte)**

BARRANCAL auzo-elkartek, besteak beste, Erdi Aroko hiriguneari aparkatzeko dagoen arazoa aurkeztu digu.

Gainerako hiriarekiko hirigune garaia da, eta beste zona batzuetan baino gehiagotan hartu beharra dago ibilgailua. Kaleak, berriz, trazatu zaharra dutenez, estuak dira eta horietan ezin da aparkatu; hori dela-eta, Udala aparkalekuak kentzen ari da sistematikoki.

Guk, arazo horren inguruko gomendio bat egin dugu:

(HIRIGINTZA SAILA

\* Aparkalekuak kudeatzeko Erdi Aroko hiriguneko auzotarren aldeko sustapen-neurriak (Erreg. Zkia.: 213/03)

### **2.1.3 Udalekuetan izena ematea**

Udalaren Hezkuntza Sailak iragarri zuen joko eta udalekuetarako 1800 plaza *izena emandako hurrenkeran* banatuko zirela; hori dela-eta, hiritarrek ilara luzeetan zain egon behar izan dute zerbitzu hori lortzarren.

Hiritar horietako askok egindako eskaerari erantzuteko asmoz, gomendio bat egin dugu, eta Memoria honetan jasota dago:

(HEZKUNTZA SAILA

\* Udalekuetan izena emateko zerrendak (Erreg. Zkia.: 05/04))

### **2.1.4 Erdi Aroko merkatua**

Emakume batek IRADOKIZUN bat egin digu, eta iradokizun hori jakinaraztea komeni dela iruditu zaigu:

Emakumeak kontsulta bat aurkeztu digu: Erdi Aroko merkatua egiten ari zen egun batean, Vitoria-Gasteizko Alde Zaharrean erori egin zen, eta Udal Administrazioan ondare-erantzukizunaren erreklamazioa aurkeztu zuen; Udalak, ordea, horri buruzko gaitzespen-ebazpena eman zion.

Beraz, gaiaren inguruan gomendio bat egin dugu, eta ondorengo Sailean azter daiteke:

(HIRIGINTZA SAILA

\* Erdi Aroko Merkatuko erorikoa (Erreg. Zkia.: 364/04))

### **2.1.5 Euskara-bekak**

Hiritar batek gure bulegoan kexa hau adierazi digu: euskarako ikastaro bat egin zuen Iparralde gizarte etxean, ikastolara seme-alabak bidaltzen dituen guraso bezala; ondorioz, matrikula murriztua eskatu zuen, eta ez zioten onartu.

Horrek guztiak gaia aztertzeraz eraman gaitu, eta gomendio bat egin dugu hiritarrentzat interesgarria dela iruditzen baitzaigu. Ikus ezazu:

(LEHENDAKARITZA SAILA

\* Seme-alabak ikastolara bidaltzen dituzten gurasoentzako euskara-bekak (Erreg. Zkia.: 366/04))

### **2.1.6 Frai Zacarias parkeko atea irekita**

Alde Zaharreko emakume bat gure bulegora etorri da Frai Zacarías kaleko parkeko atea irekitzeko eskatzera; era horretan oinezkoek kalea zeharkatu ahal izango baitute eta Santa Maria eta Frai Zacarias kaleen arteko oinezkoen zirkulazioa hobetuko baita. Horrela, oinezkoek ibilgailuen trafikoa saihestuko lukete, kaleak estuak direnez eta ibilgailuak aparkatuta egoten direnez, askotan oinez ibiltzea zaila gertatzen da-eta.

Egoera garrantzitsua iruditu zaigunez, gomendio bat egin dugu. Ikus ezazu:  
(HIRIGINTZA SAILA

\* Frai Zacarías parkeko atea irekitzea (Erreg. Zkia.: 391/04))

### **2.1.7 Arkupeetako zikinkeria**

Kexa ugari jaso ditugu Sindiko honetan Arkupeen inguruan pixa eginda sortzen den zikinkeria eta usain txarra salatzeke.

Inguruneko berezitasunak ikusita, interesgarria iruditu zaigu gomendio bat egitea. Honako atal honetan ikusi ahal izango duzu:

(INGURUMEN SAILA

\* Arkupeetako zikinkeria (Erreg. Zkia.: 462/04))

### **2.1.8 Udaltzaingoa Alde Zaharrean**

Arkupeen inguruan bizi diren auzotarrek kexa agertu digute; hain zuzen ere, asteburuan behartsu askok gaua igarotzen dutela, eta pixa egiteaz gain, edari alkoholdunak hartzen dituztela, horrek guztiak usain txarra eta zikinkeria handia sortuaz.

Turismo aldetik, zona garrantzitsua da eta balore historiko handikoa. Pertsonak gaua bertan emateak sortzen duen segurtasun-falta eta zikinkeria kontuan hartuta, gomendio bat egin dugu honako sail honentzat:

(HIRITARRAK BABESTEKO SAILA

\* Behartsuak gauetan Arkupeetan (Erreg. Zkia.: 484/04))

### **2.1.9 Ezinduentzako aparkalekua**

Erakunde honetan, kexa ugari jaso ditugu gai honen gainean: minusbaliatuentzat gordetako plazetan edonork aparkatzen duela Lakua-Arriaga inguruan, eta Udaltzaingoa ez duela ezer egiten.

Ikusita pertsona ezinduek jasaten duten kaltea, eta minusbaliatuentzako den aparkalekua beste batzuk hartzen dutelako araua betetzen ez denez, gomendio bat egin dugu, eta Memoria honetan jasota dago:

(HIRITARRAK BABESTEKO SAILA

\* Isuna minusbaliatuentzako gunean aparkatzeagatik (Erreg. Zkia.: 460/04))

### **2.1.10 Soinua ateratzen duten erlojuak**

Andre Maria Zuriaren plazan bizi den emakume batek adierazi digu Espainia plaza aldera duela logela, eta gauean Udaletxeko erlojuak jotzen dituen kanpaiak direla-eta kexu agertu da; ordubete oro errepikatzen dira kanpaiak eta laurdenetan eta erditan ere jotzen dira, hots gutxiagorekin bada ere.

Arazo hori beste Udaletan ere azaldu da behin baino gehiagotan. Erloju publikoez gain, kanpaiak jotzen dituzten elizako erlojuez ere kexak jasotzen dira. Beraz, gaia garrantzitsua izanik, gomendio bat egin dugu:

(OGASUN ETA ONDARE SAILA

\* Espainia Plazako Vitoria-Gasteizko Udaletxeko erlojuaren mekanismoak desaktibatzea (Erreg. Zkia.: 352/04))

### **2.1.11 Elurteetarako jarduera-plana**

Vitoria-Gasteizko bizilagun askok ondare-erantzukizuna eskatu dute erakundeen eraikinetako teilatuetatik eroritako elurra dela-eta jasandako kalteengatik (zehazki Arte eta Lanbide Fundazioaren eraikina).

Kontuan hartuta Vitoria-Gasteiz bezalako hiri batean elurra egingo duela aurreikustea zaila ez dela, eta Udalak hiriaren funtzionamendua zaindu behar duela, gutxienez Udalarenak diren eraikinetako teilatuetatik bide publikora elurra ez erortzeko neurriak hartuaz, gomendio bat egin dugu:

(HIRITARRAK BABESTEKO SAILA

\* Ibilgailuaren matxura elurtea dela-eta (Erreg. Zkia.: 431/04))

### **2.1.12 Aisialdiko jarduera zaratatsuak**

Sindikotik honetan pertsona askok salatu dituzte Vitoria-Gasteizko Udalak antolatutako aisialdi-jarduerak sortutako eragozpen eta zaratak, zehazki, Foru Plazan egindakoak; esaterako, Eskubaloi-txapelketa 2004ko ekainaren 26an eta 27an (41,5etik 53 dBA-ra neurtu ziren, eta zaratarik altuenak megafonia erabiltzen zuenak atera zituen).

Foruen Plazan publikoari zuzendutako jarduera asko egiten dira; beraz, eta gure ustez, bertako bizilagunak zaindu behar dira eta kontuan hartu antolatutako jarduerak bakoitzaren ingurumen-zarata maila, batez ere, gauez edo jaietan egiten diren jarduerak badira.

Hori dela-eta, Udalaren Sailei GOMENDATZEN diegu antolatzen dituzten jarduera desberdinetan KONTUAN HAR dezatela zer-nolakoa den jarduera horien eragin akustikoa. Ikus ezazu:

(INGURUMEN SAILA

\* Zarata desatseginak Foruen Plazako eskubaloi-txapelketan (Erreg. Zkia.: 406/04))

## **2.2 Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen jarduerak**

2004ko martxoaz geroztik, Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak lan asko egin du erakunde hau hiritarregana gerturatzeko eta bizilagunei (banakoei nahiz talde sozialei) informazioa emateko. Halaber, Sindikoa harremanetan jarri da Udalaren Sailetako arduradunekin, hiritarren salaketen aurrean Sail horiek hobetzearren.

### **2.2.1 HIZLARI GISA**

Ildo horretan, Sindikoa hiritarregana hurbildu da **Hizlari** gisa, bai jardunaldietan, bai hitzaldietan, bai mintegietan,... Sindikoaren zeregin nagusia hiritarren eskubideak gordetzea dela erakusten ahaleginu da.

Hona hemen Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak hizlari gisa parte hartu duen emanaldien zerrenda:

- **Hizlari gisa parte hartu du Vitoria-Gasteizko Bizikleteroak antolatutako “Zu, bizikleta... eta zerbait gehiago” jardunaldietan. 2004ko martxoak 25. Vitoria-Gasteiz.**
- **Udako Ikastaroaren zuzendaria izan da: Fernando Buesa Fundazioa: “Euskal Herrian bizitzeko baloreak”. 2004ko uztailak 20 eta 21. Donostia.**
- **Udaltzaingoan sartu berriak diren agenteak formatzen aritu da: “Sindikoaren irudia. Kexa eta hitzaldien batzordea”. 2004ko irailak 6. Vitoria-Gasteiz.**
- “Hiritarrak eta askatasuna”: “Laikotasuna, askatasunerako estrategia” hitzaldiko hizlaria izan da. 2004ko urriak 26. Vitoria-Gasteiz.**
- Eusko Jaurlaritzaren mahai-inguru tailer honetako hizlaria izan da: “Politika Sozialak eta Segurtasuna” Bilbo. 2005eko urtarrilak 9.**

### **2.2.2 GONBITAK**

Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak **gonbidatu** gisa parte hartu du hainbat erakundek eta elkartek antolatutako biltzar, hitzaldi, erakusketa eta inaugurazioetan, Vitoria-Gasteizko herritarregana hurbiltzeko asmoarekin.

Hona hemen Sindikoa **gonbidatu** bezala egon denen zerrenda:

- **“Gobernu Lokala Modernizatzeko Neurriei buruzko mahai-ingurua”. Vitoria-Gasteizko Udaleko Funtzio Publikoaren Saila. 2004ko martxoak 16. Vitoria-Gasteiz.**

- Zarataren Legea Udaletan eta Komunitateetan aplikatzeari buruzko hitzaldia. 2004ko martxoak 30 eta 31. Madril.
- M<sup>a</sup> Teresa Rodríguez Barahonaren hitzaldia (Arabako Batzar Nagusietako Lehendakaria). 2004ko apirilak 21. Vitoria-Gasteiz.
- Eusko Legebiltzarreko Iritziaren Epaimahaiaren aurkezpena, Mario Calistorekin. 2004ko apirilak 26. Vitoria-Gasteiz.
- Partehartze araudiaren erakusketa publikoa. 2004ko maiatzak 4. Vitoria-Gasteiz.
- “Genero-indarkeria eta ezintasunak” mintegia. 2004ko maiatzak 7. Vitoria-Gasteiz.
- Maria Sortzez Garbia Katedralaren Lorategien inaugurazioa. 2004ko maiatzak 13. Vitoria-Gasteiz.
- “25en Europa Berrirako konstituzioa” hitzaldia. 2004ko maiatzak 27. Vitoria-Gasteiz.
- “Askatasunerako Gizabidezko Topaketa”. 2004ko maiatzak 28. Vitoria-Gasteiz.
- Bizikleten aurkezpena, doaneko maileguaren zerbitzu berria. 2004ko ekainak 23. Vitoria-Gasteiz.
- Hiriko Eraztun berdearen aurkezpena. 2004ko uztailak 13. Vitoria-Gasteiz.
- Forum Bartzelona 2004: “Giza Eskubideak, Premia larriak eta Konpromiso berriak. 2004ko irailak 18-21.
- “Kulturaren Euskal Plana”ren aurkezpena. Bilbo. 2004ko irailak 28.
- “Hiriaren Plan Estrategikoa”ren aurkezpena. Artium. 2004ko urriak 20. Vitoria-Gasteiz.
- “La Colección en Contexto.1973-1985 y CVA” Artium-eko erakusketa. Printzea eta Leticia Ortiz andrearekin. 2004ko urriak 27. Vitoria-Gasteiz.
- Inmigrazioaren Tokiko Planaren aurkezpena. 2004ko urriak 28. Vitoria-Gasteiz.
- Ampea sari-banaketa, Arabako emakume enpresari, profesional eta zuzendariarentzat. 2004ko azaroak 3. Vitoria-Gasteiz.
- “Arabako Batzar Nagusien Demokraziako 25 urte” jardunaldia. 2004ko azaroak 5. Vitoria-Gasteiz.
- Hiritartasunari buruzko Nazioarteko Biltzarra. SARE2004. Bilbo. 2004ko azaroak 10 eta 11.
- FEMP 2004 jardunaldia. Mugikortasuna eta Garraioa. 2004ko azaroak 10. Vitoria-Gasteiz.
- Inmigrazioaren Tokiko Plana egiteko parte hartzea. 2004ko azaroak 16 eta 23. Vitoria-Gasteiz.
- “Espacio Ciudad Arquitectura S. XX” erakusketaren inaugurazioa. Espainia Hirigunea. 2004ko azaroak 16. Vitoria-Gasteiz.
- FEMPen erakusketako bisita gidatua. 2004ko azaroak 18. Vitoria-Gasteiz.
- Saregunearen inaugurazioa. 2004ko azaroak 19. Vitoria-Gasteiz.
- FEMPen jardunaldia 2004. Udalerrri lehiakorrak. 2004ko azaroak 25. Vitoria-Gasteiz.



- FEMP 2004 emanaldien itxiera. Espainiako Gobernuako lehendakaria, FEMPEko lehendakaria, Senatuko lehendakaria. 2004ko azaroak 25. Vitoria-Gasteiz.
- Euskararen Erabileraren Eskuliburua. Aurkezpena. 2004ko abenduak 1. Vitoria-Gasteiz.
- Oinarrizko Errenta eta Txertaketa-prozesuei buruzko topaketa. 2004ko abenduak 1 eta 2. Vitoria-Gasteiz.
- “Convivencia!” eskulturaren inaugurazioa. Judimendi. 2004ko abenduak 10. Vitoria-Gasteiz.
- “Giza Eskubideak 2004” sari-banaketa. 2004ko abenduak 14. Vitoria-Gasteiz.
- Administrazioarekiko Auzietarako Eskumenaren jardunaldiak. 2004ko abenduak 15 eta 16. Bilbo.
- “Emakumeen aurkako indarkeria eta inmigrazioa mintegia”. 2004ko abenduak 17 eta 18. Vitoria-Gasteiz.
- “Calouste Gulbenkian Fundazioa”- Portugalgo kontsulatua Bilbon. 2005eko urtarrilak 12.
- “Zuzenbide zibil berriak” mahai-ingurua. Tomás y Valiente Lanbide Eskola. 2005eko urtarrilak 19. Bastida (Araba).
- “Atzerritarrak Erregularizatzeko Ezohiko Prozesua” hitzaldia. 2005eko otsailak 3. Vitoria-Gasteiz.
- Inmigrazio-foroa “Landatxo aretoa”. 2005eko otsailak 5. Vitoria-Gasteiz.

### **2.2.3 TOPAKETAK KOLEKTIBO ETA ELKARTEEKIN**

Herritarren Defendatzailearen bulegoak hainbat bilera egin ditu Vitoria-Gasteizko erakundeekin eta taldeekin, haien keak jasotzeko eta bizilagunek aurkeztutako salaketa horien edo beste batzuen inguruan duten iritzia jakiteko asmoz.

- Bilera Donostiako Udaleko Hiritarren Arretarako arduradunarekin. 2004ko martxoak 18. Donostia.
- Bilera Vitoria-Gasteizko Udaleko Hiritarren Arretarako arduradunarekin. “010”. 2004ko martxoak 26. Vitoria-Gasteiz.
- Bilera Araba Kulturalarekin, Bartzelonako Kulturen Foruma 2004ren izenean. 2004ko apirilak 14 eta 15. Vitoria-Gasteiz.
- Bilera GILSArekin. Jundizeko proiektua. 2004ko apirilak 20. Vitoria-Gasteiz.
- Bilera Iruñea hiriko zarata-gaien arduradunarekin. 2004ko maiatzak 5.
- Bilera Vitoria-Gasteizko Bizikleteroekin. 2004ko maiatzak 12. Vitoria-Gasteiz.
- Bilera Bilboko Inmigrazioaren Behatokiko arduradunarekin. 2004ko maiatzak 28.
- Bilera Eusko Jaurlaritzaren Datuak Babesteko Euskal Agentziako zuzendariarekin. 2004ko ekainak 3. Vitoria-Gasteiz.

- Bisita: “Itxaropenaren telefonoa”. 2004ko ekainak 4. Vitoria-Gasteiz.
- Ararteko berriaren aurkezpena. 2004ko irailak 22. Vitoria-Gasteiz.
- Bilera ALDAPA elkartearekin. 2004ko azaroak 30. Vitoria-Gasteiz.
- Bilera Oto-Montal auzo-elkartearekin. 2005eko urtarrilak 13. Vitoria-Gasteiz.
- Bilera Barrenkale auzo-elkartearekin. 2005eko urtarrilak 13. Vitoria-Gasteiz.
- Bilera Langile Sozialen Ikastetxearekin. 2005eko urtarrilak 25. Vitoria-Gasteiz.
- FAVA batzar orokorra. 2005eko urtarrilak 29. Vitoria-Gasteiz.
- Bilera Vitoria-Gasteiz On-ekin. 2005eko otsailak 9. Vitoria-Gasteiz.

#### **2.2.4 TOPAKETAK BESTE SINDIKO BATZUEKIN**

Sindikoak bilerak egin ditu beste Sindikoekin-Herri Defendatzaileekin; beste sindiko horiek ere saiatzen dira beren hirietako bizilagunei udal-zerbitzuen berri ematen, zerbitzu horien keak agertzen dituztenean, eta hala behar izanez gero, zerbitzu horiek hobetzeko gomendioak ematen dituzte.

- Topaketa Amsterdam-eko Sindikoarekin. Nora Salomón. 2004ko apirilak 28. Bartzelona.
- Sindikoen eta Herritarren Defendatzaileen foruma. IV. Jardunaldia Reus-en (Tarragona). 2004ko apirilak 29 eta 30.

#### **ERANSKINA: JARDUNALDIAK BESTE SINDIKO BATZUEKIN**

2000. urtean Bartzelonan sinatutako Giza Eskubideen Gutunera lotutako hirietako Sindikoak eta Herritarren Defendatzaileak foro baten bidez komunikatzen dira, eta han agertzen dituzte beren iritziak eta bakoitzak bere herrian egindako gomendioak, elkar laguntzeko asmoz.

#### **- Sindikoen eta Herritarren Defendatzaileen foruma. Reus-eko VI. Jardunaldia (Tarragona)**

##### **VI Trobada Forumsd Reus 29 d’abril de 2004**

##### **Acta de la sessió – Acords i conclusions**

La trobada es desenvolupa pel matí, de 9,30 a 14 hores, amb un dinar posterior, i amb una breu visita turística de 16,30 a 19 hores.

A les 16 hores hi va haver una roda de premsa, amb la participació de diversos mitjans de comunicació: premsa escrita, ràdio i televisió, tant de caràcter local com de caràcter

general. Als diaris de Tarragona, El Punt, i la Vanguardia la Trobada de Síndics va tenir un tractament destacat, tal com es pot observar els fitxers adjunts.

Es va lliurar un dossier de la trobada, en el que hi ha tota la informació de l'any, i específicament dels temes de la jornada. També i durant la sessió, es donen còpies de la "Proposta de millora de la normativa legal", feta per la comissió corresponent, així com d'una informació sobre el Fòrum Barcelona 2004.

#### Temes tractats:

- Breu explicació de la trobada amb síndics de la Llombardia, a Badalona el 23 de setembre, i que constitueix la primera vegada que es troben síndics locals Europeus.

#### Repàs dels objectius proposats pel 2003

- Publicació d'articles de premsa: es fa esment de l'article aparegut el 10 de desembre de 2003, dia dels drets humans, i hi ha un segon article preparat, (en base al text del Sr. Pallicer de Calvià), per intentar que es publiqui quan hi hagi el nomenament del proper Síndic de Greuges de Catalunya, i aprofitant el ressò mediàtic.

- Es dona el cens de síndics actualitzats.

- Es recorda la necessitat de disposar d'un resum de les actuacions de cada Sindicatura, segons els registres de classificació que aprovats pel Forumsd. S'insisteix en la conveniència de respectar aquesta tipologia, que hauria de ser compatible amb les particularitats dels registres i Informes anuals de cadascú.

- Recordem la data de l'1 de gener de 2004, per tenir operatius aquests registres i aconseguir una certa unificació i comparativa dels informes a partir d'aquesta data.

- També es recorda que s'enviïn les dades estadístiques, que un cop agrupades (de forma anònima), podrien donar una certa idea de la organització, medis materials, etc., del conjunt de la Institució.

- Quant a l'enquesta de qualitat, fins a data d'avui només es troba operativa a les poblacions de Vitòria, Sant Boi i Reus. Aquestes poblacions insisteixen en que dona dades interessants d'orientació del treball.

- Quant a la carta encoratjant als Ajuntaments de Catalunya sense Institució, es va enviar a 180 municipis de més de 5000 habitants. A data d'avui hi ha algun principi d'interès en poblacions com Arenys de Munt, Palamós, Sant Feliu de Llobregat, Sant Fost de C, Vilanova del C, Sant Cugat del Vallès, Agramunt, Montgat, Terrassa, etc.

### Es parla d'assumptes com:

- Carta de condol enviada amb motiu de l'11-M.
- Assistència al Parlament en la presentació de l'informe del Síndic de Greuges de Catalunya el 14 d'abril de 2004.
- Trobada amb la Síndica d'Amsterdam el dia 28 d'abril de 2003, que va ser molt interessant.

### Administració del FORUMSD

S'informa de què es compleixen 2 anys de la posada en funcionament del Forumsd. El Sr. Oteros ratifica de nou el compromís i l'oferiment per mantenir a Sta. Coloma el servei i l'administració del Forumsd. Cal recordar que la col·laboració i implicació de tots és indispensable per mantenir aquesta eina de coordinació, intercanvi i treball conjunt.

El coordinador vol felicitar i agrair al Defensor de Sta. Coloma de Gramenet, Sr. Fernando Oteros, així com als membres del seu equip, Sr. A. Martínez i Sra. J. Ricardo, la col·laboració que es manté en la gestió, suport i administració quotidiana del Forumsd. A aquest agraïment i felicitació s'hi afegeixen també la resta de membres del Forumsd amb la ratificació de tots pel que es refereix a l'interès de poder mantenir la continuïtat de l'administració del Forumsd a Santa Coloma.

### Propostes de millora legal:

- La senyora Seseras, Sr. Puigderajols i Sr. Torrent, (més la Sra. Ricardo, absent), han elaborat un esquema-proposta de treball que es reparteix. (Del debat obert només es transcriuen els punts més significatius).

Es proposa la seva presentació a la Comissió de Justícia i mantenir una entrevista amb la presidenta d'aquesta comissió, Sra. Núria de Gispert. Compte amb fer propostes excessivament tancades als Parlamentaris.

Caldria poder tenir en compte la variabilitat del nombre d'habitants (40.000) en poblacions turístiques que sofreixen molta variació.

Començar amb una proposta menys detallada. Si inicialment es acceptada es podrien concretar posteriorment alguns punts.

Estudiar la possibilitat d'incloure aquesta qüestió en la futura reforma de l'Estatut.

No podem encotillar-nos en excés. Respectant les competències hem d'atendre a tothom. Les poblacions petites són les que necessiten més al síndic. El síndic sempre ha d'atendre el ciutadà sense trepitjar a ningú.

Es proposa buscar la complicitat de les associacions i federacions municipalistes (Associació Catalana de Municipis – Federació de Municipis de Catalunya).

Finalment s'acorda plantejar una proposta de mínims bàsics, que redactarà la mateixa comissió. S'accepta l'esquema general de tres parts i un darrer apartat d'annexes amb diferent documentació.

Continguts del dossier:

1ª Part Introducció i antecedents

**2ª Part            Argumentes que aconsellen una regulació legal més exhaustiva.**

3ª Part            Proposta per a la nova regulació legals de la institució del Defensor/a o Síndic/a Local. (segons acord de mínims)

- I.        Denominació.
- II.       Obligació en poblacions iguals o superiors a 40.000 habitants.
- III.      Determinació de funcions.
- IV.      Destinatari del control.
- V.       Nivell de dedicació i remuneració
- VI.      Oficina: mitjans personals, materials i econòmics suficients.

Annexos:

- 1.- Reglament aprovat pel Fòrum.
- 2.- Ponència "Marc legal" presentada a la Jornada d'Intercanvi de Síndics/Defensors Locals i Autonòmics entre Catalunya i Llobardia.
- 3.- Ponència "Aspectes Organitzatius" presentada a la Jornada d'Intercanvi de Síndics/Defensors Locals i Autonòmics entre Catalunya i Llobardia.
- 4.- Ponència "Aspectes Valoratius" presentada a la Jornada d'Intercanvi de Síndics/Defensors Locals i Autonòmics entre Catalunya i Llobardia.
- 5.- Article Sra. Joana Ricardo Hoyos, "*El defensor municipal*": una figura de nueva implantación en los municipios" publicat a la Revista: Ayuntamiento La revista de la administración local el 2n trimestre de l'any 2003.
- 6.- Normativa vigent actualment.
- 7.- Llistat actual de Síndics/ques o Defensors/res.
- 8.- Explicació del Fòrum.

El document que sorgeixi es passarà per la via del Forumsd per recollir aportacions, esmenes i disposar de la conformitat de tots. Un cop que aquest dossier estigui enllestit

es preveuran els contactes amb la comissió del Parlament per cercar una fórmula inicial de col·laboració.

#### Llei de Modernització:

A partir de les diverses aportacions rebudes i dels articles i notes trameses per la via del Forumsd, s'obre un debat sobre la "comissió de suggeriments i reclamacions", del qual destaquem els principals punts :

- La llei "obliga" a la constitució d'aquesta comissió als Ajuntaments qualificats com a "gran ciutat".

- El Sr. Otaola exposa la proposta que s'ha treballat a Vitòria quant a establir un acord entre la Institució del síndic i la nova comissió, de tal forma que es puguin aportar un suport mutu evitant, en la mesura del possible la duplicació de funcions. Ens informa també de la possibilitat d'establir contactes amb algun dels membres de la comissió que ha treballat la proposta al parlament de l'estat.

- Cal tenir en compte que l'Ajuntament és lliure per acceptar o rebutjar aquesta proposta de funcionament però la solució que aporta Vitòria sembla una bona opció. La comissió de suggeriments hauria de ser la comissió del síndic.

- Es destaca la contradicció i la duplicitat evident de funcions entre les funcions de la comissió i les de les sindicatures locals. En la proposta de coordinació les sindicatures assumeixen la feina quant la decisió final és de la Comissió. Es valora també que la mateixa Comissió pot ser el lloc idoni per fer arribar determinats temes que arriben a les sindicatures amb fortes implicacions de caràcter més polític. Lo interessant es que no es lesioni els interessos dels ciutadans.

- També hi ha la opció de treballar per la modificació o anul·lació dels articles d'aquesta llei.

Finalment s'acorda que Vitòria ens aportarà la documentació sobre la proposta de coordinació. Es mantindrà l'intercanvi d'informació de la situació que es vagi produint en cada població afectada. Si els Ajuntaments decideixen crear la "Comissió de suggeriments i reclamacions" es proposa que les sindicatures ofereixin una coordinació en aquests termes.

#### Proposta actuació "llars d'infants":

- La Sra. Pilar Colom i na Elisabet Martínez informen de la sortida d'un nou decret, per la qual cosa es deixa aquest tema sobre la taula.

#### Establiment de contactes internacionals:

- Sr. Bartlett facilita informació dels organismes internacionals d'ombudsman existents, bàsicament d'àmbit europeu on també hi ha integrades sindicatures locals.
- Es proposa al Sr. Baulies que faci les gestions adients per establir algun tipus de contacte i estudiar les possibilitats de vinculació i col·laboració amb el Forumsd.
- Es desestima el contacte amb la convocatòria rebuda d'Itàlia, per manca d'interès i poca claredat en la proposta.

#### Fòrum Barcelona 2004:

Es facilita la informació disponible sobre diversos diàlegs convocats de diversos temes: laïcitat i el diàleg "Drets Humans, necessitats emergents i nous compromisos". Els programes del Fòrum Barcelona 2004 ja estan tancats però és possible participar mitjançant una "fila zero".

Finalment, atès que una de les temàtiques del debat es correspon plenament amb l'exercici dels drets de ciutadania, es proposa participar en aquest darrer diàleg que es celebrarà entre els dies 18 i 21 de setembre de 2004. Es proposa que la Sra. Seseras assumeixi la representativitat dels defensors/es locals del Forumsd en aquest diàleg. Per la via del Forumsd es farà arribar la informació per poder-se inscriure en aquest debat.

#### Coordinador 2004/2005:

- Es proposa al Sr. Miquel Torrents España, Defensor del Ciutadà de Manlleu, com a proper coordinador del Forumsd i seu de la propera trobada anual.

#### Diversos:

- Sr. Amaya suggereix que es podria formar un fons de jurisprudència, formada pels casos més significatius i mostra el seu interès en que es poguessin organitzar sessions formatives monogràfiques.

#### Finalment es tanca la sessió, amb el següent resum de conclusions i objectius:

- 1) Quan hi hagi el nomenament del proper Síndic de Greuges de Catalunya, s'intentarà publicar a la Premsa l'article preparat. Caldrà preveure nous articles d'altres qüestions i temàtiques (10 desembre 2004 – Dia dels Drets Humans).
- 2) Des de l'1 de gener de 2004 hauria d'estar operatiu el sistema de classificació del Forumsd. El proper informe anual de les sindicatures, que es presentarà a principis de 2005 hauria d'incloure el quadre normalitzat d'actuacions.
- 3) La comissió formada pels companys/es: Seseras, Ricardo, Puigderrajols, i Torrents, treballaran el dossier proposta de millora de la normativa legal.

- 4) Els síndics/ques dels Ajuntaments afectats per la nova llei de modernització, tindran en compte la proposta de coordinació acceptada i informaran de les novetats i les situacions que es puguin prendre en la seva població.
- 5) El Sr. Baulies, mantindrà els contactes per tal de veure les possibilitats d'integrar al Forumsd en algun organisme internacional d'ombudsmans.
- 6) Fòrum Barcelona 2004: El Sr. Martínez passarà la informació per a la inscripció en el diàleg "Drets Humans, necessitats emergents i nous compromisos". La Sra. Seseras queda nomenada com a interlocutora representant del Forumsd per al debat.
- 7) Es nomena com a coordinador del Forumsd 2004/2005 al Sr. Miquel Torrents, Defensor del Ciutadà de Manlleu. Sots-coordinador: Sr. Francesc Palacín. L'administració del Forumsd es mantindrà a Sta. Coloma de Gramenet.

**-Topaketa Greuges-eko Sindikoarekin. 2004ko abenduak 14.**

### **2.2.5 HARREMANAK VITORIA-GASTEIZKO UDALAREKIN**

Sindikoa-Herritarren Defendatzailea harremanetan jartzen da Vitoria-Gasteizko Udalarekin eta Udal Zerbitzuekin edo Sailekin, honako hiru modu hauetan:

#### **OSOKO BILKURETARA JOANAZ**

Vitoria-Gasteizko Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen Araudiko 1. artikuluarri jarraiki, Sindikoa Udalak antolatutako osoko bilkura askotan izan da, edo bere lantaldearen esku utzi du ardura hori. Eta hori guztia Udaleko Bilkurako zinegotzi guztiek hartutako erabakiak jatorriz ezagutzeagatik.

**- 2004ko maiatzak 24. Gobernu Lokala Modernizatzeko Batzordearen osoko bilkura.**

**- 2004ko ekainak 24 eta 25. Hiriaren egoerari buruzko saioak.**

**- 2004ko uztailak 16. Hiritarrak parte hartzeko Araudia onartzeko aparteko bilkura.**

**- 2004ko urriak 8. Memoria 03-04 aurkezteko aparteko bilkura.**

#### **BATZORDEETARA JOANAZ**

Vitoria-Gasteizko Udaleko zinegotziek osatutako informazio-batzordeetan izan da Sindikoa. Bilera horietan Vitoria-Gasteizko bizilagunei zuzenean dagozkien gaiak jorratzen dira. Gehienetan, Sindikoaren helburua izan da zinegotziak gaiak nola bideratzen dituztenaren inguruan ematen dituzten hitzaldiak eta iritziak ezagutzea.

2004ko martxoan hasi eta 2005eko otsailera bitarte (Memoria honen amaieran), honako hauen informazio-batzordeetan izan da Sindikoa:

**- Hezkuntza, Kultura eta Kirola.**

**- Modernizazioaren Lege Berrira Egokitzeko batzordea.**

**- Ingurumena.**



- **Hirigintza.**
- **Gizarte Zerbitzuak.**
- **Lehendakaritza.**
- **Hiritarren partehartzea.**
- **Ogasuna.**
- **PERI.**
- **Gizarte Zerbitzuak eta Lehendakaritza.**
- **Hirigintza.**
- **Ingurumena.**
- **PERI berraztertze batzordea.**

### **PARTE HARTZEKO KONTSEILUETARA JOANAZ**

Vitoria-Gasteizko Udalak deituta, Bulego hau Parte hartzeko Kontseiluetan izan da:

- **Berdintasunaren kontseilua.**
- **Irisgarritasunaren kontseilua.**
- **Hiritarrek Parte hartzeko kontseilua.**

### **BILERAK ZINEGOTZIEKIN, SAILEKIN,...**

Udalaren hainbat Saileko eta Zerbitzuetako arduradunekin harremanetan jarri gara, Sindiko honetan jasotako kexen inguruan hitz egiteko. Horrela, zuzenean ezagutuko baitute erabiltzaileak zergatik egin duen salaketa erakunde honetan.

Esaterako, hainbat bilera egin ditugu honako hauekin:

- **Alkatearekin.**
- **Hirigintzako ordezkari jaunarekin.**
- **Administrazio arloko ordezkari jaunarekin.**
- **Ogasun Saileko arduradunarekin.**
- **Udaltzaingoaren arduradunarekin.**
- **Funtzio Publikoaren Saileko arduradunarekin.**
- **Ingurumeneko ordezkari jaunarekin.**
- **Zerbitzu juridikoetako arduradunarekin.**
- **Idazkaritza Orokorrarekin.**
- **Eraikuntzen Erregimen Juridikoko Zerbitzuko arduradunarekin.**
- **Ingurumen Saileko arduradunarekin.**
- **Datuak Babesteko Agentziako zuzendariarekin.**
- **Kiroletako udal-zuzendari berriaren aurkezpenean izan gara.**
- **Suhiltzaileen nagusi berriaren aurkezpenean.**
- **Gizarteratze Zerbitzuko arduradunarekin.**
- **Gizartegintza Saileko zuzendariarekin.**
- **TUVISAko kudeatzailearekin.**
- **Bide Publikoen Zerbitzuko buruarekin.**
- **Ingurumen Zerbitzuko zuzendari eta abokatuarekin.**
- **Hiri Berrikuntzarako Eragintegiko arduradunekin.**

### **2.2.6 ZUZENeko IKUSKAPENAK**

Erabiltzaileak nahiz Administrazioak ematen dituzten dokumentazioak informazio osatuagoa izateko asmoarekin, Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak eta/edo bere taldeak zuzeneko ikuskapenak egin ditu. Hona hemen bisita eta ikuskapen horiek:

- Armentia gaina, bizilagunak kexu zirelako bide publikoak zikinak zeudela-eta. 2004ko maiatzak 19.
- Euskaltzaindia plaza (argazkiak atera genituen), ingurua egoera txarrean aurkitzeagatik. 2004ko maiatzak 19.
- Zumaia plaza, aisialdirako lokal berriek sor dezaketenez zarata-maila egiaztatzeko. 2004ko maiatzak 19.
- Fray Francisco parkea (argazkiak egin genituen), ateak irekitzea gomendatzeko. 2004ko maiatzak 9.
- Judizmendi parkea, inauguratu ondoren jarritako txistuak zer-nolako zarata ateratzen duen frogatzeko. 2004ko ekainak 14.
- José Mardones kalea, kale horretako oinezkoen pasabide bat hondatuta zegoela adierazteko egindako kexa zela-eta. 2004ko ekainak 14.
- Sierras Alavesas kalea, Anglo-Vasco kalearekin egiten duen izkina, hiritar batek proposatuta, zabor-edukiontzia lekuz aldatzeko aukerarik badagoen ikusteko. 2004ko ekainak 14. 2004ko irailak 24.
- Asteguietako Hipermekatu zaharreko aparkalekua (argazkia), zaborrak izugarri pilatzen ari direla egiaztatzeko. 2004ko ekainak 14.
- Etxebizitza partikular bat, AMVISAK gaizki jarritako ur-kontadore bati argazkia ateratzeko. 2004ko irailak 24.
- Florida Merkatuko igobidea (argazkia). 2004ko irailak 24.
- Blas de Otero kalea, oinezkoen pasabideak ikuskatzeko. 2004ko irailak 24.
- Jauregilanda kaleko jabetza pribatua (argazkiak), horma bat bota behar dela-eta. 2004ko urriak 28.
- Sierras Alavesas kalea eta Hortaleza plaza, edukiontzia jar ote daitezkeen ikusteko. 2004ko urriak 28.
- Autobus-geltokia, hiritar batek bere kexan adierazitako datuak egiaztatzeko. 2004ko urriak 28.
- Errege-Erregina Katoliko kalea, zaborrak biltzeko beste gune bat gomendatzeko. 2004ko urriak 28.
- Lovaina plaza, Katedraleko aparkalekurako sarreraren inguruan gomendio bat emateko. 2004ko azaroak 10.
- Sanmaniego kalea, gaizki jarritako estolderiaren inguruan gomendio bat emateko. 2004ko azaroak 17.
- Pintore kalea (argazkiak), autoen abiadura dela-eta, hiritar batzuek egindako adierazpenak egiaztatzeko. 2004ko azaroak 17.
- Ali auzoa (argazkia), etxebizitza baten aldamenen dagoen zuhaitzak sortzen dituen eragozpenak direla-eta egindako adierazpena frogatzeko. 2004ko azaroak 17.

-Pneumatikoak jasotzeko ontziak Alde Zaharrear, Arkupeen inguruan (argazkiak), bertako zikinkeria egiaztatzeko; eraikitzen ari diren hainbat eraikin salatu dituzte bizilagunek.

## **2.3 Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen ebazpenak, Sail bakoitzeko (gomendioak, gaitzespenak, baztertuak, deribazioak, orientazioak eta beste batzuk)**

### **2.3.1 HEZKUNTZA SAILA**

#### **2.3.1.1. HAUR ESKOLAK**

##### **a) Gomendioa**

- Udalaren Haur Eskoletan sartzea (Erreg. Zkia.: 405/04)

#### *Erreklamazioa*

Bulego honetan, hiritar askok kexa agertu dute 2004/05 ikasturtean Udalaren Haur Eskoletan sartzeko baldintzak direla-eta. Zehazki esanda, erabiltzaile batek Udal Eskola batean izena emateko eskaera egin zuen, alaba eskola horretan hasi nahi baitzuen, bere lanorduekin bat zetorren ordutegi finkoa zuela-eta. Baina Hezkuntza Sailak baremazioa egin ondoren, eta onartutakoen zerrenda argitaratutakoan, haurra plaza gabe geratu zela ikusi zuen gurasoak; haurra itxaronzerrendara pasa zen. Ekainaren 25ean plaza baten berri eman zioten, baina ordutegia eskatzaileak eskatutakoaren oso desberdina zen. Gainera, plaza hori onartu ezean, itxaronzerrendatik kendu egingo zutela jakinarazi zioten.

Eskatutakoa betetzen ez duelako, erabiltzaileak plaza horri uko egin ondoren, eskatu nahi du hiritarrek eskaeretan adierazten dutena kontuan hartzeko, eta, izatekotan ere, eskatzaileek eskatutako ezaugarri desberdinak dituzten plaza hutsak ez onartzean, barematutako itxaronzerrendetako hurrenkera ez aldatzeko.

#### *Azterketa*

Haur Eskola horietan matrikulatzeko arauak aztertu ditugu, eta Eskola horien Erabilerako Baldintza Orokorrek, alta eta bajen inguruan, honako hau diote: “onartzeko prozesua amaitutakoan edota ikasturtean zehar sor daitezkeen bajak beteko dira epe barruan jasotako eskaeren itxaronzerrendekin, puntuazioa zorrotz jarraituaz eta **eskaera-inprimakian familiak hautatutako aukeren arabera**”. Hori ikusita, kasu honetan eta beste askotan jakin badakigu hautatutako aukera horiek ez direla gehiegi kontuan hartzen.

Bestalde, plaza hutsei dagokienez, araudia osatu gabe dago; izan ere, plaza huts hori ez onartzean gertatzen diren ondorioak bakarrik arautzen dira, hau da, plaza horri uko egiten dion eskatzailea itxaronzerrendatik kentzea. Aldiz, erregulatu gabe dago

plaza huts horri uko egitearen egoera; alegia, haurrak eskolaratzeko hautatutako ordutegia izatea plazari uko egiteko arrazoia.

### *Ebazpena*

Egoera aztertu ondoren, azpimarratu nahi dugu Eskola horietako plazak esleitzerakoan, haurraren gurasoen edo tutoreen lan-egoera kontuan hartzen dela, baita haiek haurra zaintzeko dituzten eragozpenak ere duten lanordua dela-eta. Ondorioz, uste dugu egoera hori modu berean arautu behar dela plaza hutsak kudeatzeko garaian ere. Zehazki, eta kasu horretan, eskatu nahi dugu itxaronzerrendan dagoenak plaza huts bati uko egindakoan, ez dezatela itxaronzerrendatik kendu, uko egitearen arrazoia gurasoen lan-ordutegia eskolakoarekin bat ez etortzea baldin bada, behintzat.

Halaber, adierazi behar dugu egoera hori ez dela bakarrik gertatzen gurasoen ordutegia egokitzen ez denean, eta beraz, **kontuan hartu behar direla familiak eskaera-inprimakian hautatutako aukerak**; edonola ere, aukera horien arrazoiak baloratu beharrik gabe.

Hori dela-eta, aurreko guztian oinarrituta, Udalaren Hezkuntza Sailari, Udalaren Haur Eskolak planifikatzeko eta antolatzeko arduraduna izanik, honako **GOMENDIO** hau egin nahi diogu: kontuan har ditzala gurasoek eta/edo tutoreek beren eskaeretan adierazitako aukerak, haiek eskatutako baldintzak ez dituzten plaza hutsak eskaintzerako garaian. Eta plaza horiek ez hartzearen ondorioz, ez daitezela barematutako itxaronzerrendak aldatu.

- Udalaren Haur Eskoletako ordainketak itzultzea (Erreg. Zkia.: 426,430,438/04)

### *Erreklamazioa*

Sindikotik honetan izan dira Udalaren Haur Eskoletan haurrak dituzten hainbat hiritar eta guraso. Udalaren Haur Eskoletako hezitzaileak greban daudela eta, kezkatuta agertu dira Eskolak itxita daudelako urte honetako ekainaz geroztik, eta beraz, eskatu dute, gutxienez, eman ez dituzten zerbitzu horien ordainketaren zatia itzultzeko.

### *Azterketa*

Bulego honetan jaso dira Udalaren Haur Eskolak itxita egotearen ondorioz kaltetuak dauden hainbat familiaren keak. Kezkatuta daude, eta egoera zuzentzea nahi dute, Eskolak ahalik eta azkarren martxan jartzeko. Bitartean, ordea, berehalako irtenbidea bilatu nahi dute, eta eskatzen dute ekainean eskaini ez zaien zerbitzuagatik ordaindutakoa itzultzeko.

Aztertu ditugun kasu guztiak (Erreg. Zkia.: 405,426,430,438 / 04 ) ez dira berdinak. Batzuetan, Sailak ez ditu tasak kobratu, adierazi dugun ekitate-irizpide berarekin. Besteetan, ordea, denbora baino lehenagoko kasuetan, tasak kobratu ditu. Beraz, gure gomendioa egiterakoan, kontuan hartu behar ditugu bi kasuak.

Udalaren egungo Ordenantza fiskalak eta Prezio Publikoak, prezio publikoari dagokion udal zerbitzu edo jarduera bati dagokionean, **9. artikuluan** ondorengoa adierazten du: *“Prezio publikoa ordaindu behar duen pertsonari ez dagozkion arrazoiengatik jarduera burutzen ez denean, dagokion kopurua itzuliko zaio”*.

### *Ebazpena*

Esan daiteke zerbitzua edo “jarduera” ikasturte oso bezala hartu behar litzatekeela, baina ulertu behar dugu Zerbitzu Publikoaren erabiltzaileen interesekin zuzena eta errespetagarria den jokaera izango dela, Haur Eskolen kasuan, zerbitzua eskolara joaten diren egun bakoitzeko kontatzea. Bestela, Udala bidegabekeriaz aberats bihurtuko litzateke, eta zerbitzuaren erabiltzaileak kaltetuak izango lirateke.

Haur Eskoletan ez dute zerbitzurik eskaintzen hezitzaileak greban dauden bitartean. Zerbitzu-falta hori Udalari ezin bazaio egotzi, are gutxiago egotziko zaie kaltetuak diren gurasoei, hitzartutako zerbitzurik jasotzen ez baitute. Beraz, adierazitako arrazoi horien guztien eta kasuen arabera, ondorengoa erabaki dugu.

Hezkuntza Sailak Hezkuntza zerbitzuaren prestazioa **ez kobratzearen aldekoak** gara, zerbitzurik ematen ez duen egun bakoitzeko, eta **GOMENDIO** hau egin nahi dugu: Hezkuntza Sailak diru hori itzuli dezala edota etorkizunean egon daitezkeen ordainketen kuotekin berdindu ditzala zerbitzurik jaso gabeko egunak, erreferentzia gisa hartu dugun Ordenantzari jarraiki.

Erabaki horren ondoren, informazioa bidali diegu kaltetuei, hau da, hainbat hiritarri eta Udalaren Haur Eskoletan eskolak jasotzen dituzten haurren gurasoei, *Udalaren Haur Eskoletako hezitzaileak greban zeudela-eta, kezkatuta agertu baitziren urte honetako ekainaz geroztik Eskolak itxita zeudelako, eta horren inguruko irtenbide bat eskatzen zuten*. Ondorengoa jakinarazi zaie:

Eztabaida hau sortu zen 2004ko uztailaren 27ko Alkatearen Dekretua argitaratu zenean. Dekretuaren ondorioz, langileek beren lan-eskubideak aldarrikatzea erabaki zuten, horretarako greba eginaz. Hori dela-eta, Haur Eskoletan seme-alabak matrikulatuak dituzten gurasoak kaltetuak izan dira, modu batean edo bestean beren familia-antolakuntza aldatu baita.

Halaber, Sindiko honetan kexa agertu duten gurasoen eskaera Arartekoari bidali genion, eta Arartekoak bere txostena zabaldu zuen komunikabideetan.

Une honetan, Vitoria-Gasteizko Haur Eskolek ateak irekita dituzte azaroaren 2az geroztik, eta greban ia bi hilabete egon ondoren. Gelara itzultzearekin batera, haurrak klasera egokitzeke denboraldi bat hasi dute azaroaren 18ra bitartean. Ondoren, eguneroko ordutegiarekin jarraituko dute. Aurreko urteetan bezala, eskolak itxi egingo dira Gabonetan eta Aste Santuan. Udan, berriz, eskola batzuk uztailean irekiko dira, dagoen eskaeraren arabera.

Sindiko honek ezin izan du bitarteko gisa parte hartu Udalaren eta hezitzaileen artean hartutako erabakian, nahiz eta Udaleko talde politiko batek (EAJ-PNV) hala iradoki Udalbatzan. Ezin dugu gatazka batean bitarteko izan aurrez bi aldeen arteko eskaerarik eta akordiorik ez badago.

Dena den, gomendio bat egin dugu gai horren inguruan; hain zuzen ere, Haur Eskoletako zerbitzuaren erabiltzaileek eskubidea dutela zerbitzurik eman ez zaien egunetako prezio publikoaren zatia ez ordaintzeko.

Egun ulertzen dugu arazoa konpondu dela; izan ere, zerbitzua lanean normal ari da.

Sindikoa gomendia guztiz **onartu** da, ekainean ordaindutakoa itzultzeko eskatzen zen kasua izan ezik. Kasu horretan erabiltzaileari berraztertzeke idatzia egiten lagundu diogu.

#### **b) Gaitzespena**

- Udalaren Haur Eskoletako itxaronzerrendak (Erreg. Zkia.: 407/04)

##### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek ondorengo kexa agertu du Sindiko honetan: *hasieran eskatutako bigarren Eskolan plaza huts bat eskaini zioten, eta bizilagunak ez zuen plaza hartu. Hori dela-eta, beste eskaera batean lehen Haur Eskolako itxaronzerrendan egotea eskatu zuen, eta hori ukatu egin diote. Beraz, itxaronzerrendan ez egotearen arrazoia zein den jakin nahi du.*

##### *Azterketa*

Gai horri dagokionez, Vitoria-Gasteizko Udalak Haur Eskolen matrikulatze-arauen eta erabilera-baldintzen inguruan helarazitako informazioa aztertu dugu; ondorioz, erabiltzaileari jakinarazi nahi diogu araudiak plaza hutsen gainean ondorengo esaten duela: *onartzeko prozesua amaitutakoan edo ikasturtean zehar sortzen diren plaza hutsak itxaronzerrendarekin beteko dira, puntuazioa zorrotz jarraituz, eskatutako eskola edo eskolen arabera. Itxaronzerrendan egon eta plaza hutsa nahi ez dutenak itxaronzerrendatik kendu egingo dira.*

Beraz, adierazi behar dugu, batetik, erabiltzaileak bigarren eskola lehenetsi zuela, eta bestetik, Eskola horretako itxaronzerrendako plaza hutsa ukatu zuela. Orduan, dagoen araudia kontuan izanik, Administrazioak ez du itxaronzerrendatik kentzea beste aukerarik. Gainera, hori agertzen da Udalaren Haur Eskoletan 2004-05 ikasturtean sartzeko eskaera jasotzerakoan eman zioten matrikulatze-arauetan.

Kontuan izan behar da, alde batetik, Udalak ahalegin handia egiten duela Udalaren Haur Eskoletan materiala eta giza baliabideak jartzen; eta bestetik, zerbitzu horien eskaera ere izugarria dela. Hortaz, logikoa da plaza hutsa ez onartzean, Administrazioak itxaronzerrendako eskaera ezabatzea.

#### *Ebazpena*

Aurreko guztia ikusita, kasu honetan, adierazi behar dugu Udalaren jokaerak bat egiten duela legearekin eta Administrazioaren jardunbide egokiekin. Beraz, ezin dugu bizilagunak aurkeztu zigun kearen alde jokatu.

#### **c) Baztertua/ ez onartua**

- Udalaren Haur Eskoletako eskaeraren atzerapena (Erreg. Zkia.: 346/04)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek Sindiko honetara jo du Udalaren Haur Eskola batean semearentzako plaza eskatzeko; izan ere, salatu nahi du ez duela plaza aurkitzerik izan, berak eskatutako plazari erantzuna ematen Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Saila atzeratu egin delako.

#### *Azterketa*

Kexa aztertu eta dokumentazio guztia ikusi ondoren, ondorio bat atera dugu; atzerapenaren erruduna POSTA izan dela, alegia.

#### *Ebazpena*

Arrazoi hori medio, kexa **BAZTERTUA** izan da.

### **2.3.1.2 HEZKUNTZA ZERBITZUAK**

#### **a) Ofiziozko gomendioa**

- Udalekuetan izena emateko zerrendak (Erreg. zk.: 05/04)

#### *Erreklamazioa*

Udaleko Hezkuntza Sailak iragarri zuen jolas txoko eta udaleku irekietako lekuak (1.800 guztira) izen emateko hurrenkeraren arabera banatuko zirela. Hori dela-eta, herritar interesatuek ilara luzeak egin behar izan dituzte zerbitzua eskuratu ahal izateko.

#### *Azterketa*

Administrazio publikoa maiz baliatu da izen ematearen hurrenkeraz lehenetsun irizpide gisa, kudeatzaileentzat erraza eta eroso baita: leihatilan mekanikoki ebatzen da banaketa, gerora bestelako adjudikaziorik egin beharrik gabe. Hala ere, EZ da lekuak adjudikatzeko metodo egokia, ez baitira kontuan hartzen ez erabiltzaileen erosotasuna ez eta eskatzaileen arteko berdintasuna ere. Sistema horrek ilaretan egoteko denbora librean duten pertsonen baimenak ez die mesede egiten, eta gutxietsi egiten du jendeak udal leihatilen aurrean alferrik –eta benetako beharrik gabe– galdu behar duten denboraren balioa.

Lanaren antolamendu burokratiko orok jarduera planifikatzean zerbitzuen beren erosotasuna lehenetsiko joera du, erabiltzaile eta jasotzaileen erosotasuna kontuan hartu gabe. Mariano José de Larraren garaitik espainiar literaturaren topikoa dugu hemeretzigarren mendeko funtzionarioaren ustezko axolagabekeria eta nagikeria, zeinak bere leihatilaren atzeko babesean administratuen kezka eta ezinegonei entzungor egiten baitzien (Itzul zaitez bihar). Baina hemeretzigarren mendean zerbitzu publikoaz zuten ideia hori aspaldian gainditu zen. Gaur egun, erabiltzaileei erosotasuna eta erraztasuna eskaintzea zerbitzu publikoaren kontzeptuak kontuan hartu behar den irizpidea da, ahal dela.

Bestalde, gure inguruko beste administrazio batzuek JARDUNBIDE EGOKItzat jo daitezkeen ereduak ematen dizkigute. Esaterako, hona hemen foru administrazioak lekuak adjudikatzeko erabiltzen dituen oinarriak:

*Gaztediaren Foru Erakundek antolatzen dituen kanpainetan parte hartu nahi duten guztiek aukera berberak izan ditzaten, zozketa publikoa egingo da lekuak adjudikatzeko hurrenkera zehazteko.*

*Apirilaren 7an zozketa egingo da eskaerak zein hurrenkeratan hartuko diren kontuan zehazteko. Horrek ez du esan nahi lekua besterik gabe emango zaizula, baizik eta aukera hori duzula, leku guztiak banatu arte.*

*Izena eman duzuen guztiei gutun bat bidaliko dizuegu zozketaren egunean bertan, horren emaitza jakinarazteko. Beraz, ez deitzeko eskatzen dizuegu, ez bada apirilaren 28rako gutuna jaso ez baduzue. Gutunean zein egun-orduetan hartuko zaituztegun jakinaraziko dizuegu, bai eta zein tramite egin beharko duzuen ere.*

### *Ebazpena*

Horregatik guztiarengatik, **GOMENDIO** hau egiten dugu, oro har: udalak antolatutako jardueretarako deialdietan, eskaera eskaintza baino askoz handiagoa izango dela aurreikusten bada, adjudikazioa zozketa bidez egin dadila, sistema hori



eskatzaileentzat erosoagoa baita, eta egokiago errespetatzen baititu haien interesak. Azken batean, zerbitzu publikoa kalitate hobekoa izango da horrela.

Gomendio hori **partzialki onartu da**.

#### **b) Gaitzespena**

- Haur monitorizatua udal haurtzaindegira sartzea (Erreg. Zkia.: 323/04)

##### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko bizilagun bat bulego honetan azaldu da bere alabak, monitorizazioa behar duenez, haurtzaindegi batean sartzeko duen arazoagatik kexatzeko.

Andreak eskatu du antzematen duen gehiegikeria hori kontuan hartzeko.

##### *Azterketa*

Sindikoa Hezkuntza Sailari txosten bat eskatu dio, eta txostena aztertu ondoren, honako hau esan dezakegu:

Abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetako zerotik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak erregulatzen ditu. Dekretuaren helburuetariko bat da desberdintasunak zaintzeko eta konpentsatzeko hezkuntza sustatzea, bereziki, gutxietsitakoekin eta heziketa-premia bereziak dituztenekin kontu handia izanik, gabezia fisiko, sentsorial eta kognitiboak baitituzte. Horretarako, hainbat elkarteren eta erakunderen (Aldundia, ASPACE, APDEMA) arteko jarraipen koordinatua beharrezkoa izango da. Kasu honetan, ordea, haurrak ez du heziketa berezirik behar, baizik eta denboraldi bateko monitorizazioa, mediku-larrialdi batean sor daitezkeen osasun-arrazoia medio.

Kasu horretan, muga fisikoak ez ezik, ikastetxeetako irakasleen berezitasuna eta materialak ere, kontuan izan behar dira. Izan ere, osasun-arazoak dituzten hurrekin egoera bereziak sortzen dira; hau da, arrisku larria sor daiteke umeentzat, eta konpontzen zailak diren egoerak gerta daitezke, langileentzat erantzukizun handia izanik. Are gehiago, langile horien gaitasun profesionalaren bidez ezin bada behar bezala eskaini haur horiek behar duten osasun-arreta. Hori da gure kasua.

Osasun-arazoak dituzten haurren kasuan (kasu honetan), hau da, osasunarentzat arriskua dagoenean, hezitzaileen prestakuntzarekin ezin zaio haurrari behar duen osasun-arreta eman, ez baitira soilik hezkuntzako egokitzapenak eta laguntzak. Kasu horietan, eska litezkeen egokitzapenak ere ezingo liriateke bideratu ezta haurra/hezitzailea ratioa murriztuta ere, haurrak ez baititu hezitzaile osagarriak behar; bai, ordea, pertsonal sanitarioak (klinika-laguntzaileak, OLTak,...).

Gainera, gure ustez, haurra ondo egotea bilatu behar da. Hortaz, ikuspuntu horren arabera, neskatxaren osasuna da lehendabizikoa, Udalaren Haur Eskoletako hezkuntzaren gainetik.

Ondorioz, jaso dugun txostena eta aurreko guztia kontuan izanik, ondorio batera iritsi gara; hain zuzen ere, Udalak jokatu duela legearen estandarren, erreferentziazko Udal Administrazioen jardunbide egokien eta Vitoria-Gasteizko Udalak dituen langile eta materialen arabera.

#### *Ebazpena*

Horregatik, kexa hau **GAITZETSITA GERATU** da, Sindikoak bitarteko lanak egin eta gero.

### **2.3.2 KIROL SAILA**

#### **a) Orientazioa**

- Mendizorrotza igerilekuko hutsuneak (Erreg. Zkia.: 321-04; 322-04)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko hainbat igeriketa-klubeko ordezkariak Sindikoaren Herritarren Defendatzailearen bulegora jo dute, Mendizorrotzako igerilekuak estali zurruna duela adierazteko. Bestalde, Klubek igerilekuak erabiltzeko tasa aurreikusita zegoela-eta kexu agertu dira.

Igerilekuaren estali zurrunaren egoeraren inguruko informazioa eskatu dute; izan ere, askotan hitz egin dute Udalarekin, baina oraindik ez dute erantzunik jaso. Bestalde, klubei jartzen zaien tasa kentzea nahi dute, gehiegizkoak iruditzen baitzaizkie igerilekuen kableak erabiltzeagatik dituzten tasak.

#### *Azterketa*

Aurreko Memoriaren amaieran, espedientea zabalik geratu da, ebazpen bat eman arte.

#### *Ebazpena*

Erabiltzaileei Udalaren Kirol Sailak emandako informazioaren gaineko **orientazioa** eman zaie.

#### **b) Gaitzespena**

- Gamarrako eta Mendizorrotzako igerilekuetako kontrol-ofizialak (Erreg. Zkia.:381/04)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko Udaleko kontrol-ofizialek salatu dute igerilekuen udako kanpainarako ez dela azken oposizioetako lan-poltsa kontuan hartu, eta plazak kontrata bidez bete direla.

### *Azterketa*

Gaia aztertu ondoren, eta gure bulegoan egindako bileran aurreratu bezala, gobernu-batzordeak Gobernu Lokala Modernizatzeko Lege berriaren (57/2003 Legea) arabera jokatu du; legearen 127f) artikuluan adierazten da gobernu lokalaren batzordeak kontratuak egiteko eskumenak dituela.

2004 UDAKO KANPAINARAKO, MENDIZORROTZAKO KIROL-GUNEAREN ETA GAMARRAKO PARKEAREN KONTROLA kontratatzeko espedientea 2004ko apirilaren 23an eta 2004ko maiatzaren 19an onartu zen. Aurrez Zerbitzu Teknikoen txostenak egonik, Kontratazio-mahaiak Egunbide S.L. enpresak aurkeztutakoa esleitzeko proposamena egin zuen.

Kirol-gunearen kontrola kudeatzeko sistema zeharkako formula baten bidez (kontratazio bidez) aldatzea erabaki politikoaren edo aukerakoaren barne aurkitzen da, eta politikoki kritikatu izan daiteke, baina ezin da juridikoki gaitzetsi, ez eta administrazio-jardunbide egokien kasu zehatzean ere.

Ondo egongo litzakete erabiltzaileek kearen bat agertu duten ala ez jakitea, egun kontrola egiteko moduarengatik, beste batzuekin alderatzearen. Horrela izanez gero, balio dezake etorkizunean egingo diren kontratazioetarako.

### *Ebazpena*

Kexa **GAITZETSI** egin da, aurrean azaldutakoaren arabera.

## **2.3.3 GIZARTEGINTZA SAILA**

### **2.3.3.1 GIZARTERATZEA**

#### **a) Esku-hartzea**

- Ezinduentzako lana sustatzea (Erreg. Zkia.: 451/04)

### *Erreklamazioa*

Down-en sindromea elkarre batek Vitoria-Gasteizko Udalak adimen-urrituentzako lana sustatzeko nahia azaldu du.

### *Azterketa*

Bulegoan elkarte horretako ordezkari bat izan da, eta adierazi du Vitoria-Gasteizko Udalak zuzeneko edo zeharkako ezinduentzako lan publikoa sustatu behar lukeela.

Eskaera aztertu ondoren, ondorengo informazioa eman diogu erabiltzaileari:

*“Herri Administrazioek obligazioa dute urrimen bat duten eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonentzako lana sustatzeko eta bultzatzeko. Hori guztia pertsona horiek errazago gizarteratu daitezen, pertsona aktibo gisa parte hartu eta komunitatean baloratuak izatearren. Hori dela-eta, Vitoria-Gasteizko Udalak nahiz Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak uste dute neurri horiek eraginkorragoak izango direla, lanak udalerrri propioek eginda, herritarrengandik hurbilago dauden erakunde publikoak izategatik.*

*Egoera horren aurrean, Udala eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea 1998. urteaz geroztik hitzarmenak sinatzen ari dira udalerriekin, eta akordioak bilatu dituzte pertsona ezinduak (izan fisikoak edo psikikoak) gizarteratzen laguntzeko; horretarako, lanerako informazio- eta orientazio-programak egin dira, lanbide-prestakuntza eta birziklapen- planak eta beste hainbat jarduera udalerrietako lokaletan.*

*Akordio horren ondorioz, langileak kontratatu dira IFBSren esku dagoen INDESA enplegu-zentro bereziaren bitartez, eta langile horiek honako gizarte etxe hauek garbitzen dituzte:*

- *Europa gizarte etxe eta batzar-jauregia*
- *Iparralde gizarte etxea*
- *Lakuako gizarte etxea*
- *Hegoalde gizarte etxea*
- *Judimendiko gizarte etxea*
- *Ariznabarreko gizarte etxea*
- *Aldabeko gizarte etxea eta GAUEKOAK programa*
- *Amaia zentroa*
  
- *Lorategiak zaintzeko lana, batez ere Vitoria-Gasteizko Udalaren landa-guneetako, Arabako Foru Aldundiko IFBSren enplegu-zentro berezietako langile ezinduek egiten dute.*
  
- *San Prudentzioko Laguntza Unitatea eta Ciau Sukaldeko garbiketa-trena garbitzeko lanak eta Olarizu Zainpeko Apartamentuen gunearen garbiketa 36 pertsona ezinduk egiten dituzte.*

*Halaber, Vitoria-Gasteizko Udalak eta ASAFES elkarteak lankidetzaz hitzarmen bat dute pertsona ezinduak laneratzeko; horrela, pertsona horiek Arriaga gizarte etxeko eta Adurza zentro sozialeko garbiketa-lanak egiten dituzte.”*

Horrez gain, Udalaren Funtzio Publikoaren Sailak ondorengo jakinarazi digu:

*“Egun (2003ko apirileko azken txostena), %33ko gradua edo gradu handiagoa duten langile-buru hauek daude Udaleko plantilan:*

- *Langile finkoak % 1,64 (30 plaza) eta ez finkoak % 0,35 (2 plaza).*
- *2000ko OPEn pertsona ezinduentzako 35 plaza eskainiko dira (%7,41, legeak eskatzen duen gutxieneko %3aren parean). 35 plaza horietako 13 pertsona ezinduek bete zituzten; horrek esan nahi du plantilan sartutako %2,73 pertsona ezinduak izan zirela.*
- *Pertsona ezinduentzako sortu diren 32 plazatatik 20 1999. urteaz geroztik sortu dira.*

Azkenik, esan behar da, Gizarte Zerbitzuetako funtzioak banatzearen inguruko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren arabera, 3.1.2 artikuluan adierazten dela pertsona ezinduen ardura Aldundiek dutela alderdi guztietan:

- Mugikortasun-programa.
- Aisialdirako eta denbora librerako programa.
- Okupazio-zentroak.
- Eguneko zentroak.
- Familia-arrera.
- Egoitza-zerbitzuak.

Informazio hau esku artean izanda, jakin nahi genuke zure elkarteak dauden aukera horietakoren bat aplikatzeko proposamen zehatzik edo beste aukera berriren bat eskaintzerik baduen.

### *Ebazpena*

Modu horretan, eskatutako **ESKU-HARTZEA** burutu dugu.

#### **b) Baztertua/Ez onartua**

- CMAS, monitoreen arteko gatazka (Erreg. Zkia.: 411/04)

### *Erreklamazioa*

CMASeko monitore batzuk gure bulegoan izan dira, lantokian dituzten gatazkak konpontzen eta aurrera segi ez dezaten esku hartzeko.

### *Azterketa*

Udalaren Gizarteratze-zerbitzuko arduradunarekin eta Gizartegintza Saileko zuzendariarekin egon gara, eta adierazi digute kexa horiek dagozkien jurisdikzioan agertuak izan direla, eta une honetan ebazpen judizialaren zain daudela.

*Horregatik*, uste dugu kasu hori Sindiko honen egitekotik kanpo geratu dela, denboran finkatua egoteaz gain, dagokion Jurisdikzioan aurkeztua izan baita.

Zehazki, ulertzen dugu Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen Araudiaren arabera:

*26. artikulua:*

*“Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak kexak baztertu ahal izango ditu, ondorengo arrazoi hauek medio:*

*a)...*

*b)...*

*c)...*

*e) Epaitegietan eta Justizia Auzitegietan dauden gaiak.*

*...*

Hortaz, monitoreei jakinarazi nahi diegu, Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen Araudiko 26e) artikuluari jarraiki, eskatutakoa ezin dugula onartu, gaia epailearen erantzunaren zain aurkitzen delako.

*Ebazpena*

Aurkeztutako kexa **EZ DA ONARTUA** izan.

### **2.3.3.2 KOMUNITATE-EKINTZA**

#### **a) Gomendioa**

- Bizitzeko moduan ez dagoen etxebizitza, bertako zikinkeria eta bizilagunei egiten zaizkien enbarazuak direla-eta (Erreg. Zkia.: 317/03)

*Erreklamazioa*

Bizilagun bat Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen bulegora joan da, eta adierazi du bizi den jabekideen erkidegoan familia batek eraikineko gainerako bizilagunen eguneroko bizitza izugarri eragozten duela.

Gizarte Zerbitzuak parte hartzea nahi du, nolabait arazoa konpontzeko.

*Azterketa*

Erabiltzaileak elkarrizketa bat egin du Sindikoarekin-Herritarren Defendatzailearekin, eta kexa azaldu eta sinatu egin du. Bizilagunak adierazi du gainerako bizilagunen eguneroko bizitza aldatzen duela familia batek, familia beraren eta bizi diren etxearen higiene-faltarekin. Eta hori salatu nahi du.

Lehendabizi, Sindikoa Udalaren Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jarri da, eta salatutako familiaren gaineko txostena erakutsi digute. Gizarte Zerbitzua familia horri laguntzen ahalegindu da, baina familiak ez du onartu laguntza hori. Txostenaren arabera, familia horretan adin ertaineko emakume bat eta haren hiru seme (24 eta 35 urte artekoak) bizi dira; baita dozena bat etxeko animalia ere. Ez dute eguneroko bizitza “normal” aurrera eramaten, eta ez dute osasunaren jarraipen normalizaturik egiten. Horrez gain, gizartetik urrunduta bizi dira eta axolagabetasuna nabari zaie; gainera, familia ez da jabetzen inolako arazorik duenik.

Bestalde, Udalaren Osasun eta Kontsumo Sailari informazioa eskatu diogu, haiek etxebizitza horretan parte hartu duten edo ez jakiteko. Sailak txosten bat bidali digu, eta txostenean adierazten da hainbat ekintza burutu dituztela etxebizitza saneatzeko; izan ere, etxean hondakina besterik ez zegoen, eta jabeekideen komunitatean usain txarra sortzen zen.

Udaletik, hau da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik eta Osasun eta Kontsumo Sailetik, jasotako txostenak ikusita, Sindikoa-Herritarren Defendatzailea Auzitegiko fiskalburuarekin bildu da, familiaren egoera zein den azaltzeko eta familiako emakumeak ezintasunen bat ote duen jakiteko. Era berean, kolektibo desberdinekin ere bildu da; esaterako ASAFESekin, Gaixo Mentalen Elkartearekin, baita Jabetza-ganberarekin ere, ikuspegi orokorragoa izatearren, ebazpen bat egite aldera.

### *Ebazpena*

Udal-txostenen informazio guztia aztertuta, eta kolektiboekin izandako bileretan informazioa lortu ondoren, Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak **GOMENDIO** bat egin du; hain zuzen ere, salatutako familiako emakumearen egoera azter dadila, haren azterketa judiziala egin, eta semeak ere azter ditzatela, gizartetik urrunduta bizi baitira.

Gomendioaren ondoren, Jabetza-ganberak, Sindiko honetan kexa azaldu zutenen izenean, familia epaiketara eraman du, eta familiak gutxienez 3 urtez etxebizitza uzteko eskatu du. Aurreko Memoriaren amaieran, kasua epaiaren zain gelditu zen. Epaia eman da, eta gure GOMENDIOA PARTZIALKI ONARTU DA.

### **b) Orientazioa**

- Bizilagunen arteko bizikidetzaz arazoak eta GLL jasotzearen inguruko informazio-eskaera (Erreg. Zkia.: 351-04)

### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek adierazi du pisu bateko maizterrekin bizikidetasun-arazoak dituela.

Horrela, Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak parte hartzea nahi du, GLL jasotzen duten ala ez jakiteko eta haien portaera baldintzatzeko.

#### *Azterketa*

Erabiltzailea Sindikoarekin-Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu da, kexa azaldu eta sinatu egin du. Sindikoak jasotako dokumentazioaren arabera, erabiltzaileari gutun bat bidali zaio deribazioaren berri emateko.

#### *Ebazpena*

Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak erabiltzaileari Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jotzeko **ADIERAZI** dio, egoera baloratzeaz gain, informazioa eman eta neurri egokiak har ditzaten, hala komeni dela iruditzen baldin bazaie.

- Tratu okerra gizarte-langilearekin (Erreg. Zkia.: 413/04)

#### *Erreklamazioa*

Emakume batek salatu du *ustez gizarte-langile batek ez zuela behar bezala atenditu Vitoria-Gasteizko gizarte etxe batean.*

#### *Azterketa*

Erabiltzailearekin hitz egin ondoren, ikusi da emakumearen eta gizarte-langilearen arteko harremana ez zela zuzena izan.

Hori dela-eta, erabiltzaileari ondorengo informazioa helarazi zaio: *hiritar guztiek dute gizarte-zerbitzuetara jotzeko eskubidea: batetik, marjinazio sozialik eta desberdintasunik ez gertatzeko eta horien arrazoiak ekiditeko; bestetik, pertsona eta kolektiboan gizarteratzea bultzatzeko; eta azkenik, pertsona eta kolektiboak guztiz eta modu librean aurrera ateratzea errazteko, gizartearen egungo eredura egokituaz (Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legeko 1. art.).*

Era berean, Dekretu batek honako hau arautzen du: **“Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen eta bertako profesionalen Eskubideen eta Obligazioen Gutuna”**; halaber, garbi agertzen da zeintzuk diren gizarte-langileen nahiz erabiltzaileen betebeharrak.

Betebehar horien artean, betekizun bera dute Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileek zein horien erabiltzaileek; hau da, “Bizikidetasun-arauak betetzea”. Batak zein besteak bizikidetasun-arauak bete eta elkarrenganako errespetua izango dute Zentro eta Zerbitzuetan, pertsonen erabakiak errespetatuaz. Azken finean, bata zein bestea errespetu handiarekin eta behar bezala tratatuko dira.

Orobat, adierazi nahi diogu kexak eta iradokizunak aurkezteko prozedurak erabil ditzakeela Gizarte Zerbitzuetako antolakuntza eta funtzionamendua hobetze aldera. Erabiltzaile gisa, eskubideren bat urratu dela uste izanez gero, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko arduradunak entzun diezaiola, eta hala beharrez gero, berriz, baita Saileko zuzendariak ere.

#### *Ebazpena*



Esku artean dugun informazioa ikusita, ezin dezakegu zehaztu Udalaren Gizarte Zerbitzuek legez kanpoko ekintzarik edo ekintza oker eta behar ez denik burutu dutenik.

Hala eta guztiz ere, jakinarazi eta **ADIERAZI** nahi diogu, haren ustez, kexak bere eskubideen arabera atenditu ez diren kasuan eta kalte zehatz bat ziarra dezakeen kasuan, Sindiko-Herritarren Defendatzaile hau bere eskura dagoela, haren eskubideak defendatzearen, behar diren jarduerak burutzeko.

- Laguntza-eskaera (Erreg. Zkia.: 475/04)

#### *Erreklamazioa*

Hiritar behartsu batek gizarte-laguntzak eskatu ditu bere egoera hobetze aldera.

#### *Azterketa*

Kexa aztertu ondoren, informazioa eskatu diogu pertsona horri laguntza ematen aritu zaion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari. Hona hemen erabiltzaileari bidalitako erantzuna:

*“Espediente inaktiboa du Landatxoko Oinarrizko Zerbitzuan, eta espedientearen arabera, azken aldiz 2002ko urriaren 16an atenditu zuten.*

*Beraz, pertsona hori premian aurkitzen bada, dagokion Gizarte Zerbitzura jo behar luke, egokitzen zaion gizarte-langilearekin geratzeko, aurrez diagnostikoa egin eta bere egoera eta onarpenarekin bat datorren esku-hartze plana egite aldera”.*

Ondorioz, Santa Maria kaleko 4. zenbakian dagoen Landatxoko gizarte etxeke Oinarrizko Gizarte Zerbitzura (telefonoa: 945161687) joatea gomendatu diogu, bere egoera nolabait bideratzearen. Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko zailtasunak izanez gero, bulego honek lagunduko lioke beharrezko izapideak burutzen.

#### *Ebazpena*

Modu horretan **ORIENTATU** dugu erabiltzailea.

#### **c) Deribazioa**

- Ezinezkoa ordainketak ordaintzea gutxieneko pentsioa jasotzeagatik (Erreg. Zkia.: 348/04)

#### *Erreklamazioa*

Emakume bat kexu agertu da bulegoan: Vitoria-Gasteizko Alkatearengana joan zen eskaera bat egiteko asmoz, ordainagiriak ordaintzeko arazoak baititu, gutxieneko pentsioa jasotzen duelako.

Emakumeak Alkatearekin hitz egin nahi du bere arazo ekonomikoak konpondu ahal izateko.

#### *Azterketa*

Sindikoak adierazi dio Udalak hiriko gizarte etxeetan Gizarte Zerbitzuak izeneko zerbitzu egokia eskaintzen duela, arazo sozial, ekonomikoak edo kultur arazoak dituzten hiritarren eskaera guztiak bideratzeko.

Hori dela-eta, Alkatearekin egoteko eskabidea ez da egokiena arazo horretaz arduratzeko. Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalek (gizarte-langileek) arduratu behar dute erabiltzaileak egin behar dituen jarduerak orientatu, baloratu eta adierazteaz.

#### *Ebazpena*

Kasua Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei **DERIBATU** zaie, eta emakumeari bere etxetik gertuen duen zerbitzua non dagoen jakinarazi diogu.

#### **d) Esku-hartzea**

- GLL eskaeraren erantzunik ez (Erreg. Zkia.: 409/04)

#### *Erreklamazioa*

Hiritar batek ondorengoia salatu du: *Gizarte Zerbitzuek ez diote erantzunik eman berak egindako Oinarrizko Errenta eta GLL-ren eskaerei. Laguntza hori emango dioten ala ez jakin nahi du.*

#### *Azterketa*

Erabiltzailearekin elkarrizketa egin eta gero, Sailari txostena eskatu diogu, eta hona hemen hiritarrari jakinarazi dioguna:

*“Oinarrizko Errenta onartua du (569,48 Euro), 2004ko maiatzaren 13az geroztik, eta horren jakinarazpena 2004ko uztailaren 28an bidali zitaion.*

*Halaber, Gizarte-larrialdietarako laguntza bat du (112 Euro), 2004ko uztailaren 1az geroztik, eta horren jakinarazpena 2004ko abuztuaren 21ean bidali zitaion.*

*Oinarrizko Errentaren eta GLLren eskaerak ebazteko epea bi hilabetekoa da, eskaera egiten den egunetik kontatzen hasita.”*

Kasu horretan Administrazioak indarrean dagoen legearen arabera jokatu du.

#### *Ebazpena*

Modu horretan, bulegoak **ESKU HARTU** du, erabiltzaileak eskatutako informazioa jaso dezan.

### e) Gaitzespena

- GLLren murrizketa-atzerapena (Erreg. Zkia.: 359/04)

#### *Erreklamazioa*

GLL atzeratuta jasotzen ari dela-eta kexa agertu du erabiltzaile batek bulego honetan.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileak adierazi digu Gizarte-larrialdietarako laguntzarik ez duela jaso urte honetan zehar, eta gizarte-langileekiko harremana ere ez dela egokia izan. Era berean, Komunitate Jarduerarako Zerbitzuaren dokumentua agertu du minorazio horren gainean.

Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak espediente horri buruzko txostena eskatu dio Vitoria-Gasteizko Udaleko Gizartegintza Sailari.

Erabiltzaileari ondorengo jakinarazi diogu: idatziz deitua izan zen urte honen hasieran GLLak izapidetzeko, baina bera ez zen agertu. Berrero telefonoz gogoratu zioten laguntzen eskaerak berri behar zituela. Azkenik, GLLren eskaera aurkeztu zuen etxebizitzako beharrezko gastuak ordaintzeko.

Eskaera berrikustean, ikusi da emandako laguntza guztia ez zuela justifikatu 2003. urtean. Hori dela-eta, bi aukera proposatu zaizkio:

- Emandako laguntza justifikatuko duten ordainagiriak ematea, eta dagokion eskaera-dokumentazioa sinatzea.
- Edo bestela, justifikatu gabeko kopurua itzultzea, eta 2004. urtean emango zaionarekin GLLa itzultzeko konpromisoa sinatzea.

Gizartegintza Sailaren arabera, eskatzaileak ez zituen bi aukerak onartu, eta Udala GLLak ordaintzerakoan atzeratuta zebilela alegatu zuen.

Gainera, gizarte-langileekin egindako azken bileran jarrera bera agertu du, eta ez da batere saiatu laguntza horiek justifikatzen.

Ondorioz, Komunitate Jarduerarako Zerbitzutik kanpo geratuko da urte honi dagokion eskaera, eta aldi berean behar ez bezala jasotako laguntzak ordaintzeko espedientea irekiko da.

Ondoren, hau da, kexaren erantzuna hiritarrari bidali eta gero, erabiltzailearen gutun bat jaso genuen, eta kexa gehiago zehazteko eskatu zigun. Zehazki, honela gogoratu zigun: “gizarte-langileen aurkako kexa ere jarri zuen 199/1999 Legean agertzen ez diren funtzioak betetzeagatik” eta “inoiz ez zaio Gizarte Zerbitzuekiko dituen eskubideen berri eman; bai, ordea, betebeharren berri”. Jarraian bere zalantzak argitzen saiatuko gara.

Gizarte-langileek 199/1999 Legean agertzen EZ diren funtzioak betetzen dituztela eta agertutako kexari dagokionez, esan behar dugu, hain zuzen ere, 199/1999 Legean EZ direla gizarte-langileen eskumenak jasotzen, baizik eta gizarte-larrialdiko

laguntzak arautzen dituela Dekretu horrek. Aldiz, langileen funtzioak edo **GIZARTE ZERBITZUAK UZTAILAREN 30EKO 155/2001 DEKRETUAK** arautzen ditu. Zehazki, Dekretu horretako 4. artikuluan jasota daude **Udalaren funtzioak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuenak**. Gutunean ez dugu ulertzen zer adierazi nahi duen gizarte-langileek “zenbait funtzio” betetzen ez dituztela esatean; horregatik, funtzio guztiak zehazten dituen araudia erantsi diogu.

Bestalde, gutunean bigarren puntu bat ere aipatzen zuen; hots, *ez ziotela Gizarte Zerbitzuarekiko dituen eskubideen berri eman*. Hori dela-eta, **EUSKAL HERRIKO GIZARTE ZERBITZUEN ERABILTZAILAILEEN ETA PROFESIONALEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN GUTUNA** arautzen duen Dekretuaren laburpena bidali diogu.

Aitzitik, uste dugu kasu horretan udalaren jokaera egokia izan dela; beraz, ezin dugu aurkeztu digun kexa erabiltzailearen aldekoa denik esan.

#### *Ebazpena*

Kasu horretan, Administrazioak indarrean dagoen legearen arabera jokatu du. Hortaz, Bulego honen egitekoa hemen amaitu da, eta erabiltzailearen kexa **GAITZETS**Ita geratu da.

- GLL jasotzeko atzerapena (Erreg. Zkia.: 384/04)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko bizilagun batek salatu du *Udala GLLa ordaintzen atzeratu dela*, eta horren inguruko kexa sinatu du bulego honetan.

#### *Azterketa*

Bizilagunak Sindikoari adierazi dio gizarte-larrialdietarako laguntzarik ez duela jaso hiru hilabetetan (martxoa, apirila, maiatza).

Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak Vitoria-Gasteizko Udaleko Gizartegintza Sailari espediente horri buruzko txostena eskatu dio.

Hona hemen Gizartegintza Sailak 2004ko ekainaren 17an guri bidali eta hiritarrari helarazi diogun informazioa:

*“Laguntza hauek ematea atzeratu da agindu berria argitaratutako egunagatik (2004ko martxoak 18) eta egin behar diren izapideak oso nekezak izateagatik. Laguntza jasotzeko eguna aurreratu egin zitzaion agindua argitaratzeko egunari, eta martxoaren 18an agindua argitaratu eta gero aplikatu zen, eskaera bakoitza aurrez aztertu eta baloratu ondoren. Horrela, urtarrilari zegokion lehenengo ordainketa apirilaren 1ean egin zen (hiritar honek egun horretan urtarrila kobratu zuen); modu horretan, eskatzaileen %60ari erantzun zitzaion.*

*Maiatzaren 6an, berriz, urtarrileko eta otsaileko nomina osoak ordaindu ziren; maiatzaren 19an martxokoa ordaindu zen, eta maiatzaren 27an apirilekoa. Ordainketak modu horretan normalizatu ziren, eta ekainaren 4an maiatzari dagokiona ordaindu da.*

*Erabiltzaileari ordainketa horiek adierazitako egunetan egin zaizkiola frogatu dugu; beraz, ordainketa guztiak eguneratuta ditu.*

*Jasotzeko kopuruak aldatu direnez, pertsona horren egoera aztertuta, baliteke aurreko kopuruak jaso ez dituela ikustean, hiritar horrek ordaindu ez zaizkiola pentsatzea.*

Sailaren ustez, ordainketak behar bezala daude, eta hori horrela ez balitz, bizilagunaren kontu-zenbakia frogatzeko adierazi digute, akatsen bat gertatu den ala ez ikusteko.

#### *Ebazpena*

Kasu horretan, Udalak indarrean dagoen legearen arabera jokatu du; beraz, ezin dugu esan agertutako kexa hiritarraren aldekoa denik. Hori dela-eta, kexa **GAITZETSI** egin du Sindikoak-Herriarren Defendatzaileak; dena den, eskerrak eman nahi ditu erakunde jarritako konfiantzarengatik.

- GLLen murrizketa (Erreg. Zkia.: 375/04)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko emakume batek bulego honetan salatu du GLLei esker bizi dela, baina 1.200 euroko zorra sortu zaiola, laguntza horiek kalkulatzeko irizpideak aldatu direla-eta, jasotzen duen kopurua 245 eurotik 90 eurora gutxitu zaiolako.

#### *Azterketa*

Hiritarrak bulegora jo du *gizarte-larrialdietarako laguntzen irizpideak aldatu eta kopuruak gutxitu* dituztela salatzeke.

Sindikoak-Herriarren Defendatzaileak Vitoria-Gasteizko Udaleko Gizartegintza Sailari espediente horri buruzko txostena eskatu dio.

Hona hemen Gizartegintza Sailak 2004ko uztailaren 23an guri bidali eta hiritarrari helarazi diogun informazioa:

*“Erabiltzaileak 2003. urteko ekitaldian GLL (255,17€/hileko) jaso zuen, urtarriletik abendura bitartean, etxebizitzaren maileguaren interesa/amortizazioa kontzeptuagatik. Baina martxoan ebazpenaren berri idatziz eman zitzaion, eta 10. paragrafoan agertzen zen laguntzak murrizteko aukera zegoela, aurrekontuaren arabera, eta gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzen dituen 199/1999 Dekretuaren arabera.*

*Urte bereko azaroan, Gizarte Gaien Arloko zinegotzi-delegatuaren urriaren 31ko ebazpena jakinarazi zitzaion: GLLak %33 murriztuko ziren, eta urria/abendua hilabeteetan kopurua txikiagoa izango zen.*

*2004ko urtarrilean, berriro Gizarte Gaien Arloko zinegotzi-delegatuaren abenduaren 22ko ebazpena jakinarazi zitzaion. Oraingo honetan, aurreko ebazpeneko lehen puntua atzera bota zen; horrela, 2003ko urritik abendurako kopuruaren %68 ordaintzea onartu zuten.*

*Kopurua murriztea Eusko Jaurlaritzaren 2004ko aginduan jasota dago. Erabiltzaileak BOEko etxebizitza bat erosi zuen, eta aurreko urteetan bezala, GLL eskatu zuen maileguaren interesa/amortizazioa ordaintzeko. Dena den, 2004ko Aginduaren aldaketa bat 2. artikuluko 1b atalean jasotzen da: < Eusko Jaurlaritzak edo beste Herri Administrazioek edo horien menpeko erakundeek sustaturiko babes ofizialeko etxebizitzak direnean, ez da GLLrik emango etxebizitza erosteagatik sortutako maileguen interesak eta amortizazioak ordaintzeko, baldin eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek gastu eraginkorrik ez dagoela ziurtatzen badute.>*

*Aldi berean, Udalak, hiritarrekiko arreta homogeneousatzeko asmoarekin, barne-araudian ondorengo ezarri zuen:< Babes ofizialeko etxebizitzaren (BOE) kasuan, erosketa-kontzeptuan, kopurua 270 € baino gehiagokoa bada, kontzeptu horrentzako irizpide orokorrak aplikatuko dira. Aldiz, 270 € edo gutxiago ordaindu behar badira, ez da GLLrik emango maileguen interesak eta amortizazioak ordaintzeko. Etxebizitza horietan, eskatzaileari eskainiko zaio etxebizitzaren mantentze-lanak izapidetzeko aukera.>*

*Ondorioz, une honetan erabiltzaileak 2004ko urtarriletik abendura bitarteko GLLak jasoko ditu mantentze-lanengatik.”*

### *Ebazpena*

*Kasu horretan, Udalak indarrean dagoen legearen arabera jokatu duenez, Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak kexa **GAITZETSI** egin du.*

- Gizarte-laguntzako etxebizitzaren eskaera (Erreg. Zkia.: 435/04)  
*Erreklamazioa*

*Erabiltzaile batek, egun duen familia-egoera dela-eta, gizarte-laguntzako etxebizitza bat eskuratzeko aukerarik izango lukeen jakin nahi du.*

### *Azterketa*

*Egun, gizartearen erronkarik zailenatariko bat etxebizitza duin bat izatea da. Eskaintza eta eskaeraren arteko desorekak ez ezik, bereziki azken urteetan prezioak*

igotzeak ere, zaildu egiten du biztanleen zati handi batek eskubide hori izatea (batik bat, gazteak).

Horren inguruan, erakundeek eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren bitartez, hainbat neurri hartu dituzte desoreka leuntzeko asmoz. Horretarako, etxebizitza librea sustatu dute, errenta babestuan jartzeko. Neurrien artean, **BIZIGUNE programa** aipatu behar da, hau da, Euskadin hutsik dauden etxebizitzak mugitzeko programa aitzindaria; merkatu libreko etxebizitza bat erosteko nahikoa baliabide ekonomiko ez duten pertsonen zuzendua dago. Ordaintzeko gehienezko errenta ez da familiak jasotzen duenaren %30 baino handiagoa izango. Gizarte-laguntzako etxebizitza bat alokatu nahi izanez gero, **Etxebiden** izena eman behar da, eta eskaeran adierazi etxebizitza hutsen programan parte hartu nahi dela. (*BIZIGUNEren doako telefono: 900 251 251*)

Vitoria-Gasteizen, **Vitoria-Gasteizko Etxebizitzaren Bulegoa** arduratzen da hiriko etxebizitzaren aholkularitzaz. Zerbitzuak, orokorki eta modu pertsonalizatuan, erosteko edo alokatzeko prozesu guztiaren ardura du, kontuan hartuz legearen alderdiak eta izapideak, alde fiskalak, finantzazioa eta eraikuntza. Bulegoaren helburua da merkatu higiezinaren funtzionamenduaren Behatoki iraunkorra izatea, merkatu hori etengabe hobetuz joateko. Bulegoan Administrazio desberdinek (Estatukoak, Autonomikoak eta Bertakoak) etxebizitzak erosteko, alokatzeko edo berritzeko eskaintzen dituzten laguntzei buruzko informazioa emango dizute. Etxebizitza alokatu nahi duten hiritarrak eta alokairuan eman nahi dutenak harremanetan jartzea da beste helburuetariko bat. Hona hemen bulegoaren helbidea: *“Vitoria-Gasteizko Udalaren Etxebizitzaren Bulegoa”, Espainia plaza 8, baxua bis.*

Halaber, badugu beste zerbitzu bat: **VITALALQUILER** delakoa, hain zuzen. Caja Vital-Kutzak gazteek alokatzeko etxebizitza batzuk sustatzen ditu. Erakundeak bi partzela erosi dizkio Udalari Salburuan eta Zabalganen. Alokatzeko etxebizitzaren sustapen berri honetan 489 pisu eskaintzen dira, eta horien batez besteko errenta hileko 250 Eurokoa da; batik bat, 35 urtez beherako pertsonentzat izatea nahi dute. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo ezazu *Caja Vital-Kutzak Vitoria-Gasteizen duen edozein bulegora.*

*Esan bezala, hiritarrak etxebizitza errazago eskuratzeko hainbat neurri ditu Vitoria-Gasteizko Udalak, baina pisuak esleitzeko garaian ez du erabateko askatasunik. Horregatik, **ezin dugu zure kexa onartu**, gizarte-laguntzako etxebizitza alokairuan ematea, alegia. Izan ere, egoera berean aurkitzen diren gainerako hiritarrek bezala, etxebizitza horien zozketan parte har dezakezu.*

*Ebazpena*

Informazioa eman bai, baina zure eskaera **GAITZESTEA** beste aukerarik ez dugu.

- Pertsona ezinduen gainerako informazioa (Erreg. Zkia.: 506/05)

### Erreklamazioa

Hiritar batek honako hau adierazi du gure bulegoan: *udal zerbitzuetan ez zuen informazio zuzena jaso; ondorioz, informazio gehiago eskatzen du, baita pertsona ezinduentzako Vitoria-Gasteizen dauden zerbitzuei, eskubideei eta abarri buruzko dibulgazio-kanpainak egitea ere.*

### Azterketa

Alde batetik, adierazi du udal zerbitzuek **ez ziotela informazio zehatza eskaini, %33 baino gehiagoko zirkulazioaren gaineko zerga pertsona ezinduek ordaintzearen inguruan galdetutakoan**. Moralki, arrazoia izan dezake, baina iazko zirkulazioaren gaineko zerga ordainduta edukiz gero, ez dago atzera bueltarik. Udalaren Ordenantzaren arabera, “interesatu gisa, pertsonalki salbuespena eskatu behar zuen, baina eskatu ez zuenez, legez ordainketa jada burututa dago”.

Bestetik, erabiltzaileak komenigarria ikusten du Udalak informazio gehiago ematea **persona ezinduek hirian dituzten eskubideen** inguruan. Horren ardura Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak duela esan behar da.

Hala ere, jakinarazi nahi diogu pertsona ezinduek arduratzen diren edozein Elkartera jo dezakeela, nahi duen informazio guztia lortzeko. Gainera, informazio-liburuxka bat erantsi diogu, “Zurekin Zuzenean” Arabako Ezindu Fisikoen Elkarteak aldizka argitaratzen duena; bertan gaiari buruzko edozein zalantza argitu ahal izango du.

### Ebazpena

Beraz, zure kexa **GAITZETSITA** geratu da.

#### **f) Baztertua/Ez onartua**

- Ostatu-gastuetarako gizarte-larrialdiko laguntzaren murrizketa (Erreg. Zkia.: 367/04)

### Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko bizilagun batek Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen bulegora jo du ostatu-gastuak ordaintzeko emandako gizarte-larrialdiko laguntza gutxitu diotela salatzen.

### Azterketa

Sindikoarekin-Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketa egin du; kexa adierazi eta sinatzeaz gain, kexaren inguruko dokumentazioa aurkeztu du.

Kexa eta emandako dokumentazioa aztertu ondoren, esan behar dugu kasua ez dagoela udal-zerbitzuen esku; izan ere, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2004ko martxoaren 10eko aginduan jasotzen dira 2004. urterako GLLetan agertzen diren gastu zehatz bakoitzerako emandako gehienezko kopuruak, eta esaten da Eusko Jaurlaritzak duela eskumena gai horretan.



Bulegoa Fiskaltzarekin bildu da hainbat gaiez aritzeko eta, bide batez, gaiaren berri Gizarte Zerbitzuen bitartez izateko.

### **Ebazpena**

Kexa **EZ DUGU ONARTU**, gure ustez, Sindikoak zuzenean zerbait egiteko moduko eskaera zehatzik ez dagoelako, ezta hiritarrari kaltea egiten dion Udal Sailik ere; Udalaren Gizartegintza Saila gizarte-laguntzak izapidetzeaz arduratzen baita eta ez horiek arautzeaz.

- Etxebizitza bateko gela alokatzeko GLLren murrizketa (Erreg. Zkia.: 393-04)

### *Erreklamazioa*

Hiritar batek honako kexa hau agertu du Sindikoan: *ostatu-gastuak ordaintzeko gizarte-larrialdiko laguntza gutxitu diote (270€urotik 154€urora hilean), bere etxebizitzako gela bat berriro errentan emateagatik.*

GLLko kopurua zergatik jaitsi dioten jakin nahi du bizilagunak.

### *Azterketa*

Kexa eta emandako dokumentazioa aztertu ondoren, esan behar dugu Vitoria-Gasteizko Udalaren jokaera ezin dela gaitzetsi, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2004ko martxoaren 10eko aginduaren arabera jokatu duelako; izan ere, agindu horretan jasotzen dira 2004. urterako GLLetan agertzen diren gastu zehatz bakoitzerako emandako gehienezko kopuruak, eta esaten da Eusko Jaurlaritzak duela eskumena gai horretan.

Halaber, aginduan agertzen da urte horretako banako eta/edo familiaren alokairuaren gehienezko kopurua 270€urokoa izango dela, baina erabiltzaileak bere etxebizitzako gela bat suberrentan ematen duenez, Aginduaren arabera hori ere kontuan hartu behar da laguntzak ematerakoan.

Udalaren Gizartegintza Saila gizarte-laguntzak izapidetzeaz arduratzen da soilik, eta ez horiek arautzeaz; Autonomia Erkidegoko Administrazioak definitu eta arautzen ditu gizarte-larrialdiko laguntzak.

### *Ebazpena*

Beraz, hiritarrari jakinarazi diogu Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen araudiaren arabera *kexa* **BAZTERTU** behar dugula, Udalak administrazio-jardunbide egokien aurkako bidegabekeriarik burutu ez duelako.

### **g) Erabiltzaileak itxita**

- Arazoak GLL-eskaera medio (Erreg. Zkia.: 303-03)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko bizilagun batek Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen bulegoan adierazi du laguntza eskatu zuela etxebizitzaren alokairurako. Laguntza, ordea, 2003ko azaroan ukatu zioten, dokumentazio guztia ez aurkezteagatik.

Hiritarrak zergatik laguntza ukatu dioten ulertzen ez duenez, aholkatzeko eskatu digu.

#### *Azterketa*

Erabiltzailearekin egindako bileran, gizarte-laguntzak ukatu dizkiotela adierazi digu eta ez diotela behar den bezalako azalpenik eman.

Gizarte-zerbitzuek eskatutako dokumentazioa erakutsi digu erabiltzaileak, eta ohartu gara eskatzen dioten alokairuaren kontratua ez dagoela behar bezala beteta.

#### *Ebazpena*

Sindikoa-Herritarren Defendatzaileak zer-nolako dokumentazioa aurkeztu behar duen **ADIERAZI** dio. Erabiltzaileak izapideak egiten jarraituko du, eta emaitzaren berri emango digu, baina Bulegoarekin kasua itxita utzi du.

### **2.3.3.3 HIRUGARREN ADINA**

#### **a) Gaitzespena**

- Zainpeko apartamenduaren eskaera ukatua (Erreg. Zkia.:441/04)

#### *Erreklamazioa*

Sindiko honetan emakume batek *bere aitarentzako Zainpeko apartamendua ukatzea salatu du, eta ukatze hori berrikustea nahi du.*

#### *Azterketa*

Emakumeari ondorengo jakinarazi diogu: Zainpeko apartamenduak, egoera fisiko eta psikikoa dela-eta, programaz kanpoko laguntzarik behar ez duten pertsona helduentzako dira, etxebizitza zaharra izateagatik edo bizikidetzaz arazoengatik beren etxebizitzan egoteko arazoak dituztenentzako, edo etxebizitza utzi behar eta ekonomia-, familia- eta/edo gizarte-baliabiderik ez dutenentzako. (Araudiko 3. art.).

Beraz, hiritarrari adierazi nahi diogu, Erakunde honetan izandako elkarrizketaren arabera, bere aita ez dela aurreko egoera horietakoren batean aurkitzen. Zehazki, **“Pertsona Helduentzako Zainpeko Apartamenduetarako sarrera- eta funtzionamendu-baldintzak arautzen dituen Araudia”**ren arabera, *aitak apartamenduan bakarrik bizitzeko moduko egoera fisiko eta psikikoa izan behar du, Araudiko 3. artikuluan ezarritakoari jarraiki.*

Emakumeak adierazi digu aitari Alzheimer gaixotasunaren hasiera diagnostikatu diotela. Gaixotasun horren prozesua luzea da, baina halabeharrezkoa. Geriatria espezializatu batek diagnostikatzen duen gaixotasun hasiberria da, dagozkion probak eta mediku-txostenak egin eta gero.

Horregatik guztiagatik, Udal Zerbitzuek Zainpeko apartamenduaren eskaera ukatzea arrazoitzen da, laguntza-mota horiek emateko irizpideekin bat baitator. Beraz, ezin diogu Udalari bidegabekeriarik edo administrazio-jardunbide txarrik gotzi.

Kontuan izan behar da, Zainpeko apartamenduak kudeaketa zaileko baliabide eskasak direnez, adinez aurrera joanagatik, baldintza fisiko eta mental onak izanik, beren kasa baliatzeko gai diren pertsona helduentzat izan behar dutela.

**Horrek ez du esan nahi Administrazio desberdinek kudeatzen dituzten programetan beste baliabide edo laguntza batzuk bilatu behar ez dituztenik: besteak beste, etxez etxeko laguntza eta TEPAS.**

Esate baterako, 70 urtez gorakoek igogailurik gabeko etxebizitza edo sartzeko zailtasunak dituen izan eta beste bat lortzeko atera den berriaren inguruko informazioa emango dizugu:

*“70 urtez gorako pertsonen Babes Ofizialeko Etxebizitza lortu ahal izango dute Euskal Herrian, aurrez jabetzako etxe bat izanda ere. Horretarako, igogailurik gabeko edo sarrera zaileko etxebizitza izango da jabetzan duena. Hori da Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren xedea, mugikortasun-arazoak dituen sektorearen “isolamendua” errotik kentzeko. Espainian hartu den lehendabiziko neurria da: babestutako etxea eta onuradunen jabetzako truketzea da kontua, inolako pizgarri ekonomikorik gabe. Babestutako etxebizitzaren zozketan ez dute lehentasunik izango, baina zozketan parte hartu ahal izango dute, haien etxebizitzak sartzeko arazoak eskaintzen dizkietenean, eta hori egiaztatzeko Aldundiak txosten bat egiten duenean. Eusko Jaurlaritzak “trukearen bitartez” lortuko dituen etxebizitzak Etxebiden izena emandakoan artean zozketatzeko gordeko dira, gazteentzat edo sartzeko arazorik ez dutenentzat”.*

*Azterketa*

Hori dela-eta, zure kexa **GAITZETSI** egin dugu.

#### **2.3.3.4 ENPLEGUA**

##### **a) Gaitzespena**

- DBLO aplikatzea lan-eskaintzan (Erreg. Zkia.: 488/05)

*Erreklamazioa*

Erabiltzaile batek Sindikoan ondorengoa salatu du: *ARGILANEKO lan-eskaintza batean aurkeztu zen, curriculumik gabe, eta soilik amaren etxeko telefonoa eman zuen; amari telefonoz deitu zioten lana ez ziotela emango jakinarazteko. Hiritarrak Datuak Babesteko Lege Organikoa kontuan hartzea nahi du eta bere datuak gordetzea.*

*Azterketa*

**Norberaren Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legeak** “kaltetuaren baimenaren” inguruan honako hau dio:

#### 6.2. artikulua

Baimenik ez da behar ondorengo kasuetan: batetik, norberaren datuak Herri Administrazioen funtzioak beren eskumenen arloan betetzeko ematen direnean; bestetik, negozio-, lan- edo administrazio-kontratuaren edo aurrekontratuaren kasuan, eta

*datuak kontratu hori betetzeko beharrezkoak direnean; baita ere, datuen erabileraren xedea interesdunaren interesa babestea denean, Lege horretako 6. atalean agertu bezala; edo azkenik, datuak publikoak eskuratzeko moduko iturrietan agertzen direnean eta haiek erabiltzea beharrezkoa denean fitxategiko arduradunaren edo datuak jakinaraziko zaizkion hirugarren baten interes legitimorako, betiere, interesdunaren oinarritzko eskubideak eta askatasuna urratzen ez badira.*

Esan behar dugu erabiltzaileak berarekin **harremanetan jartzeko** bere telefono-zenbakia bakarrik eman zuela, curriculuma aurkeztua derrigorrezkoa bazen ere. Hori dela-eta, Vitoria-Gasteizko Udalak (Argilanek) bide bakar hori erabili zuen bere eskumena betetzeko; alegia, erabiltzaileari lanpostua emango ez ziotela jakinarazteko.

Horrelako egoeratan, kontratazioa egin beharrak informazioa emateko prozesua aurrera dezake, eta informazioa erabiltzaileak emandako biderik azkarrenetik jakinarazten da.

Ondorioz, aurreko guztia ikusita eta dagokion araudia aztertuta, gure ustez, kasu horretan, Udalak legearen eta administrazio-jardunbide egokien arabera jokatu du.

*Ebazpena*

Aurkeztutako kexa **GAITZETSI** egin da.

### **2.3.4 LEHENDAKARITZA SAILA**

#### **2.3.4.1 EUSKARA ZERBITZUA**

##### **a) Gomendioa**

- [Gurasoentzako euskara ikasteko beka](#) (Erreg. zk.: 366/04)

*Erreklamazioa*

Herritar batek gure bulegora jo zuen kexa hau adieraztera: ikastolan seme-alabak dituzten gurasoei zuzendutako euskara ikastaro bat egin zuen Iparralde gizarte etxean eta matrikula murrizteko eskatu zuen, baina ezin izan zen onura horretaz baliatu.

2004ko martxoaren 10ean eskatzaileak idazki bat aurkeztu zuen Kultura Sailean (Euskara Zerbitzura zuzenduta zehazki), gurasoentzako euskara ikastaroan matrikula murriztua ezartzeko eskatzeko. Sailak erantzun zion ezinezkoa zela eskaera onartzea, ez baitzituen ikastaroa merkeago ateratzeko beharrezko agiriak aurkeztu, hau da, 2002-2003 ikasturtean umeari beka emateko ebazpenaren fotokopia edo familia ugariaren adierazpenaren fotokopia.

Aitak, ordea, ezin zituen agiri horiek aurkeztu, semeak bera matrikulatu zen ikasturte bererako lortu baitzuen beka, alegia, 2003-2004 ikasturterako.

*Aztarketa*

**2003-2004 ikasturtean gurasoentzako euskara klaseak antolatzeke araudia** aztertu dugu eta egiaztatu dugu matrikula murriztuaz baliatzeko aipatu agiriak eskatzen direla: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak edo Vitoria-Gasteizko Udalak aurreko ikasturtean (2002-2003 kasu honetan) haur hezkuntzan nahiz lehen edo bigarren hezkuntzan matrikulatutako seme-ari edo alabari beka esleitzeko emandako ebazpenaren fotokopia.

Onura semeak edo alabak aurreko ikasturtean lortu duen bekarekin lotzean, gurasoak ikasteari ekiten dion lehen urteak eta semeak edo alabak ikasten hasten diren urteak bat egiten dutenean gurasoa ezin da murrizketaz baliatu, ezinezkoa baita umeak aurreko urtean beka lortzea. Horrenbestez, seme-alabak egiten ari diren ikasturtean beka lortzen badute ere, gurasoek ezin dute matrikula murrizketarik lortu ikasturte horretarako, laguntza hurrengo urtera mugatzen baita. Hori dela-eta, umeak lehen ikasturtean dituzten guraso guztiak euskara ikasteko matrikula murriztuaren aukerarik gabe geratzen dira.

#### *Ebazpena*

Egoki deritzegu gurasoentzako euskara klaseen programaren helburuei, euskara seme-alabekiko komunikazio hizkuntza bihurtuta eskolako ikasketak indartu nahi baitira, baina uste dugu oraingo sistema ez dela logikoegia. Izan ere, matrikula murriztua seme-alabek aurreko ikasturtean beka lortu izanarekin lotzean eta dokumentazio hori eskatzean, ume-ari beka egiten ari den ikasturterako lehenengo aldiz ematen zaionean gurasoak onuraz baliatzeko aukerarik gabe geratzen dira.

Horrenbestez, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudian aurreikusitako eraginarekin, **GOMENDIO** hau egiten diogu Euskara Zerbitzuari: gurasoentzako klaseen helburua kontuan izanik, hurrengo araudietan matrikula murriztua lortzeko araua alda dezan, eta seme-alabak ikasten ari diren ikasturterako beka lortzea izatea irizpidea, hori baita gurasoen ikaskuntza eta seme-alaben eskola egoera lortzeko erarik egokiena. Gurasoen eta seme-alaben ikasturtea bera izateak antolakuntza arazo larriak sortzen ez baditu, behintzat.

Gomendioa onartu egin da, eragindako Sailaren iritziz, familiaren egoera hobeto azaltzen baitu, gurasoen eta seme-alaben egunak bat egitean.

- Alde Zaharreko kaleen izenak (Erreg. Zkia.: 378/04)

#### *Erreklamazioa*

Hiritar batek gure bulegoan salatu du Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreko kaleen euskal izenak gaizki jarrita daudela errotuluetan.

#### *Azterketa*

Kexa hori aurreko Memorian ere agertu zen, baina gehiago luzatuko dugu Memoria honetan. Garai hartan, gaiaren gaineko gomendioa egin zen, eta honako txosten hau helarazi diogu erabiltzaileari:

*“Garai hartan esan bezala, galdaketa berezia eskatzen duten kartelak dira, eta dagoeneko aurkitu dugu horiek galdatuko dituen enpresa. Lehen, Hirigune Historiakoaren Zerbitzuak diseinatu eta kontratatu zituen eta, egun, Hiria Berreskuratzeko zerbitzuaren lana da hori. Behar diren plakentzako aurrekontua egiten ari gara.*

*Gutziz ados gaude teknikoki arazo hori konpontzearekin, baina Udalak horretarako egindako aurrekontuak aginduko du.”*

#### *Ebazpena*

Beraz, aurreko memoria agertutako **gomendioa ONARTU** dela esango dugu.

#### **b) Gaitzespena**

- Gurasoentzako euskara-ikastaroak eta GLL (Erreg. Zkia.: 444/04)  
*Erreklamazioa*

Emakume batek eskatu du *8. maila duten gurasoentzako Euskara Sustatzeko Jardueran tarifa murriztua aplikatzeko, ikasturteko matrikula ordaintzerik ez duelako.*

#### *Azterketa*

Kexa aztertu ondoren, ikusi dugu gurasoentzako 2004-2005 ikasturteko euskara-ikastaroetan eskatzen den baldintza betetzen duela:

- Haur, Lehen edo Bigarren Hezkuntzan seme-alabaren bat matrikulatua izatea.

Baina jakinarazi nahi diogu hori ez dela tarifa murriztua ez aplikatzearen arrazoia, baizik eta urte honetako bekarik ez aurkeztu izatea. Izan ere, **gurasoentzako 2004-2005 ikasturteko euskara-ikastaroak arautzen dituzten arauetan** esaten da matrikula murriztua ordaintzen dutenek Vitoria-Gasteizko Udalak edo Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikasturte honetan seme-alabari emandako bekaren ebazpenaren kopia aurkeztu behar dutela; alegia, Haur, Lehen edo Bigarren hezkuntzan 2004-2005 ikasturtean matrikulatutako haurrari emandakoa.

Aurreko urteetan, matrikula murriztua lortzeko aurreko ikasturteko beka eskatzen zen, eta modu horretan urte berean beka lortutako seme-alaben gurasoek ezin zuten matrikula murriztua aprobetxatu urte horretan, laguntza horrek hurrengo ikasturterako balio baitzuen. Hori dela-eta, lehendabiziko urtean hasten ziren seme-alaben gurasoek ezin zuten euskara-ikastaroko matrikula murrizturik izan.

Beraz, eta Sindiko honek proposatuta, gurasoentzako euskara-ikastaroetako arauak aldatu egin dira; gainera, familiaren egoera hobe ikusten da guraso eta seme-alaben urte bereko bekak bat egitean.

Hala ere, emakume honen estatusun-egoera kontuan hartu nahi dugu, GLL jasotzen duena baita. Hori dela-eta, gizarte-langileari egoera azaltzeko gomendioa egin nahi diogu, hark ikus dezan matrikulatzeko laguntzarik edo diru-aurrerapenik lor ote dezakeen euskara-ikastaroa egin eta seme-alabaren ikasketak indartzeko.

#### *Ebazpena*

Kasu horretan Udalak legearen arabera jokatu duenez, ezin dugu aurkeztutako kexa hiritarraren alde bideratu; beraz, eskaera **GAITZETSITA** geratu da.

#### **c) Erabiltzaileak itxita**

- Arka plazako lur azpiko aparkalekuen kartelak hizkuntza bakarrean (Erreg. Zkia.: 340-03)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun bat kexatu egin da Arkako lurpeko aparkalekuen abisu guztiak gaztelaniaz daudelako.

Halaber, euskaraz jartzea eskatu du.

#### *Azterketa*

Aurreko Memoriaren amaieran, espedientea aztertzeke geratu zen.

Erabiltzaileari kexa sinatzeko eskatu diogu, baina ez da bulegora azaldu. Hortaz, kexa alde batera utzi dugu honako arrazoi honengatik: Sindikoaren Araudiko 26. art. a) Ez da interes legitimorik ikusten.

#### *Ebazpena*

*Erabiltzailea medio, kasua itxita geratu da.*

### **2.3.4.2 BERDINTASUNERAKO ZERBITZUA**

#### **a) Baztertua/Ez onartua**

- Mobbing-aren aurkako kanpaina (Erreg. Zkia.: 341/04)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun bat kexatu da esanez Vitoria-Gasteizko Udalak indarkeriaren biktimentzako (emakumeak) egiten duen kanpainaren bidez Mobbing-en biktimek bizi duten arazoa estaltzen duela.

Hiritarrak nahi du Udalak giza baliabideak jartzea arazo larri hori leuntzearen.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileak Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen bulegoan kexa hori agertzeaz gain, dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Kexa eta dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi dugu kasu hori udal-eskumenetik kanpo aurkitzen dela. Izan ere, Mobbing delakoa laneko jazarpen moralizat hartuta, Vitoria-Gasteizko Udalak ez du zereginik lan-kontuetan.

#### *Ebazpena*

Beraz, aurkeztutako kexa **BAZTERTU** egin da, gai horretan eskumenik ez izatearren. Aldi berean, kasua beste administrazio-erakunde batzuetan azaltzeko adierazi diogu; hala nola, Lan-ikuskatzailtzan, Sindikatuetan,...

**Kasua itxita geratu da.**

### **2.3.5 HIRITARREN BABESA**

#### **2.3.5.1 UDALTZAINGOA**

##### **a) Gomendioa**

- Salatutako lokalen zaratak eta ordutegia ez betetzea (Erreg. Zkia.: 03/02, 335/04, 336/04 eta 350/04) (Ingurumen Saila ere kaltetua) (Aurreko Memoriatik berriz irekitako espedienteak)

#### **Erreklamazioa**

Vitoria-Gasteizko bizilagun eta talde asko kexatu dira gaueko lokalak ixteko ordutegia Udaltzaingoa betearazi gabe jarraitzen duelako. Oro har, legea ez da betetzen, Udaltzaingoa goizeko 3.30ean edo 4.00etan agertzen baita, izan kafetegia edo puba, eta, berez, kafetegiak eta tabernak ixteko 00.30ean edo 1.30ean agertu beharko luke, lanegun edo asteburuaren arabera. Vitoria-Gasteizko Udalak gai horretan duen erabateko pasibotasuna salatu nahi dute.

Eta, noski, neurriak hartzeko eskatu dute.

#### **Azterketa**

Ingurumen Sailari hainbat txosten eskatu dizkiogu erabiltzaileek Sindiko honetan salatutako gaueko lokalen lizentzia, salaketa eta abarren inguruan. Ondoren, horiekin eta aurreko Memorian onartutako gomendioarekin Udaltzaingora jo dugu, jasotako txostenaren gaineko gomendioa egin dezan.

Administrazioak 296/1997 Dekretua bete gabe jarraitzen duela salatu nahi dugu; Dekretuak dio Udalaren eskumena dela ostalaritzako lokalak eta haiek ixteko ordutegia zaintzea, kontrolatzea eta ikuskatzea.

Hori dela-eta, Udaltzaingoari eskatu diogu salatutako lokal horien ordutegia eta zaratak 3 astez ikuskatu eta zaintzeko, Ordutegien 296/1997 Dekretuko ixteko orduak errespetatu ditzen.

Udaltzaingoa lokalei egindako jarraipenaren berri eman digu, haien zaintza, salaketa eta isunak agertzen diren txosten eta guzti. Beraz, badirudi gomendioa **ONARTU** zutela.



### *Ebazpena*

**GOMENDIO OROKOR** bat egin dugu gaueko lokalen zaraten eta ordutegia ez betetzearen inguruan: batetik, ordutegiak bistan jartzea, ordutegien Dekretuko 6. artikulua (abenduaren 16ko 296/1997 Dekretua) ezartzen duenaren arabera; eta bestetik, Dekretu hori betetzen duten ala ez ikuskatzea eta zaintzea Udaltzaingoak.

Gomendioa Ingurumen Sailak nahiz Udaltzaingoak **ONARTU** egin dute.

Gainera, Udaltzaingoak lokalak ikuskatzeko, zaintzeko eta isunak jartzeko neurriak hartuko ditu, 296/1997 Dekretuari jarraiki.

- Zikinkeria Zapatari kalean (Erreg. Zkia.: 374/04)

#### **Erreklamazioa**

Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreko emakume batek kexa hau adierazi digu: Zapatari kalean, San Roke kantoian, zikinkeria pilatzen den gune bat dago, pneumatikoak biltzeko ontziez kanpo zaborrak uzten baitira.

#### **Azterketa**

Leku horretan pneumatikoak biltzeko ontziak jarri zirenean, jakin genuen zaborrak ontzi horietan bota behar zirela. Bizilagunak zaborra biltzeko zerbitzu berri horrekin motibatuak izan ziren; eta Udaltzainek zaindu egin zituzten, gainera.

#### **Ebazpena**

Ziurtzat jotzen dugu hiri guztia zaintzeaz arduratzen direla Administrazioako poliziak; hala eta guztiz ere, eta jakinik zaborra biltzeko ontziak erabiltzeko obligazioa betetzen ez dela, gure Araudiaren arabera, GOMENDIO hau egin nahi dugu: Udaltzaingoak Zapatari kaleko leku hori zaintzea, eta behar izanez gero, isunak jartzea datozen hiru astetan, kexa hori ahalik eta hobekien konpontzearen. Era berean, Udaltzaingoiari ESKATUKO diogu zaintza eta isun horien txostenak guri bidaltzeko.

Eragindako Zerbitzuak gomendioa partzialki onartu du, arau-hausleak harrapatzeko etengabeko zaintza konplexua gertatzen baita.

- Idatziari buruzko erantzunik ez (Erreg. Zkia.: 404/04)

#### **Erreklamazioa**

Hiritar batek gure bulegoan salatu du ez duela jaso 2003ko urriaren 20ko atestatuari buruz 2003ko abenduaren 5ean aurkeztu zuen idatziaren erantzunik.

#### **Azterketa**

Dokumentuak 2003ko abenduaren 5ekoak dira, eta egun Administrazioak ez du inolako erantzunik eman. Salatzailleak, ordea, *berariazko* erantzun bat jasotzeko eskubidea du, labur bada ere, aurkeztutako deskarguak Administrazioak onartzen dituen ala ez jakiteko.

Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko (30/92) 42.1 artikulua honela dio:

42.1. art.: *Administrazioak prozedura guztien gaineko berariazko ebazpena eman eta jakinarazi behar du nahitaez, hasteko modua edozein izanda ere.*

Administrazioaren isiltasunaren institutuaren helburua da hiritarrei jurisdikzioan sartzeko baimena ematea, baina horrek ez du alde batera uzten hiritarren eskaera eta idatziak erantzun eta erabakitzeke duen betebeharra.

#### **Ebazpena**

Salaketaren mamira jo eta alegazioetan sartu gabe, gure helburuak kontuan izanik, Udaltzaingoari (Atestatuak) **GOMENDATZEN** diogu salatzaileari **erantzun bat** emateko, salaketa eta alegazioak ikusita, egindako eskaera onartuko duten ala ez jakiteko.

Sailak gomendioa ONARTU du, eta horren berri eman diogu erabiltzaileari.

- Auto-lasterketak eta gauetako zaratak. (Erreg. Zkia.: 118/02)

#### *Erreklamazioa*

Sindiko honetan berriz ireki dugu aurrez Udaltzaingoarekin tratatutako espedientea. *Jacinto Arregi kaleko 1 zenbakiaren pareko zaratak salatu zituzten hiritarrek: gazteen bilera eta jaiak, musika, borrokak, garrasiak eta autoekin egiten dituzten etengabeko balaztadak.*

#### *Azterketa*

2002. urteko ekainaren 23an Sindikoak-Herriarren Defendatzaileak gomendatu zuen Udaltzaingoak zona horretan gauez arreta berezia jartzea. Egun, ordea, berritox keak jaso eta gure begiez Jacinto Arregi kaleko 1 zenbakiaren ingurua aztertu ondoren, egiaztatu dugu erabiltzaileek azaldutako ekintzak aurrera jarraitzen dutela: gazteen bilerak eta jaiak sortzen duten gehiegizko zarata eta autoen arteko lasterketak.

Horregatik, 2003ko otsailaren 18an egindako gomendioaren hitzetan, ondorengoa **GOMENDATZEN** dugu:

#### *Ebazpena*

Datozen hiru astetan Udaltzaingoak gauez arreta bereziarekin inguru hori zaintzea, behin eta berrizko arau-hausleak KONBENTZITZEKO asmoarekin, eta, hala behar izanez gero, Araudia hautsiz alarma sortzen eta bake publikoa kaltetzen duten portaerak SALATZEA.

Sailak gomendioa **onartu** du, eta honako erantzun hau eman digu:

*“Urte hasieratik gaur egun arte, Udaltzaingoak ehun bat aldiz esku hartu du Loreto Arriola eta Martin Sarazibar kaleetan.*

*Esku-hartze horiek honako hauek medio egin dira:*

1.- Udaltzaingoaren Zerbitzburuaren aginduz, Sindikoaren bulegoak 2004ko irailaren 13an bidalitako gomendioari jarraiki (ingurua zaindu da).

2.- 092 telefonora deitzen zuten hiritarrek hala eskatuta.

3.- Inguruan lana egiten duten patruilen ekimenaz. Lotsagabekeriazko portaerak burutzen eta trafiko arau-hausteak ukatzen dituzten pertsonen Udaltzainek kargu hartu die.

Hauek dira arau-hausteak: zibarena egitea, lasterketak, derrapatzeak biribilgunean, gidatzeko baimenik gabe gidatzea eta segurtasun-uhalik gabe gidatzea.

Ingurua bereziki zaintzeak atzeratu ditu ausartegi gidatzera maiz joaten ziren pertsonak.

- Automobilentzako kontzesionarioa eta kalez kaleko salmenta. (Erreg. Zkia.: 152/03)

#### *Erreklamazioa*

Portal de Villarreal kaleko hainbat bizilagunek bulego honetan salatu dute kale horretako automobilentzako enpresa bateko ibilgailuek beren aurreko espaloiko aparkaleku guztia okupatzen dutela. Bizilagunek diote auto horiek hor egonik, auzoarentzat egokia den aparkaleku publikorik gabe gelditzen direla, inolako arrazoi eta titulurik gabe.

Sindikoak gaiari buruzko gomendioa egin du 2003ko urriaren 28an: automobilentzako enpresari dagozkion tasak ordaintzeko eskatzen dio, egoera bi ikuspuntutik aintzat hartuta: batetik, trafikokoaren poliziaren arazo baten moduan, bide publikoan behar den baino denbora luzeagoan aparkatuta edukitzeagatik eta jabetza publikoa aprobetxatzeagatik; eta bestetik, trafikokoaren ikuspuntutik, enpresak bere dendaren aurreko aparkalekua erakusleiko gisa erabiltzeagatik.

2004ko urtarrilaren 21ean Udaltzaingoak erantzuna bidali du: autoak “utzita” ote dauden frogatuko du Udaltzaingoak, eta hala egonez gero, kentzeko agindua emango du. Aldiz, gune publikoa erabiltzen dela frogatzen badu, Ogasun Sailari horren berri emango dio, Udalaren Jabari Publikoko Ondasunak erabiltzeagatik edo aprobetxatzeagatik kobratzen diren tasak arautzen dituen Ordenantzan aurreikusitako tasa fiskala kobratzearen.

Dena den, bizilagunek oraindik egoerak berdin jarraitzen duela adierazten dutenez, beste Udal batzuetan hartutako neurriak kontuan hartu (Getxoko Udalak hartutako neurriak, esate baterako), eta kasua konpontzeko beste bide bat proposatu nahi dugu:

#### *Azterketa*

Aparkaleku publikoko lekuak zuzenean saltzeko ibilgailuekin okupatuta egoten direnez, zenbait neurri hartu behar dira egoera horrekin amaitzeko eta inguruko bizilagunek gune horietan lasai aparkatu ahal izateko.

Izan ere, inolako arrazoi eta baimenik gabe, aparkatzeko leku publikoak blokeatu eta erabiltzaile baten eskuetan jartzen dira, eta horrek kaltea sortzen die bide publikoan ibili eta denbora batez autoarentzako lekua aurkitu nahi dutenei; beraz, lurzorua erabilera zuzenik ezin zaie bermatu gainerako gidariei, ezta inguruko bizilagunei ere.

Praktika horren bidez, **Merkataritza-jardueraren gaineko Euskal Herriko maiatzaren 27ko 7/1994 Legea** urratzen da, denda komertzialaz kanpoko ustezko salmenta egiten baita. Lege horretako 11. artikulua honela dio: *salmenta denda komertzialean egin behar da, kasu batzuetan izan ezik; praktika hori, ordea, ez da kasu horien artean aurkitzen.*

Legea urratzen denez, zigorra jarri behar da, aurrez dagokion administrazio-espeditentea eginda; **1.502,53 €uroko** isuna jar liteke.

Dendariak bide publikoa baimenik gabeko erabilera pribaturako hartzen duenez, Udalaren ardura da jabari publikoko ondasunak guztiok erabiltzea defenditzea, baita partikular batek gunea titulurik gabe hartzea galaraztea ere.

#### *Ebazpena*

Beraz, **Merkataritza-jardueraren gaineko Euskal Herriko maiatzaren 27ko 7/1994 Legea** aplikatuz gero, ondorengo **GOMENDIOA** egingo dugu:

\* Bide publikotik ibilgailuak kendu eta Hiritarren Segurtasuneko Ibilgailuen Udal Gordailuan uztea, betiere ibilgailuak saltzeko jarduera komertziala dendaz kanpo burutzen dela uste bada.

Salmenta-mota hori egiten dela sumatuko da ondorengo kasuetan:

- Erabat leku berean edo inguruetan aparkatuta egoten diren ibilgailuek salmenta-kartelak dituztenean.
- Saltzailearekin harremanetan jartzeko telefono-zenbakia edo beste aukeraren bat agertzen dutenean.
- Bide publikoan, hau da, kale berean edo inguruetan, denbora luze samarrean aparkatuta daudenean.

\* Ibilgailuen titularrari zehapen-espeditentea irekitzea (1.502,53 €ko isunarekin zigor daitekeena), aipatutako Legeko 11. artikulua urratzeagatik.

Lege horretako 43.1 ARTIKULUA kontuan hartuta, Udalaren esku dago isun arin hori aplikatzea.

**Gomendioa guztiz onetsi da.**

- [Minusbaliatuentzat aparkaleku-plazetan jarritako isunak.](#) (Erreg. zk: 460/04)

#### *Erreklamazioa*

Erakunde honek behin baino gehiagotan jaso izan ditu kexak, Lakua-Arriaga aldean minusbaliatuentzat erreserbatuta dauden aparkaleku-plazak beste gidari batzuek erabiltzen dituztelako, eta Udaltzaingoak gai horretan gauza handirik egiten ez duelako.

#### *Azterketa*

Minusbaliotasunen bat duten pertsonen, eta bereziki mugitzeko gaitasuna oso mugatua dutenek, gainerako pertsonen baino askoz eragozpen eta oztopo gehiago dituzte beren eguneroko eginbeharrak egiteko, batez ere gune eta zerbitzu komunitarioak erabiltzeko eta beren bizimodua gutxieneko erosotasun-baldintzekin egiteko.

Horregatik, pertsona horien mugikortasuna errazteko eta **“Minusbaliatuak Gizarteratzeko” apirilaren 7ko 18/1982 Legeko 60. artikulua (LISMI) aplikatuz**, Udalak beharrezko neurri egokiak hartu ditu mugitzeko arazo handiak dituzten elbarriek ibilgailuak errazago aparkatzeko modua izan dezaten.

Lakua aldean minusbaliatuak hainbat leku erreserbatuta dauzkate aparkatzeko. Hala eta guztiz ere, Bulegora etorritako erabiltzaileek adierazitakoa entzun eta inguru hori ikuskatu ondoren, ohartu gara aparkaleku horiek sistematikoki beste ibilgailu batzuek erabiltzen dituztela, gutxitu fisikoek aparkatzeko izaten duten erreserba-txartel berezia izan gabe.

Ezgaitasuna duten pertsona horiek jasaten dituzten kalteak eta minusbaliatuentzako aparkalekuen okupazio desegokia arautzen duen Ordenantza betetzen ez dela ikusita, ondoko gomendioa egin behar dugu:

#### *Gomendioa*

**GOMENDATU EGITEN DUGU**, Sindikoaren -Herritarren Defendatzailearen 2001eko irailaren 28ko Arautegian ezarritakoaren arabera, Udaltzaingoak Lakua-Arriaga aldean ikuskaritza eta zaintza BEREZIA egitea datozen HIRU ASTEETAN, minusbaliatuentzat erreserbatuta dauden aparkalekuen okupazio desegokia ikusi eta behar izanez gero dagozkion SALAKETAK egin ditzan; era horretan, minusbaliatuentzako aparkalekuen erreserbari dagokionez gaur egun gertatzen ari den arau-urratzea zuzenduko da.

#### **Onetsitako gomendioa.**

- [Ibilgailuaren matxura elurteetan](#) (Erreg. zk.: 431/04)

#### *Erreklamazioa*

Bulego honetan hainbat kexa jaso dira, udal eraikinetako teilatuetan metaturiko elurra erori eta auto batzuek kalteak izan dituztelako. Erabiltzaileek adierazi dute ez dela inolako neurrik hartu elurra urtzen hasten denean behera ez erortzeko.

#### *Azterketa*

Vitoria-Gasteizko hainbat bizilagunek ondare-erantzukizuna erreklamatzeko dute gure erakundearen eraikinetako teilatu batzuetatik elurra erori eta kalteak izan dituztelako (Arte eta Ofizioen Fundazioa dagoen eraikinean hain zuzen).

Kontuan hartzen badugu Vitoria-Gasteizen elurra egitea ez dela berez nekez aurreikusteko moduko gertakari meteorologikoa, nahiko gauza ohikoa delako, eta Udala hiriaren funtzionamendu egokia zaintzen duen erakundea denez, beharrezko neurriak hartu behar lituzke eraikinetako teilatuetatik bide publikora elurrik eror ez dadin, bai behinik behin bere titularitate eta eskumenekoak diren eraikinetan.

Beraz, egokia iruditzen zaigu **Elurteetarako Udal Plan Berria** sistema eraginkor batzuk sartzeko, eraikinetako teilatuetan, Udalaren esku daudenetan behintzat, elurra urtzen hasten denean elurra metatu ez dadin .

Guk dakigunez badira eraikuntza-sistema berezi batzuk elurra urtzen den garaian bide publikora zuzenean eror ez dadin (Honekin batera doaz argazkiak).

Gure hirian sistema horiek ez dira oso ezagunak, nahiz eta horietako batzuk ikus daitezkeen Madre Veruna eraikineko 14 eta 16an, Lovaina plazako 1ean eta Honduras kaleko dorreetan.

#### *Ebazpena*

Gai honi dagokionez Herritarren Zerbitzuetarako sailaren arduradunari **GOMENDATZEN DIOGU Elurteetarako Jarduketa Plan Berria** beharrezko eraikuntza-sistemak sar ditzala, eta udalarenak diren erakinetan behintzat erabil ditzatela, elurra urtzen denean kalera barra-barra eror ez dadin; edo bestela ekimen hau dagokion udal instantziara bidera dadila.

Erabiltzaileak gomendioa jaso ondoren, bere kasua modu horretan ez dela konpontzen adierazi digu, txostenean ondorengo informazioa agertzen baita: “kexaren inguruan arreta gehiago jartzeko eskatu digunez, esan behar diogu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 139. artikulua arabera, partikularrek eskubidea dutela edozein ondasun eta eskubideetan gertatzen zaien lesioaren kalteak Herri Administrazioek ordaintzeko, ezinbesteko kasuetan izan ezik, lesioa zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz sortzen denean.

Jurisprudenzia-doktrinak ezinbesteko kasutzat hartzen ditu, aurreikusteko moduko ekintzak izanda ere, saihestezinak, gaindiezinak edo pairaezinak direnak, baldin eta ekintza horren arrazoia kaltea ordaindu behar duen subjektuaren borondatez kanpoko bada.

Zuzenbidearen arabera, Alkatetza Dekretuaren ebazpenaz, kexa ez ziotela onartu jakinarazi zitzaion.

Kasu eta egoera batzuetan elurteek sortutako kalteak ezinbesteko kasuetatik kanpo utzi dituzten epaiak egon badira ere, gure ustez, irizpide hori ez da batere baketsua, eta ulertzekoa da Administrazioak **ezin dituela atenditu** elurrak sortutako kalte guztiak eta horietako bakoitzaren ondorioak. Azken finean, Udal Administrazioak emandako erantzuna EZ da arbitrarioa.

Zure kexaren alde gehiago ez egitea sentitzen dugu, gure iritziz, Administrazioak zuzenbidearen arabera jokatu baitu, jardunbide egokien aurka jo gabe.”

Modu horretan, zure kexa **GAITZETSI** dugu.

- Isuna behin-behineko ingurunean aparkatzeagatik (Erreg. Zkia.: 448/04)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko bizilagun batek bulegoan honako trafiko-salaketa hauek aurkeztu ditu:

- 0 2193022 E 030207S1 2004/02059
- 0159 5 1040723580 75 0 228 183417

Bietan ondo agertzen dira salaketaren arrazoia zein lekua eta aipatutako ibilgailua.

Hiritarrak bi salaketetarako deskargu-plegu berdina egin eta gero, lehenbiziko salaketako (a) alegazioak onartu dizkiote, agente/zaintzaileak salaketa zuzendu eta baliogabetu baitio. Bigarren salaketarekin (b), ordea, ez da horrelakorik gertatu, agenteak salaketa berretsi egin baitu, erabiltzailearen alegazioak kontua hartu gabe.

#### *Azterketa*

Bigarren salaketako (b) deskargu-pleguaren erantzuna berrikusi ondoren, esan daiteke agenteak ez dituela deskargu-pleguan alegaturiko arrazoiak aztertzen. Hona hemen aipatutako arrazoiak:

Antzoki Zaharrak Foru kalera ematen duen aurrealdean egindako obrak zirela-eta, aparkaleku mugatuko zona batzuk kale bereko hurbileko zati batera pasa zituzten: hala nola, udal-zerbitzuen zona, minusbaliatuentzako gordetako aparkalekuak eta zebra-bidea.

Leku-aldatze hori adierazteko, lanek irauten zuten bitartean, seinale bertikalak jarri zituzten; horizontalki seinaleztatzeko, berriz, horiz margotu zuten.

Obrak amaitutakoan, behin-behineko zonetako seinale bertikalak kendu eta lehengo zona mugatuak berriz seinaleztatu zituzten. Behin-behineko zonetako margo horia, ordea, denbora batez kendu gabe egon da, nahiz eta lanak amaitu eta zona mugatuak ezarri dituzten.

Erabiltzaileak horiz margotutako seinalizazio horizontalean aparkatu zuenean, zona horretan ez zegoen seinale bertikalik; gainera, Antzoki Zaharreko lanak amaituta zeuden eta ohiko aparkalekuak berriro jarrita. Hori dela-eta, hiritar askok, tartean erabiltzaileak, pentsatu zuten behin-behineko marra horizontal horiek ez zeudela indarrean, eta horregatik bertan aparkatu zuten.

Aurreko guztia ikusita, zaila da Udaltzaingoak isuna nola jar dezakeen ulertzea, argi baitago seinale horizontalek ez zutela oinarririk, eta seinale bertikalik ere ez zegoela; beraz, bistakoa zen kalean aparkatzea bazegoela pentsatzea.

**Hori dela-eta, funtsik gabeko isuna dela esango genuke, behin-behineko seinalizazio horizontalaren bidez jarritakoa eta salaketa-garaian indarrean egoteko arrazoirik ez zuena.**

**Gainera, gaiaren bidegabekeria erakusteko, adierazi behar dugu zentzu gehiagoko beste agente batek jarritako 2004/020259 beste salaketaren deskargu-alegazioak kontuan hartu direla eta salaketa hori BALIOGABETUA izan dela.**

**Gure iritziz, bi salaketen irizpideak berdinak izanda, ez dago deskargu hori atzera botatzeko arrazoirik.**

### ***Ebazpena***

Sailari **GOMENDATZEN DIOGU**, deskargu-pleguak irakurri eta gero, salaketak **BERRESTERAKOAN** edo **ZUZENTZERAKOAN** ebazpenetan gerta daitezkeen kontraesanak zaintzeko, arrazoi, leku eta ibilgailu bereko salaketak baldin badira, behintzat.

Gomendioa onetsi da, Eraikuntzen Erregimen Juridikoko Zerbitzukoek adierazi baitute seinalizazioa 2004ko uztailaren 12ra bitartean egon zela indarrean; ondorioz, inguru horretan jarritako salaketak baliogabetu egin dira.

- [Txiroak gaua pasatzen Arkupeetan](#) (Erreg. zk.: 484/03)

### ***Erreklamazioa***



Arkupe inguruan bizi diren zenbait auzokoren kexa jaso du sindikoak. Zenbait txirok asteburuetan gaua bertan igarotzen dutela salatzen dute, eta pixa bertan egiteaz gain, edari alkoholdunak kontsumitzen dituztela, eta zikinkeria sortzen.

#### *Azterketa*

Kasu honetan, aintzat hartu beharrekoa da inguru horrek turismoaren nahiz balio historikoaren aldetik duen munta. Eta, jakina, inork bertan gaua igarotzeak eta zikinkeria sortzeak segurtasun eza dakar berekin.

Alde Zaharra eraberritzeko oinarrizko irizpideetako bat, hain zuzen ere, hauxe da: “inguru horretako balio historiko eta morfologikoak zaintzea, guztion kultur ondare izaki”. Arkupeen ingurua, bistan denez, guztion ondare horren parte dugu; izan ere, Olagibel arkitektoaren hirigintza-obra nabarmenenetako bat da, konponbide bikaina eman baitzuen, horren bitartez, hiriaren zabalkundea bideratzeak zituen zailtasunei.

Oso kontuan hartzekoa da, halaber, Hirigintza Balioko Hiri Espazio gisa nabarmen daitezkeela Arkupeak, eta BBPBak funtsezko helburutzat jotzen duela eraikuntza horiek zaintzea eta balioa ematea, eta inguru horren interes turistikoa bultzatzea. Horrenbestez, hona gure gomendioa:

#### *Ebazpena*

Berriki eratu delarik Auzoko Polizia, hauxe **GOMENDATZEN DUGU** gure araudian jasotako moduan eta eraginarekin: zaintza berezia egin dezala polizia horrek Erdi Aroko hiriguneko ingurune horretan, asteburuetan bertan gizalegearen kontrako jokabide hori izaten duten pertsonen bertatik alde eginarazteko, aurkeztutako kexari erantzungo bailitzaioke hartara.

- Isuna eta Udaltzaingoaren tratua (Erreg. Zkia.: 456/04)

#### *Erreklamazioa*

Olagibel kalean bizi den hiritar batek kasu hau aurkeztu du gure bulegoan:

*“LAUROGEITA BI URTEKO nire ama Posta kalean bizi da, udal-erroldan egiazta daitekeen moduan. Etxera itzuli zen bere ekipaje eta guzti, eta bakarrik ibiltzerik ez duenez, autoarekin atari ondora gerturatu nuen. Agenteak salaketa jarri zidan une berean, azalpen horixe eman nion, baina entzungor egin zuen.*

*Nire autoa hamar bat minututan egon zen atarian geratuta, hau da, nire ama eta ekipajea uzteko behar nuen denboran.”*

#### *Azterketa*

Hiriko bide publikoen Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzako 11.8 artikulua honako hau dio:

***“Udal-agintaritzak oinezkoen inguruan ezarritako muga batzuetatik salbuetsi ahal izango ditu zenbait auto, arrazoitutako kausak medio”.***

Kasu horretan, badira nahikoa arrazoi araua malgutzeko eta oinezkoen zatian tarte bateko geldialdia justifikatzeko, etxera ekipajearekin datorren adineko pertsona bat ekartzeko denean.

Gure iritziz, Udaltzaingoak irmo jokatu behar du bere lana egiterakoan, baina baita gizatasunez ere, bizilagunek gure hirian bizitzeko izaten dituzten batzuetako egoera pertsonal konplexuak kontuan hartuta.

Aurreko guztiaren ondoren,

**GOMENDATZEN DUGU** kasu horretan zuzentzea Udaltzaingoak izan duen jokaera guztiz **ZORROTZ** hori, Alkateari Legeak ematen dion berraztertze errekurtsoaren bidez berrikusiz.

***Ebazpena***

Hori da gure **GOMENDIOA**.

#### **b) Oroigarria**

- Udaltzaingoaren tratu “iraingarria” (Erreg. Zkia.: 360/04)

*Erreklamazioa*

Sindikoa hiritar batek kexa agertu du 2004ko apirilaren 20an Udaltzaingoak emandako tratu “iraingarria” dela-eta, Garabi Zerbitzuak emandako auto bat Udal Gordailutik hartzerakoan.

*Azterketa*

Pasa den apirilaren 20an, udal-garabiak auto bat erretiratu zuen Errege-Erregina Katolikoaren kaletik, eta jabeak udal-gordailura bere bikotea bidali zuen autoaren bila, jabeak berak joaterik ez zuelako.

Agenteek, ordea, ez zioten autoa hartzen utzi, autoaren titularra ez izateagatik. Erabiltzaileak hori jasotzen duen arauaren inguruko informazioa eskatu zuen, beste kasu batzuetan autoa berak hartu duelako.

Gainera, Zerbitzuari buruzko kexa non jar dezakeen galdetzean, agenteak ez zion informaziorik eman.

Interesdunak emandako azalpenak ikusita, ezin liteke esan tratua iraingarria izan zenik; bai, ordea, Udaltzaingoak izan behar lukeen adeitasun-falta.

#### *Ebazpena*

Adierazitako guztiaren ondoren, eta beste azterketarik gabe, Udaltzaingoari GOGORATU nahi diogu, Poliziaren Euskal Legearen barneko Euskal Herriko Poliziaren Kode Deontologikoan agenteei buruz honela agertzen dela: *hiritarrekin duten tratua zuzena eta arretatsua izango da beti, eta haien esku-hartzeen arrazoien eta xedeen gaineko ahalik eta informazio zabalena emango dute* (uztailaren 17ko 4/1992 Legeko 30.3 artikulua, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa).

Horixe **GOGORATU** nahi dugu Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen Araudiaren arabera.

#### **c) Orientazioa**

- Erreklamazioa isunak jartzerakoan azaldutako nagusikeria dela-eta (Erreg. Zkia.: 357/04)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek ustezko gehiegikeria salatu du 5 isun jarri baitizkiote honako hauek hondatuta izateagatik: gidatzeko baimena, zirkulazioko baimena, ziklomotorrak zirkulatzeko baimena eta ezaugarrien egiaztagiria.

Sindikoari-Herritarren Defendatzaileari laguntzeko eskatu dio, udal-administrazioak erantzuna eman diezaion.

#### *Azterketa*

Sindikoa-Herritarren Defendatzailea erabiltzailearekin elkarrizketatu eta gero, ekarritako dokumentazioa aztertzen aritu da.

Elkarrizketan, Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak uste izan du isun gehiegi jarri dizkiotela; beraz, Udalean aurkezteko idatzi bat egiten lagundu dio hiritarrari.

Hala, isunak baliogabetzeko eskatu dute idatzian; izan ere, agiriak ez daude “guztiz” hondatuta, isunetan agertzen zen moduan, eta erraz irakur daitezke. Hori dela-eta, erabateko hondamena egotzi izana neurriz gainezkoa izan da eta isunak jartzeko gogoia antzeman da; hori ez dator bat, ordea, arauaren helburuarekin.

#### *Ebazpena*

Erabiltzaileari berraztertze- edo apelazio-errekurtsoaren moduko idatzi bat egiten LAGUNDU diogu, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari aurkezteko.

- Altzariak gordetzeko udal-zerbitzua izatearen egiaztagiria (Erreg. Zkia.: 376/04)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko bizilagun batek Vitoria-Gasteizen Altzariak gordetzeko udal-zerbitzua izatearen egiaztatzea eskatu du.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileari jakinarazi diogu Ingurumenaren Sailari adierazita, 1998ko martxoaren 27tik aurrera **Udaltzaingoa** arduratzen dela Altzariak gordetzeko udal-zerbitzuaz. Zerbitzu hori erabiltzeko, Batzorde Judizialaren bitartez eskaera egin behar da, edo, behar izanez gero, Gizartegintza Sailaren adierazpenez, interesdunak hala eskatzen duenean.

Tresna edo altzari horiek gehienez hilabete batean gorde daitezke zerbitzu horretan.

2001. urtean Prozedura Zibileko Legea aldatu zenez, altzariak jasotzea ere aldatu egin zen. Horrela, **703.1 artikuluko** bigarren paragrafoan esaten da altzariak jasotzeko emandako epean jasotzen ez badira, eta errekerimendu judiziala eginda, zerbitzuan geratzen diren altzariak “utzizat” hartuko direla ondorio guztietarako.

Aurreko premisen arabera, une honetan Altzariak gordetzeko udal-zerbitzua ohiz kanpoko premia zehatzetan erabiltzeko geratu da, orokorrean. Kasu horiek Udaltzaingoa edota Gizartegintza Sailak baloratuko ditu. Zerbitzua behar bezala erabiltzeko, Mantenimendu Zerbitzuaren eta Gizartegintza Sailaren laguntza beharrezkoa izango da, altzariak leku batetik bestera eramateko eta sartzen eta/edo ateratzen diren altzariak erregistratzeko.

#### *Ebazpena*

Erabiltzaileari gaiaren inguruko **ORIENTAZIOA** eman zaio.

- Prostituzio-etxe klandestinoak Frantzia kalean (Erreg. Zkia.: 481/04)

#### *Erreklamazioa*

Hiritar batek Sindiko honetan salatu ditu *Frantzia kaleko bere etxebizitzaren goiko pisuan egiten den prostituzioak sortzen dizkion eragozpenak*.

#### *Azterketa*

Vitoria-Gasteizko Udalak, Udaltzaingoaren bitartez, txosten batean adierazi digu Frantzia kaleko etxe batean prostituzioa egiten dela, baina **ez** dagoela delituzko jarduerarik. Eta hori jakinarazi diogu erabiltzaileari.

*“Agenteek frogatu dute EL CORREO egunkariko relax-iragarkietan (sexu-harremanak) iragarki hau agertu dela hainbat egunetan: EROS RELAX neskatzak, trabestiak, masajeak. Irteerak 24 orduetan. VISA. 945 XXXXXX. Telefonoz deitu dute,*

*eta bestaldekoak azaldu die sexu-zerbitzuak ordu erdiko 60 € balio duela zerbitzu baten kasuan, eta biren kasuan, berriz, orduko 100 €. Egun, bi neska ilehori eta trabesti bat dituzte lanean. Zerbitzua nahi badute, Frantzia kalean daudela adierazi die.”*

Informazio hori esku artean izanda, bizilagunek eta Jabekideen Komunitateko lehendakariak emandako kexen berri eman zien Udaltzaingoak etxekoei nahiz arduradunari; hala nola, pisu barneko zaratak, igogailua erabiltzea goizeko ordu txikitan, eskailetatik goiko pisuetara igotzen den jende arrotza, e.a. Beraz, horrelakorik gehiago ez gertatzea eskatu zien.

Horrez gain, Bulego hau aztertzen ari da etxebizitzetan jarduera-mota hori egitea mugatzen eta kontrolatzen duen ordenantza bat martxan jartzeko aukera. Ildo horretan, ematen diren urratsen berri emango dizugu.

#### *Ebazpena*

Era horretan **ORIENTATU** dugu erabiltzailea.

#### **d) Jarduera/Esku-hartzea**

- Udaltzaingoaren esku-hartzerik ez San Bizente Paulekoaren kalean (Erreg. Zkia.: 365/04)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek adierazi du Udaltzaingoak ez duela debekatutako norabidean ibiltzea zigortzen San Bizente Paulekoaren kalean.

Eta horren gaineko informazioa eskatu du.

#### *Azterketa*

Hiritarra Sindikoarekin-Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu da kexa agertzeko asmoz; ondoren, kexa sinatu du. Sindikoak Udaltzaingoiari egoerari buruzko informazioa eskatu dio.

Vitoria-Gasteizko Udalak 2004ko maiatzaren 26an txosten bat bidali digu, eta erabiltzaileak horren berri izatea nahiko duenez, halaxe jakinarazi diogu. Hona hemen txostena:

*“1.- Udaltzaingoak, jakina, ezagutzen ditu Vitoria-Gasteizko Udaleko Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak San Bizente Paulekoaren kalean egin dituen ibilgailuen zirkulazio-aldaketak.*

*2.- Kale horretan mutiloien sistema automatiko bat dago, kontrako noranzkoan sartzea galarazten duena. Baina hiri-barruko garraioa (TUVISA autobusak) sar daiteke kalean, horretarako ezarritako seinalizazioaren arabera.*

*3.- San Bizente Paulekoaren kaleko mutiloien sistema automatikoak funtzionamendu-akats handiak izan ditu aste askotan, eta dagoeneko konpondu dira akats horiek.*

4.- Hala ere, TUVISA hiri-barruko garraioak Erdi Aroko hirigunera egiten duen ibilbidea aldatu egingo da 2004ko ekainaren 1etik aurrera, eta autobusa ez da kale horretan sartuko. Ondorioz, uste da mutiloien sistemak behar bezala funtzionatzen hasten direnean, egoera nabarmen hobetuko dela.

5.- Ibilgailuen zirkulazio-norabidea edozein kaletan aldatzen den bakoitzean, horren berri jasotzen dute Zerbitzuko agenteek, ohiko patruila-lanetan kontuan izan dezaten eta, bereziki, aldaketa egiten den lehen egunetan.

6.- Lehendabiziko egunetan, agenteak bertan egoten dira jendea jakinaren gainean edukitzeko eta kontrako noranzkoan ez zirkulatzeko, harik eta kale horretan maiz ibiltzen diren gidariak (bizilagunak, banatzaileak,...) aldaketarekin ohitu eta araudi berrira egokitzen diren arte.

7.- Geroago, zerbitzuak baimentzen duen neurrian, agenteen lana da San Bizente Paulekoaren kalea bezalako kaleetan zirkulazio-norabideak kontrolatzea eta ikusten dituzten arau-hausteak salatzea.

8.- Auzo horretaz arduratzen diren agenteek azaldu dute, batzuetan, hau da, mutiloien sistema automatikoa ez dabilenean, ibilgailu batzuk kontrako noranzkoan zirkulatu dutela, harik eta sistema konpondu arte.

9.- Halaber, arau-hausteak salatzen dituztela diote, larriak izaten baitira; 302 euroko isuna jarri ohi dute, eta Probintziako Trafikoko Buruzagitzari gidatzeko baimena eteteko eskaera ere egiten diote.

10.- Salaketa horiek, trafikoko gainerako arau-hausteen gisan, Vitoria-Gasteizko Udalaren Isunen Unitatera bidaltzen dira, dagokien zehapen-prozedura izapidetzearren.

11.- Era berean, Auzoko Udaltzaingoaren Unitateko Ofizialei kexaren espedientea bidali zaie, San Bizente Paulekoaren kaleko esku-hartze ezari buruzkoa, alegia, zona horretako agenteek zaintza areagotzeko dagozkien azalpenak jaso ditzaten.

*Ebazpena*

**JARDUERA** horren bidez, erabiltzaileari informazioa eman zaio.

- Segurtasun-eza Autobus-geltokian (Erreg. Zkia.: 440/04)

*Erreklamazioa*

Bizilagun batek Sindikoan Vitoria-Gasteizko Autobus-geltokiko arazo batzuk salatu ditu: lehenik, autobusen zarata eta kutsadura motorrak geratzen ez dituztelako;

*bigarren, inguruko bizilagunei megafoniaren bolumenak eragiten dizkien eragozpenak; eta hirugarren, segurtasun-eza, etengabeko liskarraldiak eta lapurretak direla medio.*

#### *Azterketa*

Erabiltzaileari egindako elkarrizketaren ondoren, adierazi diogu Autobus-geltokiko zuzendari kudeatzaileari gutun bat bidali diogula kexa horien berri emateko eta erantzun bat eskatzeko asmoarekin.

Era berean, **Udaltzaingoa** ere jakinaren gainean jarri dugu, eta kexa horiek baretzeko jarrera ona azaldu du.

Zehazki, ahal duten neurrian, itzaltzen ez dituzten motorrek eragiten duten kutsadura amaitzen saiatuko dira, gidariak ohitura hori alde batera uzteko salaketak jarriaz. **Geltokian liskarraldiak eta lapurretak medio sortzen den segurtasun-ezari** buruz, berriz, esan behar da horren berri baduela Udaltzaingoa, eta une honetan zaintza- eta salaketa-lanak egitea aurreikusita dagoela.

Dena den, Udaltzaingoa gure hirian duen lan guztia aintzat hartuta, ezinezkoa da patruila bat hiriko leku zehatz batean, kasu honetan autobus-geltokian, erabat egotea. Horregatik, **Autobus-geltokiko kudeatzaileari** gomendatu diogu **zinpeko zaintzaile** bat kontratatzea, zaintza- eta kontrol-lanak sakonago burutzeko eta ez gertatzeko Geltokiko bidaiarientzat eta erabiltzaileentzat hain desatseginak diren gorabeherak. Hori guztia, noski, hiritarren eta geltokiko zerbitzuak erabiltzen dituztenen segurtasunaren mesedetan.

Halaber, **Ogasun** Sailari gutuna bidali diogu, bere eskumenean arazoan parte har dezan.

#### *Ebazpena*

Modu horretan **ESKU HARTU** dugu, eta eragindako Sailen eta/edo Zerbitzuen erantzunaren zain geratu gara.

Erabiltzaileari bidali diogu gure gomendioari emandako erantzun hau:

*“Vitoria-Gasteizko Autobus-geltokia duela 11 urte inauguratu zen, eta behin-behineko lekuan dago kokatua, komunikatzeko bi bideren artean, Herrandarren kalean eta Jose Mardones kalean.*

***Udalak bakarrik erabaki zuen geltokia egun dagoen lekuan instalatzea, eta geroztik ez da akordio politiko, ekonomiko eta sozialik lortu Autobus-geltoki berri bat egiteko, saiatu diren arren. Dena den, hiriak merezi eta behar du geltoki bat.***

*Vitoria-Gasteizko Autobus-geltokian egunero batez beste 5000 bidaiari eta 400 autobus ibiltzen dira. Urtean 2.000.000 erabiltzaile izaten dira, gutxi gorabehera. Argi dago egungo Autobus-geltokiak gizartearen gutxieneko premiak betetzen dituela.*

*Autobus-geltokia goizeko 6:00etatik gaueko 23:30era egoten da irekita.*

*Jose Mardones kale aldera ematen duen alderdia Herrandarren kaleko alderdia baino ia bi aldiz gehiago erabiltzen dute erabiltzaileek.*

*Autobus-geltokiko bi bideak ibilgailuen trafikoz gainezka daude; beraz, kutsadura akustikoa eta gasen kutsadura nabari dira, leku horretan autobus-geltokia izan ala ez.*

*1.- Autobusak lokan eta motorra martxan dutela aparkatzeari dagokionez, oso gidari gutxik uzten dituzte horrela, geltokiko zuzendaritzak motorrak gelditzeko behin eta berriz adierazten baitie gidariei bidaltzen dizkien zirkularren bidez (hemen duzu zirkular baten kopia). Halaber, egia da autobusak denbora gehiagoz martxan egon behar dutela neguan bidaiariek berogailua izateko, eta udan, berriz, aire egokitua.*

*Autobus-geltoki batek kutsadura akustikoa eta gas-kutsadura sortzen du, eta hori gutxitzen saiatuko gara.*

*2.- Megafoniari dagokionez, gauez oso gutxitan erabiltzen dugula esan nahi dugu.*

*Gaueko 23:30etik goizeko 6:00etara geltokia itxita egoten da, eta 22:00etatik 23:30era ia ez dago zerbitzurik. Garai horretan ibilbide luzeko zerbitzuak izaten dira, eta batzuetan megafonia erabili beharra dagoenez, barruan nahiz kanpoan entzun beharra gertatzen da.*

*Azkenaldian, megafoniaren mikrofonoa aldatu egin dugu, zerbitzua hobetzeko asmoz.*

*3.- Hiritarren segurtasun-ezaren inguruan, hiritar gisa jakin badakigu ordena publikoko indarrek (Udaltzaingoak zein Ertzaintzak) dutela eskumena ordena hori zaintzeko.*

*Geltokiko langileek ez dute horretarako inolako eskumenik, eta edozein gertaeraren aurrean, poliziaren presentzia eskatzen dugu, behar den bezalaxe.*

*Poliziak baloratu behar du urtean geltokian izaten diren 2.000.000 pertsonen arreta gehiago merezi duten ala ez, geltokian denbora gehiagoz egonik gertaerak prebenitzeko eta ez ondoren kexatzeko; hori guztia geltokia bi kale arteko hiriko zona batean kokatzen dela eta bidaiariek kalean kargatzen dutela jakinik.*

*Geltokiaren inguruan pertsona txiro batzuk ibiltzen dira, ondo baino hobeto ezagutzen ditugunak, eta askotan, poliziak berak ere ezin izaten du ezer egin.*

*Zaintza- eta kontrol-arazoek ez dituzte askoz ere polizia gehiago eskatzen; bai, ordea, ildo politikoak, arazo horiek konpondu ahal izateko.*

*Duela urte asko, miñoiak erabat egoten ziren geltokian.”*



- Prostituzio-etxe klandestinoa Florida kalean (Erreg. Zkia.: 402,414,416,423,424/04)

### *Erreklamazioa*

Hainbat bizilagunek salatu dute prostituzioa egiten dela Florida kaleko haien Jabekideen Komunitateko etxebizitza batean.

### *Azterketa*

Erakunde honek eskatuta, Vitoria-Gasteizko Udalak Udaltzaingoaren bidez ikerketa zorrotz bat egin zuen, eta bizilagunek jakin nahiko dutelakoan, txosten hau helarazi diegu:

*“Emandako aginduak jarraituz, Florida ibilbideko pisuan jarduera hori egiten den egiaztatzeko behar diren kudeaketak egin ditugu:*

*Eraikineko bizilagunekin telefonoz hitz egin dugu, eta adierazi digute azken hilabeteetan pisuan emakume desberdin asko sartzen direla gizonezkoekin. Bizilagunek pisu horretan prostituzioan aritzen direla uste dute, eta horretarako arrazoi hauek ematen dituzte: sortzen diren zaratak eta eragozpenak, pertsona ugari sartu-irtenean ibiltzea eguneko edozein ordutan, gizonezkoak erabat gora eta behera, pertsona horiek erakusten duten jarrera, egunkarian (RELAX atalean) agertu diren hainbat iragarki (iragarki horietan neskak eskatzen zituzten) eta telefono-zenbakiak. Ondorioz, bizilagunek pisuan prostituzioa egiten dela uste dute.*

*Bizilagunen komunitatea Epaitegietara jotzeko asmoarekin dago, prostituzioak bizilagunei eragiten dizkien eragozpenak ez ezik, jarduera horretarako administrazio – lizentziarik ez izatea ere, salatzen.*

*Agenteak bisita ugari egin dituzten arren, ez die inork erantzun; era berean, hainbat gestio egin dituzte, eta jakin dute pisu horretako arduraduna LJF deitzen dela eta honako telefono-zenbaki hau duela: XXXXXXXXXX.*

*Azkenik, telefono zenbaki horretan emakume batek 202 agenteari adierazi dio pisuan prostituzioa egiten dela, baina uzten ari direla bizilagunekin arazoak dituztelako.*

*Handik gutxira, agente berari abokatu batek deitu dio; hau da, LJF delakoaren interesak defendatzen dituenak. Abokatuak adierazi du emakumeak galdetzen duela Udaltzaingoak zer arrazoi dituen pisuaz interesatzeko. Emakumeak ziurtatu omen du gauza guztiak behar bezala dituela, eta prostituzioari dagokionez, gaia Epaitegietan dagoela. Abokatuak esan du LJFrekin hitz egingo duela nortasun batzuk guri ematearren, nahiz eta emakumea ados ez egon, norberaren eskubideak segurtasunaren gainetik daudela uste duelako.*

*Beste zenbait azterketa egin eta gero, agenteek jakin dute aipaturiko LJF dela prostituzioa egiten den Lope de Larrea kaleko lonja bateko arduraduna.”*

### *Ebazpena*

Sindikok honetako egindako gestioen ondoren eta bizilagunek erakutsitako interesa dela-eta, esan dezakegu Administrazioak indarrean dagoen legearen arabera jokatu duela, eta modu horretan **ESKU HARTU** duela Sindikok-Herritarren Defendatzaileak.

- Udaltzaingoaren tratu okerra (Erreg. Zkia.: 473/04)

### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek bulegoan adierazi du autoa aparkatzerakoan TAO zaintzailea agertu eta gaizki aparkatzeagatik bera bakarrik salatu zuela, gaizki utzitako beste auto gehiago ere bazeudenean. Agenteari hori esan, eta hitz itsusiekin erantzun zion. Erabiltzaileak esan du bere kasua Udaltzaingoaren egitekoa dela eta ez TAO zaintzailearena.

### *Azterketa*

Eragindako Sailari txosten bat eskatu diogu kontua Udaltzaingoaren eskumenekoa den ala ez jakiteko, eta erabiltzaileari jakinarazi diogun erantzun hau eman digu:

*“XXX aparkaleku-zaintzaileak, 2004ko azaroaren 22an, 11 zenbakia duen zona ( Andre Maria Zuriaren Koroatzearen kalea eta inguruak) zaindu behar zuen, eta, arratsaldean, ibilgailuak kentzeko udal-garabia eskatzeko agindua zuen, ordutegiaren agiririk ez zuten autoentzat. Funtzio hori txandakatu egiten da zaintzeko zona desberdinetan.*

*Edonola ere, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara zerbitzua eskaintzeko Pintore kaleko 68. zenbakian egonda (oinezkoentzako gunea, zamalanak ordu zehatz batzuetan egin daitezke), bulegorako joan-etorrian ikusten dituzten arau-haustek salatzeko agindua dute Udaltzainek (bereziki larriak direnak), gaizki aparkatuta dauden ibilgailuen ondotik pasa eta salaketarik jarri gabe gera ez daitezten, egokitzen zaien zonan ez egoteagatik. Bestela, hiritarrek udal zerbitzuaren irudi txarra jasoko dute. Gainera, hiritarrek ez dute kontu hori jakin beharrik; soilik ikusten dute zaintzaileak “autoa gaizki utzita dagoen lekutik pasa eta ez duela ezer egiten”.*

*Egun horretako salaketak aztertu ondoren, batean agertzen da 19:37etan zaintzaile horrek XXXXXX matrikulako Ford gris bat salatu zuela, oinezkoentzako gunean aparkatuta egoteagatik Pintore kaleko 57 zenbakian, eta bertan ez zegoela gidaririk (5200785 salaketa-zenbakia). Hori ondoriozta dezakegu, xxx zenbakiko aparkaleku-zaintzaileak TAOren bulegora itzulitakoan egindako salaketaren ordu eta lekuak bat egiten dutelako.”*

*Ebazpena*

Modu horretan **ESKU HARTU** dugu.

**e) Gaitzespena**

- Zamalanetako txartela (Erreg. Zkia.: 450/04)

*Erreklamazioa*

Bizilagun batek Bulego honetan salatu du *behar ez den isun bat jarri diotela, hiriko zamalanerako gunean autoa aparkatzeagatik.*

*Azterketa*

Erabiltzaileak elkarrizketan adierazi digu isuna jarri ziotela bere furgoneta zamalanerako gunean uzteagatik, eta baduela horretarako baimena, baimentzen duten eranskailuak jarrita baititu furgonetaren kanpoaldean.

Era horretan, **Hiri barruko bide publikoen Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzaren 13. artikuluan** agertzen dena jakinarazi diogu: ***“Zamalanak SALGAIEN GARRAIOAN diharduten ibilgailuek egingo dituzte, inoiz ez turismoeak, horretarako jarritako lekuetan eta seinaleetan agertzen den orduetan”.***

Ibilgailu batek salgaiak garraiatzeko, oro har, zerbitzu publiko edo pribatuko **salgaien garraioko txartela** behar du; txartela Arabako Foru Aldundiko Garraio Zerbitzuak ematen du.

Garraio-txartela hori hartzeko, 1999ko abuztuaren 24ko Ministro Aginduak ezartzen dituen baldintza batzuk bete behar dira; aginduaren barne dago **Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legeko araudia, errepide bidezko salgaien garraioa arautzen duena (BOE, 1999ko irailak 7)**. 32. artikuluan esaten da Salgaien Garraioko txartelen baimenen titularrek zein baldintza bete behar dituzten.

Kasu batzuetan, SALBUESPEN GISA, eta ekitate-arrazoiak medio, polizia-agenteeak baimena izaten dute gidaria eta haren autoa zamalanak egiten ari diren baloratzeko, nahiz eta txartelik ez eduki.

Hori dela-eta, erabiltzaileari esan behar diogu, salaketa 2004ko urriaren 5ean baliogabetu badiote ere, legez eta araudiaren arabera jarrita zegoela. Salaketa zorrotza izan zitekeen baina inola ere ez arbitrarioa edo legez kontrakoa.

Nolanahi ere, jakinarazi nahi diogu ibilgailu bat zamalanerako gunean aparkatzeko, **ez dela nahikoa industria-kategoria izatea**, baizik eta garraio-txartela eduki behar dela, eta araudian aipaturiko baldintzak bete, besteak beste:

Salgaien garraioan aritzen den enpresa batekoa izatea; zerga-, lan- eta gizarte-betebeharrak egunean edukitzea; lanbide-gaitasuna izatea salgaien garraioa burutzeko...

#### *Ebazpena*

Modu horretan aurkeztutako kexa **GAITZETSI** dugu. Erabiltzailea, ordea, gure erantzunaren aurka azaldu denez, honela **ORIENTATU** dugu: *“Zurekin egindako elkarrizketan adierazi zenigun isuna jarri zizutela zure furgoneta zamalanerako gunean uzteagatik, eta bazenuela horretarako baimena, baimentzen duten eranskailuak jarrita dituzulako furgonetaren kanpoaldean.*

*Ondoren, gutun bat bidali genion Administrazioak behar bezala jokatu zuela argitzeko, eta **Hiri barruko bide publikoen Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzaren** berri eman genion.*

*Halaber, adierazi genion Ibilgailu bat salgaiak garraiatzen aritzen dela ulertzeko, oro har, zerbitzu publiko edo pribatuko **salgaien garraioko txartela** behar dela, eta txartela Arabako Foru Aldundiko Garraio Zerbitzuak ematen duela.*

*Informazio hori jaso eta gero, gure Bulegora etorri eta ondorengo arazoitu zigun: **1999ko abuztuaren 24ko Aginduan garatzen den Garraioen Antolamenduari buruzko Legeko araudiak, errepide bidezko salgaien garraioa arautzen duenak**, 2. artikuluan garraio publiko edo pribatuko salgaien garraiorako txartela edukitzetik salbuesten dituela gehienez 2 Tn-ko pisua duten ibilgailuak.*

*Egia da, bai, xedapen orokor horren arabera erabiltzailearen ibilgailuak salgaien garraiorako txartel hori ez duela behar; hala eta guztiz ere, **jakin behar du zamalanerako gunea salgaien garraiorako ibilgailuentzat bakarrik dela.***

***Zamalanen txartela elementu adierazle bat besterik ez da.***

***Aurrean esan bezala, ibilgailu bat salgaien zamalanerako gunean aparkatzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:***

- 1.- Salgaien garraioan aritzen den enpresa batekoa izatea,*
- 2.- zerga-, lan- eta gizarte- betebeharrak egunean edukitzea,*

3.- salgaien garraioa burutzeko, lanbide-gaitasuna izatea, eta, jakina, jarduera horretarako eskatzen den lizentzia.

Hori guztia dela-eta, gure ustez, Udal Administrazioak behar bezala jokatu du bai Zuzenbidearen aldetik, bai Jardunbide Egokien aldetik.

Gainera, zure salaketa 2004ko urriaren 5ean baliogabetu zen, **fede onaren eta erruduntasun-ezaren** printzipioekin bat eginez. Dena den, esan behar da salaketa lege eta arauen arabera jarria izan zela.

**Arau-hauste objektiboko salaketa bat zen, zorrotza izan zitekeena, baina inola ere ez arbitrarioa edo legez kontrakoa”.**

#### **f) Baztertua/Ez onartua**

- Udaltzaingoak emandako tratua eta NAN desagertzea (Erreg. Zkia.: 419/04)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko emakume batek gure Bulegoan bi gauza salatu ditu: *batetik, Vitoria-Gasteizen gertatutako istripu batean Udaltzaingoak bere semeei emandako tratua; eta bestetik, seme horietako baten NAN desagertzea atestatua egiterakoan.*

Horren gaineko informazioa eskatu du.

#### *Azterketa*

Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen Araudiko 26 e) artikulua arabera, ezin dugu kexa hori onartu, “*gaia Epaitegietan edo Auzitegietan*” dagoelako.

Hala ere, Vitoria-Gasteizko Udalak 2004ko irailaren 17an txosten hau bidali digu, eta erabiltzaileari honela jakinarazi diogu:

*“2004ko maiatzaren 27an Administrazio-zehapenetako espedienteen instruktoreari aurkeztutako idatzian, agenteek ukatu egiten dute inori dokumentaziorik hartu diotenik; era berean, espedientea irekitakoek leporatutako akusazioak ere ukatu egin dituzte.”*

#### *Ebazpena*

Gure iritziz, gai horretan zuzenean parte hartzeko eskumenik ez dugu.

Hori dela-eta, kexa **BAZTERTU** egin dugu.

- Bizilagunen gaueko zaratak. (Erreg. Zkia.: 437/04)

#### *Erreklamazioa*

Emakume batek gure Bulegoan azaldu du *bizilagunek zarata handiak ateratzen dituztela gauetan.*

#### *Azterketa*

Bizilagunek gauez ateratzen dituzten zaratak direla-eta erabiltzailea jasaten ari den egoera salatzen duen kexa ikusita, bizilagunen arteko eragozpen horiek hiriko Zaratak eta Bibrazioak arautzen dituen Udal Ordenantzan sartzeko aukera aztertzen ari gara.

Oraingoz, elkarrizketan azaldu bezala, gertaera horiek ez dira Udal Ordenantzan jasotzen. Beraz, Demanda Zibilera jotzeko esan nahi diogu, eta Udaltzaingoari eska diezaiola kaltea eragiten dioten zaratak neurtzeko, ez isuna jartzeko asmoz; bai, ordea, egunen batean kalte-galera horiek zenbatzerakoan, froga gisa balio izateko.

Era berean, jakinarazi nahi diogu bere esanetara gaudela, etxeko zaratak neurtu nahi izanez gero, Udaltzaingoarekin hitz egiteko.

#### *Ebazpena*

Kexa **BAZTERTU** dugu, jarduteko eskumenik ez izateagatik.

Geroago, gai horren inguruko kexa ugari jaso ditugunez, 368/04 Erreg. Zkia. duen espedienteari buruzko ebazpeneko **oroigarria** egin dugu.

#### **g) Erabiltzaileak itxita**

- Hiritarren segurtasun-eza Iparraldeko parkean (Erreg. Zkia.: 467/04)

#### *Erreklamazioa*

Urbina eta Portal de Villarreal kaleetako bizilagun askok beren kexa agertu dute Sindiko honetan, Iparraldeko parkeko segurtasun-eza gero eta handiagoa dela-eta: gai sorgorgarrien salerosketa, talde liskartiak, bandalismoa, hiri-altzarien hondamena,...

Bizilagunek Hiritarren Segurtasunerako zinegotzi arduradunarekin bildu nahi dute, segurtasun-patruila batek ingurua erabat zain dezala eskatzeko, egoera hobetu dadin.

#### *Azterketa*

Gurekin elkarrizketatu baino lehen, erabiltzaileek telefonoz deitu digute bilera egin dutela eta gertatzen denaren berri emango digutela esateko.

#### *Ebazpena*

Beraz, kasua **ITXITA** geratu da **ERABILTZAILEAK** hala eskatuta.

#### **h) Idatzi lagundua**

- Ibilgailua lapurtu eta Udaltzaingoak non zegoen ez abisatu (Erre. Zenb.: 387/04)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek bulegoan azaldu digu ibilgailua lapurtu ziotela, eta Udaltzaingoak bilatu ondoren, ez ziola autoa non zegoen jakinarazi; kalte handiak jasan zituela atzerapenagatik.

Sailak emandako zerbitzu eskasa dela-eta, kalte-ordainak ordaintzea eskatzen du.

#### *Azterketa*

Sindikoarekin elkarrizketatu eta gero, erabiltzaileari ondare-erreklamazioa idazten lagundu diogu, Udaltzaingoaren zerbitzu publikoaren funtzionamendu okerra dela-eta.

#### *Ebazpena*

Modu horretan, **IDATZI LAGUNDUA** egin dugu, erabiltzaileak eragindako Sailean aurkez dezan.

### **2.3.6 HIRIGINTZA SAILA**

#### **2.3.6.1 ZUZENDARITZA**

##### **a) Oroigarria**

- Hirigintza-irregulartasunak Ikea jatetxean (Erreg. Zkia.: 422/04)

#### ***Erreklamazioa***

2004ko abuztuaren 18an bizilagun baten honako kexa hau jaso genuen: Ikea jatetxeak erabilera pribatuko gune bat hartu, bertan instalazio bat egin eta legez kontra erabiltzen du. Gune hori afariak emateko erabiltzen dute; hori dela-eta, sortzen diren zarata eta eragozpenak enbarazu egiten die bizilagunari, haren inguruko eraikinean bizi baita. Emakumearen ustez, Udalak oso pasibo jokutzen du; izan ere, gaur egun arte ez du inolako neurririk hartu hautsitako hirigintza-araua defendatu ahal izateko.

#### *Azterketa*

Kexa jaso ondoren, Eraikuntzen Erregimen Juridikoko Zerbitzuarekin hitz egin genuen kasuaren aurrekarietz, eta hark Ingurumen Sailera zuzendu gintuen.

2004ko urriaren 27an, jatetxearen lokal horren eta kexaren inguruko informazio eskatu genion Ingurumen Sailari.

Beranduago, 2004ko abenduaren 2an, Ingurumen Sailaren administrazio-unitateko buruzagitzaren txostena jaso dugu, eta txostenean honela adierazten da: garai hartan, **Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketarako Zerbitzuak** erabaki zuen Gaztelako Ateko 27. zenbakian dagoen IKEA jatetxearen jabeek beren jabetzako partzelan eraikitako eraikina DESAGERTU behar zela. Eraikin horren 25 metroko hondoa Gaztelako Ateko 3. zenbakiaren Barne Erreformako Plan Bereziko

konpentsazio-proiektuan emandako finkatzat hartzen da, **eta hori erabilera pribatuko gune librea izango da.**

**Egoera horren inguruan ARARTEKOAK ere 28/2002 gomendioa egin du; gomendio horretan argi agertzen da zein jokabide jarraitu behar den.**

Udalak bere txosten propioen xedeak ezagutzeaz gain, hirigintzako arauak defendatzeaz ere arduratu behar du.

Kasu horretan, bistakoa da lokal horren jabea ez dela nahita legea betetzen ari. Gainera, ez betetze horrek inguruko bizilagunen eskubide eta interesak nabarmen urratzen ditu, “gune libre” hori ostalaritzarako erabiltzeak hirugarren pertsona batzuek kaltetzen baititu.

Iritzi hori kontuan hartuta, Udalak *nahitaez* ziurtatu behar du, dagokien zerbitzuen bitartez, partzelaren jabeari erabilera pribatuko gune librean eraikitako eraikina *arrazoizko epea batean kentzeko* ESKATU dion.

#### *Ebazpena*

Udalak eskaera hori egin ez duen kasuan, **GOGORATU** behar diogu hirigintza-arauak betetzeko obligazioa duela, arau-hausleei beren borondatez betetzeko eskatuz; bestela, legea betetzeko beste prozedura batzuk erabili beharko ditu hirigintza-interesak zaintzeko.

**Bizilagunek gobernu on bat izateko eskubidea dute; beraz, administrazio-agintariek beren betebeharrak bete behar dituzte dagokien legea defendatzearren.**

**OROIGARRI** hori egin dugu.

#### **b) Orientazioa**

- Etxebizitzaren arteko horma (Erreg. Zkia.: 389/04)

#### ***Erreklamazioa***

Vitoria-Gasteizko bizilagun batek eskatu digu berak eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Eraikuntzen Erregimen Juridikoko Zerbitzuak dituzten desadostasunak argitzen laguntzeko (303/88, 127/91 espedienteak eta gainerakoak).

#### *Azterketa*

Lehenik eta behin, adierazi behar diogu, Zerbitzu horretako arduradunek esanda eta guk geuk espedientearen agertzen den zona hori zuzenean ikuskatuta, Hirigintzako zuzendariak emandako ebazpen bat dagoela, eta horren arabera, bizilagunak horma bota behar duela, Zuzenbidea behar bezala betetzeko.

Eskaera hori egin eta gero, betearazte subsidiarioa egiten da; horretarako, ordea, Udalaren aurrekontuak kontuan hartuko dira, baita hirigintza-arauak defendatzeko



ezarrita dituzten lehentasunak ere; izan ere, arau-haustea zenbaterainokoa den aztertu behar da, hirigintza-ordenamenduari zer kalte sortzen dizkion, hirugarren pertsonen segurtasun-arriskuak,...

Une honetan, Udalaren aurrekontua dela-eta, betearazte subsidiarioa aurri-deklarazioetarako eta bide publikoaren defentsarako gordetzen da. Eraikuntzen arteko mugei dagokienez, berriz, ezin da era horretako betearazterik premia larriaz burutu.

Dena den, egoera horretan arau-hauslearen aurkako akzio zibilak burutu ditzake, egun kaltea sortzen bada, eta akzio hori ekonomikoki ebaluagarria bada.

Beraz, gure ustez, Udalak une honetan zuzenbidearen eta administrazio-jardunbide egokien estandarren arabera jokatu du.

#### *Ebazpena*

Modu horretan, erabiltzailea **orientatu** dugu.

#### **c) Erabiltzaileak itxita**

- Tranbiaren ibilbidearen proiektuaren aurkako alegazioak (Erreg. Zkia.: 347/04)

#### ***Erreklamazioa***

Vitoria-Gasteizko bizilagun batek Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen bulegoan adierazi du tranbia dela-eta alegazioak aurkeztu zizkiola Hirigintza Sailari, eta ez duela inolako erantzunik jaso.

#### *Azterketa*

Kexa azaldu eta gero, Hirigintza Sailean tranbiaren inguruan aurkeztutako alegazioak ekartzeko eskatu diogu erabiltzaileari.

Baina kexa konpondu baino lehen, "Vitoria-Gasteizko Tranbiaren ibilbidearen proiektua. 1. fasea"ren alegazioen inguruan Eusko Jaurlaritzak emandako erantzuna jaso du erabiltzaileak.

#### **Ebazpena**

**KASUA ITXI** egin da, erabiltzaileak alegazioak aurkezteagatik.

- Gasolina-zerbitzugune berria Oto hiribidean (Erreg. Zkia.: 233-03)

#### *Erreklamazioa*

Gasolina-zerbitzugune bateko jabea Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen bulegora etorri da, bere gunetik 400 metrora beste gunea bat ireki behar dutela-eta kexatzen; gainera, Udalak gasolindegia berria egiteko baimena eman duela adierazi du.

Lizentzia hori berraztertze eskaera egin du.

### *Azterketa*

Erabiltzaileak Sindikoarekin egindako elkarrizketan, kexa azaldu eta sinatu du. Halaber, dokumentazio ugari aurkeztu du: horien artean, EAEko Auzitegi Nagusiaren eta Bilboko Udalaren Hirigintza Arloko hiru ebazpen, “Bilbo eta Donostiako gasolinazerbitzuguneen kokapena”ri buruzkoak.

Memoriaren amaieran espedientea irekita geratu da ebazpena emateko, baina **ERABILTZAILEAK ESKATUTA ITXI EGIN DA.**

### **2.3.6.2 ERAIKUNTZEN ERREGIMEN JURIDIKOA**

#### **a) Gomendioa**

- Legez kontrako eraikuntza terrazan (Erreg. Zkia.: 246/03)

### *Erreklamazioa*

Hiritar batek Sindiko honetan azaldu digu aurreko bizilagunak leihoan kristalekin tapatutako pergola bat duela, eta ez daukala hori kokatzeko lizentziarik. Udalak pergola kendu araztea nahi du, 2001. urteaz geroztik kentzeko ebazpena emanda baitago, baina oraindik ez da ezer egin.

### *Azterketa*

Erabiltzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, 2000. urteko uztailean, etxaurreko terrazan beranda erdizirkular bat eraiki zuten, inolako lizentziarik gabe. Urte berean, Udalak erabaki zuen lizentzia eskatzea edo, hala behar izanez gero, beranda kendu araztea. Hurrengo urtean, baimenik gabe egindako obra kendu arazteko izapide ugari martxan jarri ditu erabiltzaileak: batetik, instalazioaren jabearen aurkako hitzezko epaiketa aurkeztu du; bestetik, Udaleko arduradunekin elkarrizketatu da; eta azkenik, obra egiteko lizentziarik ez izatearen ziurtagiria aurkeztu du.

Ekarritako dokumentuen bidez ohartu gara etxebizitzako terrazan eraikuntza metalikoa egiteko ez dela lizentziarik eskatu, eta 185.2 artikulua arabera, Lurraren Legeko 184 artikuluaekin lotuta, lizentzia eskatzeko epea igaro eta gero, legez kontra eraikitako eraikuntza eraitsi egin behar da.

### *Ebazpena*

Gure iritziz, terrazako obraren lizentzia eskatzeko epean lizentziarik eskatu ez denez, ofizioz jokatu beharko da, eta administrazio-espedientearen bidez obra botarazi.

Hori dela-eta, Eraikuntzen Erregimen Juridikoko Zerbitzuari **GOMENDATZEN** diogu aipatu espedientea AZTER dezala, kasua konpontzeko benetan ohartarazpena egin den ala ez jakiteko, eta behar izanez gero, betearazte subsidiarioa martxan jar dezala, obrako materiala gutxi baita.

Gomendioa guztiz **onartu** da, botatzea eskatzen zen beranda erretiratu dela ikusi baitugu.

#### **b) Orientazioa**

- Obra txikiko lizentzia (Erreg. Zkia.: 429//04)

##### *Erreklamazioa*

Erabiltzaile batek bulegoan adierazi digu bizilaguna obra egiten ari dela eta hori egiteko lizentziarik baduen jakin nahi du. Gainera, kezkatuta dago obrak etxebizitzako elementu komunak kaltetuko dituela-eta.

##### *Azterketa*

Vitoria-Gasteizko Udalak 2004ko irailaren 29an bidalitako informazioan agertzen da 2004ko uztailaren 13an Errioxa kaleko bizilagun bati obra txikiak egiteko 6 hilabeteko luzapena eman ziela.

##### *Ebazpena*

Era horretan **ORIENTATU** dugu erabiltzailea.

- Bista-eskubidea urratua eraikuntzagatik (Erreg. Zkia.: 505/05)

##### *Erreklamazioa*

Erabiltzaile batek bulegoan salatu bere alboko etxebizitzan Vitoria-Gasteizko Arkeologia-museoaren zati bat jartzeko eraikin bat egiten ari direla. Eraikinak kalte handia egingo dio beren etxebizitzari, horko hiru leiho bistarik gabe geratuko baitira; beraz, bista-eskubidea nola defenda dezakeen jakin nahi du.

##### *Azterketa*

Eraikuntzen Erregimen Juridikoko Udal Zerbitzuko arduradunekin hitz egin dugu, eta adierazi digute gai hori hirigintza-arloko udal jardueraz kanpoko dela.

Gure ustez, kasu horretan aplikatzeko moduko hirigintza-araurik ez dagoenez, **Kode Zibileko 581. artikulua** arabera konpondu behar da. Artikuluak honela dio:

*“Bitartekoa ez den horma baten jabeak, beste finka baten alboan, argia sartzeko leihoak edo baoak ireki ditzake frontalen parean edo sabaitik gertu, 30 cm-ko laukian, eta behar izanez gero, paretan sartuta burdinsarea eta alanbrea jar ditzake.*

*Hala ere, **baoak dituen paretaren alboko onibarraren edo finkaren jabeak itxi ahal izango ditu horma bitartekoa erositik gero, eta aurkakorik adostu ezean.***

***Era berean, baoak ixteko bere lursailean eraiki dezake edo baoa edo leihoa duen hormaren alboan beste paret bat egin.***”

Uste dugu kasu horretan Udalak zuzenbidearen eta administrazio-jardunbide egokien arabera jokatu duela, Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen 26d) artikuluari jarraiki.

#### *Ebazpena*

Horrela **ORIENTATU** dugu erabiltzailea.

#### **c) Jarduera/Esku-hartzea**

- Ostalaritza-jarduerarako lizentziaren informaziorik ez (Erreg. Zkia.: 362/04)

#### *Erreklamazioa*

Auzotarren komunitate bateko ordezkariak Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen bulegora jo du jabekideen komunitatean hotela jartzeko asmoarekin dabilzala-eta, bizilagunei ez zaiela inolako informaziorik eman salatzeko.

Egoera argitzea nahi du.

#### *Azterketa*

Vitoria-Gasteizko Udalak 2004ko maiatzaren 17an txosten hau bidali digu, eta guk erabiltzaileari helarazi diogu:

Eraikuntzetako Zerbitzuak honela agertu du:

- 1.- Aipatzen den lekuan hotela instalatzeko lizentziarik ez da eskatu.
- 2.- 2004ko maiatzaren 6an obra-lizentzia eskatu da eraikin horretako 2. eta 3. solairuak berritu eta ostalaritza-erabilerara egokitzeko.

Espedientearen izapideari hasiera eman zaio; aurkeztutako proiektua Foru Aldundira bidali da, Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen arabera erabaki dezan.

3.- Zerbitzu horretatik Hirigune Historikoaren Sailera pasako dute, ikuskaritza-zerbitzuaren bidez jarduerari burutzen den ala ez ikusteko.

Hori guztia alde batera utzita, bizilagunei adierazi nahi diegu eraikinean ostalaritza-jarduera egiten dela ikusten badute, salaketa jar dezaketela.

#### *Ebazpena*

**ESKU HARTU** dugu bai bizilagunekin, bai Udalarekin, eskatutako informazioa erdiestearren.

- Legez kanpoko obrak botarazteko Udalaren pasibotasuna (Erreg. Zkia.: 349/04)

#### *Erreklamazioa*

Erabiltzaile batek bulegoan informazioa eskatu du, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza Arloko ordezkari jaunaren ebazpen batean jasotzen den zehapen-espeditentea irekitzearen inguruan. Hona hemen gaia: *Aurreko ebazpenean Dekretu bidez agindu zen Antso Jakitunaren kaleko patioan lizentziarik gabe eraikitako bi esparru botatzeko, lekua obrak egin baino lehen zegoen bezalaxe uztearren. Agindua ez zen bete; ondorioz, epe berria eman zen, eta berriro lizentziarik gabeko obra berri bat egin da.*

*Ebazpenean berriro agindua ematen da eskatzailearen gurasoen etxebizitzako atzeko patioaren terrazan lizentziarik gabe eraikitako obra botatzeko, eta ohartarazten zaie berriz ez badute agindua betetzen zehapen-espeditentea irekiko dela.*

Hori dela-eta, egoera argitzea nahi dute.

#### *Azterketa*

Horren inguruan informazioa eskatu dugu Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza Arloko ordezkari jaunaren ebazpenean aipatzen den zehapen-espeditentea ireki den ala ez jakiteko.

Gure eskaeraren bidez lortu dugu Udalak zerbait egitea; izan ere, ebazpenen bidez, Antso Jakitunaren kaleko terrazako eraikuntzak botatzeko agindua eman zen, eta 2003ko ekainaren 13an bietako bat bota zen. Ondoren, 2003ko azaroaren 6ko Dekretuaren bitartez, zehapen-prozedura ireki zen, eta azkenik, otsailaren 20an zehapen-prozedurari amaiera ematea erabaki zen, isuna ordaindu zelako.

Beranduago, 2004ko irailaren 17an, egiaztatu dute terrazako eraikuntzetako bat bota zutela, baina ez bestea. Hori dela-eta, bi hilabeteko epea eman zaie terrazako beste eraikuntza kentzeko, eta ohartarazpen bat egin zaie: agindutakoa berriro betetzen ez duten kasuan, zehapen-espeditentea ireki eta dagokien isunik altuena ezarriko zaila.

#### *Ebazpena*

Era horretan ESKU HARTU dugu, eta hala jakinarazi diogu erabiltzaileari.

#### **d) Gaitzespena**

- Igogailua jartzea etxebizitzaren aurrealdean (Erreg. Zenb: 345/04)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko emakume batek kexa hau azaldu du Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen bulegoan: Bide Publikoen Udal Zerbitzuak txosten batean adierazi die komunitatean jartzen den igogailuak eskailera aldera eduki behar duela irteera. Emakumeak, ordea, irteera balkoien aldera egiteko aukera eskatu zuen, bizilagunak

helduak eta minusbaliatuak direnez, horien arazoak konpontzeko eta etxebizitzan sartzeko eskailerak igo beharrik ez izateko.

*Beraz, igogailua etxebizitzaren aurrealdean jartzeko aukera eskatu du.*

*Azterketa*

Gai horren inguruan, Udalak txosten bat baino gehiago bidali dizkigu, eta erabiltzaileak ikusi nahiko dituenez, igorri egin dizkiogu. Hona hemen txostenak:

**1. Txostena:** *“Egoera zehatz bakoitza aztertu egin behar da, eta behar izanez gero, proiektu partikular bat egin; hori komunitate bakoitzak pribatuki egin behar du tekniko (arkitekto) baten laguntzarekin. Igogailuak jartzen dituzten enpresek lan horiek burutzeko profesionalak dituzte. Eraikuntza batean igogailua jartzea eraikuntza berritzea da, eta eraikuntzaren elementu komunak hartzen dituenez, goi-mailako arkitekto batek parte hartzea eskatzen du.*

*Dena den, orokorrean, ideia batzuk eman daitezke.*

*Nahikoa leku izanez gero, berrikuntzan jarriko den igogailuak apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuko ebazpenak beteko ditu; dekretu horrek irisgarritasunari buruzko arau teknikoak erregulatzen ditu (III. Eranskina, 5.3.4. artikulua eta V. Eranskina, 2. eta 3. artikulua).*

*Askotan, ordea, ez da nahikoa leku izaten; horregatik eta irisgarritasun-baldintzak hobetzeko asmoz, onartzen dira aipatutako araudia betetzen ez duten igogailuen kokapenak.*

*Kasu horietan, igogailuaren kokapenak aplikatu daitezkeen eraikuntza-arauak bete behar ditu. Plan Orokorrak arautzen ditu, besteak beste, barneko patioek izan behar dituzten baldintzak (5.01.30 artikulua) eta atari eta eskailera bezalako elementu komunen baldintzak (5.01.31 artikulua).*

*Halaber, NBE-CPI-96 suteen kontrako babes-araudia bete behar da. Arau horretako 7.4.3 artikuluan esaten da eraikinetik ateratzeko eskailerak eta korridoreak metro batekoak edo gehiagokoak izan behar dutela. Dena den, Suhiltzaileen Zerbitzuak, egoera eta baldintza batzuetan, zabalera horri zentimetro batzuk jaten uzten du (3.3 artikulua).*

**2. Txostena:** *“Ibilgailuak bide publikoan ezartzea ez du inolako udal ordenantzak arautzen.*

*Igogailua komunitateko elementu komun bat denez, eskailera bezalako elementu komunera eduki behar du irteera eta ez balkoi bat bezalako elementu pribatura.*

---

*Gainera, kontuan hartu behar da igogailua hirugarren pertsona batzuk erabil dezaketela.*

*Bestalde, nahiz eta araudi ofizialik ez egon, baditugu igogailua bide publikoan ezartzeko baimena emateko zenbait parametro tekniko; esaterako, solairuan 1,50 m baino gehiago ez hartzea.*

*Kasu honetan, aldiz, balkoi aldera irteera izateko, gutxienez 2 m izan behar ditu igogailuak, eta 2 ate, balkoi bakoitzerako bat; hori, jakina, eraikuntzak bi alde dituen kasuan, dokumentazioan ez baita zehazten.*

*Laburbilduz, igogailua etxebizitzaren aurrealdean jartzea guztiz desegokia iruditzen zaigu, eta hori inongo ordenantzan oinarritu gabe, baizik eta soilik iritzi tekniko batean, aurreko txostena bezala.*

---

*Laburbilduz, igogailu batekin bide publikoa har daitekeen galdetzeko kontsulta bat da. Gure ustez, egindako txosten teknikoa zuzena da; gainera, interesatuen interesa babesten du, herritarrenarekin eta hirugarren batzuenarekin batera.*

Kasu horretan, Udalak legearen arabera jokatu duenez, ezin dugu zure kexaren alde agertu.

---

#### *Ebazpena*

Kexa **GAITZETSI** egin dugu; beraz, zure eskaera ezin da burutu.

- Adierazi gabeko ordenazioz kanpoko terrazak (Erreg. Zenb: 474/04)

#### *Erreklamazioa*

Herrandarren kaleko hainbat bizilagunek bulegoan azaldu dute kale horretako eraikinetako terrazetan obrak egin ondoren, geratu egin dituztela Udaleko arkitekto teknikoaren lizentziarik ez izateagatik; etxebizitza OR-3 Ordenantzaren menpe dagoela aipatu dute, hau da, “Adierazi gabeko Ordenazioz kanpo”. Era berean, teilatupeko terrazetako egitura metalikoko eraikuntza legeztatze eskatu dute bizilagunek.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileei elkarrizketan jakinarazi diegu, kasua behar bezala aztertu eta ekarritako dokumentazioa berrikusi eta gero, hain zuzen ere, haien etxebizitza “Adierazi gabeko Ordenazioz kanpo” daudela, **Vitoria-Gasteizko Hiri Ordenazioko Udal Plan Orokorra**ren arabera; hori dela-eta, **“ez da etxebizitza handitzeko obrarik baimenduko, Arau Orokorretako edo Espezifikoko baldintzak betetzeko neurriak ez badituzte”**.

Kasu horretan, dauden etxebizitzak handitu nahi dira, terraza-teilatupeko lekua aprobetxatuaz.

Sustatzaileen helburua etxebizitza handitzea ez bada ere, nolabait handitu egingo da; beraz, aplika daitekeen hirigintza-araudia urratuko da, eta araudiari dagokionez, Udalak ezin du salbuespenik egin.

**Ondorioz, Udalaren jokaera zuzena izan da, bai legearen aldetik, bai administrazio-jardunbide egokien aldetik.**

*Ebazpena*

Kexa **GAITZETSI** egin da.

**e) Baztertua/Ez onartua**

- Armentia inguruan eraikitzea galarazi (Erreg. Zkia.: 30/02)

*Erreklamazioa*

Bizilagun batek gai guztiz juridikoa eta zaila aurkeztu digu, hirigintza-araudiak zorrotz arautzen duena.

Armentia inguruko egikaritzapen-unitate baten onarpena berrikustea nahi du, eraikitzea galarazten baitie, eskatzen den gutxieneko azalera baino gutxiago edukitzeagatik; hortaz, formulak bilatu nahi ditu han etxebizitza eraiki ahal izateko.

*Azterketa*

Sindikoak Udalari Hirigintzako Plan Orokorra eskatu zion, eta plana aztertzen aritu zen, bizilagunak aurkeztutako kexaren inguruan ebazpen bat emateko asmoz. Beraz, espedientea irekita geratu da aurreko Memorian.

Aurrez, Udalaren txostenak jaso ditugu.

Erabiltzaileari jakinarazi nahi diogu, kexa baloratu eta ekarritako dokumentazioa aztertu eta gero, kasua hasiera-hasieratik Sindikoaren eskumenaz kanpo zegoela; izan ere, hirugarren batzuen eskubideak tartean sartzen ziren, denboran ere finkatua zegoen eta Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioan aurkeztua zen.

Zehazki, ulertzen dugu Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen Araudiaren arabera:

*26. artikulua:*

*“Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak kexak baztertu ahal izango ditu, ondorengo arrazoi hauek medio:*

*a)...*



b)...

c)...

e) *Epaitegietan eta Justizia Auzitegietan dauden gaiak.*

...

Gure iritziz, ez dago guk zuzenean parte hartzeko moduko eskaera zehatzik, ezta erabiltzaileari kaltea sortzen dion Udal Sailik ere.

Ondorioz, Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen Araudiko 26 e) artikulua aintzat hartuta, eskatutakoa *ezin dugu onartu.*

*Ebazpena*

Aurkeztutako kexa **EZ DUGU ONARTU.**

#### **f) Erabiltzaileak itxita**

- Bizilagunen patioko aire egokituaren instalazioa (Erreg. Zkia.: 355/04)

*Erreklamazioa*

Bizilagun batek salatu du bizilagunen patioko barne-fatxadan hozteko eta berotzeko ekipamendu bikoitza legez kontra instalatuta dagoela; eta patioa haurrak jolasteko parkea dela.

Kasua aztertzeaz gain, ekipamendua kentzea nahi du.

*Azterketa*

Sindikoa erabiltzailearekin elkarriketatu ondoren, kasua aztertzen hasi da, baina irtenbide bat bilatu baino lehen, aparatua kentzen ari direla adierazi du erabiltzaileak.

*Ebazpena*

Aurreko arrazoia medio, **KASU ITXITA** geratu da.

### **2.3.6.3 BIDE PUBLIKOA**

#### **a) Gomendioa**

- Erdi Aroko hiriguneko auzoen aldeko sustapen neurriak, parkingak erabiltzeko (Erreg. zk.: 213/03)

*Erreklamazioa*

BARRANCAL auzo elkarteak, beste kontu batzuen artean, gure Erdi Aroko Hiriguneari aparkalekuen gaiarekin duen arazo berezia azaltzen digu.

Hiriko gainerako auzuneei alderatuta, gune jaso bat da eta, beraz, beste alde batzuetan baino behar handiagoa dago, sarritan, ibilgailua erabiltzeko; bestalde, kaleak

estuak dira, trazadura zaharra dutelako, eta ez dute aparkatzeko aukerarik uzten. Hori dela-eta, aparkatzeko guneak sistematikoki desagerrarazten ari da Udala.

Baldin eta Udalak benetan sinesten badu Erdi Aroko Hiriguneak indarberritze bultzada bat merezi duela eta, orobat, balio handiagoa emango liokeen ikuspegi berri bat ere, behar-beharrezkoa da bertako biztanleen bizimodua erraztea; eta, horretarako, ezinbestekoa da bertako egoiliarrek aparkalekuaren alorrean pairatzen dituzten murrizketa objektiboak orekatzea. Landatxoko lurrazpiko parkingaren eraikuntza lanak ahal den neurrian bizkortzea da haien eskarietariko bat. Barne Berrikuntzarako Plan Berezia (BBPB) aurreikusita dago, izan ere, parking hori eraikitzea.

Beste eskari bat, kasu honetan aztertuko duguna, honako hau da: Erdi Aroko Hiriguneko bizilagunen aldeko sustapen neurriak har daitezela, TUVISAk Molinuevon eta Artiumen kudeatzen dituen parkingak erabiltzeko.

#### *Azterketa*

Egindako eskabidea abiapuntutzat harturik, bilerak egin ditugu TUVISAren zuzendaritzarekin eta Lehendakartzako Zinegotzigoarekin, informazioak alderatzeko eta aukerak aztertzeko.

Jaso ditugun informazioetatik ondoriozta dezakegu Udala jakitun dela Erdi Aroko Hiriguneak aparkalekuen gaiarekin dituen zailtasunen gainean, eta hala erakusten du BBPBan xedatutako aurreikuspenak, etorkizunean Landatxo aldean lurrazpiko aparkaleku bat egitea dela-eta.

Udal administrazioak, bestalde, jakin behar du ezen, alor honetan, ez garea Zerbitzu Publiko batez ari, edota funtsezko eskubide bat babesteaz, baizik eta produkzioaren alorraz, balio ekonomikoa duten produktu eta zerbitzuen eskaintzaz, lehia babesteko erregulazio europarren mende betiere, eta, beraz, ezinezkoak dira doako esku-hartze publikoak, edota kostuaren azpitikoak, soilik egoitzaren arrazoia gatik.

Bestalde, kostuak aztertzeko lan bat egiten ari da TUVISA, Molinuevoko eta ARTIUMeko parkingaren hirugarren solairua baldintza ekonomiko egokiagoetan eskaintzeko aukera ebaluatzeko; esaterako, % 15 edo % 20 merkeago 1. mailaren azpitik, oro har, lehenik alde horretako egoiliarrei eta, geroago, hiritar guztiei zuzendua.

Azken aukera horrek *dumping* ekonomikoaren (kostuaren azpitiko eskaintza) eragozpena saihestuko luke; izan ere, hirugarren mailako aparkaleku bat izango genuke, merkataritza balio apalagokoa, eta, bestalde, lehentasuna Erdi Aroko Hiriguneko egoiliarrei emango litzaiekeen arren, hiriko gainerako biztanleak ez lirateke kanpoan geratuko.

#### *Ondorioa*

Azaldutako guztiagatik, uste dugu administrazio jardunbide egokia eta gomendagarria dela hori, bizitokia Erdi Aroko Hirigunean duten auzo sektoreen bizi baldintzak hobetzeko sustapen efektibo baten ikuspuntutik, sektore horiek beste eragozpen batzuk jasan behar baitituzte, hiriko gune historiko eta enblematiko horri bizia ematearren. Proposatutako formulak, gainera, kontuan izan beharreko beste lege baldintzak errespetatzen ditu, alegia: lehiaketaren araukiko errespetua, egoitzatokiagatiko diskriminazio negatiboa galaraztea...

Hori da gure txostena, eta oinarri sendoagoak dituen beste edozein txostenen mende uzten dugu.

- Sansomendi auzoko hutsuneak (Erreg. Zkia.: 275/03)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek Iratxeko Monasterioaren kaleko oinezkoentzako gunean (Antonio Machado kalean amaiera duena) oinezkoen pasabidea jartzeko eskaera egin du; oinezkoak joan-etorrian ibiltzen direnez, lorategitik pasa eta bidezidorra egin baitute.

Halaber, gauza bera gertatzen da Lizarra kaleak Aralar Mendiaren kalearekin egiten duen izkinan; pasabide laburragoa eta naturalagoa izateagatik, oinezkoek pasabide bat egin dute lorategian.

#### *Azterketa*

Bulegoak deituta, erabiltzailea bulegora etorri da aurrez idatzita aurkeztutako kexa azaltzearren. Ezinegona erakutsi du aipatu zonan oinezkoentzako pasabiderik ez izateagatik.

#### *Ebazpena*

Sindikoak **GOMENDIO** hau egin du: bizilagunak esan bezala, aipatu zona horietan oinezkoentzako pasabideak egin daitezke; gainera, jendeak batetik bestera igarotzeko pasabide horiek erabiltzen ikasten du. Horrela, trazatua bide publikoen erabilerara egokituko da, eta modu horretan, ez da bidezidorrik egingo lorategietan.

Gomendioa **onartu** da.

- Defizientziak Barrenkalean (Erreg. zk.: 213/03)

#### *Erreklamazioa*

Barrenkale Auzo Elkarteak, Bizikleteroak elkarteak eta Saregune Zentroak kexa-eskaera bat helarazi digute, lehenago Udalari horren berri eman arren ez

**baitzuten nahi bezalako erantzunik jaso; hain zuzen ere, bizikletak aparkatzeko eta lotzeko sistema bat jarri nahi dute Saregune horren ondoan, Bueno Monreal kalean dagoen “Haurtzaro Udal Haurtzaindegiaren” ondoko espaloian, lokal horren aurrean.**

Eskaera egiteko **arrazoiak** hauek dira:

1. Saregune martxoaren 29tik eta apirilaren 19tik aurrera irekita dauzka atea egunean 12 orduz, goizeko 10etatik gaueko 22ak arte.

Bertako bizilagunek ikusi ahal izan dutenez, **gero eta jende gehiago joaten da erdialdera bizikletaz, eta inguru horretan ahal den moduan aparkatu behar izaten dituzte**, bai zerbitzu horretako sarreran bertan edo inguruko zuhaitz edo seinaleetakoren bati lotuta.


2. Saregune Zentroaren helburuetako bat teknologia berriak erabiltzeko aukera sustatzea eta bultzatzea da, batez ere gazteen artean, eta gazteen talde hori da bizikleta gehien erabiltzen duena.

**Bizikletentzako aparkalekua jarriko balitz**, eta udala gaur egun bizikleta erabiltzeko egiten ari den apustuari esker, **aukera gehiago sortuko lirateke eta pixkanaka gero eta gehiago erabiliko litzateke.**

3. Bueno Monreal kalea zeharkatzen duen Santa Maria kantoia Erdi Aroko Herrigunera sartzeko kaleetako bat da. Aldaparik ez duen kale-tarte batean era horretako aparkaleku bat jartzea **“pizgarri” moduko bat izan liteke jendeak Herrigunerako joan-etorriak egitean garraio bide hori erabil dezan, bizikletak leku seguru eta egoki batean uzteko aukera izango bailukete.**
4. **Saregune justu aurrean dagoenez** eta bertako atea jarraian goizeko 10etatik gaueko 10ak arte irekita daudenez kalean argitasun gehiago dago eta bertan jendea etengabe dabil, eta horrek zalantzarik gabe segurtasun gehiago emango dio aparkalekua erabili nahi duen edozeini.
5. Azkenik, **auzokoek begi onez ikusiko lukete Udalak ingurune hori sustatzeko ekimen positibo hori hartzea**, normalizaziorako elementuak dituelako (beste leku batzuetan bezala), pauso txikiak baino esanguratsuak direlako, eta maila apalean bada ere, pixkanaka Herriguneko kaleetan barrena doazen **ibilgailuen presioa gutxitzen lagundu dezaketelako.**
6. Auzo-elkarteak eskaera horren bideragarritasuna azaltzen duen krokisa ere aurkeztu du.

Kontuan hartu behar da kale horretan espaloia dagoen aldean **nahikoa leku badagoela** 15 edo 20 bizikletentzako aparkaleku bat jartzeko. Orain autoak ez

aparkatzeko hormigoizko zilindro batzuk jarrita dauden espaloi-tarte horretan egongo litzateke aparkalekua, hartzaindegiko eskaileretatik hasi eta ibilgailuentzako biderainoko horretan. Espaloiaren tarte hori behar bezain zabala da eta **oinezkoak lasai pasatzeko moduko zabalera du**. Marrazkian ageri den bezala geratuko litzateke:



Erabili beharreko **“aparkaleku-mota”** Hiriko beste leku batzuetan dagoen bera izango litzateke, hau da Probintzia Plazan – Aldundian, Artium Museoan edo “San Frantzisko aldapan” erabilitakoa (**altzairu herdoilgaitzezkoa**), **Erdi Aroko Herrigune osoak itxura homogeneoa izan dezan**.

#### *Azterketa*

Duela hamarraldi batzuetatik hona bada hirigintza, ingurumen, gizarte eta politika gaietan adostasun moduko bat dioena gure hirietan bakarkako joan-etorriak egiteko autoa inolako mugarik gabe erabiltzea ez dela bateragarria nahi dugun bizi-kalitatearekin. Uste horretan oinarriturik, Europan mugikortasun eta garraiorako politikak garatzen ari dira garraio publikoa (metroa, tranbia, autobusa...) sustatzeko, ibilgailuak elkarrekin erabiltzeko, *bizikleta erabiltzeko*; aldi berean, hiri-erdialdeetan ibilgailuen trafikoa gutxitu eta oinezkoentzako guneak handitzeko neurriak hartu behar direlako ideia finkatu da.

1990. urtean Europako Batzordeak **“hiri-inguruneari buruzko Liburu berdean”** bizikleta aipatu zuen esanez oso tresna baliagarria dela hirietan trafikoaren

ugaritzeari aurre egiteko, batez ere oso kale estuak dituzten antzinako hirietan, horietan ibilgailu motordun guztiak ibiltzeko zailtasun handiak baitaude. Autoek sortzen duten trafikoa kontuan hartuta, bizikletak abantaila nabariak ditu, modu nabarmenean gutxitzen baititu trafiko horrek sortutako ondorio txarrak: hau da, zarata, istripuak, airearen kutsadura, hiri-guneen erabilera desegokia, ondare arkitektonikoaren hondamena, biztanleriaren osasunari kalte egitea eta hiri-erdialdeetako biztanleek alde egitea.

Arrazoibide horri eutsiz, Europako Batzordeak bizikletaren aldeko ekimenak bultzatzen jarraitu eta 1999an Europako udalerrietan bizikleta erabiltzeko “**Bizikletaz ibiltzeko moduko Hiriak, etorkizuneko Hiriak**” izeneko eskuliburua kaleratu zuen. Liburu horretan eskaera egin zien Europako hiriei bizikletaren erabilera sustatzeko konpromisoa har zezaten, baina ez bakarrik herritarrak sentsibilizatzeko neurrien bidez, baizik eta ekimen zehatzago batzuen bidez, bizikleta garraio bide gisa hartzen dutenek gero eta aukera eta erosotasun handiagoa izan dezaten.

2002ko ekainaren 18an Bide Publikoaren Zerbitzuak ontzat hartu zuen guk honen antzeko kasu batean egin genion gomendioa.

Bestalde, Vitoria-Gasteizko Udala ahalegin handia egiten ari da gaur egun Erdi Aroko gunea sustatu eta eraberritzeko, eta ahalegin hori oso kontuan hartzekoa da, kasu honetan bizilagunek aurkeztu duten eskabidearekin bat baitator erabat.

Adierazitako guztia kontuan izanik, ondoko ondorioak atera ditut,

### *Ondorioa*

**Udalari GOMENDATZEN DIOGU**, Sindikoaren- Herritarren Defendatzai- learen Arautegian ezarritakoaren arabera eta bertan aurreikusitako hedaduraz, **Sareguno ondoan Bueno Monreal kalean dagoen Haurtzaro Udal Haurtzaindegiaren ondoko espaloian, bizikletak aparkatu eta lotzeko aparkatze-sistema bat jartzea, Erdi Aroko Gunean bizikletaren erabilera sustatzeko asmoz.**

- Estolderia gaizki jarria Sanmaniego kalean (Erreg. Zkia.: 471/04)

### **Erreklamazioa**

Emakume batek salaketa hau egin du: *Zerkabarren kalean, Etxebide eraikinaren parean, lurrean bi kutxeta daude, eta ibilgailuak han pasatzen direnean izugarritzko zarata ateratzen dute; zarata hori jasaten ari da urtebete baino gehiagoan.*

Arketak konpontzeko eskatu du.

*Azterketa*

Inguruan izan gara, eta argazkiak atera ditugu. Alde batetik, ikusi dugu bide publiko horretako kutxeten tapak ez direla neurrikoak; horrela, ibilgailu bat pasatzen den bakoitzean zarata ateratzen dute, eta zarata hori biderkatu egiten da inguru horretan izugarritzko auto pila ibiltzen baita. Beraz, sortzen den danbada gogaikarria da eta batere behar ez dena.

Bestalde, kutxeten tapak Udalaren izena dutela ohartu gara.

Kutxeten tapen titulartasun-erantzukizunaz gain, Udalak bide publikoen gainean duen erantzukizuna dago; hori udalerriek duten eskumen nagusia eta klasikoa da, Gobernu Lokala Modernizatzeko Neurrien abenduaren 16ko 57/2003 Legeko (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Lege aldatua) 25.2 d) eta 1) artikuluen arabera. Honela esaten da: “...*Estatuko eta Komunitate Autonomoetako legeak agindu bezala, Udalak, hala behar izanez gero, gai hauen gaineko eskumena izango du:*

*d) Hirigintza-ordenazioa, -kudeaketa, -egikaritzea eta -diziplina; (...) **hiriko bide publikoen zolaketa** eta landabideen zaintza.*

*l) Ur-hornidura eta argiteria publikoa; bideak garbitzeko eta hondakinak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuak, **estolderia** eta hondakin-uren tratamendua.”*

Kasu horretan, gure ustez, egokiena litzateke Udal Administrazioak aipatu kutxeta horiek konpontzea, Udalarenak bezala agertzen baitira. Gainera, esan berri dugu Udalerraren erantzukizuna dela bide publikoak zaintzea.

### *Ebazpena*

Aurrean adierazitakoa kontuan hartuta, Bide Publikoen Zerbitzuari **GOMENDATU** nahi diogu kasu honetan erreklamazioa onartu eta Zerkabarren kalean, Etxebide eraikinaren parean, dauden kutxeten tapak konpon ditzala; modu horretan bizilagunei ez baitzaie kalte gehiago egingo.

### **b) Ofiziozko gomendioa**

- [Erorikoa Erdi Aroko azokan \(Erreg. zk. 364/04\)](#)

### *Erreklamazioa*

Gomendagarri irizten diogun IRADOKIZUNA egin digu herritar batek.

Eskatzaileak egin duen kontsulta udal administrazioaren kontra aurkeztu zuen ondare erantzukizuneko erreklamazio bat ezesteko ebazpenarekin dago lotuta; Erdi Aroko Azoka zela eta Vitoria-Gasteizko Alde Zaharrean erori zelako aurkeztu zuen erreklamazioa.

### *Azterketa*

Eskatzaileak bulegora jo eta adierazi zuen Alde Zaharrea Erdi Aroko Azokan zegoelarik irristatu egin zela apaingarri gisa lurra banatu zen lastoaren erruz; izan ere, leku aldapatsuetan ere banatu zen lastoa, San Frantzisko aldapan esaterako.

Horren ardura zuen udal sailari ondare erantzukizuneko eskaera egin zion, erorikoaren ondorioak larriak izan baitziren. Hainbat mediku txosten aurkeztu zituen eta inguruan zeuden pertsona batzuk lekuko izateko prest agertu zirela ere alegatu zuen.

Ondare Erantzukizunaren Atalaren ebazpen baten bidez, ordea, erreklamazioa ezetsi egin zen proposatutako frogetako bat bera ere egin gabe; erreklamazioa ezesteko oinarri bakarra Kultura Sailaren txostena izan zen, zeinaren arabera ez omen baitzegoen irizpide estatistiko nahiko egiaztatzeko Erdi Aroko Azoka zela eta inguruan gertatu ziren erorikoak 4/100.000 proportziotik gorakoak izan zirela.

Bide Publikoen Zerbitzura igortzen da, baina ez dagokio horri, eta Kultura Sailera igortzen da hurrena.

### *Gomendioa*

Horregatik guztiarengatik, hau **GOMENDATZEN DUGU**:

Badakigu dagoeneko onetsi dela 2004ko irailaren 25 eta 26an egitekoa den **Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreko Erdi Aroko Azoka** antolatu, gauzatu, koordinatu, diseinatu, zuzendu eta kudeatzeko lehiaketa. Beraz, eskatzen dugu **diseinu proposamenak balioesteko unean kontuan har dadila kaleak girotzeko jartzen diren apaingarriek herritarrentzat izan dezaketen “arriskua”**. Adibide zehatz bat ematearren: alde aldapatsuetan (San Frantzisko aldapan, kasu) lurra banatzen den lastoa irristagarria izan daiteke eta herritarrak erori egin daitezke.

Aipatu dugun kasu jakinari dagokionez, bestalde, uste dugu ez dela bidezkoa erreklamazioa ezesteko argudio bakartzat estatistikak erabiltzea. Estatistika datu hutsak ez dira nahiko ebazpena ikuspuntu juridikotik oinarritzeko, baldin eta erabiltzaileak proposatu dituen frogetako bat bera ere egin ez bada.

Beraz, komenigarri deritzogu ondare erantzukizuneko erreklamazioa aurkeztarazi duen gertaera argitzeko behar diren frogak egiteari aurrerantzean, eta eskatzen dugu ez daitezela juridikoki baliokotzat eman estatistika irizpide hutsak horrelakoak ebazteko, gainera, administratua babesik gabe uzten baitute argi eta garbi.

Eragindako Sailak ebazpena **onartu** eta ondorengo erabaki du: lurra lastorik ez botatzeko agindua jaso dute, gerta daitezkeen erorikoak eta, era berean, garbitasun-arazoak saihestearren.



### c) **Jarduera/Esku-hartzea**

- Ntra. Sra. De las Mercedes ikastetxeko obrak (Erreg. Zkia.: 358/04)

#### *Erreklamazioa*

Erabiltzaile batek bulego honetan eskatu du Biasteri kaleko Nuestra Señora de las Mercedes ikastetxearen ingurua egokitzea, obrak amaitu ondoren.

Ikastetxeko atearen aurreko espaloian babesteko jarrita zegoen hesia berriz jartzea nahi du eta ikastetxean sartzeko jarri duten koska kentzea.

#### *Azterketa*

Emakumeak elkarriketan kexa azaldu eta sinatu ondoren, Sindikoak Bide Publikoen Zerbitzuarekin hitz egin du gaiari buruzko informazioa eskatzeko.

Hala, Bide Publikoen Zerbitzuak adierazi du salatutako obrak oraindik ez direla amaitu eta babesteko hesiak ahal denean jarriko dituztela; sarrerako koska, berriz, kendu eta arrapala txiki bat jarriko dutela. Gainera, horren guztiaren jakinaren gainean dago Ikastetxeko zuzendaria.

#### *Ebazpena*

Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak horrela **ESKU HARTU** du. Bide Publikoen Zerbitzuan obrak salatuta, badirudi erabiltzailea gustura geratu dela.

### d) **Gaitzespena**

- Motoentzako aparkalekua (Erreg. Zkia.: 392/04)

#### *Erreklamazioa*

Bulego honetan eskatu dute *hirian motoentzako aparkaleku gehiago* jartzea.

#### *Azterketa*

Vitoria-Gasteizko Udalak (Hirigintza Saila – Bide Publikoen Zerbitzua) 2004ko irailaren 30ean, bizilagunari igorri diogun informazio hau bidali digu:

“1.- Gaur egun, Bide Publikoen Zerbitzuaren arabera, hirian motoentzako seinaleztatutako 11 aparkaleku daude, zehazki honako leku hauetan:

- *Prado kalean*
- *Gamarrako atean*
- *Julian Apraiz kalean*
- *Aska kalean*
- *Foru kalean*
- *Eulogio Serdan kalean, Jesusen Zerbitzarien fundatzailearen bidegurutzean*
- *San Martingo aparkalekuan*
- *Gorbea eta Badaia kaleen bidegurutzean*

- *Cervantes ibilbidean*
- *Wellingtongo Dukearen kalean*

2.- *Bide Publikoen Zerbitzuaren iritziz, motoa autoak aparkatzeko lekuan aparka daiteke arazorik gabe.*

*Hala eta guztiz ere, motoentzako aparkalekuetan seinaleak jarri dira honako arrazoi hauek daudenean:*

*2a) Udalak lekuren batean motoak pilatuta ikusten dituzenean; normalean oinezkoentzako gunean gertatzen dira pilaketa horiek, eta ohitura hori konpondu behar izaten da.*

*2b) Hiritarren batek horretarako eskaera egiten duenean, aurrean aipatutako arrazoi medio. Gainera, egoera frogatu egiten da.*

*Beraz, motoentzako aparkalekuak jartzeko irizpidea da gune jakin batean aparkatutako motoak pilatzea.*

*Ebazpena*

Kasu horretan, esan behar dugu Udalak behar bezala jokatzen duela, eta 2b) puntuan ageri bezala, era horretako edozein eskaera edo iradokizun egin daitekeela Bide Publikoen Zerbitzuan.

Hori guztia dela eta, kexa **GAITZETSI** dugu.

#### **2.3.6.3.1 Hilerrriak**

##### **a) Gomendioa**

- Hileta-eskubideak aldatzeko testamentua eman beharra (Erreg. Zkia.: 421/04)

*Erreklamazioa*

Hiritar batek gure bulegoan honako desadostasun hau azaldu du: “Salvador” Hilerrriko hilobiari dagokionez, betiko hileta-eskubidearen titulua aldatzeko eskaera egin zuen, eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Hilerrrien Administrazio-Kudeaketaren Zerbitzura familiaren testamentuaren kopia eramateko eskatu zioten.

*Azterketa*

Dagokion Udal Zerbitzuak esan digu, hileta-eskubidea oso pertsonala denez, titularrak hiltzerakoan, eta aldatu nahi duen pertsona ez den beste bati herentziaz aldatua ez dela izan ziurtatzearen, behar-beharrezkoa dela testamentua kontsultatzea.

Hasiera batean, Zerbitzuak ez du testamentuaren kopia gordetzeko inolako interesik, baina zaila da egoera egiaztatzea soilik leihatilan bertan erakutsita; horregatik, kopia ondo aztertu behar da, eta egiaztatu ondoren, interesdunei itzuliko zaie arazorik gabe.

**DBLOko 4. artikuluan** jasotzen dira Datuak Babestearen printzipioak, baita Datuen kalitatea ere. Norberaren datuei buruz 5. atalean honela esaten da:

*“...datuak ezabatu egingo dira, bildu edo erregistratu ziren xederako beharrezkoak izateari utzitakoan” eta “Ez dira gordeko bildu edo erregistratu ziren xederako behar den baino denbora gehiagoan interesduna identifikatzea baimentzen duten moduan”.*

Agindu hori aintzat hartuta, kasu horretan, betiko hileta-eskubidearen titulua aldatzeko, Udal Administrazioak ez du zertan dokumentazio hori eduki eskaeraren xedeak behar duen baino denbora gehiagoz. Hortaz, behin eskubide horren titulartasuna egiaztatutakoan, familia-testamentuaren kopia OFIZIOZ itzuliko zaio eskatzaileari.

#### *Ebazpena*

Horregatik, **GOMENDIO** hau egingo diogu eragindako Sailari: Sindikoaren Herritarren Defendatzailearen Araudiaren arabera eta bertan aurreikusitako hedaduraz, protokoloan sar dezala, ofizio-ekintza bezala, Hileta-eskubideak aldatzeko beharrezkoak den dokumentazioa (testamentua) itzultzea, horretarako behar den informazioa eskuratu eta gero.

Sailak gomendioa ONARTZEAZ gain, ondorengoa gaineratu du: *“Kaltetuaren baimenik ez da behar, batetik, norberaren datuak Herri Administrazioen funtzioak beren eskumenen arloan betetzeko ematen direnean; eta bestetik, negozio-, lan- edo administrazio-kontratuaren edo aurrekontratuaren kasuan, eta datuak kontratu hori betetzeko beharrezkoak direnean.*

*Hilerrien administrazio-erregimena guztiz Udalen eskumenekoa da.*

*Bestalde, udal-hilerriek duten jabari publikoaren izaera aintzat hartuta, behar-beharrezkoa da partikularrek egiten duten erabileran (panteoiak edo nitxoak uztean), Administrazioari behar den dokumentazioa ematea.*

*Hilobien edo nitxoen titularra aldatzeko baimena beste lizentzia edo baimenen moduan ematen da; horregatik, Udalari titulartasuna aldatzeko eskatzen zaionean, eskubideak arrazoitzen dituzten dokumentuak aurkezteko eskaera egiten du Udalak.*

*Kasu horretan, esaterako, testamentu gabeko jaraunslearen testamentua edo aitorpena aztertu behar da, notarioak herentziaren onarpena egin duen, e.a., Udalak hileta-eskubidearen titularraren jaraunsleari administrazio-baimena eman diezaion.*

*Dena den, kexa eragin zuen testamentua itzuli zitzaion delako hiritarrari”.*

- “Salvador” hilerriko nitxoa erregistratzea (Erreg. Zkia.: 480/04)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek honako azalpen hau egin du Sindikoan: bizilagunaren ama hil ondoren, “Salvador” hilerriko nitxo batean lurperatzea erabaki zuen, nitxo hutsik baitzegoen eta bere lehengusu propioarena baitzen; jabetza-aldaketa, berriz, beranduago egingo zuela pentsatu zuen. Ehorzketa egin eta hilabete batera, salerosketa-kontratu

baten bidez nitxoaren titulartasuna aldatzea erabaki zuten, lehengusuaren izenetik hildako emakumearen jaraunslera. Kontua da, ordea, Udalak ez ziela erregistratzen utzi.

#### *Azterketa*

Jakin badakigu, “*Salvador*” Hilerriko araudiaren eta Hilerrien Ordenantza fiskalaren arabera, hilotzak edo gorpuak dituzten nitxoan, eraikitako hilobien, panteoien edo mausoleoen betiko lagapenaren titulartasuna ez dela inola ere bizidunen artean aldatuko; soilik lagapenaz edo herentziaz aldatuko da titulartasuna. (35. art.).

Era berean, badakigu araudiak salbuespen bakarra egiten duela; hau da, irabazizko edo kostu bidezko transmisioen baimena, ehorzketak egin baino lehen edo barruan egon daitezkeen gorpuzkiak lekuz aldatu ondoren.

Baina aipatutako **Ordenantzako 35. artikuluko laugarren paragrafoan** honako hau ere esaten da: *udal-baimena emango da, lagapen- eta transmisio-gaietan, Araudiaren izpiritua saihestu nahi ez dela frogatzen denean; horrekin hilobiak salerostea galarazi nahi da; hortaz, Udalak erabiliko luke lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea (...).*

Kasu honetan, objetiboki begiratuta, erabiltzailearen xedea bere amaren gorpua familiako hilobian hilobiratzea besterik ez da, hilobia salerosteko inolako asmorik gabe.

Beraz, argi dago Hilerrien Araudiko izpiritua ez duela saihestu nahi, baizik eta ama maitea hildakoan, familiaren egoera zela-eta, huts egin zutela hileta-eskubideen titulartasuna aldatu baino lehen gorpua hilobiratzean.

#### *Ebazpena*

Hilerrien Zerbitzuko arduradunari **IRADOKIZUN** bat egin nahi diogu; hain zuzen ere, kasu horren antzekoen baldintza zehatzak azter ditzatela, eta araua modu zabalagoan aplikatu dezatela, gutxiago murriztuaz, hileta-eskubide horren transmisioa egitearren (“*Salvador*” Udal Hilerriaren Araudiko 35. artikulua).

Ebazpena, ordea, Sailak **ez du onartu**; haien ustez, “Udalaren Araudia diziplina juridikoa ezartzeko instrumenturik egokiena da, hileta-baimenak administrazio-baldintza berezikoak izaten baitira. Egoera horretan, ezin da inolako eskubide subjektiborik erabili Araudiaren aurrean; izan ere, arauak administrazio-tipifikazio hori berresten du, matizazio zehatz, jakin eta oso espezifiko bidez”.

### **2.3.6.4 MUGIKORTASUN ETA GARRAIOA**

#### **a) Gomendioa**

- Oto Montal plazaren mantenimendua (Erreg. Zkia.: 284/03)

### **Aurreko Memoriako erreklamazioa:**

Oto Montal auzo-elkartea Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen bulegora joan da bere arazo larria adieraztera; gizarte-laguntzako etxebizitzaren jabeentzako zaila dela Oto Montal plazaren mantentzea burutzea, hain zuzen ere.

Elkartek neurriak hartzeko eskatu du plazari dagozkion hainbat arazo konpontze aldera: baldosak irristakorrek izatea eta hautsita egotea, lorategiak zaintzea, itxiturak egitea, beheko pisuetako hezetasuna ondoan dituzten lorategiak direla-eta, argitasun-falta, larrialdiko ibilgailuak plazara sartzeko zailtasuna.

#### *Azterketa*

Sindikoa-Herritarren Defendatzailea elkartearekin elkarrizketatu da haien kexa ezagutzeko asmoz.

Hirigintza eta Etxebizitzaren 2003ko informazio-batzordean egoera aurkeztu zuten, erabiltzaileek bulego honetan salatutakoa, alegia. Erabilera publikoa duen plaza pribatua da, eta plaza egoera txarrean aurkitzen denez, mantentze-lanak egin behar dira. Vitoria-Gasteizko Udalak konpromisoa hartu du etxe gorrien barne aldeko guneko zoladura berritzearen inguruko txostena egiteko (etxe gorriak deitzen dira plaza kolore horretako etxez inguratua dagoelako). Halaber, adierazi da lurra ondo dagoela, baina irristatu egiten dela. Garajeetan hezetasuna dagoela era aipatu da, baina lurzorua pribatua denez, hori jabeen esku dago. Batzorde horretan antzeko kasuak (erabilera publikoko zona pribatuak) aztertzekotan geratu dira, eta gune horien jabetza nola eskuratu erabakitzekotan.

Aurreko Memoriaren amaieran, espedientea zabalik geratu da, erabilera publikoko zona pribatuen azterketaren zain, ebazpen bat ematearren.

### **1. erreklamazioa**

Paula Montaleko Auzo Elkarteak Paula Montal-Otoko «etxe gorriak» izenaz ezagutzen diren etxeek pairatzen dituzten eraikuntza eta urbanizazio arazoaren auzia aurkezten du.

Pisu horien titular diren 438 familiek 1981ean eskuratu zituzten etxebizitzak, VIMUVISAren –etxebizitzaren udal enpresaren– eskutik.

Zenbait arazo antzeman zituzten, hasiera-hasieratik, hala etxeetan nola plazan eta garajeetan. Izan ere, txosten bat eskuratu digute, 1983.04.07ko data duena, Luis González Cebrecos eta Francisco Barreal Fernández aparejadoreek izenpetua.

Erreklamazio prozesu luze baten ondoren, eta konponketa partzialak tartean, 2004ko urtarrilaren 27an Elkarteak txosten orokor bat eskatu zion J.V. aparejadoreari,

aipatutako etxebizitzek eta urbanizazioak dituzten arazoen jatorrizko kausak – eraikuntzakoak izan edo ez– zeintzuk ziren zehazteko, besteak beste.

*Azterketa*

Aipatutako txostenean, jarraian ageri diren kalteak adierazten dira, bai eta kalte horien jatorrizko kausak –eraikuntzakoak edo ez– ere:

### **1.- Plazan ibilgailuak sartzeko ezintasuna**

«Egituraren kalkulua egiteko aurreikusitako kargak eta ezaugarri teknikoak Obrak Egikaritzeko Proiektuaren memorian jaso behar izan ziren, zehazki NBE-AE arauaren arabera Proiektuan Onartutako Grabitazio Akzioen fitxan; eskatzen den datua, berriz, Sotoko Sabaiaren egiturarentzat aurreikusitako erabilera gainkarga da.»  
Proiektuaren formazko akats bat da.

### **2.- Euri eta elur egunetan labaingarria da lauza.**

«Plazaren zoladura egiteko, gres lauza erabili zen, 10/20 cm-ko formatukoa; gainazala zertxobait zimurtsua den arren, ez da, itxuraz, behar bezain zimurtsua, ez behintzat euri iraunkorreko eta elurreko egunetan erabat irristagaitza izan dadin. Geroago, pertsonentzako zidor edo pasabide batzuk eraiki ziren (*Udalak eraiki zituen, aipatutako eraikuntza akatsean zuen erantzukizuna bere gain hartuta*), kareore jarraitua erabiliz, gainazalean eskuilaz tratatua, gainazalaren zimurdura nabarmendu eta, horrela, itsaspen handiagoa lortzearren. Pasabide horiek eraikitze erabilitako prozesu osoa ezagutu gabe ere, argi dago lortu dela zoladuraren labaingarritasunaren eragina minimizatzea, baina, itxuraz, eraikitze sistema ez da egokia izan, pasabideen narrio nabarmena ikusita, zati ugari eroriak baitaude, seguruenik aurretiaz ez zelako behar bezala prestatua zidorrek oinarri duten orubea.»

Urbanizazioaren eraikuntzako akats bat da.

### **3.- Dilatazio junturak eta berorien egoera, rotaflex batez ebakiak izan baitziren, azpimarratuz ez daudela hautsiak denboraren eraginagatik, baizik eta ebakiak izan zirelako.**

«Egindako bisitan, disko birakariaz irekitako juntura ugari ikusi ahal izan nituen plazaren zoladuran. Oro har, modu naturalean irekitako pitzaduren gainean egin dira juntura horiek, eta, kasu batzuetan, horien jarraipen gisa.

.../...

Ondorioz, haustura ugari eman dira plazaren zoladuran; nabarmenenak dira egiturazko junturekin bat datozenak, tratatu gabeak, plazaren zoladuran; beste batzuk, ez horren ikusgarriak, zoladuraren estaldura materialean dilatazio junturarik ez egoteak eragindakoak.

Akats hori konpontzearen, plaza eraiki ondoren ebaki ugari egin dira zoladurako lauzaren gainean, diskoa erabilia horretarako. Juntura horiek, lehendik zeuden pitzaduren gainean eginak izan baitira, ez dituzte betetzen zoladuraren egiturazko eta dilataziozko mugimenduak xurgatzeko beharrezko diren baldintzak, batez ere sakonera eta lodiera faltagatik. Gainera, ez dira modu egokian tratatuak izan; izan ere, gehienak zigilatu gabe daude, eta hezetasunak eta eguraldiaren laztasunak modu negatiboan eragin dute haiengan. Horregatik aurkitzen dira, hain zuzen, plaketa ugari askatuta juntura horien ondoan. ”

Akats horiek eraikuntzari egotz dakizkioke.

**4.- Ur iragazketak, plazaren eraikuntza akatsen ondorioz sortuak, eta iragazketa horiek plazari eusten dion bilbaduran duten eragina, horietako batzuen armazoa erabat herdoilduta ikusten baita, zementuzko geruzarik gabe, geruza hori zatitan puskatu denez gero.**

«Sotoan badira ur iragazketa batzuk, sabaiaren egiturari kalte egin diotenak; zehazki, iragazitako urak armadura kaltetu du, hura herdoildu baitu eta, hedapenez, estalduraren hormigoia leherrarazi du, eta solairuko gangetako azpiko ertzetan askatu egin da.

Iragazketa horiek, seguruenik, kaltetutako eremuaren gaineko lorategi gunean dauden zuhaitzen sustraien eraginagatik gertatu dira, erabilitako iragazgaizte sistema hondatu baitute sustrai horiek»

Kasu horretan, kaltea ezin dakioke zuzenean egotz eraikuntza akats bati, baizik eta zuhaitzen eraginari; hala, argitu beharreko galdera da zuhaitz horiek enpresa sustatzaileak sartu ote zituen lorategi gunean, edota zuhaitz publikoak ote diren. Kasu bietan ere, Udala, zuzenean edo zeharka, erantzule izango litzateke.

**5.- Lorategiei atxikitako behe solairuetan hezetasunak dituzten eraginak.**  
Puntu honetan, perituaren txostenak ez du iritzirik ematen.

**6.- Lorategien akabera txarra, etengabeko iragazketak baitituzte.**

«Plaza eraikitzerakoan, zoladuran eta lorategian, ez zen eraikuntza, dilatazio edo uzkurdura junturarik egikaritu. Plaza osatzen duten eraikinen arteko mugimendu diferentzialak –zimenduak asentatzean, egiturak dilatatzean, etab. sortuak– kontuan hartu dira eraikinetako sotoaren sabaiaren egitura eraikitzean, baina ezin izan dira libreki eta modu bideratuan lekualdatu plazara, ez baitago horiek xurgatzeko moduko junturarik, eta, horrela, kontrolik gabeko hausturak gertatu dira eraikuntzaren puntu ahuletan.

.../...

Erabilitako eraikuntza sistema guztietan ikus daiteke patologia hori; zoladurak, lorategien ingeradak, hormigoizko hodiez eraikiak, sarek armatutako hormigoiz estaliak eta lauza txikiez jantziak, etab.»

Eraikuntza akats nabarmen eta larria da hori.

Beraz, BOST URTEko epean identifikatutako eraikuntza akatsen kasu baten aurrean gaude; akats horiek behin eta berriz erreklamatu dituzte kaltetuek, eta sustatzaileak du akats horiek konpontzeko ardura, hala xedatzen baitu uztailearen 24ko 2114/1968 Dekretuak (babes ofizialeko etxebizitzan gaineko Legea aplikatzeko erregelamendua onartu zuenak), 111. artikuluan. Hori guztia, Kode Zibilaren artikulua hauek aurreikusitako erantzukizun ekintzei kalterik egin gabe: 1.484 eta hurrengoak, 1.591 eta 1.909; eraikitzaileen eta arkitektoen erantzukizuna berariaz arautzen dute artikulua horiek.

Interesdunek jakinarazi digutenez, Udalak ez ditu aipatutako eraikuntza akatsak ukatzen, baina balizko hitzarmen bat aipatzen du, bere garaian José Ángel Cuerda alkatearekin izenpetua, zeinaren bitartez adostu baitzen auzokoek «erreklamaziorik egiteari uko» egingo ziotela, prezioaren zati bat barkatzearen eta doako garaje plaza baten truke. Akordio horren balorazio juridikoa egin ahal izateko, beharrezkoa litzateke hura ezagutzea eta klausulak zehazki interpretatzea, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, baina, printzipioz, uko egite hori pertsonala eta indibidualizatua izan beharko litzateke, eta berariazkoa eta zalantzarik gabekoa; bestela izanik, izan ere, ez luke, gure iritziz, inolako baliorik izango sustatzailearen legezko betebeharren aurrean.

*Ebazpena*

Horregatik guztiatik, honako hau da gure **GOMENDIOA**, Sindikoaren – Herritarren Defendatzailearen– Erregelamenduan xedatutakoarekin bat, eta bertan xedatzen den norainokoarekin:

**Udalak onar dezala Paula Montal-Otoko bizilagunek egindako erreklamazioa, plazaren eraikuntzako akatsen konponketari eta eraikuntzako akats horien ondorioz sotoek eta garajeek izandako kalteen konponketari buruzkoa, Udalaren VIMUVISA enpresari egotz dakizkiokeen eraikuntza akatsak baitira.**

**Baldin eta aipatutako eraikuntza akatsei eta berorien erantzukizunari buruz transakzio akordio bat existituko balitz, ezinbestekoa litzateke egiaztatzea akordio hori modu *personal eta indibidualizatuan eta berariaz eta zalantzarik gabe* izenpetu dela.**

Gure ikuspegitik, Udalaren erantzukizuna da, batetik, Udala bera sustatzailea delako, baina, bigarrenik, iruditzen zaigu ezen etxebizitzan sustapen haien helburu



sozialak ekintza positibo bat eskatzen diotela Udalari eta, berdintasunaren alde orobat, aurkeztutako erreklamazioari baiezko erantzun bat saihestea eragozten dutela.

## *2. erreklamazioa*

Sindikioan OTO-MONTAL auzo-elkartearen kexa jaso genuen; elkarreak Oto hiribideko eta Paula Montal kaleko bizilagunak ordezkatzeko ditu.

Inguruan ARRISKUA sumatzen dute auzokoek, bereziki, Oto hiribideko oinezkoentzat; izan ere, ibilgailuak izugarriko abiadan ibiltzen dira hiribide horretan, batez ere goizeko lehen orduan eta iluntzean.

Kexa urtarrilaren 13an Oto-Montal auzo-elkarteko ordezkariekin egindako bileran azaldu ziguten, eta hilaren 17an komunikabideek zabaldu zuten 71 urteko gizonetako bat harrapatu zuela 39 urteko gidari batek, Nafarroako matrikula zuen Mercedes auto batekin.

Auzotarrek salatzen dute Oto hiribidean zenbait orduetan (eguneko lehen orduetan eta iluntzean) ibilgailuak 90 km/h abiadan ibiltzen direla, 50 km/h baimenduta dagoen bitartean.

### *Azterketa*

Oto hiribidearen sarreran, zubia pasa baino lehen, abiadura mugatzeko sakangune bat jarri du Udalak, baina 50 km/h abiadura adierazten duen argizko seinale bat ere, muga gainditzen denean pizten dena.

Gainera, Hiribideko ibilbidean BOST semaforo daude aktibatuta, beren zebra-bide eta guzti, eta beste bat ez hain aktiboa Aliko biribilgunean. Oinezkoek, ordea, bidearen ezaugarriengatik, zebra-bidetik pasa ordez, beste leku batzuetatik zeharkatzen dute kalea; beraz, ondo egongo litzateke **hesiak** jartzea pasatzerik ez dagoen zonetan, oinezkoen diziplina jartzearen.

Industrigunera sartzeko biderik garrantzitsuenetariko bat da inguruko hori; beraz, kamioi eta kargadun ibilgailu ugari ibiltzen dira. Horregatik, ez dago ondo abiadura mugatzen duten sakangune gehiago jartzea, karga-mugimendu arriskutsuak eta bizilagunentzako zaratak sortuko bailirateke. Dena den, dagoen arazoa ikusita, kabina eta RADAR FINKO batek ezarritako abiadura-mugak betearaziko lituzkete.

Gure inguruko beste hiri batzuetan ere urte askotan eduki izan dituzte RADAR FINKOAK arriskua sumatu duten gune zehatzetan; gune horietan jendeak ez baititu abiadura-mugak borondatez betetzen. Ikus: Bilbo...

Gainera, neurri horrek bat egiten du Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren politika orokorrekin. Horrela, radarrak jartzearekin batera, gehiegizko abiaduragatik sortzen diren istripuak erraz jaisten dira. Komunikabideek jakinarazi dute Trafikoko

Zuzendaritza Nagusiak 500 radar finko jarri behar dituela Espainiako errepideetan datozen hiru urteetan (2005 eta 2007 artean); eta hori errepidean hildakoen kopurua nabarmen gutxitze eta batez besteko abiadura murrizte aldera. Neurri horrek dirua biltzeko ondorioa ere badu, nahiz eta asmoa hori ez izan – gidariak radarrak non kokatzen diren bai baitaki –, modu horretan radarren finantzazioa errazten baita.

Esan bezala, zirkulazio-abiadura kontrolatzearen helburua ez da dirua biltzea, baizik eta ohartarazpenen bidez istripuak saihestea; horregatik, radar finkoak non kokatuta dauden argi eta garbi adierazi behar da, gidariak abiadura-kontrolak non dauden jakitearren. Esate baterako:

- Informazio-panelen bidez, abiadura kontrolatzen dela jakinaraziko da aurrez.
- Jar daitezkeen radar finkoen informazioa argitaratu egingo da.
- Tarteka emaitzen estatistikak ere zabalduko dira: arau-haustekak, isunak,...

Erreferentziazko txosten teknikoen arabera, kontrol-mota hori oso egokia da

- Abiadura-gehiegikeriak goitik behera murrizteko.
- Errepideko batez besteko abiadura murrizteko.
- Hildakoen kopurua %10 gutxitzeko.
- Abiadura kontrolatzen aritzen diren hainbat agente beste zerbitzu batzuk zaintzera eramateko; horrela, giza baliabideak aurrezten dira.

### ***Ebazpena***

Jarrita dagoen abiadura-muga egokia da, eta gidariak muga hori betetz gero, ez dago zertan bestelako neurririk hartu; askotan, ordea, betetzen ez dutenez eta bide horretan ibiltzen den trafiko ugariak oinezkoentzako arrisku objektiboa –**bizia eta integritate fisikoa**– sortzen duenez, aintzat hartu behar da Oto-Montal auzo-elkartek aurkeztutako kexa. Ondorioz, GOMENDATZEN dugu ezarritako abiadura-mugak betearazteko neurriak hartzea, AURREKONTUAK EMATEN DITUEN AUKEREN ARABERA:

- **RADAR FINKOKO kabina bat jartzea. Eguneko zein gaueko radarrak badaude.**
- **Aliko biribilguneko semaforo ez aktiboa aktibatzea.**
- **Erdibitzailean batetik bestera hesi bat jartzea, Gasteiz hiribidean dagoenaren antzekoa, oinezkoen zirkulazioa arautzeko.**

Karga ibiltzen duten ibilgailu ugari pasatzen denez, ez da egokia muga kontrolatzeko sakangune gehiago jartzea; bai, ordea, RADAR FINKOAK.

Hori da gure ustea, eta bestelako iritzi hoberik izatekotan, gustura jasoko genuke.

- Esperantza-Herrandarren kaleko aparkalekua (Erreg. Zkia.: 296/ 03-377/04)

#### Erreklamazioa

Sindikoan kaltetutako hirugarren batzuek honako hau adierazi digute: *Esperantza kalean, La Paloma kalea eta Herrandarren kalearen artean, espaloi txiki bat dago, eta tarteka ibilgailuak bertan aparkatzen dituzte; hori dela-eta, oinezkoek galtzadara irten behar izaten dute, oinezkoentzako gunean ibiltzeko lekurik geratzen ez zaielako.*

Erabiltzaileek espaloia zabaltzea nahi dute eta burdin forjatuzko gontz batzuk jartzea, ibilgailuak ez aparkatzearren. Horrez gain, trafiko-arduradunek zaintza-lanak egitea eskatzen dute.

#### *Azterketa*

Jasotako txostenak kontuan hartuta, espaloian autoak ez aparkatzeko elementu fisikoak jartzeak ez du arazoa konpontzen; izan ere, espaloiak 1,50 m baino gutxiagoko zabalera du, eta elementu fisiko horiek gehiago estutuko lukete; gainera, modu horretan, irisgarritasunaren arau teknikoak ez lirateke beteko.

Hori dela-eta, irtenbiderik egokiena da Esperantza eta Herrandarren kaleko espaloien lerroak berritzea; Herrandarren kaleko lerroak hobetzeaz gain, Esperantza kaleko bi espaloien zabalera handituko litzateke. Bestela, berriz, espaloi horiek kendu eta zoladura maila berean utzi beharko da.

Era berean, Udaltzaingoaren ofizialei, hau da, eguneko arduradunei, jakinarazi diegu, ahal duten neurrian, zona horretako agenteek kontuan har ditzatela kale horietako trafikoak eta ibilgailuen aparkatzeak sortzen dituzten arau-haustekak.

#### Ebazpena

Aurreko guztia ikusita, Bide Publikoen Zerbitzuari GOMENDIO hau egin nahi diogu: guk proposatutako irtenbidea azter dezatela; hain zuzen ere, **Esperantza eta Herrandarren kaleko lerroak berritzea espaloien zabalera handitzeko asmoz, edota espaloiak kentzea eta zoladura maila berean uztea.**

Gomendioa **onartua** izan da, eta Udaltzaingoaren ofizialei horren berri eman zaie; era berean, aipatu kaleak berritzearen inguruko azterketa egiteko eskatu zaie.

- Oinezkoentzako pasabidea Blas de Otero kalean (Erre. Zenb.: 434/ 04)

#### Erreklamazioa

Emakume batek salatu du *Blas de Otero kalean, Donostia kaletik Forondako atera bitartean, ez dagoela oinezkoentzako pasabiderik ez eta beheratutako zintarririk.*

#### *Azterketa*

Ingurua ikuskatzen egon ondoren, ikusi dugu oinezkoek ezin dutela modu seguruan Blas de Otero kalea batetik bestera zeharkatu, Donostia kalearekin elkartzen denetik Forondako Atearen biribilgunera bitartean. Gainera, oinezkoek “fikziozko”

bidexka bat egin dute Blas de Otero kalean, pertsona ugari ibiltzen baita, lotzen dituen kaleak trafikoarentzako itxita egoteagatik. Halaber, Udal Zerbitzuek gomazko sare antzeko bat jarri dute lurrian, pasabidea markatzeko asmoz. Honekin batera doaz argazkiak.

Esan behar dugu Lakuabizkarran, hau da, kale hori dagoen auzoan, oinezkoen kopurua izugarri handitzen ari dela, eta horien segurtasuna hobetze aldera, behar bezala seinaleztatutako oinezkoen pasabide bat jartzea eta zintarriak beheratuta traba arkitektonikoak kentzea aurrerapen oso positiboa izango litzatekeela.

### *Ebazpena*

Horregatik guztiagatik, Hirigintza Sailari **GOMENDATZEN** diogu Blas de Otero kaleko aipatu zatian, “fikziozko” pasabidea gomarekin markatu den gunean, oinezkoentzako pasabide bat jartzea eta bertako zintarriak beheratzea.

Gaiari buruzko eta horrekin zerikusia duten beste bi espedienteren (209/03 eta 275/03) inguruko informazioa jaso dugu. Honatx:

Vitoria-Gasteizko Udalaren eskumeneko Zerbitzuak jakin bazekien trafiko handia sortzen ari zela Lakuabizkarra-Lakua eta Arriaga-Sansomendi inguruan, baina ezin izan da momentuz zirkulazioa behar bezala arautu, harik eta biztanleak behin betiko bertan finkatu eta Vitoria-Gasteizko zona berri horretako zerbitzuak ikusi arte. Horregatik, behin-behineko neurriak hartu dira “fikziozko” pasabideak jarriaz, sortu berria den auzo horretan biztanleak behin betiko bizitzera joan arte.

Udalak 2005eko ekitaldiko aurrekonturako proposamen bat egiteko asmoa du, zonako segurtasuna eta oinezkoena hobetzeko, oinezkoentzako pasaguneak jartzearren (bakarren bat sakagailu eta guzti).

Zehazki, bi semaforo jarri behar dira: bata, Baiona kalean, eta bestea, Euskal Herria bulebarraren eta Donostia kalearen arteko gurutzean.

Baiona kaleko bidegurutzearan biribilgune handi bat dago, Wellingtono Dukearen kalearekin elkartzen den gunean, eta bidegurutze horren diseinua dela-eta, barrualdeko eraztun-itxurako galtzada zabalera handikoa da; horregatik, bertan abiadura handiz zirkulatzeko errazten da. Gainera, bidegurutzeak ikuspen handia duenez, efektu hori areagotu egiten da.

Hori dela-eta, ondo deritzogu Baionako kalea bidegurutzearen ekialdean zeharkatzen duen oinezkoentzako pasabidea finkatzeari. Leku hori hautatu dugu Wellingtono Dukearen kalea zeharkatzeko dagoen pasabidea jendez gainezka egoten delako, bidegurutze horren hegoaldean. Aldi berean, Lakuako merkataritza-gunea ere kontuan hartu dugu eta Blas de Otero eta Wellingtono Dukearen kaleen arteko eskolauhartea ere bai, Iparralde-Hegoalde ibilbidea aipatu lekutik egitea bultzatzen baitute.

Modu horretan, Euskal Herria bulebarra eta Donostia kalearen arteko bidegurutzearan oinezkoentzako pasabidea jarriko da, sakagailu eta guzti, hango segurtasuna hobetzeko asmoz.

Oinezkoentzako bi pasabide berri horiekin, Lakua auzorako diseinatutako jarduera-plana martxan jarriko da; plan horren bidez oinezkoen segurtasuna bermatu nahi da.

**b) Ofiziozko oroigarria**

- Sailen arteko koordinaziorik ez galtzadako obrak jakinarazteko garaian (Erreg. Zkia.: 06/ 04)

**Erreklamazioa**

Sindiko honetan adierazi dute zirkulaziorako bideak eta hiriko bidegurutzeak erabat okupatuta egoten direla hainbat obra medio, eta ez dutela horren berri aurrez eman ez Udaltzaingoak ez Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak.

*Azterketa*

Horrek erakusten du Udal Zerbitzuen arteko koordinaziorik ez dagoela, eta modu horretan, hiritarrak oso kaltetuak suerta daitezke.

Europar Batasuneko Eskubideen Gutunean esaten da hiritarrek administrazio egokia izateko eskubidea dutela, eta botere publikoek konstituzionalki eta legalki koordinazioz jokatu behar dutela beti, are gehiago Administrazioaren barnean.

**Ebazpena**

Aurrean adierazi bezala, Hirigintza Sailari, Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuari, Bide Publikoen Zerbitzuari eta Udaltzaingoari **GOGORATU** nahi diegu nahitaez elkarrekin koordinatu behar dutela, eta nahikoa aurrez jakinarazi behar dituztela Udalaren edozein jarduera zuzen, baimendu edo kontrataturikoagatik hiriko ibilgailuen eta oinezkoen trafikoan eragina izango duten kasuak; modu horretan, arduradunek egoera leuntzeko neurriak hartu eta aurreikuspenak egingo baitituzte, Vitoria-Gasteizko hiritarrek jasan ditzaketan kalteak saihestuz.

Gaur egungo bitarteko elektronikoei esker, zerbitzuen arteko komunikazioa arina eta fede-emailea da.

Gainera, trafikoa eta mugikortasuna dira Herri Administrazioaren eskuduntzarik funtsezko eta nagusienak, hiriko eguneroko bizitzan modu zehatzagoan eragiten dutenak, alegia.

Halaber, **GOGORATU** behar dugu **Alkatea**, Herri Administrazioaren burua denez, Sail eta Zerbitzu desberdinen arteko koordinazioaren arduradun nagusia dela, eta hari dagokiola aginduen eta zirkularren bitartez beharrezko neurriak hartzea, koordinazioa benetakoa eta eraginkorra izan dadin.

Hori **GOGORATU** nahi dugu Sindikoaren-Herriarren Defendatzailearen Araudian ezarritakoaren arabera eta bertan aurreikusitako hedaduraz.

**c) Orientazioa**

- Minusbaliatuen txartel-eskaera ukatua (Erreg. Zkia.: 469/ 04)

#### Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko herritar batek *minusbaliatuen txartela ematearen gaineko informazioa* eskatu du, *besoa mugitzeko arazoak dituela-eta*.

#### Azterketa

Gaiari buruzko txostenak eskatu ditugu, eta herritarrari interesatuko zaizkiolakoan helarazi dizkiogu.

#### Ebazpena

Modu horretan, erabiltzaileari **ORIENTAZIOA** eskaini diogu.

#### **d) Esku-hartzea**

- Alde Zaharreko TAO gunea berraztertzea (Erreg. Zkia.: 05/ 03)

#### Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko hiritar batek *Alde Zaharreko 2 eta 5 TAOak partekatze*ko aukerarik badagoen jakin nahi du.

#### Azterketa

Erabiltzailearekin egindako elkarrizketaren ondoren, Vitoria-Gasteizko Udalak (Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak) 2004ko uztailaren 8an honako txosten hau bidali digu:

*“Tekniko honen asmoa dela udal-gobernuari TAOren erregulazioa berritzeko proposamen tekniko bat egitea; proposamenean aukera bat baino gehiago aurkeztuko dira.*

*Aurrez ezin dela jakin politikoek zer erabakiko duten, hau da, proposamen guztiz edo zatika onartuko duten, edota bestelako aldaketak egitea adostuko duten.*

*Gai horren inguruan prentsan ateratako informazioaren erantzulea ez naizela izango, prentsari emandako informazioak nire zinegotziak egiteko baimena emandakoak zirelako, eta haren ekimenaz egin zirela.*

*Beraz, gai horiei erantzuteko, eztabaida eta ondorengo erabaki politikoaren zain geratu beharko dugu”.*

#### Ebazpena

Era horretan Sindikoak **ESKU HARTU** du. Egindako gestioen ondoren, eta bizilagunak sortutako interesa ikusita, Administrazioak indarrean dagoen legediaren arabera jokatu duela esan dezakegu; dena den, informazio gehiagoren zain geratuko gara, eta zerbait jakin bezain laster, gure berri izango duzu.

#### **e) Gaitzespena**

- Erdi Aroko azoka dela-eta, aparkalekurik ez Alde Zaharrean (Erreg. Zkia.: 289/290/291/ 03)

### **Erreklamazioa**

Bizilagun batek azaldu digu aparkatzeko arazo handiak izaten dituela Alde Zaharrean merkatu txikia eta Erdi Aroko merkatua egiten diren garaietan.

### **Azterketa**

Alde Zaharraren Birgaitze Integralaren Plan Bereziko birgaitze-irizpide nagusia da Jarduera Ekonomiko Berriak ahal den neurrian sustatzea eta daudenak sendotzea. Era horretan, erabileren oreka handiagoa lortzeaz gain, auzoetako jarduerak ere berreskuratuko baitira. Helburu nagusietariko bat da zonan jarduera dinamikoak ezartzea lortzeko ideia zabaltzea, bertako ekonomia eta gizartea suspertzearen. Horregatik, Erdi Aroko azoka eta Alde Zaharreko merkatu txikia egiten dira.

Gure ustez, Udalak bizilaguna bizi den inguruaren aldeko lana burutzen du, merkatu-mota horiekin hiriko Erdi Aroko gunea dinamizatu nahian. Modu horretan, auzotarrei horrelako ekintzetan parte hartzea eskatzen zaie, euren mesederako baita. Jakina, garai horretan ibilgailuak aparkatzeko arazoak sortu ohi dira, baina berriro diogu denbora bateko eragozpenak besterik ez direla eta onartu egin behar direla inguru horretako jardueren mesederako delako.

Aurreko guztia ikusita, eta kexa eta ekarritako dokumentazioa aztertuta, Udalak Vitoria-Gasteizko Alde Zaharrerako aurreikusitako Birgaitze Integralaren Plan Bereziaren (BIPB) arabera jokatu du, eta beste udalerrietako administrazio-jardunbide egokiak kontuan izanik. Beraz, arazo horren inguruan ezin zaio bestelako jokabiderik eskatu.

### **Ebazpena**

Hori dela-eta, Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak jakinarazten dizu gaiaren inguruko jarduera amaitu duela, behar diren gestio berriak egiteari utzi gabe, eta eskaera **GAITZETSI** egin duela.

- Florida kaleko semaforoaren aurreko arriskua (Erreg. Zkia.: 385/04)

### **Erreklamazioa**

Vitoria-Gasteizko bizilagun batek ondorengo salatua du: *Florida kaleko 92. zenbakian dagoen oinezkoentzako pasabidea semaforo batek arautzen du, baina ez da batere errespetatzen. Ondorioz, arrisku handian aurkitzen dira handik gertu dauden Eskolapioetara eta Eliza Ebanjelistara doazen haur eta pertsonak. Hori dela-eta, bizilagunak asfaltoa altxatzea nahi du, oinezkoen pasabidean autoak geldiaraztearren.*

### **Azterketa**

Erabiltzailearen idatzizko kexa jaso ondoren, lekuan izan gara, eta oinezkoen pasabidea eskolatik zein elizatik oso gertu dagoela ikusi dugu; hortaz, pertsona helduak eta haurrak joan-etorrian ibiltzen dira inguru horretan. Dena den, pasabidean semaforo bat egon badago. Eta egungo Zirkulazio-kodeko 133. artikularen arabera, semaforoa zirkulazio-seinale desberdinen lehentasun-ordenako mailarik gorenean aurkitzen da, soilik bidearen erabilera normala aldatzen duten zirkulazioko agenteen eta seinalizazioen azpian. Modu horretan, semaforoa nahikoa behartzeko moduko seinalea da, eta ez dago zertan bultzatu haren eraginkortasuna sakangune batekin. Semaforoa ez

du Araudiak errespetarazi behar, eta ez dago lehentasun-mota desberdineko seinale gehiago jarri beharrik ere; semaforoa errespetatzea legea urratzen duten gidarien esku dago.

Horregatik guztiatik, kexa aztertu ondoren, uste dugu semaforo bat dagoen oinezkoentzako pasabidean sakangunea jartzeak arazoa ez duela konponduko. Hala eta guztiz ere, Udaltzaingoari gogoraraziko diogu zona hori zorrotzago zaindu dezala, argi-seinalea jendeak errespetatzen ez dutenak, berriz, zigor ditzala, espaloi batetik bestera joaterakoan sortzen den arriskua leuntzearen.

#### Ebazpena

Kexa **GAITZETSI** da, Administrazioak araudiaren arabera jokatzeko duela uste izateagatik.

- TAO komertziala langile autonomoentzat (Erreg. Zkia.: 420/04)

#### Erreklamazioa

Sindikioan hiritar batek azalpen hau egin digu: *hainbat salaketa jarri dizkiote TAO ez aldatzeagatik Vitoria-Gasteizko erdigune-zabalgunean. Langile autonomia denez, zona horretan aparkatu behar izaten du, eta bere lana egiteko autoa bertan aparkatuta eduki; horrela, ez da batere egokia gertatzen ordutegi-agiria aldatzen ibili beharra. Horregatik, TAO komertziala emateko eskatzen du, ordutegi-agiria aldatzen ibili beharrik ez izateko.*

#### Azterketa

Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoaren eta Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuaren buruarekin egon gara, eta kexa aztertu ondoren, hiritarrari adierazi behar diogu TAO sistemaren helburua inola ere dirua biltzea ez denez, erabilera-sistema desberdinen arabera diru-sarrera handiagoak lortzeko aukerarekin ezin dela bat egin. Sistemaren helburua da erabilerak mugatzea eta TXANDAKATZEA; hau da, bide publikoetako aparkalekuak ordenatzea, aparkaleku mugatueta leku eta plazetan. Eta hori aparkalekuak mugatu eta autoak txandakatzearren, horretarako dagoen jabari publikoaren erabilera hobetze aldera.

Sistema erregulatzen du **Jabari Publikoko Ondasunen Erabilera Pribatuagatik edo Aprobetxamendu Bereziagatik Tasak arautzen dituen Udal Ordenantzak**. Arauaren arabera, batzuetan **salbuespena** egiten da, eta TAO komertzialaren txartela ematen zaio *baldintza hauek betetzen dituen pertsona jakin eta ibilgailu zehatz bati*:

1. *Ibilgailua jardueraren titularraren izenean egongo da, 3.000 Kg. baino gutxiagoko kamioia izango da, eta zirkulazio-baimena txartela eskatzen den zonarako **TAO zonan helbideratuta egongo da.***
2. *Jarduera enpresa-jarduera bat izango da, eta TAO zona batean aurkituko da.*
3. ....

Beraz, eskatzen duten autonomo guztiei TAO tasa kobratzea ez da egokia baldintza horiek betetzen ez dituztelako. Txartela lanbide-jarduera oso



desberdineko hainbat eta hainbat eskatzaileri emanda, sistemaren helburu nagusia ez litzateke lortuko; hain zuzen ere, erabilerak mugatzea, lekuak ahalik eta gehiago txandakatzearen.

Hiritarrak proposatzen duen aukera betez gero, salbuespenak ugarituko lirateke, hirigunearen jardura komertziala eta ekonomikoa ikusita. Halaber, mugatzen diren zonetan aparkalekuak erregulatzea helburua duen Ordenantza guztiz engainagarria bihurtuko litzateke.

### **Ebazpena**

Beraz, kasu horretan Udalak legearen eta JARDUNBIDE EGOKIEN arabera JOKATU DU. Aparkaleku mugatuekin erabiltzaileek ahalegin txiki bat egin behar badute ere, esfortzu hori behar-beharrezkoa da aparkatzeko dagoen leku publiko eskasa ondo baino hobeto erabiltzearen.

Horregatik guztiagatik, ezin dugu aurkeztutako kexaren alde jokatu, eta kexa **GAITZETSI** egin dugu.

- Postas kaleko oinezkoentzako gunea (Erreg. Zkia.: 453/04)

### **Erreklamazioa**

Erabiltzaile batek Sindiko honetan salatu du bizi den kaleko bizilagunek eragozpen batzuk dituztela kalea oinezkoentzako jarri delako, eta kalean sartzeko txartel bat eskatu du, inguruko garajeen jabeek dutenaren antzekoa.

### *Azterketa*

Aurkeztutako kexaren gaineko araudia aztertu eta gero, honako txosten hau egin dugu:

#### *1.- Oinezkoentzako jartzearen oinarria.*

Kale bat oinezkoentzako jartzeko erabakia hiriarentzat erabaki estrategikoa da. Gure hiriek “ingurumena iraunarazteko” erronkari ematen dioten erantzunarekin lotua dago, baita autoen inbasiotik urruntzen den espazio publikoa defendatzearekin ere; bestela, sortzen den kutsadura akustikoa, atmosferikoa eta hesi fisikoa ezin dira inola ere saihestu.

Kale edo zona bat oinezkoentzako jartzen denean, espazio publiko hori nolabait oinezkoen erabilera pribaturako geratzen da, eta motorrezko ibilgailuak SALBUESPENEZKO kasuetan bakarrik erabili ahal izango dute.

Hirian oso gune gutxi prestatzen dira oinezkoentzako izateko, eta ez **desnaturalizatzearen**, ibilgailuak zona horietatik kanpo geratuko dira erabat. Hala ere, hiritarren premiek salbuespen batzuk egitera bultzatzen dute; aldaketak “pixkanaka” egokitu egin behar dira”.

Nazio Batuen lan-taldeak (WP1) oinezkoen segurtasunari buruzko zuzendaritza-agiri bat onartu zuen, eta han oinezkoen guneen izaera zehazten da. Agiri-mota horiek balio juridikorik ez duten arren, trafiko-arloan orientazio garrantzitsua ematen dute, eta

esperimentatzeko eta doitzeko fase baten ondoren, trafikoa eta bide-segurtasuna arautzen duten nazioarteko Tratatueta sartu ohi dira<sup>2</sup>. Oinezkoentzako guneen inguruan, honako hau esaten du:

## OINEZKOAK.- 6. OINEZKOEN SEGURTASUNA .../...

### Oinezkoentzako guneak

**Oinezkoentzako guneak soilik oinezkoentzako dira.** Ibilgailu komertzialei eguneko zenbait ordutan utziko zaie sartzeko. Legedia nazionalak antzeko kasuetan aplika daitezkeen Arauei buruzko xedapen argiak izan behar lituzke, eta seinaleztapena, baimendutako ibilgailuak eta abiadura-mugak behar bezala zehaztu. Oinezkoen bidera sartzeko ibilbideak bereziki zaindu behar dira.

#### 2.- Posta kalean sartzeko erregimena

Posta kaleko oinezkoentzako gunearen inguruan, sartzeko erregimena eta zirkulazio bereziko erregimena ezarri dira.

#### ***Kalea ez dago guztiz itxita; salbuespenak egon badaude:***

*Honako hauek sartu ahal izango dute:*

- *Autobusek eta taxiek.*
- *Zerbitzu publikoek.*
- *Larrialdietakoek.*
- *Kale horretako garajeetako plazen jabeek, sartzeko eta irteteko.*

Itxitako garaian ere sartu ahal izango da larrialdi edo aurreikusitako ezin diren egoeratan:

*Neurri horrek eragina izan dezan, mugatutako zonara sartu beharra aurreikusten duenak bere lanak programatu beharko ditu mugatzen den ordutegian ez sartzeko.*

*Hala ere, aurreikusitako ezin daitezkeen larrialdiren bat egokituz gero, edo mugatutako ordutegitik kanpo egin ezin den kasuan:*

***Aurrez berariazko baimena lortu behar da Udaltzaingoaren bulegoetan (Agirrelanda kalea, 8 \*, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara), eta zirkulazioari irekitako orduetan egin ezinaren arrazoia justifikatu behar da.***

***Salbuespen gisa, larrialdiren batean, edo aurrez baimena eskatzerik ezin izan denean, Udaltzaingoarekin zuzenean hitz egingo da ateko interfonotik, sarrera irekitzeko eskatzeko. Udaltzaingoak larrialdia baloratu, eta eskaera onartu edo atzera bota ahal izango du, eta interesdunari beste batean aurrez baimena eskatzeko gogoratuko dio.***

---

<sup>2</sup> Conseil Économique et Social Distr.GÉNÉRALE .TRANS/WP.1/2001/2 14 décembre 2000.-FRANÇAIS.-  
Originala : ANGLAIS.- EUROPARAKO BATZORDE EKONOMIKOA, BARNE-GARRAIOEN BATZORDEA  
Segurtasunaren eta bide-zirkulazioaren lan-taldea (36.3 Saioa-2001-04-06). Gai-zerrendako 4. puntua.  
ZIRKULAZIOARI (R.E.1) ETA BIDE-SEINALEEI (R.E.2.) BURUZKO EBAZPENAK BERRIKUSTEA.

***Larrialdi***-sistema gisa, sistema automatikorik erabili ezin denean, udaltzain bati esango zaio edo **092 telefonora deituko da**, zenbaki horretan sistemaren irekiera kontrolatzen baitute.

*Azken finean, Posta kalearen sarreraren eta erabileraren sistema orokorra oinezko izaeraren ondorioa da, baina beste interes batzuk baloratzen dituzten salbuespenak ere kontuan hartzen dira, kalearen oinezko-izaera desnaturalizatu gabe.*

*Aurrean esandakoa kontuan hartuta, ,*

### **3.- Ondorioak**

Bizilagunei beren ibilgailuekin sartzan utzita, nahi z eta aparkatzeko ez den beste zeregin baterako izan, oinezkoentzako guneen printzipioa kaltetzen da, eta Udalak ezin du hori onartu. Gainera, Posta kalearen kasuan, oinezkoentzako erdijarria dagoen zona izanik, lanegunetan ibilgailu-mota guztiak sartzeko ordutegi zabala dago; kalea ixten denean, berriz, mutiloien sistema mugikorra dago, Udaltzaingoaren zerbitzu zentralizatu batek kontrolatzen duena telefonia bidez pasabideen puntuetatik, eta kasu berezietan horien bitartez pasabidea ematen da. Kasu bakar batentzako sistema hori aldatzeak ez luke arazorik sortuko, baina Administrazioak, noski, jokaera orokorrak hartu behar ditu kontuan, eta kale horretako bizilagun guztiei sarrera librea jarriko balitzaie, oinezkoentzako gunea jartzearen xedea eta zentzua galduko lirarteke.

### *Ebazpena*

Aurreko guztia ikusita, Posta kaleko bizilagun gisa erakutsitako asmoa **GAITZETSI** behar dugu; kalera nahi denean ibilgailuarekin sartzea, alegia, zabalaren ordutegietatik kanpo eta mutiloi mugikorraren bidezko sarrerak aparte utzita. Halaxe erabaki dugu, gure ustez, Vitoria-Gasteizko Udalak gai horretan duen jokaera zuzena eta egokia delako.

## **2.3.6.5 OBRAK ETA AZPIEGITURAK**

### **a) Gomendioa**

- San Martingo erabilera anitzeko eraikinaren proiektua (Erreg. Zkia.: 383/04)

#### **Erreklamazioa**

San Martin ikastetxeko haurren guraso-elkarteak, San Martingo VV Elkartearekin batera, urte askotik hona, San Martin Udal Ikastetxean kokatuko litzatekeen erabilera anitzeko eraikuntza baten proiektuan parte hartzeko eta sensibilizatzeko jarduera burutzen ari da. Eraikina erabili ahal izango lukete ikastetxeak berak, haurren guraso-elkarteak, San Martin auzoko auzo-elkarteak zein hiritar guztiek, oro har.

Proposamena *2004ko uztailaren 27an* aurkeztu da Hirigintza eta Etxebizitza Batzordean, eta bertan proposamen arkitektoniko bat dago, eraikinaren maketa eta guzti. Elkartek ekimena aldi desberdinetan planteatu du, eta proposamenean antzeman dituen premia sozialak ageri dira.

San Martin ikastetxe publikoa aspaldi hasi zen auditorio edo erabilera anitzeko gune baten eske, besteak beste, jarduera kulturalak, gurasoen bilerak, ikuskizunak, e.a. egiteko. Egun, horrelako bilera gehienak ikastetxeko patioan egiten dira, aire librean, horrek duen eskasiarekin.

Hasiera batean, ikastetxeak ekitaldi-areto bat zuen, baina ikasleen matrikula handitu zenez, ikasleen talde berrientzat hartu behar izan zen.

Horrez gain, beste behar bat ere badute, Vitoria-Gasteizko Udaleko Kirol Sailari dagokiona: ikastetxez kanpoko aldagela batzuk egitea, jokalekuetan kirol jarduerak burutzeko, eskola-orduetatik kanpo.

Egun Ikastetxearen eta Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmen bat dago: alde batetik, Ikastetxeak aldagela batzuk uzten ditu –ikastetxearen barruan daudenak- eskola-orduetatik kanpo, ateak ez ixteak sortzen duen segurtasun-arazoarekin; eta beste aldetik, Udala arduratzen da aldagela horien mantentze-lanak egiteaz. Dinamika horrekin, ordea, eskolaren barruan maiz gertatzen dira injerentzia-arazoak.

San Martin ikastetxeko aldagelak – udalaren titulartasuna dutenak- egun hondatu samarrak daude, eta berritu beharrean aurkitzen dira. Beraz, Ikastetxez kanpo aldagela batzuk eginda –erabilera anitzeko espazioaren barruan- konponduko litzateke arazoa; gainera, Ikastetxeak orain dituen aldagela horiek beste hezkuntza-erabilera batzuetarako erabiliko lituzke.

San Martin auzoko auzo-elkartea ere proiektuarekin interesatuta dago; izan ere, elkartearen lokaletan leku-faltan aurkitzen dira tarteka, erabiltzaile asko baitira, eta antolatzen dituzten jarduerak ere lekua eskatzen baitute.

#### **Azterketa**

Sindikoaaren-Herritarren Defendatzailearen Araudiko 18. eta 19. artikuluek hiritarren eta Udaleko gobernu-organoen arteko bitartekotza-lanak egiteko baimena ematen digute, baita “Zerbitzu Publikoen kalitatea hobetzeko” gomendioak egiteko eskubidea ere.

Bestalde, “interes orokorra”ren definizioa eta lehentasunak aukeratzea, administrazio-ekintzarekin eta dauden baliabideen erabilerarekin lotuta, berez politika-ekintzaren esparru propioak dira; beraz, Udalaren organo hautetsien eta ordezkarien erantzukizun. Dena den, bistakoa da, baita ere, bereziki udal-esparruan, demokrazia lokala parte hartzeko demokrazia dela, eta horrek Administrazioaren eta administratuen arteko komunikazio-ateak irekitzen ditu. Horrela, hiritarrek, elkarteetan daudenean, ekimenak planteatu ditzakete, eta ordezkari politikoaren organoari eskaerak jakinarazi.

Ildo horretan, Parte hartzeko Araudian aurreikusten dena aplikatu daiteke, hots:

#### **43. Artikulua.- Harreman politikoak**

*Araudi honetako kontseilu desberdinetan egoteari utzi gabe, elkarte zibikoek harreman zuzenak eduki ditzakete Udaleko gobernu-organoekin nahiz talde politikoekin, eta interesa dutenaren inguruko informazioa jaso.*

#### **44. Artikulua.- Informazio-batzordeetan parte hartzea**

*Araudi honetako IX. Kapituluaren araututako Udalaren Erregistroan erregistratutako hiritar-elkarteak Udalaren informazio-batzordearen bileretara deituak izan daitezke, gai-zerrendako punturen baten inguruan duten iritzia entzute edo txostena jasotze aldera.*

*Era berean, hiritar-elkarte horiek bilera horietan parte hartzeko eskubidea izango dute, gairekin interes zuzena dutenean. Kasu horietan Elkarteek Batzordeko lehendakaritzari idatziz eskatuko diote bileran aurkezterik baduten, ahalik eta aurrerapen handienarekin.*

*Bilkuren, gobernu-batzordeen eta informazio-batzordeen gai-zerrendak Udaleko eta gizarte etxeetako informazio-paneletan jarriko dira. Halaber, hiritar elkarte guztiei bidaliko zaizkie, hala eskatuz gero.*

Aipatu Elkartearen ekimena bi modutan planteatu zezakeen:

- a) Espediente bat irekitzeko eskatuz, Bilkuran erabakitzeko.
- b) Ekimen gisa, Auzotarrak parte hartzeko Kontseiluan
- c) Berez, ekimen bezala planteatu da Gobernu-batzordearen aurrean, eta Hirigintza-batzordean jakinarazi dute, talde politiko guztiak jakinaren gainean egon daitezten.

Eskatzaileen helburua da, Gobernu-batzordeak, oposizioko taldeen aldeko iritziarekin, dagokien Batzordean azaldu zuten bezala, ekimen hori datozen udal-aurrekontuetan sartzea, eta hori iragartzeko printzipioak eta egin behar diren aurretiko azterketak kontratatzeko lehia alde batera utzi gabe.

Sindikoaaren-Herritarren Defendatzailearen Araudiak TXOSTENAK egiteko ematen digun eskubidearekin, planteatutako ekimena baloratu eta ondorio hauek atera ditugu:

### *Ebazpena*

Aurkeztu den ekimenak, gure ustez, Gobernu-batzordeak onartzeko baldintza GUZTIAK betetzen ditu, hiritarren parte hartzeko ekimen gisa; sinatzen duten elkarteak ikusita, ekimenarekin bultzatu nahi diren interes orokorreko premiak direla jakinda eta ekimenarekin lotuta dauden udal-eskumenak egonda. Hori guztia herri-lan baten proiektua delako, eta, azken finean, zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzeko delako (irakaskuntza, kultura, kirola, ekintza soziala), aldi berean, baita Udalaren Ondarea gehituko duelako ere. Beraz, eragina izatea **GOMENDATZEN** dugu.

Gomendioa partzialki ONARTU da; izan ere, eragindako Sailaren ustez, “beharrezkoa da Udaleko lan-talde bat sortzea, Hezkuntza, Lehendakaritza, Kirola, Kultura eta Hirigintzaren arteko bideragarritasuna aztertzeko. Proposamen oso garrantzitsua dela dirudi, eta adostutako ekintza horren bidez, proiektua 2005eko aurrekontuetan sartzen ahaleginduko dira”.

- Erantzunik gabeko idatzia: Pintore kaleko eraikina (Erreg. Zkia.: 502/05)

### **Erreklamazioa**

Emakume batek gure bulegoan azaldu du Hirigintza Sailak eta Berrikuntzarako Eragintegiak ez diotela erantzunik eman 2004ko azaroaren 23an aurkeztutako eskabideari. Pintore kalean aspaldiko eraikin bat bota dutela azaldu digu beste berri bat egiteko, eta egitura berri horrek kalteak sortzen dizkiola.

### *Azterketa*

Erabiltzaileak Sindikora ondorengo gaiari buruzko agiriak ekarri ditu: “2004ko azaroaren 25ean eskabide bat aurkeztu zuen, Pintore kaleko 8. zenbakian bota duten eraikinaren ondoko eraikinak duen egoera salatzeko”.

2005eko otsailaren 17an, Administrazioak oraindik ez dio erantzunik eman. Salatzaileak, ordea, berariazko eta arrazoizko erantzun bat jasotzeko eskubidea du, Administrazioak eskaera onartzen duen ala ez jakiteko, labur bada ere.

Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legeko 42.1 artikulua honela dio:

42.1 art.- *Administrazioak prozedura guztien ebazpen adierazia eman behar du eta jakinarazi, hasteko modua edozein izanda ere.*

**42.3 Prozedurak erregulatzen dituzten arauak gehieneko eperik jartzen ez dutenean, epea hiru hilabetekoa izango da.**

**Kasu horretan, bizilagunaren eskaeran etxebizitza kaltetua izan daitekeela aipatzen da; beraz, duen garrantzia kontuan hartuta, garaian erantzun behar da, bizilaguna lasaitzearen.**

**Administrazioaren isiltasunaren institutuaren helburua da hiritarrei jurisdikziorako bidea erraztea, baina hiritarren eskaera eta idatziak erantzuteko eta ebazteko betebeharra ez du alde batera uzten.**

### *Ebazpena*

Erabiltzaileak aurkeztutako salaketaren mamira eta alegazioetara jo gabe, guri dagokiguna betez, Hirigintza Sailari eta Berrikuntzarako Eragintegiari **GOMENDIO** hau egiten diogu: emakumeari ERANTZUN diezaiotela, salaketa ikusita, eskaera onartuko duten ala ez.

#### **b) Orientazioa**

- Igogailua jartzeko aukera (Erreg. Zkia.: 476/04)

#### **Erreklamazioa**

*Erabiltzailearen emaztea minusbaliatua denez, igogailu bat jartzeko jabekideen komunitatean hartu behar diren akordioetarako zein baldintza behar diren galdetu du hiritarrak.*

### *Azterketa*

**Jabetza Horizontalaren egungo Legeko 17 1 Artikuluak** honela dio:

*“Jabekideen batzordeko akordioak arau hauen arabera hartuko dira:*

*1. – Ahobatezkotasuna eskatuko da Jabetza horizontala eratzeko tituluan edo komunitateko estatutuetan dauden arauak onartzeko edo aldatzeko akordioak balio behar dutenean.*

*Igogailua, atezaindegia, zaintza edo interes orokorreko beste zerbitzu batzuk jartzeko edo kentzeko, baita eratzeko titulua edo estatutuak aldatzea eskatzen denean ere, jabekide guztien bostetik hiruren aldeko botoa behar da, hau da, partehartze-kuoten bostetik hiru ordezkatzan dutenena. Eraikinean erabilera espezifikorik ez duten elementu komunak errentamendua egiteko ere, jabekide guztien bostetik hiruren aldeko botoa behar da, hau da, partehartze-kuoten bostetik hiru ordezkatzan dutenena, eta zuzenean eragindako jabekidearen onespina ere bai, egonez gero.*

**Lege honetako artikuluek ezartzen dutena alde batera utzi gabe, 10 y 11 pertsona minusbaliatuen sarrera edo mugikortasuna zailtzen duten eraikuntza-oztopoak kentzeko obrak egin edo zerbitzu komun berriak jarri behar direnean, baita eratzeko titulua edo estatutuak aldatzea eskatzen dutenean ere, partehartze-kuota ordezkatzan duten gehiengoaren jabekideen gehiengoaren aldeko botoa beharko da.**

*Arau horretako aurreko paragrafoetan ezarritakoa betetzeko, aldeko boto bezala kontatuko dira, nahiz eta batzarrera deituak izan, batzarrean izan ez diren jabekideen botoak, batzarrean izandakoek hartutako akordioaren berri izan, eta [artículo 9](#), prozeduraren arabera, 30 eguneko epean komunitateko idazkaritza-lanak egiten dituenari desadostasunik agertu ez diotenenak, jaso izana frogatuko duen edozein moduren bitartez.*

*Arau horretan ezarritakoaren arabera behar bezala hartutako akordioek jabekide guztiak behartzen dituzte; beraz, denentzako dira”.*

*Ebazpena*

Modu horretan **ORIENTATU** dugu erabiltzailea.

### **2.3.6.6 NEKAZARITZA-EREMUAK ETA MENDIAK**

#### **a) Gomendioa**

- Finka edukitzagabetzea Ariñezen (Erreg. Zkia.: 464/04)

*Erreklamazioa*

Ariñezeko emakume batek gure bulegoan salatu du finka bat egitatezko bidez KENDU diola udalerrri horretako administrazio-batzarrak; finka horren edukitzaile baketsuak direla bera eta haren familia azken 50 urtez geroztik.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileak Sindikoan adierazi du Ariñezen 34 zenbakiarekin ezagutzen den finkaren edukitzaile baketsuak direla bera eta haren familia. Berrogeita hamar urte baino gehiagoan finka horretako lurra landu eta fruta-arbolak eta barazkiak aldatu dituzte; horregatik, finka horren edukitzaile baketsuak eta fede onekoak direla uste dute.

34 zenbakia duen lurra erabilera publikoko lur bezala erregistratu berria dago Erregistroan, eta jabe gisa Ariñezeko administrazio-batzarra agertzen da. Zuzenbidera jotzen badugu, erregistro hori jabetza erakusteko funtsezko elementua da. Aldi berean, ordea, **Kode Zibileko 496 Artikuluak honela dio: “*edukitzaile guztiek beren edukia errespetatua izateko eskubidea dute, eta eragozpenen bat sortzen bada, eduki horren inguruko laguntza eman edo edukia itzuliko zaio*”.**

Erabiltzaileak modu baketsuan eta fede onean zuen aipatu baratza; hori dela-eta, Lege horrek babestu egiten du nolabait. Horrela, Administrazioak lur horren jabetza hartzeko, dagokion prozeduraz jokatu behar zuen; hau da, eskatzailearen legezko eduki-eskubideak baloratu behar zituen. Ondorioz, ondorengo uste eta gomendatu nahi dugu: Ondare Erantzukizunaren Atalak azter ditzala, batetik, Ariñezeko 34. zenbakiaren fede oneko edukitzailea izan denaren egoera, eta bestetik, edukitzagabetzeagatik ordaina jasotzeko duen eskubidea, hau da, OFIZIOZKO ordaina ematea **jasandako kalteak** kontuan hartuta. **Galerak 960 Eurotan baloratu dira:**

**18 urteko 3 aranondo**

**3 hurriz**

**pikondo 1**

**16 m-ko 2 parra**

**Denak produkzioan.**

#### *Ebazpena*

**GOMENDIO** hori egin dugu, Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen Araudiari jarraiki.

#### **b) Esku-hartzea**

- Lursailak desjabetzea Ariñezen (Erreg. Zkia.: 454/04)

#### *Erreklamazioa*

Ariñezeko emakume batek salatu du *Udalak lur-zati bat hartu diola hirigintzalanak egiterakoan.*

#### *Azterketa*



Horren inguruan, Vitoria-Gasteizko Udalak 2004ko azaroaren 10ean txosten bat bidali digu, eta erabiltzaileari interesatuko zaiolakoan, igorri egin diogu. Hona hemen txostena:

*“Ariñezen hirigintza-lanak egiten ari dira; Vitoria-Gasteizko Udalak Yarrantu S.A. enpresari esleitu zizkion lan horiek.*

*Saneamendua berritzen ari dira; beraz, lur azpian jarriko dituzte energia elektrikoa, argiteria publikoa, telefonoa eta gasaren kanalizazioak.*

*Logikoa denez, lan horiek egiteko obretako makinak erabili behar dira; esaterako, zangak egiteko makinak edota obra-hondakinak eramateko kamioiak. Salatutako partzelak hartzen dituzten kaleak estuak direnez, baliteke makina eta kamioiak partzela horien gainetik pasatzea, baina inola ere ez lurrak okupatzeko asmoarekin, horietan ez baita azpiegitura- edo hirigintza-lanik egin.*

*Bestalde, obra egiterakoan, kontratatutako enpresako topografoak hesolak jarri ditu lursailen eta bide publikoaren arteko mugak seinaleztatzeko, bideak zolatzerakoan partzelak har ez daitezzen, muga adierazten duen itxiturarik ez baitute, eta erein gabe baitaude.*

*Obrak amaitu baino lehen makinek eta kamioiek zapaldutako gunea, zehazki 46 zenbakia duen lursailaren zati bat, obra hasi baino lehen zegoen bezala uzteko agindua du enpresak, baita landare-hazia botatzeko agindua ere, hala behar izanez gero.*

*Edonola ere, idatzian 27, 28, 29, 40 eta 46 partzelak aipatzen dira, eta katastroplanoaren arabera, akats bat dagoela dirudi, 29aren ordez 49 izango dela uste baitut. Horrela ez bada, idatzian agertzen den 29 partzela zein den azaltzeko planoak ekarri beharko da.”*

#### *Ebazpena*

Kasu horretan, Administrazioak legearen arabera jokatu du. Horregatik, Sindikoak-Herritarren Defendatzaileak jakinarazten dizu amaitu duela gaian zuen egitekoa, eta era horretan **ESKU HARTU** duela.

### **2.3.7 INGURUMEN SAILA**

#### **2.3.7.1 ZUZENDARITZA**

##### **a) Gomendioa**

- Eraikuntza enpresaren jarduera-lizentzia (Erreg. Zkia.: 263/03)

#### *Erreklamazioa*

Eskatzaile batek bulegoan azaldu du materiala saltzeko eta gordetzeko enpresa bat ireki zutela bizi den etxebizitzako barneko patioan, eta harrezkero sortzen diren gertaeren gaineko txosten bat ekarri du.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileak honako azalpen hauek eman dizkigu: alde batetik, baimendutakoa (20 tona) baino pisu gehiagoko kamioiak noiz irteten eta sartzen diren; bestetik, sartu-irten horretan partikula solido ugari sortzen direla; eta azkenik, familiak eta berak kutsadura akustikoa jasan behar izaten dutela. Halaber, biltegian dagoen tximinian plastikoak erretzerakoan sortzen diren usainak deskribatu dizkigu. Zoladurari dagokionez, egoera txarrean dago, pasabidea beheratuta eta gaizki egokitua. Hori guztia frogatzeko, Udaltzaingoak bertan jasotako salaketa ugari ekarri dizkigu, partikulen isuriak neurtzeko hainbat eskaera eta baimendutakoa gaingitzen zuten zarata-mailen neurketak.

Ingurumen Sailak bidalitako kopiaren arabera, enpresa hori jartzeko baimena 1980ko apirilaren 7an eman zen, eta emandako lizentzia horren baldintzak ikusita, argi dago enpresak ez dituela betetzen.

#### *Ebazpena*

Sindikoak Eraikuntzen Erregimen Juridikoko Sailari **GOMENDIO** hau egin nahi dio: batetik, enpresari jarduera-lizentziako baldintzak betetzeko eska diezaiola; eta bestetik, betetzen ez dituen kasuan, jarduera etengo zaion ohartarazpena egin. Gainera, behar izanez gero, enpresari adierazi behar dio eraikuntza-materiala saltzeko eta gordetzeko bilgia instalatzeko lizentzia berrikusi behar duela.

#### **Eragindako Sailak ebazpena onartu egin du.**

- Alde Zaharreko taberna baten jarduera-lizentzia iraungia (Erreg. Zkia.: 373/04)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek, bere daturik eman gabe, Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreko taberna baten jarduera-uztearen inguruko informazioa eskatu du bulegoan; itxura denez, taberna urtebete baino gehiagoan itxita dago, eta lokal horren jarduera-lizentzia iraungia dagoela aitortzea nahi du emakumeak.

Gainera, taberna-jatetxearen jarduera-eza ez da legez ezarritako edo baimendutako obrak edo instalazioak egitearen ondorio.

#### *Azterketa*

Esku artean ditugun txostenen arabera, taberna-jatetxe (musikadun) hori jartzeko lizentzia **1981eko martxoaren 9an** eman zen.

**Ostalaritzako Establezimendu Publikoen Udal Ordenantza** kontuan hartzen badugu, jatetxeen kokapenari dagokionez bete behar dituzten baldintzak arautzen ditu, eta jarduera-mota horietan orokorrean edo zehazki aintzat hartu behar diren gutxieneko eskakizunak zehazten ditu. Hala, **5.04.17 artikulua** honela dio: “*Ordenantza honen menpeko establezimendu eta jarduerak garatzeko, ezartzeko, legezatzeko, lekuz*

*aldatzeko edo handitzeko emandako udal-lizentzia guztiak iraungita eta ondoriorik gabe deklaratu dira, aurrez interesdunari entzunda, honako termino hauetan:*

*-... ..*

***Jarduera utzita edukitzean sei hilabete baino gehiagoko epean***, beti ere, jarduera-eza legez ezarritako edo baimendutako obrak edo instalazioak egitearen ondorio ez denean.

*- Jarduera-lizentzia ez ezik, irekitzeko lizentzia ere, iraungitzat joko da.”*

Gure iritziz, lizentzien iraungipen-diziplina garrantzitsua da; izan ere, jarduera-lizentzia desberdinak berritza behartzen du, momentu bakoitzeko irizpide modernoan arabera eta eraikuntza- eta ingurumen-eskakizunekin bat eginez.

#### *Ebazpena*

Aurreko guztia ikusita, eragindako Sailari GOMENDATU nahi diogu, **Ostalaritzako Establezimendu Publikoen Udal Ordenantza (5.04.17 artikuluan) jarduera-lizentziak iraungitzeari** eta lokalak irekitzeari buruz esaten dena kontuan hartuta, taberna-jatetxe horren lokalak ikuska ditzala, eta salatutako jarduera-eza frogatzen bada, aipatu taberna horren lizentzia iraungitzat jo dezala, aurrez interesdunari entzunda.

Gomendioa guztiz **onartu** da.

**i) [Zaratak, Foru plazan, eskubaloi txapelketa dela eta \(Erreg. zk.: 406/04\)](#)**

#### *Erreklamazioa*

Hainbat kexa jaso ditu Sindikoak. Vitoria-Gasteizko Udalak antolatutako aisialdi-jarduerak sortutako enbarazua eta zaratak salatzen dira bertan. Zehazki, Foru plazan egiten direnak sortutakoak, hala nola 2004ko ekainaren 26an eta 27an izan zen saskibaloi txapelketak. 41,5 eta 53 dBA tartean egokitu ziren egindako neurketak. Megafonia erabiltzen zuenaren oihuek jotzen zuten goia.

#### *Azterketa*

Hainbat kexa jaso ditugu Foru plazan egiten diren ekitaldiek sortutako enbarazua eta zaratak direla eta. Hortaz, ezinbestean aintzat hartu beharrekoa da Zarata eta Bibrazioak arautzeko Udal Ordenantza. Izan ere, horrek arautzen du udalaren jarduna, pertsonak energia akustikoak sortutako kalteen kontra babesteari dagokionean, hots, energia akustikoaren ondorio diren zarata eta bibrazioen kontra.

Bistan da ingurumenaren alorreko udal araudia udalari berari ere aplikatu beharrekoa dela. Hortaz, berak bideratzen dituen jardueretan ere ordenantza horretan finkatutako arauak bete beharra dauka udalak. Baita, kontratazio bidez, beraren ardurapean bideratzen diren jardueretan ere.

Erabilera publikoaren alorreko jarduera ugari biltzen diren lekua da hiri honetako Foru plaza. Horregatik, gure ustez, behar-beharrezkoa da inguru horretako auzokoak

aintzakotzat hartzea. Hau da, kontuan eduki behar da zer nolako zarata-mailak sortzen diren programatutako jardueretako bakoitzean. Bereziki, gauzez edo jaiegunetan egiten diren jarduerak baldin badira.

Alde batera utzirik jai nagusiak direla-eta bertan antolatzen diren musika-ikuskizunak, beharrezkoa da inguru hori gehiegi ez kargatzea zarata ateratzen duten era horretako jarduerekin. Baita, antolatzen direlarik, aldez aurretik argi eta garbi mugatzea zarata.

#### *Ebazpena*

Hauxe gomendatzen diegu udal sailei: batzuek nahiz besteek, programatzen dituzten jardueretan, aintzat har dezatela horien eragin akustikoa, eta, Ingurumen Saitetik ematen diren jarraibideei jarraiki eta orobat aintzat harturik jardueraren ezaugarriak, iraupena, eraginen zer-nolakoak eta kasu bakoitzeko aukera teknikoak, mugak ezar diezazkiotela kutsadura akustikoari, antolatzaile eta arduradunek errespetatu dituzten, bereziki gauzez egiten diren jardueretan.

Gomendioa **partzialki onartu da.**

- Autobus-geltokiaren ondoan zaborrak, Errege-Erregina Katolikoek kalean (Erreg. Zkia.: 442/04)

#### **Erreklamazioa**

Erabiltzaile batek salatu du *Errege-Erregina Katolikoek kaleko 13. zenbakitik gertu dagoen autobus-geltokian zaborrak pilatuta daudela.*

#### **Azterketa**

Lekuan bertan izan gara, eta orain obratan ari dira. Autobus-geltokia zaborrak biltzeko lekutik oso hurbil dagoenez, zenbait arazo sortzen dira:

Lehenik eta behin, autobus-geltokia eta zaborrak biltzeko gunea ia ondoan izateak lehendik ere oso zabala ez den espaloia izugarri estutzen du.

Bigarren, geltokian usain txarra sortzen da autobusa erabiltzen dutenentzat, bereziki, zaborren gunea zaborraz josita dagoenean.

Hirugarren, geltokiko erabiltzaileek askotan zaborren poltsak mugitu egiten dituzte nahita edo nahi gabe; ondorioz, zaborra bildu behar dutenentzat eragozpenak sortzeaz gain, lekua lotsagarri bihurtzen da.

#### *Ebazpena*

Aipatu kalteak erraz konpon daitezkeela ikusita, dagokion Sailari **GOMENDATU** nahi diogu, gure Araudian aurreikusitakoaren arabera, lekuan egiten ari diren obrak aprobetxatu eta zaborra biltzeko gunea autobus-geltokitik urrunago dagoen puntu batera eraman dezatela.

**Gomendioa, ordea, ez da onartua izan,** arrazoi hauek medio:  
Azaroaren 24an, informazio hau jaso dugu:

*“Kale horretan berritze-lanak egiten ari direnez, bai autobus-geltokia bai zaborrak uzteko gunea behin-behinekoak dira. Horrela, behin betiko kokapena zein izango den obrak amaitutakoan erabakiko da, eta hartzen dituen hiru atarrietatik zentratuen ezarriko da. Behin betiko kokapena autobus-geltokiaren eta ordutegiaren eta alboko gaikako bilketako 3 edukiontziren lekuaren arabera erabakiko da.*

Azkenik, 2005eko urtarrilaren 17an honako hau jakinarazi digute:

*“Errege-Erregina Katolikoan kalea birmoldatzeko lanak amaitu eta gero, zaborrak uzteko gunea jarriko da, baita 11, 13 eta 15 atarientzako gaikako bilketa egiteko edukiontzia ere. Behin betiko gunea 13 eta 15 atarien artean jarriko da, Agrícola Alavesa S.L.ren parean, lekuri egokiena dela uste izateagatik”.*

## **b) Gaitzespena**

- Labezomorroak jabe-kideen komunitatean (Erreg. Zkia.: 452/04)

### **Erreklamazioa**

Bizilagun bat Sindikoaren-Herritarren Defendatzailearen bulegora etorri da bere komunitatean labezomorro beltzen izurria dagoela salatzeri; ondorioz, Udalak zerbait egitea nahi du.

### **Azterketa**

Kexa ikusi bezalaxe, ohartu gara lehen ere komunitate bereko beste bizilagun batek kexa hori agertu zigula; beraz, hona hemen orduan egindako azterketa laburbilduta:

Kexa 2003ko uztailan aurkeztu zitzaigun, erabiltzailearen erakusketarekin bat egiten zuen egunetan. Honela esaten zuen:

“Gasteiz hiribideko 95. zenbakiko sotoetan galdara-gela bat dago, eta hortik berogailua eta ur beroa banatzen da San Viator eta Bolivia kaleen eta Gasteiz hiribidearen artean dagoen etxebizitza-uhartera. Banaketa uhartetik barrena egiten da, erregistro-kutxatila desberdinak daude: batzuk Udalarenak dira eta beste batzuk pribatuak. Duela urte askoz geroztik, labezomorro beltzen (Blatella Orientalis) izurria sortu zen banaketa-puntu horretan; labezomorroentzat habitat aproposa zen (iluna, lasaia, hezea eta tenperatura egokikoa) dituzten ezaugarri biologikoak ikusita (ohitura luzifugoak, lur azpian eta estolderian bizitzen dira, eta denborarekin hodi eta tutuetatik gora igotzen dira). Horren guztiaren aurrean, bizilagunak behin baino gehiagotan salaketak jarri zituzten; izan ere, labezomorroak izugarri ugartu ziren Gasteiz hiribideko 95. atariaren inguruetan, eta San Viator kalearen atzealdean, baita ur beroaren eta berogailuaren komunitateko banaketa-sareko kutxatila/erregistroetatik gertu zeuden kutxatila eta isurbideetan ere. Ondorioz, Udala etengabe aritu da izurri hori garbitu nahian. Oprocon S.A. enpresa emakidaduna desinfektatze-lanak egiten aritu da, udalaren jabetzakoak diren kutxatila eta erregistroetan. 1999. urtean, esaterako,

apirilean, maiatzean eta ekainean aritu ziren; aurten, berriz, apirilean bi aldiz, maiatzean beste bitan eta behin ekainean.

Udalak egindako lana eraginkorra izan dela frogatu da, baina ez da arazoa guztiz konpondu, Komunitateak ez duelako bere jabetzako lekuetan aplikatzeko ezer egin. Hori dela-eta, San Viator kalearen atzealdea eta 95. atariko etxebizitzak (gehienbat eskuin aldeko behetik zazpigarrenerako etxeak) labezomorroz josita daude. Eta hori bizilagunentzat ez ezik ingurukoentzat ere guztiz osasungaitza da.

2000. urteko uztailaren 17ko gertaerak kontuan hartuta, Udalaren Osasun eta Kontsumo Sailak ERREKERIMENDU bat zuzendu zion Bolivia kalean bizi den “San Viator-Bolivia-Gasteiz hiribide”ko Komunitate Orokorreko administratzaileari; hain zuzen ere, “LEKUA EGOKITU ZEZALA ETA BEHAR BEZALAKO HIGIENE ETA OSASUN BALDINTZETAN UTZI”.

Gainera, errekerimendu horretan argi eta garbi ohartarazten da, hori egiten ez duen kasuan,

1. – Zehapen-espeditari hasiera emango zaiola.
2. – Udalaren betearazte-subsidiarioa egingo dela, Jabegoaren kargura.

Horregatik, 2003ko uztailaren 14an Udalaren Osasun Zerbitzuei gomendatu nahi diegu, zuzenean edo kontrata bidez, Gasteiz hiribideko 95. zenbakia guztiz desinfektatzeko tratamendua egin dezatela, ezer egin ez duen administratzailearen aurkako zehapen-espeditatea abian jartzea alde batera utzi gabe.

Vitoria-Gasteizko Udalak, ordea, gomendioa ez du onartu. Udalaren iritziz, ez dago administrazioko arau-hausterik, eta ikuskatzeko bisitak egin ondoren, ikuskatzaileak adierazi du Oprocon S.A. enpresak tarteka intsektuak hiltzeko tratamenduak egiten dituela bide publikoan, eta oso eraginkorra izaten ari dela, labezomorroak orain ez dutelako osasunaren aurkako fokurik osatzen (hala balitz, Udalak berehala esku hartuko luke). Dena den, Udalaren Osasun eta Kontsumo Sailak mantentze-programarekin aurrera jarraitzeko asmoa agertu du, eta bere zonan intsektuak hiltzeko urteko prebentzio-lanak egingo dituela gogoratu du, labezomorroak izurri bihur ez daitezen eta osasun publikoa nahiz pribatua arriskuan jar ez dezaten (kasu horretan, Udalak berehala esku hartuko luke).

*Erabiltzaileak elkarrizketan adierazitakoaren arabera, uste dugu **labezomorroen jatorria galdara-gelan dagoela**, hau da, Gasteiz hiribideko 95. atariko soto azpian, eta leku horretatik eraikin eta inguruetara zabaltzen ari direla. Halaxe egiaztatu dute arazoa aztertu duten enpresa espezializatuetako teknikoek; halaber, halaxe agertzen da Arabako Jabetza Hiritarreko Ganberako 387/00 espeditentean eta Udalaren Osasun eta Kontsumo Sailaren aipatu txostenean.*

*Galdara-gela “San Viator-Bolivia-Gasteiz hiribidea” auzo-komunitatearena da, eta berogailua kale horietako hainbat atarira banatzen du (“Komunitate Handia”); Gasteiz hiribideko 95. zenbakia Komunitate Orokorreko beste atari bat besterik ez da.*

*Modu horretan, Udalarena den zatia (bide publikoko kutxatilak eta hustubideak) desinfektatua izan da; beraz, udalaren parte hartzea eraginkorra izan da, eta bere eskumenean dagoen guztia egin du. Horregatik, orain Jabekideen Komunitatearen esku dago osasun publikoaren nahiz pribatuaren alde zerbait egitea, hau da, bere zatiko intsektuak hiltzeko programa bat abian jartzea. (San Viator kalearen atzealdeko kutxatilak eta erregistroak; 95 zenbakiko zona komunak; eraginkortasun-irizpidearen arabera, zerbitzu teknikoari beharrezkoak iruditzen zaizkien zonak; eta behar izanez gero, baita etxebizitza kaltetuak ere).*

***Beraz, gure ustez, “San Viator-Bolivia-Gasteiz hiribidea” Komunitate Orokorren ardura da, JABE TITULARRA eta ONURADUNA izanda, galdaragelan sor litezkeen kalteen kargu egitea, arazoa handia edo txikia den kontuan hartu gabe, eta Udalaren parte hartzea alde batera utzita. (Kode Zibila 1902)***

*Hori da Zuzenbidean oinarritzen den gure iritzia.*

*Ebazpena*

Horregatik, aurkeztutako kexa GAITZETSI egin dugu.

### **2.3.7.2 JARDUERAK ETA KONTROLA**

#### **a) Gomendioa**

- Zabor-erregulazioen kokapena (Erreg. zk.: 382/04)

#### **Erreklamazioa**

Gasteizeko udalerriko biztanle bat Auzoko Sindiko eta Defentsariaren Bulegora joan da eta adierazi du Hortaleza kalean, Anglo-Vascoaren kalearekin topo egiten duen aldean, lokal bat duela, eta handik metro eta erdira Beira, Papera eta Plastikoa Biltzeko hiru edukiontzi daudela. Horiek direla eta, lokala ez da behar bezala ikusten, eta lokalaren salmentari eta alokairuari kalte egiten diote.

Eskatu du Udalak neurri egokiak har ditzan, arazoa konpontzeko.

#### **Azterketa**

Gunea ikuskatu ondoren, egiaztatu da aipatutako egoera ematen dela eta uste dugu **GOMENDAGARRIA dela hiru edukiontziak orain dauden lekutik aurrealdean dauden espalora eramatearen aukera aintzat hartzea (argazkia eranstean da)**. Proposatutako gunea lorategiduna da eta bertan ez litzaioke kalterik egingo inolako lokaleko salmentari edo alokairuari (ez daudelako), ezta, dagoeneko, dauden lokalen ikuspenari ere.

*Ebazpena*

Eragindako Sailari **GOMENDATU** zaio edukiontzia berrituko.

Gomendio hori EZ DA ONETSI, Hondakinen Gestio Unitateak, 2004ko irailaren 14an idatzitako txostenari jarraiki. Bertan, honakoa aipatzen da: “Vitoria-Gasteizeko Udalean erabiltzen den edukiontzia bidezko sailkako bilketa-sistemak (papera, kartoia eta etxeko ontziak) exijitzen du edukiontzia galtzadaren eskuinean kokatuta egoteko, zirkulazio-norabideari jarraituz. Horixe bera exijitzen da mota horretarako bilketarako erabiltzen diren ibilgailuek eskuineko albotik kargatzen dutelako.

Erantzun horren aurrean, hurrengo GOMENDATU DUGU: Adierazitako biztanlea izaten ari den **kaltea** dela eta, iradokizun berri bat planteatuko dugu: **oraingo honetan beste KOKAPEN batzuk ematen ditugu aukeran, printzipioz, bilketa-zerbitzuko baldintza teknikoei jarraiki:**

- 1) **Anglo-Vasco eta Herrandarren kaleen arteko plazan** (la Blanca Garagardotegiaren plaza txikian) (1,3,5 argazkiak)
- 2) **Hortaleza kaleko 3. zenbaki parean kokatutako plazan** (2,4,6. argazkiak)

Bi kokapen horietan kamioak hondakinak eskuinetik bildu ahal izango luke, eta egungo ibilbidea ez litzateke ia aldatuko. Bi aukerei esker, aipatutako biztanleak ez luke egungo kaltea pairatuko.

Lehenengo aukerari dagokionez, uste dugu konponbide ona izango litzatekeela bertan aparkatzeko leku-faltaren arazoarentzat, izan ere, edukiontzia ez lukete lekurik okupatzeko elkarrengandik gertu dauden bi kaletan: Hortaleza kaleko aipatutako edukiontzia eta Sierras Alavesas kalekoak (gainera, azken horiek galtzada inbaditzen dute eta ez dute ondo ikusten uzten). Bi kaleetarako edukiontzia plaza honetan kokatuko lirateke.

Bigarren aukerari dagokionez, uste dugu ez dela ezta aparkatzeko lekurik ere okupatzen, bertako edozein “ilargi-erdietan” ipini daitezkeelako. Gainera, badago zaborrak biltzeko gune bat, beraz, horrek esan nahi du zaborra biltzen duen kamioa aipatutako lekura sar daitezkeela.

Aztergai dugun interesen konplexutasunaz jabetu garelako, eta hirugarren pertsonen zeharkako kalterik ez egiten saiatzea oso zaila dela aintzat hartuta, ulertzen dugu Administrazioak bere esku dagoena egiten duela administratuei kalterik ez egiteko. Kasu honetan, gure helburua da, ahal den neurrian, erreklamazioa egin duenaren merkataritza-lokalari edukiontzien egungo kokapenak sortarazi dion kaltea ekiditea.

Eragindako Sailak **ez du onetsi** gomendio hori.

- Erdialdeko eta Zabalguneako Tabernen Ordutegien Luzapena (Erreg. zk.: 395 eta 396/04)



### Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizeko erdialdeko eta zabalguneko pub eta taberna batzuen ordezkariak Sindiko Bulego honetara etorri dira (San Prudentzio kalea, Dato, San Antonio kalea...), honakoa hau salatzeko: Udaltzaingoaren Ikuskaritza behin eta berriro euren atzetik dago adierazitako itxiera-ordutegia ez betetzeagatik, eta adierazi dute euren buruak defentsarik gabe ikusten dituztela ezin dutelako ordutegi horiek luzatu, izan ere, II. TALDEKO lizentziak (Ostalaritzako Establezimendu Publikoen Udal Ordenantzan adierazita) eta alkohol-dun edariak saltzeko edo sukaldaritzako jarduerak burutzeko baimena ematen dien lizentziak euren ordutegia murrizten dute (asteazken, 00:30 arte eta ostiral, larunbata eta jaiegunen bezperetan, 1:30 arte).

Hainbat konponbide eskatu dute, astebururo sortarazten zaizkien arazo hauek konpontzeko.

### *Azterketa*

Lehenik eta behin, argi utzi behar da udal zerbitzuek ez dutela inolako pertsekuzio-jarrerarik, baizik eta, euren eskumenen arabera jarduten dutela, batzuetan partikularrek aurkeztutako eta pilatutako salaketak artatzeko eta bestetan, Sindiko Bulego honek igorritako gomendioei jarraiki.

Beste arazo desberdina da, arauzko aurreikuspenek eta bertako eskaera sozialak bat ez egitea. Hiriko erdialdeko ostalariek uste dute euren lokalak ixteko ordutegiak oso murriztaileak direla. Batez ere, bezero-kopuru handiena asteburuetan pilatzen da, eta 1:00a aldera, beraz, bakarrik ordu erdi bat gelditzen zaie euren zerbitzua eskaintzeko. Horrek guztiak kalte handia dakarkie bai ostalariei eta bai bezeroei.

Askotan, II. Taldeko Udal Ordenantzak baimendutako ordutegi kanpo egon "behar dira", hainbat salaketa jasoz eta sarritan isun bat baino gehiago ezarriz.

Kontua da aipatutako lokalek baldintza objektiboak betetzen dituztela: tokia, isolamendu akustikoa, ate bikoitzak, etab. Horregatik, Disko-Pubaren jardura lizentzia merezi dute, eta ez baldin badute lortu, aspaldian ezarritako lokalak direlako da, distantzia-murrizpenak ez zeudenean (udal araudiak, ondoren, ezarri ditu murrizpen horiek). Horretaz gain, lokal horiek hirian, gaueko aisialdiko gunek tipikoa osatzen dute, eta bertako eskaera soziala oso garrantzitsua da, mota horretako ostalaritza-jardura garatzeko oinezkoen gunek egokia baita.

Proposatu dute taberna berezietarako, pubetarako, etab... III. Taldeko Lizentzia handitzea eta ostalaritza lokal hauen gutxieneko distantziaren baldintza malguago bilakatzea, gainontzeko beharrezko baldintzak betetzen dituzten lokalen lizentzia kopurua handitzeko (egun, II. Talde barneko lokalen arteko gutxieneko distantzia 50 metro dira).

Auzi hau udal arduradunekin komentatu ondoren, horiek esan dute jakinaren gainean daudela eta prest daudela interes guztiak kontuan hartzen dituen konponbide bat aurkitzeko, jakina: Eusko Jaurlaritzako ordutegiei buruzko Dekretua betetzen duena.

Ostalaritza lokalen aisialdiko jarduera honen eskaera soziala, astebururo, hiriko gunere berberean biltzen denez (erdialdea eta zabalgunea), eta batzuetan, II. Taldeko lokaletarako ezarritako ordutegia (1:30) gainditzen duten ordutegietan, eta aipatutako lokal horiek baldintza objektibo guztiak betetzen dituztenez, aztertu daiteke **lizentziak handitzeko aukera, salbuespen gisa, II. Taldeko lizentzia duten eta gainontzeko baldintzak betetzen dituzten bertako lokalei III. Taldeko lizentzietara sartzeko aukera emanez.**

Ezarritako epean aukera hori erabiliko luketen lokalek bertako erabilera eta eskaera sozialekin bat datorren itxiera-ordutegia izan ahalko lukete, eta hiritarren eskaera ase ahal izango lukete 3:00ak arte ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan, *abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuari jarraiki. Aipatutako Dekretuaren bidez, ezarri ziren ikuskizun publikoen eta olgetarako jardueren eta Euskal Autonomia Erkidegoko jardueren dagozkion bestelako alderdiak.*

#### **Ebazpena**

Aurretik aipatutakoaren arabera, eragindako Sailari **GOMENDATUKO** diogu, urtebeteko epean, salbuespen gisa, eta eskaera sozialaren eta erdialdeko interes komertzial eta turistikoaren arabera, eskatzen duten ostalaritza lokalei **II. Taldetik III. Taldera aldatzeko** aukera ematea, baldin eta dagoeneko erdialdean eta zabalgunean ezarrita badaude, eta Araudiak ezarritako gainontzeko baldintzak betetzen badituzte, bertako eskaera eta erabilera soziala **Ostalaritzako Establezimendu Publikoen Udal Ordenantzarekin** bat egiteko.

Gomendioa **onetsi** da eta erabiltzaileari aztergai dugun gaiaren berri eman diogu, *El Correo egunkarian*, 2004ko urriaren 3an argitaratutakoaren arabera:

*“... Udala formula bat osatzen ari da parte hartzen duten interes guztiak adiskidetzeko (ostalariak, auzokoak eta lokal hauetara joaten direnak). EL CORREO-k jakin duen bezala, Udala aztertzen ari da araudia aldatzeko aukera, eta maila igo nahi duten hiriko tabernei eta pubei atea zabalik uztea, jarduera lizentzia zabalagoa lortu ahal izateko. Horrela, lokal horiek beranduago itxi ahalko lukete.*

*Lege bide hau hainbat baldintzaren menpe dago. Establezimenduek maila igotzeko aukera izango lukete (ostalaritza negozioak sailkatzen diren lau mailetatik), baldin eta udal ordenantzak ezarritako isolamendu, tokia edo segurtasuneko baldintzak betetzen badituzte. Neurri zorrotz horiek, teoriarik, auzokoen atsedena bermatzen dute.*

*Horretarako, zenbait lokalen isolamendu akustikoaren maila handitu beharko lukete, pubek tabernekin baino zorrotzagoa. Baldintza horrek, lokalaren barruan denbora gehiago emateko aukerarekin batera, auzokoei sortarazitako eragozpenak murriztuko lituzke, izan ere, hainbat kexa adierazi dute ezin dutelako lorik egin, Udalaren esanetan.*

*Konponbide honekin, ordu txikiak arte irekita dauden lokalek – Eusko Jaurlaritzako dekretuak ezarritako ordutegietatik kanpo – bere orduan ixtea lortu nahi da, horregatik isunik jaso ez dezaten.*

*Praktikan, formula honek Gasteizeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa dakar. Zehazki, urtebetez, baliogabetu nahi da ostalaritzako establezimenduen arteko gutxieneko distantzia zorrotzak araupetzen dituen artikulua. Denbora-tarte horretan, baldintzak betetzen dituzten lokalak edo intsonorizatzeko inbertsioari aurre egiteko prest daudenak mailaz igo ahal izango dira.*

*Neurri honek bakarrik aurrera egingo du alderdi politikoan, ostalarien eta auzokoen arteko adostasuna xaxatzen badu, Udalaren esanetan.”*

- [Zikinkeria arkupeetan](#) (Erreg. zk.: 462/04)

#### *Erreklamazioa*

Sindiko honek hainbat keza jaso ditu, Arkupeak deritzan ingurua oso zikina baitago eta gainera pixa-usain handia izaten baita bertan.

#### *Azterketa*

Inguru horretako bizilagunek diotenez *Arkupeak urez garbitzen dituzte astean behin, ostegunean, mahuka batekin. Aste bukaeran jende askok egiten du pixa eskaileretan eta Arkupeetan bertan, eta larunbatean eta igandean eskailerak urez garbitzen dituzte mahuka batekin (baina izkinak ondo garbitu gabe).*

Arkupeak aldeko bizilagunen kexak 010 zerbitzutik Udalaren Ingurumen Departamentura bidali ondoren, honek zera erantzun du: *arazoa da inguru hori ur-baldekadaz garbitzea, ura iragazten dela eta aurreikusita dagoela astelehen eta asteartean baldeekin garbitzea eta egunero pasatzen dela erratza.*

Kexa aurkeztu duen bizilagunak dio erantzun hori ez dela nahikoa. Erantzuna oso laburra da eta ez ditu kontuan hartzen oraingo egoeraren ondorioz sortzen diren osasun- eta higiene-arazoak. Gainera, berriz, gogoan hartu behar da inguru horrek garrantzi turistiko eta balio historiko handia duela, eta alde horretatik ere salatu dute lekua zikina dagoela. Alde Zaharra Birgaitzeko Oinarrizko Irizpideetako bat hain zuzen “inguru horretako Balio Historikoak eta morfologikoak babestea da, Gizartearen kultur ondarea baitira”. Eta Arkupeak deritzan inguru hori, gauza nabaria denez, Olaguibel arkitektoaren hirigintza-lan paradigmaticoetako bat dugu, horren bidez hiriaren zabalguneari erantzun eredugarria eman baitzion.

Oso kontuan hartu behar dugu Arkupeak aldea Balio Urbanistikoa duen Hirigune gisa nabarmendu dela eta BBPBak funtsezko helburuen artean eraikuntza hauen balioa azpimarratzen duela; beraz, ingurune horretako balio turistikoa aintzat hartuz, ondokoa gomendatzen dugu:

- 1) Arkupeak ur-baldekadaz garbitzean gerta daitezkeen filtrazioak saihesteko, **inguru hori garbitzeko eskuilak dituzten makinak erabiltzen SAIATZEA**, ur gutxiago erabiltzen dutelako eta oso eraginkorrak direlako.
- 2) **Garbiketa** hori astelehenean egitea, eta ez ostegunean orain arte egin den moduan (edo bi egunetan) aste bukaera pasa ondoren astelehenean izaten baita bertan pixa-usain eta zikinkeriarik handiena.
- 3) Nolanahi ere, **eskailerak mahukekin garbitzeaz gainera, Arkupeko izkinak ere garbitu daitezela, ez baitira normalean garbitzen**, eta izkina horietan zikinkeria eta usain txarra izaten baita.

Gainera, Udaltzaingoari **GOMENDATZEN DIOGU** asteburuetan ikuskaritzalanean bat egin dezala bertan, Ordenantzetan adierazitakoa urratu eta Arkupeetan pixa egiten dutenak salatu eta behar izanez gero dagokien zigorra jartzeko. Badakigu ez dela gauza erraza izango horrelako zigor-jarduera burutzea, salaketa “in fraganti” jarri behar delako, baina ahal den neurrian behintzat, behar-beharrezkoa da inertzia sozial hori haustea, inguru hori hondatzen ari diren gizalegearen kontrako jarrerari eta zigorgabetasunari aurre egiteko.

#### *Ebazpena*

Haxe da beraz gure **GOMENDIOA** Sindikoaren – Herritarren Defendatzailearen Arautegian aurreikusitako eran eta hedadurarekin.

Gomendio hau **partzialki onetsi da**. Eragindako Sailak honakoa jakinarazi digu:

*“...Bide publikoa presiozko uraz garbitzen eta jasotzen duten makinek (‘espaloietako garbitzaileak’), gehienez 4000 kg izaten dituzte. Horregatik, ia ezinezkoa da gune horretan erabiltzea. Aipatu behar da Arkupeak kaleko lurraren azpian egurrezko egitura duten etxebizitzak eraikita daudela, eta modernoagoak diren burdinako bigekin indartu arren, ez lukete mota horietako makinen 2000 Kg/m<sup>2</sup> jasango.*

*Hala ere, egun, eta kontratuaren arabera, garbiketa publikoaren enpresa adjudikaziodunak, Cespa, S.A., astelehenetan eta ostegunetan garbiketa misto sakonak egiten ditu (2 langile goi presioko mahukarekin), Arkupeak aldean. Garbiketa mota hori, Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak gomendatuta, behe preziozko urarekin egiten da, beheko etxebizitzetan iragazpenak izan ez daitezzen. Era berean, ura ez pasatzeko, bere egunean ipini zen itxierari kaltea egitea saihestu nahi da.*

*Bertan egiten den garbiketa mistoak, eskailerez eta lurrez gain, izkinen goiko aldearen garbiketa ere hartzen du barne, bertan izaten baita pixen kopuru handiena biltzen den aldea.”*

- Garbitzaileen edukiontziaren gehienezko erabilera ( Erreg. zk.: 500/05)

*Erreklamazioa*

Sindiko bulego honetan jaso dugu Azazeta Portuko kaleko hainbat biztanleren salaketa. Bertan, aipatu digute, zenbait biztanlek gehiegi erabiltzen dutela aipatutako kalean kokatutako garbitzaileek bakarrik erabiltzeko edukiontzia.

Gunea gehiago zaintzeko edo edukiontzia kentzeko eskatu dute.

#### *Azterketa*

Salaketak jaso ondoren, Ingurumen Sailari jakinarazi diogu bertako biztanle askok zaborrak botatzen dituztela garbitzaileentzat bakarrik Mendateen Zidorra kalean dagoen edukiontzira. Edukiontzi hau goizez zein gauez, edozertarako erabiltzen ari denez, zikinkerri gune bat eta kiratsa sortu da aipatutako aldean. Uste dugu, hori guztia ekidin daitekeela.

Uste dugu auzi honen aurkako esku-hartze egokia Alkatearen Bando bat izango litzatekeela. Toki Araubideko Oinarrizko Legeko 21 eta 28. artikuluek aipatzen dituzten Udal Bandoak, **Alkatearen eskumenekoak dira bakarrik**, eta tradizio handikoak dira gure tokiko zuzenbidean eta udaletan. Bandoak egiteko ahalmena ez da bakarrik araudi-eskumen bat, baina baliabide eraginkorra eta egokia da hiritarrei legeko eta hiriko betebeharrak gogoarazteko. Madrilgo **Enrique Tierno Galván** Alkate ospetsuak asko erabili zituen bandoak, hiritarrekin kontaktua mantentzeko baliabide egoki gisa, eta gure udalerrian Alkatearen irudiak duen buruzagitza instituzionalaren eginkizunak betetzeko.

Kasu honetan, egokiena **Udal Bando** bat idaztea izango litzateke, bertako hiritarrei gogorazteko aipatutako edukiontzia CESPAn enpresaren langileek bakarrik erabiltzeko dela, eta zaborrak biltzeko guneak eta ordutegiak badaudela.

#### *Ebazpena*

Aurrekoan aipatutakoaren arabera, eragindako Sailari **GOMENDATU** diogu Mendateen Zidorra kaleko edukiontziaren zikinkerri eta kirats gune hori sortu ez dadin, Alkateari proposatzea UDAL BANDO bat idaztea. Hartara, bizilagunei gogoaraziko litzaieke aipatutako edukiontzia garbitzaileek bakarrik erabiltzeko dela, eta zeintzuk diren aipatutako aldeko zaborrak biltzeko ordutegia eta guneak. Era berean, Bandoan gogoaraziko lirateke edukiontzi hau behar ez bezala erabiltzeak dakartzan isunak.

#### **b) Ofizioz egindako gomendioa**

- Eroski-Astegieta Hipermerkatuaren Zikinkerria ( Erreg. zk.: 07/04)

#### *Erreklamazioa*

Bertan, ikuskapen bat egin ondoren, honakoa jakinarazi dugu:  
Astegietako Eroski Hipermerkatua itxi denetik, aparkalekuan zabor asko pilatu dira.

### *Azterketa*

Sindikoko Bulego honetatik Astegietan Ikuskapen bat egin da, eta egiaztatu da zabor asko pilatu direla aipatutako supermerkatuko Parkingean. Zaborrak mota guztikoak dira: etxeko zaborrak, altzariak, baita ibilgailuen hondakinak ere.

Hirigintza Sailaz arduratzen den zinegotziarekin hitz egin ondoren, badakigu aparkaleku hau **jabetza pribatukoa dela**, baina uste dugu kontuan hartu behar dela osasunarentzat edota ingurumenarentzat oso arriskutsua dela hainbeste zabor biltzea. Ikusten dugu leku horrek, inertziak eta jarduera ezak eraginda, zabortege bat bilakatzeko **ARRISKUA** duela, eta horrek ondorio latzak ekarriko lituzke: bertakoei eragozpenak sortu, kiratsak, paisaiaren inpaktua, hirira sartzeko ohiko tokia.

### *Ebazpena*

Aurretik aipatutakoaren arabera, Ingurumen Sailari **GOMENDIO** bat egin diogu: **Astegietako Eroski Supermerkatuko aparkalekuan zaborrak biltzeak** ekar ditzakeen ondorio latzak ekiditea, **eta ahalik eta azkarren garbitzea**. Honakoa gomendatu diogu:

Aipatutako aparkalekuaren enpresa adjudikaziodunari agindeia egitea zaborrak jasotzeko edo eragindako Sail honek subsidiarioki egitea.

Eragindako Sailak gomendioa ONETSI du, honako hau erantzunez: :  
“...Garbitasunari buruzko Udal Ordenantzaren 25.1 artikulua arabera, orubeen eta lurraldeen jabeek hondakinak gabe mantendu behar dituzte, osasun, higiene, segurtasun eta apaintasun baldintzetan. Aurrekoan kontuan hartuta, **EROSKI S. COOP** enpresari agindeia egingo zaio Astegietako Eroski Hipermerkatua izanaren parkingean pilatutako hondakinak berehala kentzeko. Hemendik aurrera, aipatutako tokia apaintasun eta garbiketa baldintzetan mantendu beharko du, eta ohartaraziko zaio ez baduela horrela egiten, zehapen-prozedura egokia hasiko dela ...”

### **c) Oroigarria**

- Etxe Zaratak, bizilagun gogaikarria ( Erreg. zk: 463/04,487/05,498/05)

### *Erreklamazioa*

Sindikoko Bulego honetan hainbat salaketa jaso da, hiritar batzuek jasandako eragozpenak direla eta, euren bizilagunek eginiko zaratengatik.

### *Azterketa*

Sarritan hiritarren kezak jasotzen dira higiezinako bizilagunek sortutako zaratengatik (zfr. 437/04,368/04,307/04,394/04,418/04,463/04...) eta baita gizabidearen aurkako jarrera duten kaleko jendeak sortutako kaltearengatik ere,. (ahots bolumen altua, kantuak, hiri altzairuen tratu txarra....)

Denak bat datoz, esaten dutenean euren bizilagunek sortutako zarata desatseginak norberaren intimitate pertsonalaren eta familiarraren inbasioa dela, eguneroko jarduera normalen garapena eragozten dietela (adibidez: irakurri, ikasi, atsedena hartu...) arreta eta kontzentrazio arazoak sortarazten dizkietela, eta askotan lo egitea zailtzen dietela.

Batzuetan, egoera horiek behin eta berriro errepikatzen dira eta urduritasun eta estres egoera etengabeak sortarazten dituzte. Horiek, hein berean, trastorno psikofisikoak, gaixotasun kardiobaskularrak eta inmunitate sistemaren alterazioak sortzen dituzte. Etekin profesionalaren murrizpena, lan istripuak, zenbait jarrera antisozialak, higiezin baliogalera eta abar badira ere ondorio larrienetariko batzuk.

Baina etxeko zarata da kontrolatzeko zailtasun gehienak dituen.

Zaratak hiritarren etxeetan sortzen direnean, legeak egitea zaila da, askotan ere froga zehatzak aurkitzea oso konplexua delako. Jarduera lizentzia behar duten merkataritza eta industria jardueretan, berriz, askoz errazagoa da.

**Zaratak eta Dardarak Araupetzen dituen Udal Ordenantza**, zarata-mailak dezibelioetan araupetzen dira, egoera bakoitzean eta sonometroen neurketaren bidez.

Etxeko zaratei dagokionez, zaraten jatorria era askotakoa izaten da, besteak beste:

- Etxetresnak: musika erreproduzitzailak, telebista, irratia, garbigailuak, hozkailuak, lehorgailuak...
- Musika tresnak: pianoak, gitarrak...
- Ezgaraiko jarduerak: brikolajea, altzarien lekualdatzea, pertsonen mugimendu bortitzak, txakurren zaunkak...
- Gizarte bilerak: festak...
- Gizabidearen aurkako jarrerak: garrasiak, borrokak, kantuak...

Askotan, ezin da zarata sonometroaren bidez neurtu, kontuan hartzen badugu zarata etengabea dela, denborari dagokionez. Askotan, zarata jakin batzuk dira, eta normalean atseden orduetan ematen dira..

Arazoa honakoa da: kaltetuak Udaltzaingora joatea erabakitzen badu, gerta daiteke, udaltzainak dena delako etxera iristen direnean zaratak eten egin duela, baina horrek ez du esan nahi, aipatutako zarata ez dela berriro errepikatuko.

Nolanahi ere, uste dugu poliziaren jardunak ez diola egungo udal ordenantzari etekin guztia ateratzen, izan ere, nahiz eta mugatua izan, aipatutako ordenantzak udaltzainei esku-hartze zabalagoa eta eraginkorragoa egiteko aukera ematen die.

Horrelakoetan, kontuan hartu behar dira Zarata eta Dardaren Udal Ordenantzaren artikulua, Hiritarren Zarata eta Elkarbizitzari eta Udal Esku-hartzeari buruzko gaiari dagokionez (29, 30. artikulua).

**29. Art.**

1.- **“Bide publikoan eta elkarbizitza publikoko gunetan edo eraikinen barruan egiten diren zaratak eta dardarak, hiritarren elkarbizitzak exijitzen dituen mugen barruan mantendu beharko dira. ( ARAUZKO BETEBEHAR BAT SORTZEN DA)**

2.- **“Aurreko paragrafoan aipatutako aginduak, batez ere, gaueko atsedeneko orduetan egindako zaratei erreferentzia egiten die, hurrengo ataletan aipatzen diren egoerak direla eta:**

2.1.- **Gizakien ahotzaren tonu altuegia edo pertsonen zuzeneko jarduera.**

2.2.- **Etxe-abereek sortutako zaratak.**

2.3.- **Aparatuak edo musika tresnak.**

2.4.- **Aurreko ataletan aipatu ez den pertsonaren edozein jarduera edo jarrera, bizilagunei kalte egiten dien zaratak sortzen baditu, nahiz eta gizabidearekin ekidin daitezkeen.**

Eta aurreko artikuluan aipatutakoaren arabera, UDALTZAINGOAREN ESKU-HARTZEA aipatzen da, honako gertaeretan:

**30. art**

1.- **“29. artikuluan aipatutakoari dagokionez, Udaltzaingoak eskatuko die jarrera aldatzeko gizabidearen aurkako portaera duten eta ondoko bizilagunei eragozpenak sortarazten dieten hiritarrei (HORRELAKOETAN, UDALTZAINGOAREN BEHAKETA PERTSONALA ERAGOZPENAREN FROGA NAHIKOA DA)**

**Udaltzaingoak agindutakoa ez bada betetzen, horiek aipatutako jarrerak salatu ahal izango dute, dagozkion zehapen espedienteak irekiz.**

2.- **“Era berean, eta interesatuek eskatuta, Udaltzaingoek neurtu ahal izango dute gizabidearen aurkako portaera duten bizilagunek sortutako zarata. Interesatuei egindako neurrien berri emango zaie, lege-jarduerari ekin egin behar baldin bazaie, Jabetza Horizontalari buruzko legeak adierazitakoari jarraiki”.**

*Ebazpena*

Aurretik esandakoaren arabera, Udaltzaingoari **GOGOARAZI DIOGU** aplikatu behar duela **Zarata eta Dardaren Udaltzaingoaren 29. eta 30. artikuluek ezarritakoa, eta bai bide publikoan eta bai euren etxebizitzetan gizabidearen aurkako portaerak dituzten eta ondoko bizilagunei kalte sortarazten dieten hiritarrei jarrera aldatzeko eskatuko diete. Ez badute Udaltzaingoak agindutakoa betetzen, garrantzitsua da horiek aipatutako jarrerak salatzea, dagozkion zehapen espedienteak irekiz. Aipatutako espedientetan, udaltzaingoen testigantza pertsonala salatutako jarduera gogaikarriaren froga nahikoa da.**

- Etxeko Zaratak: Lurrun Erauzgailua ( Erreg. Zk.: 418/04)



### *Erreklamazioa*

Auzotar bat Sindiko Bulego honetara etorri da bere bizilagunaren etxebizitzako komunean instalatutako erauzgailu baten sortutako zaratak salatzeke.

### *Azterketa*

Salaketa hau eta bizilagunek sortutako zaratengatik hiritarrek jarritako bestelako salaketak aztertu ondoren, aurreko Ebazpenean adierazitako Oroigarria bidali zaio (Erreg. Zk.: 463/04)

### *Ebazpena*

#### **Oroigarria.**

##### **d) Orientazioa**

- Katalunia plazako tabernen arteko distantzia ( Erreg.. Zk.: 371/04)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko biztanle batek informazioa eskatu du *Katalunia Plazako ostalaritza establezimenduen arteko distantziari buruzko araudiaren aplikazioari buruz.*

### *Azterketa*

Horri dagokionez, adierazi nahi dugu Vitoria – Gasteizeko Udalak, 2004ko uztailaren 16an, txosten bat bidali digula, eta interesgarria iruditu zaigunez, bizilagunari horren berri eman diogu, hitzez hitz:

*“Aipatutako Ordenantzaren hainbat irizpide aztertzen ari da, bertan dauden lokalen **taldea aldatzeari** dagokionez, intsonorizazio goi maila berberak ezartzeko helburuarekin, jokoan dauden interes guztiak adiskidetzeko. Horrela, jardueraren ordutegia luzatuko da, hiritarrei atsedena bermatzen dizkien intsonorizazioekin.*

*Puntu honetan, garrantzitsua da Ingurumen Sailari gogoaraztea, bakarrik aplikatzen duela Vitoria – Gasteizeko .HAPOren distantziak araupetzen dituen araudia, eta bere izaerarengatik, Osoko Bilkurari eta inplikaturako gainontzeko Administrazioei dagokiela aipatutako plana aldatzea. HAPOren izaera arautzailea dela eta, hori antolamendu juridikoan txertatzen da, nahi eta nahi ez aplikatu behar izanik eta interesatu guztiak lotesten dituelarik.*

*Erreformaren zirriborroa eskura dagoenean, bere Sailari kopia bat bidaliko zaio ezagut dezan eta behar diren ondorioak izan ditzan.”*

Horri dagokionez, atsegin handiz jasoko dira, aurretik proposatu ditzaketen iradokizun guztiak, bidezkoa bada, Osoko Bilkurari jakinarazteko.

Hori guztia dela eta, Auzokoaren Sindiko eta Defentsariaren Erakunde honetan jarritako konfiantza guztia eskertuz, informazio berrien zain gelditzen da, bidezkoa bada, auzia ebazteko, eta hiritarren premiak ase ahal izateko.

#### *Ebazpena*

**ORIENTAZIO** honekin hiritarra jakitun geratu da.

- Zaratak pisuan larunbatetan obrak egiteagatik ( Erreg. Zk.: 443/04)

#### *Erreklamazioa*

Biztanle batek salatu ditu *bere bizilagunak sortutako eragozpenak, larunbatetan egindako obrek zarata gehiegi sortzeagatik.*

#### *Azterketa*

*Erabiltzailearekin izandako elkarrizketaren ondoren, zera aipatu diogu: “Zaraten eta Dardaren Udal Ordenantza” aztertu ondoren, ikusi da bertako 33. artikuluan honakoa aipatzen dela: “Bai bide publikoan eta bai eraikuntzan egindako lanak ezingo dira 22ak eta hurrengo egunaren 8ak bitartean egin, II. Idazpuruan, izaera orokorrarekin ezarritako maila gainditzen duten zaratak sortzen badituzte. Igandea edo jaieguna denean, aipatutako lanak bakarrik 10ak eta 20ak bitartean egin ahal izango dira”.*

Horrela, esan diezaiokegu larunbata laneguna dela, beraz, bere bizilagunek 8etatik 22etara obretan lan egin ahal izango dute, baldin eta ordenantza honek ezarritako 40dB-A muga gainditzen ez badu.

#### *Ebazpena*

Horrela, bidali diogu behar zuen informazioa, horri buruzko **ORIENTAZIOA** emanez.

- Zaratak lonjan ( Erreg. zk.: 468/04)

#### *Erreklamazioa*

Auzotar bat Bulego honetara etorri da, lonja batean sortzen omen diren zaratak salatzeke, bere etxeko etxabetan, Herminio Madinabeitia kalean.

#### *Azterketa*

Horri buruzko informazioa lortu ondoren, erabiltzaileari zera adierazi diogu: Herminio Madinabeitia kalean, aipatutako zenbakiaren parean, bi lokal daude beheko solairuan. Hala ere, ez da lizentziarik eskatu, lokal horietan jarduera bat garatzeko.

Bertara egindako bisita ondoren, ez da ikusi jarduerarik garatzen ari denik.

#### *Ebazpena*

Erabiltzaileari honako **ORIENTAZIOA** eman diogu.

- Eroskik sortutako zaratak ( Erreg. zk.: 439/04)

#### *Erreklamazioa*

Erabiltzaile bat Bulegora iritsi da salaketa bat jartzeko. Bertan, aipatu du Judimendiko Eroskik, gauez eta goizez, zarata gogaikarriak sortzen dituela. Ingurumen Sailari txostenak eskatu dizkiote eta aitortu dute gaueko jarduera legetik kanpo dagoela.

Eskatu du Enpresari isuna jartzeko.

#### *Azterketa*

Eragindako Sailari txosten egokiak eskatu ondoren, jarduera-lizentziaren kopia eta Ingurumen Saileko Zerbitzuek egindako neurketen kopia bidali dizkiogu, 3 hileko epean, berririk ez badago, Bulego honi jakinarazteko.

#### *Ebazpena*

Erabiltzaileari honako **ORIENTAZIOA** eman diogu.

#### **e) Esku-hartzea**

- Castro Urdialeseko Eroski Supermerkatuaren Zaratak. ( Erreg Zk.: 401/04)

#### *Erreklamazioa*

Auzoko bat Bulegora joan da Vitoria-Gasteizeko Castro Urdiales kaleko 2. zenbakian kokatutako Eroski establezimenduak etxebizitzetan sortutako zaratak eta dardarak salatzeke.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileari elkarrizketa egin ondoren eta Ingurumen Sailaren Udal Zerbitzuari horri buruzko txostena eskatu ondoren, honako informazioa igorriko dugu:

*EROSKI S. COOP. enpresari jarritako azken isuna, aipatutako establezimenduari dagokionez, 2002ko ekainaren 11ko Dekretuaren bidez egin zen, 2001eko martxoaren 26ko Dekretua ez betetzeagatik. Horren arabera, agindeia egin zitaion aipatutako establezimenduko jarduera bakarrik goizez garatzeko (8etatik 20:00etara), eta garraiobideak indarreko araudiak ezarritako zarata-mailekin bat zetozen beste batzuen ordeztatzeko.*

*Aipatutako zehapen ebazpenaren datatik aurten arte, espedienteen ez dago salaketa berririk, Castro Urdiales kaleko 2. zenbakian kokatutako supermerkatuari dagokionez.”*

*Auzoko batek 2004. urtean salaketa bat baino gehiago jarri ondoren, Ingurumen Saileko Ikuskapen Zerbitzuak dagokion zarata-neurketa egin du. Emaitza positiboa izan da (33, 4 dB-A) eta ikusi da zarata horiek aipatutako establezimenduaren konpresoreetatik datozela.*

*Azkenik, txostenaren arabera, EROSKI S. COOP enpresari agindeia egin zaio Ingurumen Saileko Zinegotzi-Ordezkeriak 2004ko uztailearen 15ean emandako Dekretuaren bidez, hilabeteko epean, egoki deritzon neurri zuzentzaileak CASTRO URDIALES kaleko 2. zenbakiko supermerkatutako konpresoreetan sartzeko”.*

#### *Ebazpena*

Sindikoko Bulego honek burututako gestioen eta auzotarrak izandako interesaren ondoren, ulertzen dugu kasu honetan gure ebazpena onetsi dela eta gure **ESKU-HARTZEA** zuzena izan dela.

- Florida Azokara sartzeko Arrapala. ( Erre. zk.: 369/04)

#### *Erreklamazioa*

Florida Azokako jabeetako batek salatu du gehiegi erabiltzen dela zama-lanetarako arrapala bertara sartzeko, eta horrek arrisku handia dakarrela. Horretaz gain, salatu du ere, azokaren partzeletako batzuk aldatu direla gainontzeko jabeen baimenik gabe.

Informazioa eskatu du, ea salatutako jabeari irekitako zehapen espedienteak bete den ala ez jakiteko eta zama-lanetarako gune horren aldatzea zuzenbidearen arabera egin den ala ez jakiteko.

#### *Azterketa*

Sindikoko Bulego honetan elkarrizketa bat egin eta eragindako tokian dagokion ikuskapena egin ondoren, erabiltzaileari lortutako informazioaren berri eman diogu:

*“2003ko uztailearen 14an, zehapen prozedura ireki zitzaion salatutako jabeari 2003ko otsailaren 27ko dekretua ez betetzeagatik. Beraren bidez, aipatutako Azokaren Jabeen Erkidegoari agindeia egin zitzaion funtzionamendu lizentzia (irekiera) eguneratzeko egungo titularraren izenean, eta jardueraren garapena emandako lizentziaren baldintzekin bateratzeko (jendearen irisgarritasuna barne).*

*2003ko irailaren 24an, 300,51 eurotako zehapen-proposamen bat egin zen. 2004ko urtarrilaren 30ean, salatuak, agirien bidez, egiaztatutako aipatutako Azoka osatzen duten saltokien titularrak Jabeen Erkidego batean eratuta daudela. Horretarako, Jabetza Horizontaleko Araubideko Eraketaren erregistro-inkripzioaren kopia bat eta aipatutako Jabeen Erkidegoaren Estatutuak entregatzen ditu. Era berean, adierazten du aipatutako Azokaren bi saltokiren titularrak dela.*

*Ondoren, 2004ko martxoaren 25ean, maiatzaren 12an eta ekainaren 3an, 19. zenbakidun Florida Azokaren Jabeen Erkidegoari agindeia egin zaio, funtzionamendu lizentzia (irekiera) eguneratzeko bere izenean, eta jardueraren garapena emandako lizentziaren baldintzei bateratzeko (jendearen irisgarritasuna barne). 2004ko uztailaren 14an, Jabeen Erkidegoak eskatu zuen egun izapidetzen ari den jardueraren funtzionamendu-lizentziaren titularitatea aldatzeko, irailaren 9an, hainbat neurri zuzentzaile betetzeko eskatu delako, Suteak Itzaltzeko Udal Zerbitzuak eginiko txosten bati jarraiki (horren berri ematen da).*

Erabiltzailea bigarren elkarrizketa batera joaten da txostenean aipatutako puntu batzuk argitzeko eta honakoa adierazi diogu:

Udalak, dagoeneko, agindeia egin dio 19 zenbakidun Florida Azokaren Jabeen Erkidegoari, jardueraren garapena emandako lizentziaren baldintzekin bateratzeko, baita publikoaren irisgarritasuna ere. Azken agindeia 2004ko ekainaren 3an izan da. Era berean, irailaren 9an agindeia egin zen hainbat neurri zuzentzaile betetzeko, dagoeneko, ezagutzen duen Suak Itzaltzeko Udal Zerbitzuaren txosten baten arabera.

Uste dugu, era horretan, zentzuzko denbora-tarte bat itxaron behar dela agindei hauen emaitza ikusteko.

Bestalde, erabiltzaileak aipatzen zuen Udal Ordenantza, (*Azokaren eraikuntza eta instalazioaren alderdiak araupetzen dituen 1985eko maiatzaren 8ko Ordenantza*), indarrean zegoen Florida Kaleko Azokaren jarduerarako Lizentziak eman ziren garaian, baina aipatu behar dizugu, Ordenantza honek honakoa dioenean, (Azoka gisa erabiliko diren lokalei dagokionez) “sarrera independente izan beharko dituzte publikoarentzat eta merkantzientzat” ez dio erreferentziarik egiten egun, Florida Azokak duen arrapalari. Arrapala hori ezin da merkantzietako arrapalatzat jo, ez dagoelako hura identifikatzen duen zama-lanerako ibirik. Ordenantza honek aipatzen dituen merkantzia sarrerak, oro har, ibilgailuetarako sarrerak dira..

Uste dugu udal esku-hartzea bat datorrela erreferentziazko araudiarekin, eta oinezkoen pasealekuaren segurtasunari buruzko agindeiak (barandak, lur ez labaingarria...) zuzenak eta egin beharrekoak direla.

#### *Ebazpena*

Uste dugu Sindiko Bulego honek egindako gestioen eta auzokoak adierazitako interesaren ondoren, Udala aldeko ebazpena egiten ari dela. Gure **ESKU-HARTZEA** bakarrik informazio hau eskaintzea da.

- Zaratak Herrietako Etxeetan. ( Erreg. zk.: 445/04)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko biztanle batek salatu ditu Herrietako Etxeek sortutako zaratak, batez ere, euren jaiak antolatzen dituztenean.

## *Azterketa*

*Erabilitzailearekin solasaldi bat eduki eta bere salaketa aurkeztu ondoren (bertan, salatzen zituen Herrietako Etxeek sortutako zaratak), honakoa erantzun diogu: Vitoria-Gasteizeko Udalak, bertako Ingurumen Sailaren bidez, txosten bat igorri digu, eta interesgarria iruditu zaigunez, horren berri eman diogu, hitzez hitz.*

*“Herrietako Etxeek Kultura Elkartearen eta taberna edo jatetxearen jardueratarako lizentzia dute (abenduarien 16ko 296/1997 Dekretuaren II. Taldea). Horretaz gain, Ikuskizunen eta Establezimendu Publikoen irekitze eta ixte ordutegien lizentzia ere badute. Era berean, taberna jardueraren berezkoak diren neurri zuzentzaile berberak ezartzen zaizkie, besteak beste: intsonorizazioa, suteen aurkako babesa, funtzionamendu ordutegia, etab.*

*Herrietako Etxeek bete beharreko baldintzei dagokienez, karpak edo txosnak jartzen direnean, honakoak dira:*

*1.- Erantzukizun zibileko arriskuak barne hartzen dituen aseguru poliza bat edukiko dute 30000 eurotan.*

*2.- Exijitzen diren higiene eta osasuneko neurriak hartuko dituzte, indarreko sektoreko araudiaren arabera.*

*3.- Jaia antolatzeko eta girotzeko erabilitako instalazio elektroakustikoak igorritako soinu-mailak ez du 85 dB-A gaindituko, neurtutako bozgorailuetatik 4 metrora neurtuta. Horretarako, (beharrezkoa izanez gero) Udaltzaingoak hura betetzen dela zainduko du.*

*4.- Jarduera, gehienez, 3:00ak arte irekita egongo da, berbena edota kontzertu batean pate hartzen badu, eta 2:00ak arte, instalazio horiek independenteki funtzionatzen dutenean.*

*Era berena, Bide Publikoaren Zerbitzuari bide publikoa okupatzeko baimena eskatu beharko diote. Zerbitzu hori dagokion baimena emateko eskumena duen erakundea da.*

*Sindikatu Bulego honek burututako gestioen eta auzokoak adierazitako interesaren ondoren, aipatu dezakegu Administrazioa indarreko legearen arabera ari dela.*

## *Ebazpena*

*Honakoa da horri buruzko gure **ESKU-HARTZEA**.*

- Lucero Tabernaren Zaratak ( Erreg. zk.: 494/05)

### *Erreklamazioa*

Erabiltzaile bat Bulegora iritsi da Antigua Lucero izeneko Lokal-Tabernan sortzen ari diren zaratak salatzeko, bizilagunentzat oso gogaikarriak baitira. Eskatu du ixteko ordutegia kontrolatzeko eta galdetu du lokalean exijitutako intsonorizazio mailari buruz.

### *Azterketa*

Eragindako Sailari txosten egokiak eskatu ondoren, erabiltzaileari honakoa jakinarazi diogu: *udal artxiboak kontsultatu ondoren, egiaztatu da ez dela zaratengatik zehapen-espediterik izapidetu, eta Zaraten Udal Ordenantzaren arau-hausteen batzordeak ez diola titularrari isunik jarri.*”

Iradoki diogu tabernatik datozen zaratak gehiegizkoak direla iruditzen bazaio, Udaltzaingoari neurketa egokiak egiteko eskatzea, bidezkoak badira, dagozkion isunak jarri ahal izateko.

### *Ebazpena*

Erabiltzailearekin honako **ESKU-HARTZEA** burutu da.

- Ostalaritzako lokalen gauez sortutako zaratak  
(Erreg. zk: 11-02)

### Erreklamazioa

Gasteizeko hainbat biztanlek salaketa jarri ditu tabernek eta lokalek ezgaraiko orduetan sortzen dituzten zaratengatik. Kexa horiek aurkeztu baino lehen, udaltzaingoak, hainbat kasutan, bitartekariaren papera egin behar izan zuen.

### Azterketa

Biztanleek egindako kexak euren etxebizitzatik gertu kokatutako tabernek eta lokalek sortutako zaratari buruzkoak dira.

Ostalaritzako eta ikuskizun publikoen etengabeko lokalen edo instalazioen ixteko ordutegia establezimenduari dagozkion udal lizentzietan zehaztatutako jardueren araberakoa izango da, fiskalki aitortutako jarduera alde batean utzita, abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuari jarraiki. Dekretu horren bidez, ezarri ziren ikuskizun publikoen eta olgetarako jardueren eta jarduera horiei dagozkien beste alderdien ordutegiak, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

Aipatutako dekretuak dio ere ireki eta ixteko ordutegia adierazi behar dela gutxienez 25 cm x 14 cm neurriak dituen plaka batean.

Dekretuak aipatzen duen lokalak eta instalazioak ixteko eta bestelako ikuskizunak edo jarduerak bukatzeko ordutegia “ordubetez luzatuko da ostiral, larunbat eta jaiegun bezperatan, ordu erdiz, ekainaren 1etik irailaren 30 arte eta bi orduz zaindariaren jaietan, Aste Santuko asteleheneetik ostegunera, Inauterietako ostegunetik astearte arte, eta abenduaren 21etik urtarrilaren 6a arte Gabonetan, eta bestelako gertakaritan: azokak, lehiaketak, erakusketak edo interes publikoko antzekoak.

Horregatik, beharrezkoa iruditu zaigu **OROIGARRI** bat egitea udal funtzionario guztiei, batez ere, udaltzaingoari, gogoan eduki ahal izateko salaketak kontuan hartu behar dituztela eta euren eskumenekoa den guztia betetzeko, establezimenduek eta lokalek sortutako zaratari dagokionez, 296/1997 Dekretuari jarraiki.

Sindikoko Bulego honek egindako Oroigarriaren ondoren, bizilagunen kolektiboarekin solasaldi bat eduki dugu horren berri emateko. Hala ere, esan digute arazoa bere horretan mantentzen dela. Aipatutako arazoa ikertzen jarraitu eta horri buruzko informazioa bildu dugu.

#### *Ebazpena*

**OROIGARRI** bat egin da ordutegien araubidea modu zorrotzean betetzeari buruz eta gaueko aisialdia maite duten hiritarren ohiturei dagozkien aurreikuspenei buruz.

Aurreko Memoria bukatu dugula, auziak konpondu gabe jarraitzen du, Oroigarria **ONETSI** den arren, gaiak jarraipen bat behar duelako.

Memoria honetan informazio jakin bat bidali da eta erabiltzaileekin harremanetan jarraitzen da, horri dagokion **ESKU-HARTZEA** burutuz.

#### **f) Bitartekotza**

- Osasun eta Kontsumoaren Zerbitzuko Bitartekotza Sailari idatzia bidali ( Erreg. zk.: 368/04)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek kexa bat jarri du gauez, goiko solairutik sortzen diren Zaratengatik.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileak Bitartekotza Akta adierazten duen dokumentua entregatu du. Bertan, laburtzen da erreklamaturako bi bizilagunek hartu zuten akordioa.



Sindiko Bulego honetatik erreklamatutako bizilagunari Bitartekotza Aktaren kopia bat bidali zitzaion, oroigarri gisa.

### *Ebazpena*

Sindiko Bulego honetan hainbat izapide burutu da bizilagunei egindako gomendioari buruz. Bulego honek **BITARTEKOTZE** bat egin du kexa jarri duen bizilagunaren eta eragindako Sailaren artean, hau da: Ingurumen Saila.

Horretaz gain, ondoren, **OROIGARRI** bat bidali zen, arrazoi honengatik kexa asko jaso zirelako.

Sindiko Bulego honetan salaketa ugari jaso dira hiritar batzuk pairatzen dituzten kalteengatik, euren bizilagunek eraginda.

Sarritan, hiritarren kexak aurkezten dituzten, euren higiezinaren bizilagunek eragindako zarata gogaikarriengatik (Zfr. 437/04,368/04,307/04,394/04,418/04,463/04...) baita, gizabidearen aukako jarrera duten kaleko pertsonen sortutakoengatik ere (ahotz altua, kantuak, hiriko altzarien tratu txarra...)

Denak bat datoz, esaten dutenean euren bizilagunek sortutako zarata desatseginak norberaren intimitate pertsonalaren eta familiarraren inbasioa dela, eguneroko jarduera normalen garapena eragozten dietela (adibidez: irakurri, ikasi, atsedena hartu...) arreta eta kontzentrazio arazoak sortarazten dizkietela, eta askotan lo egitea zailtzen dietela.

Batzuetan, egoera horiek behin eta berriro errepikatzen dira eta urduritasun eta estres egoera etengabeak sortarazten dituzte. Horiek, hein berean, trastorno psikofisikoak, gaixotasun kardiobaskularrak eta inmunitate sistemaren alterazioak sortzen dituzte. Etekin profesionalaren murrizpena, lan istripuak, zenbait jarrera antisozialak, higiezinaren balio galera eta abar badira ere ondorio larrirenetarikoa batzuk.

Baina etxeko zarata da kontrolatzeko zailtasun gehienak dituen.

Zaratak hiritarren etxeetan sortzen direnean, legeak egitea zaila da, askotan ere froga zehatzak aurkitzea oso konplexua delako. Jarduera lizentzia behar duten merkataritza eta industria jardueretan, berriz, askoz errazagoa da.

**Zaratak eta Dardarak Araupetzen dituen Udal Ordenantza**, zarata-mailak dezibelioetan araupetzen dira, egoera bakoitzean eta sonometroaren neurketaren bidez.

Etxeko zaratei dagokionez, zaraten jatorria era askotakoa izaten da, besteak beste:

- Etxetresnak: musika erreproduzitzailak, telebista, irratia, garbigailuak, hozkailuak, lehorgailuak...
- Musika tresnak: pianoak, gitarrak...
- Ezgaraiko jarduerak: brikolajea, altzarien lekualdatzea, pertsonen mugimendu bortitzak, txakurren zaunkak...

- Gizarte bilerak: festak...
- Gizabidearen aurkako jarrerak: garrasiak, borrokak, kantuak...

Askotan, ezin da zarata sonometroaren bidez neurtu, kontuan hartzen badugu zarata etengabea dela, denborari dagokionez. Askotan, zarata jakin batzuk dira, eta normalean atsedean orduetan ematen dira..

Arazoa honakoa da: kaltetuak Udaltzaingora joatea erabakitzen badu, gerta daiteke, udaltzainak dena delako etxera iristen direnean zaratak eten egin duela, baina horrek ez du esan nahi, aipatutako zarata ez dela berriro errepikatuko.

Nolanahi ere, uste dugu poliziaren jardunak ez diola egungo udal ordenantzari etekin guztia ateratzen, izan ere, nahiz eta mugatua izan, aipatutako ordenantzak udaltzainei esku-hartze zabalagoa eta eraginkorragoa egiteko aukera ematen die.

Horrelakoetan, kontuan hartu behar dira Zarata eta Dardaren Udal Ordenantzaren artikulua, Hiritzarren Zarata eta Elkarbizitzari eta Udal Esku-hartzeari buruzko gaiari dagokionez (29, 30. artikulua).

#### **29. Art.**

**1.- “Bide publikoan eta elkarbizitza publikoko gunetan edo eraikinen barruan egiten diren zaratak eta dardarak, hiritarren elkarbizitzak exijitzen dituen mugen barruan mantendu beharko dira. ( ARAUZKO BETEBEHAR BAT SORTZEN DA)**

**2.- “Aurreko paragrafoan aipatutako aginduak, batez ere, gaueko atsedeneko orduetan egindako zaratei erreferentzia egiten die, hurrengo ataletan aipatzen diren egoerak direla eta:**

**2.1.- Gizakien ahotzaren tonu altuegia edo pertsonen zuzeneko jarduera.**

**2.2.- Etxe-abereek sortutako zaratak.**

**2.3.- Aparatuak edo musika tresnak.**

**2.4.- Aurreko ataletan aipatu ez den pertsonaren edozein jarduera edo jarrera, bizilagunei kalte egiten dien zaratak sortzen baditu, nahiz eta gizabidearekin ekidin daitezkeen.**

Eta aurreko artikuluan aipatutakoaren arabera, UDALTZAINGOAREN ESKU-HARTZEA aipatzen da, honako gertaeretan:

:

#### **30. art**

**1.- “29. artikuluan aipatutakoari dagokionez, Udaltzaingoak eskatuko die jarrera aldatzeko gizabidearen aurkako portaera duten eta ondoko bizilagunei eragozpenak sortarazten dieten hiritarrei (HORRELA KOETAN,**

**UDALTZAINGOAREN BEHAKETA PERTSONALA ERAGOZPENAREN FROGA NAHIKOA DA)**

**Udaltzaingoak agindutakoa ez bada betetzen, horiek aipatutako jarrerak salatu ahal izango dute, dagozkion zehapen espedienteak ireki.**

2.- “Era berean, eta interesatuek eskatuta, Udaltzaingoek neurtu ahal izango dute gizabidearen aurkako portaera duten bizilagunek sortutako zarata. Interesatuei egindako neurrien berri emango zaie, lege-jarduerai ekin egin behar baldin bazaie, Jabetza Horizontalari buruzko legeak adierazitakoari jarraiki”.

Aurretik esandakoaren arabera, Udaltzaingoari **GOGOARAZTEN DIOGU** aplikatu behar duela Zarata eta Dardaren Udal Ordenantzaren 29. eta 30. artikuluek ezarritakoa, eta **bai bide publikoan eta bai euren etxebizitzetan gizabidearen aurkako portaerak dituzten eta ondoko bizilagunei kalte sortarazte n dieten hiritarrei jarrera aldatzeko eskatuko diete. Ez badute Udaltzaingoak agindutakoa betetzen, garrantzitsua da horiek aipatutako jarrerak salatzea, dagozkion zehapen espedienteak ireki. Aipatutako espedientetan, udaltzainaren testigantza pertsonala salatutako jarduera gogaikarriaren froga nahikoa da.**

Hori guztia **GOGOARAZI** nahi dugu, Auzoko Sindiko eta Defentsariari buruzko Araudiari jarraiki.

- Gauetz sortutako etxeko zaratak (Erreg. zk.: 394/04)

*Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko biztanle batek bere kexa aurkeztu du, bere bizilagunek, gauero, zarata handia sortzen dutelako etxean.

Eskatu du Zaraten eta Dardaren Udal Ordenantzan ezarritako neurriak hartzeko, eta dagokionean, zarata horiek isun-koadroan sartzeko.

*Azterketa*

Erabiltzaileak dio, Auzoko Sindiko eta Defentsariarekin izandako elkarrizketan, bere bizilagunek, gauero, 23:00etatik aurrera, etengabe zaratak sortzen dituztela.

Jakinarazi diogu bizilagunen jarduera gogaikarri horiek Udal Ordenantzan sartzeko aukeran lanean ari garela buru belarri (hiriko Zarata eta Dardaren gaia araupetzen duena).

Horretaz gain, bizilagun gogaikarriei eta erabiltzaileari berari gutun bat bidali zaie euren artean bitartekotza egiteko.

*Ebazpena*

Auzoko Sindikoa eta Defentsariak **BITARTEKOTZA EGIN DU** bizilagunen artean, bizilagun gogaikarriei gutun bat bidaliz. Beraren bidez, gogoarazi zaie bizilagunen arteko elkarbizitzak zenbait baldintza duela, eta bizilagunen arteko elkarbizitza ona izan dadin, eskatu behar diegu higiezinaren gainontzeko bizilagunak lotan daudenean sortzen dituzten zarata horiek berriro ez egiteko, eta bizilagunen erkidegoan eman daitezkeen errealitate desberdinak ulertzen saiatzeko.

Bestalde, erabiltzaileari beste gutun bat bidali diogu, ildo bera jarraituz, bere bizilagunekin tolerantzia izatera gonbidatuz.

Gainera, eragindako Sailak jakinarazi digu, aurretik Udaltzaingoak zarata horiek neurtu dituztela, eta 26Db-A maila atzeman dela. Horri dagokionez, aipatu behar da, Zarata eta Dardaren Udal Ordenantzak ezarritako gehienezko maila 27Db-A dela gaitzen.

Sail honek proposatu dio berriro Bitartekotza Zerbitzura joateko, elkarbizitzako arazo hauek konpondu ahal izateko.

Horretaz gain, aurreko ebazpenean egindako **OROIGARRI** berbera egin da (Erreg. zk.:368/04)

- Etxeko zaratak, Jabeari gutuna bidali (Erreg. zk.: 490/05)

#### *Erreklamazioa*

Heraclio Fournier kaleko hiru biztanlek euren kexak aurkeztu dituzte, beheko solairuko bizilagunek eragindako kalteak direla eta.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileekin solasaldi bat eduki ondoren, erabaki da gutun bat bidaltzea dena delako bizilagun horiek bizi diren etxebizitzaren jabeari, sortzen dituzten kalteen berri duen ala ez jakiteko. Horrela izanez gero, jakinarazi zaio, bizilagunen arteko elkarbizitza ona izan dadin, gure higiezinetan ematen diren egoerak tolerantziaz eraman behar ditugula, eta bizilagunen erkidegoan eman daitezkeen errealitate desberdinak ulertzen saiatu behar garela.

#### *Ebazpena*

Horrela, **BITARTEKOTZA EGIN DUGU** eragindako bizilagunen eta etxebizitzaren jabearen artean. .

#### **g) Gaitzespena**

- Ez dago edukiontzirik “Metroces Egoitza” aldean (Erreg.zk.: 343/04)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko biztanle bat gure Bulegora etorri da honakoa salatzeko: *Armentia Gainean, Metroces Egoitza parean, zikinkeria handia dago eta ez dago papera eta kartoia birziklatzeko edukiontzirik.*

### *Azterketa*

Horri dagokionez, eta bertan ikuskapena egin ondoren, ikusi da, zabor organiko edukiontziak daudela egoitzan eta beira birziklatzeko beste bat kaleko sarreran, baina ez dagoela papera edo plastikoa birziklatzeko inolako edukiontzirik.

Kaleko zikinkeriarri dagokionez, ikuskapen talde honek, egun ez du horrelakorik atzeman, baina ez du ezeztatzen aurretik egon zela, eta dagoeneko garbitu dela. Egia da, gune horretan kamioak etengabe ari direla sartzen eta irteten. Nolanahi ere, Udalak jakinarazi digu bertan egokitu den garbiketa plana bere lana asteazkenero egiten duen brigada bat dela.

Papera eta Plastikoa birziklatzeko edukiontziak ipintzeari dagokionez, lehenik eta behin esan behar da, bertan biztanle gutxi bizi direla, beraz, logikaz, hondakin gutxiago sortzen dituzte eta ez dute betetzen aipatutako edukiontziak instalatzeko ezarritako ratioa (450 biztanle). Hala ere, denbora gutxi barru, 50 etxebizitza inguru beteko dira, beraz, kontuan hartzen da aipatutako edukiontziak Prado gainean ipintzeko aukera. Horri dagokionez, Udalak lehentasunak ditu, eta bere garaian Lakuako biztanleen premiak artatu zituen. Gainera, Udalaren Hondakinak Gestionatzeko Zerbitzua Metroces Egoitzaren zerbitzura jarri omen da, hondakin asko sortzen dituztelako, eta eskaini die zentro osoan bertako hondakin guztien gestio bat egitea, ondoko instalazioan (Estadio Fundazioa) egiten ari den bezala.

### **Ebazpena**

Kasu honetan, aipatu dezakegu udal esku-hartzea zuzena izan dela, eta horrek esan nahi du ezin dugula onetsi bizilagunak aurkeztu zigun kexa. Horrekin, kexa **GAITZETSI DA** administrazioak behar bezala jardun duelako.

- “Buda Diskotekak” sortutako zaratak (Erreg. zk.: 379/04)

### *Erreklamazioa*

Bizilagun bat Sindiko Bulego honetara joan da bere salaketa aurkezteera: *Vitoria-Gasteizeko Zarautz kalean kokatutako BUDA Diskotekak zaratak eta dardarak sortzen ditu bere etxebizitzan.*

Eskatu du neurri zuzentzaileak eta zehapen neurri egokiak hartzeko, arazoa konpontzeko.

### *Azterketa*

*Eragindako Sailari txostena eskatu ondoren, Vitoria – Gasteizeko Udalak, 2004ko ekainaren 15ean, txosten hau bidali digu, eta interesgarria iruditu zaigunez, bizilagunari jakinarazi diogu, hitzez hitz:*

*“Aipatutako establezimenduak taberna – jatetxea – diskoteka jarduerako lizentzia dauka (honekin batera, eskatzaileari jarduera eta irekitze lizentzien kopiak bidali zaizkio).*

*2004ko ekainaren 8an, 2 zehapen prozedura ireki dira Zaraten Udal Ordenantza bitan hausteagatik, 2004ko maiatzaren 2an eta 9an. Izan ere, 29,33 dB – A eta 28,5 dB – A mailak erregistratu ziren. Zaraten Ordenantzaren 43. b) artikuluan aipatutako isunen koadroaren arabera, 300,51 eta 901,52 euro bitarteko isuna jartzen da edota muga akustikoa aplikatzen da.*

*Egiaztatu da aipatutako lokalean mugatzaile akustiko bat dagoela. .*

Kasu honetan aipatu dezakegun Udaltzaingoaren esku-hartzea indarreko legearen arabera izan dela, eta horrek esan nahi du ezin dugula onetsi bizilagunak aurkeztutako kexa.

#### **Ebazpena**

Horren arabera, kexa **GAITZETSI DA** administrazioak behar bezala jardun duelako eta neurri egokiak aplikatu dituelako zaraten arazoa konpontzeko.

- Tratu desatsegina taberna ixteko ordutegia ez betetzeagatik ezarritako isunetan (Erreg. zk.: 396/04)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek Bulego honetan zera eskatu du: **lehenengo**, konponbide bat bere lokala ixteko ordutegia luzatu ahal izateko, eta **bigarrenik**, salatu du, *tratu txarra jaso omen duela San Antonio kalean duen bere ostalaritzako lokalean, ikuskapenei eta isunei dagokionez, ixteko ordutegia ez betetzeagatik eta III. Taldeko lizentziak ematerakoan (tabernariaren ustez, azken horrek arazoa konponduko luke).*

#### *Azterketa*

Egindako **lehen** eskaera kontuan izanik, iruditu zaigu Ingurumen Sailari gomendio bat egin beharko litzaiokeela, jarduera lizentziak zabaldu ahal izateko. Hartara, II. Taldetik III. Taldera aldatuko litzateke, eta horrekin batera, lokala ixteko ordutegia luzatuko litzateke. Honekin batera, aipatutako GOMENDIOAREN kopia bidali diogu, dagokion kapituluaren adierazita.

Egindako **bigarren** eskaerari dagokionez, erabiltzaileari adierazi behar diogu bere kexa baloratu ondoren, egoera aztertu dugula: berak aipatutako lokalean ezezik bertako ostalaritza lokal gehienetan ere, salaketak eta isunak jartzen ari dira ixteko ordutegia ez betetzeagatik, eta hori dela eta Udaltzaingoa hainbat ikuskapen egiten ari

da. Jakin dugu Erdigunean jarraipen bat egiten ari dela araudiaren ordutegiaren atala betetzen den ala ez ikusteko. Kontrol eta Zainketa orokorra da, lokal guztiei dagokiena eta *ostalaritza lokalak eta establezimenduak ixteko ordutegiak araupetzen dituen Udal Ordenantza* betetzen ez dituzten guztiak isuna jasotzen ari dira. Beraz, ez dugu atzeman bere lokalarekiko tratu desatsegina izan denik, ezta ordutegiak ez betetzeagatik jarritako isunetan eta egokitutako Talde-mailatik igotzen duen lizentziaren emakidan ere (II. Taldea). Izan ere, berak egindako erreklamazioa berea kokatuta dagoen guneko ostalaritzako lokal guztien erreklamazio berbera da.

#### *Ebazpena*

Hori guztia dela eta, aurkeztutako kexa **GAITZETSI** da.

- Fabriken zaratak Olarizu Etorbidean (Erreg. zk.: 403/04)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko udalerriko bizilagun batek kexa bat egin du Auzoko Sindiko eta Defentsariaren bulegoan, *bere etxebizitzatik gertu dauden (Olarizu Etorbidean) bi enpresek sortutako zarategatik eta usainengatik (ESMALTACIONES SAN IGNACIO ETA PEMCO)*.

#### *Azterketa*

Horri dagokionez, jakinarazi nahi digu Vitoria – Gasteizeko Udalak, 2004ko uztailaren 13an, txosten bat bidali digula, eta interesgarria iruditu zaigunez, erabiltzaileari jakinarazi diogu, hitzez hitz:

*“2004ko uztailaren 5eko idatziari dagokionez, Olarizu Etorbidean kokatutako industrietatik eratorritako zaratek, dardarek eta usainek sortutako kalteei buruzkoa, Sail honek jakinarazten dizu 2004ko urtarrilaren 9ko Dekretuaren bidez, jakinarazi zirela ESMALTACIONES SAN IGNACIO ETA PEMCO S.L. enpresei egindako zaraten neurketaren emaitzak, zure etxebizitzaren aurreko aldean eta eskuinean kokatuta (horren kopia eransten da).*

*Era berean, behin baino gehiagotan, saiatu zen salatzaileri aipatutako Dekretuaren berri ematen, baina, Posta Zerbitzuak bueltan ekarri zuen aipatutako jakinarazpena honako hau adieraziz: “itzulita okerreko helbidearengatik”.*

Kasu honetan, aipatu dezakegu administrazioak indarreko legearen arabera jardun duela.

Hala ere, jakin dugu, aipatutako industriek eskatu dutela Jundiz Industria Poligonora eramateko eta eskaera hori onetsi dela, beraz, uste dugu, denbora gutxi barru, lekualdatze hori egingo dela eta aipatutako kaltea desagertuko dela.

Hori guztia dela eta, eta Auzoko Sindiko eta Defentsari honengan izandako konfiantza eskertuz, jakinarazi diogu kasu honen esku-hartzea amaitu dela. Ondoren, lokala itxiko da, eta maizter berriei hainbat baldintza eskatuko zaie lokala egokitzeko eta abian jartzeko.

#### *Ebazpena*

Era horretan **GAITZETSI** da erabiltzaileak aurkeztutako kexa.

- Zaborren tasa kooperatibistentzat (Erreg. zk: 472/04)

#### *Erreklamazioa*

Biztanle bat Bulegora joan da honako salaketa jartzeko: *bera kide den Askarza Kooperatibak zaborren bilketa pneumatikoko sistema bat instalatu behar izan du. Euren ustez, Legeak udalei jartzen dien betebeharrak legal baten igorpen ilegala da. Vitoria – Gasteizeko Udalak, hain zuzen ere, aipatutako jakinarazpena kooperatibistei egin die.*

#### *Azterketa*

Kasua aztertu ondoren, erabiltzaileari jakinarazi diogu Zaborren Bilketa Pneumatikoaren instalazioaren kostua hirigintza inposizio bat dela eta hura aipatzen dela higiezina eraikitzeke Lizentziaren baldintzetan. Beraz, hirigintza karga bat gehiago da.

Horregatik, ezin dugu aurkeztutako kexa onetsi, administrazioak zuzenbidearen arabera jardun duelako, ez delako administrazio praktika onen aurkakoa, Hirigintza Plan Orokorrean aipatzen delako, bere Kooperatibak kontratua sinatzerakoan.

#### *Ebazpena*

Era horretan, kexa **GAITZETSI** dugu.

### **2.3.7.3 PARKE ETA LORATEGIAK**

#### **a) Gomendioa**

- Frai Zacarias Martinez kaleko parkeko ateak irekitzea (Erreg. zk. 391/04)

#### *Erreklamazioa*

Alde Zaharreko auzoko batek jo du Sindikoarengana. Frai Zacarias kaleko parkeko ateak zabaltzea eskatzen du, hartara oinezkoek bertan barrena igarotzerik izan dezaten. Oinezkoek Santa Maria kaletik Frai Zacarias kalera egiten dituzten joan-etorrien mesede litzateke hori, eta autoen zirkulazioari itzuri egiteko aukera emango luke; izan ere, kaleen estutasuna eta aparkatutako ibilgailuak direla-eta zail izaten baita maiz bestela.

Eskatzaileak azaldu digunez, inguru horretako auzokoek behin eta berriro igaro behar izaten dute lorategia inguratuz, bertan aparkatutako ibilgailuek enbarazu egiten dietelarik; izan ere, Frai Zacarias kaleko parkeko bi ate itxita egoten dira azken berritze



lanak egin zirenetik (lehen zabaldu egiten ziren), eta uste du zabalduko balira erraztu egingo lituzkela horrek oinezkoen joan-etorriak. Ez baitago espaloirik kale horietan.

#### *Azterketa*

Lekua ikusten izan garelarik, halaxe dela egiaztatu ahal izan dugu. Parkean dauden bost ateetatik bi bakarrik egoten dira zabalik, bata Santa Maria kalean eta bestea, berriz, Frai Zacarias kalean.

Frai Zacarias kalera jotzen duen beste atea bat (sekuoiatik gertuen dagoena) zabaldu beharko litzatekeela uste dugu. Parkean barrena igarotzeko aukera emango luke horrek, ibilgailuen artetik ibiltzeko beharrik gabe, bestela, espaloirik ez dagoenez, egin behar den bezala.

Azaldu duguna aintzat harturik, uste dugu ezen, hiriko Alde Zaharreko kaleetan barrena ibili beharra daukaten oinezkoei zerbitzu hobea emateko, eta joan-etorriak erosoago eta seguruago gerta dakizkien, arrazoizkoa dela eskatzen dena aintzat hartzea, auzokoen nahiz gidarien mesede. Ez dugu horretarako eragozpenik ikusten, gainera.

#### *Ebazpena*

Hauxe **GOMENDATZEN DIOGU** eskumena duen zerbitzuari: azter dezala Alde Zaharreko Frai Zacarias kaleko parkeko beste ate bat behintzat zabaltzeko aukera (kale horretara jotzen duena, sekuoiatik gertuenekoa), oinezkoek parkean barrena igarotzerik izan dezaten, parke ondoan aparkatutako ibilgailuen artetik ibili beharrean.

Gomendioa ONETSI da, eta erreferentziazko atea gainontzeko ateen ordutegi berean irekiko da: 9:00etatik 22:00etara.

#### **b) Gaitzespena**

- Ondoko zuhaitza eta kaltetutako etxea (Erreg. zk:459/04)

#### *Erreklamazioa*

Hiritar batek jakinarazi digu hainbat kalte izaten ari dela bere etxe ondoan dagoen pinu batekin: zuhaitza bere etxea kaltetzen ari da, eta horregatik eskatu du kentzeko edo mozteko eta bere etxeari kalte gutxiago egingo dion beste zuhaitz espezie batengatik ordezkatzeko.

#### *Azterketa*

Erabiltzailearekin harremanetan egon ondoren, eta gunea ikuskatu eta bertan argazkiak egin ondoren, azaroaren 17an, ikusi dugu dena delako pinua landatuta dagoen distantziak nekez eragingo diola kalte etxe horri, kontsultatutako iritzi teknikoei jarraiki eta aipatutako zuhaitzaren ezaugarri botanikoekin bat etorrita.

**Horregatik, ezin dugu bere kexa onetsi. Hala ere, erabiltzaileak zuzeneko probaren bat entregatzerik badu, zuhaitza bere etxeari kalte egiten ari zaiola**

**ikusteko, ez izan guregana berriro jotzeko zalantzarik, eta gure irizpidea aldatuko dugu Udalari neurri zehatzaren bat gomendatzeko eta dagokion ondare erantzukizuna planteatzeko.**

*Ebazpena*

Era horretan, **GAITZETSI** dugu erabiltzaileak aurkeztutako kexa.

### **2.3.8 TEKNOLOGIA BERRIEN SAILA**

#### **2.3.8.1 ERROLDA ETA HAUTESKUNDEAK**

##### **a) Bitartekotza**

- Ullibarri de los Olleros udalerriko errolda (Erreg.zk.:415/04)

*Erreklamazioa*

Ullibarri de los Olleros udalerriko biztanle bat Bulego honetara etorri da bere salaketa aurkezteko: uste du bertan ez erroldatutako hainbat pertsonen Ullibarri de los Olleros udalerriaren Administrazio Batzordeak hitzarekin eta botoarekin parte hartzen dutela.

*Azterketa*

Erabiltzailearekin elkarrizketa bat izan ondoren, Errolda Zerbitzuari txostena eskatu zaio, Vitoria-Gasteizeko Auzoko Sindiko eta Defentsariari buruzko Araudiaren 19. artikuluari jarraiki, honako hau dioena: “A) Ikerketa bat hasi eta burutu, pertsona bati edo hiritar talde bati eragiten dizkioten udal jarduerak edo jarrerak argitzeko. 20. Artikuluak honakoa dio: “Auzoko Sindikoari eta Defentsari ikerketarako ahalmen nahikoak aitortzen zaizkio, bere betekizunak behar bezala betetzeko, udal sailak ikuskatu ahal izanik edo udal langilea den edo Udalean lan egiten duen edonori agertzeko eskatu ahal izanik, ikertu beharreko gaiari buruzko informazioa lortzeko, hiritarren eta Udal Administrazioaren eskubide eta interes legitimoen dagokienez.”

Horrela, Teknologia Berrien Sailetik txosten bat jaso dugu. Bertan adierazten da “Zerbitzu honek 2004ko ekainaren 30ean eginiko azken Udaletxearen erroldaren arabera, Administrazio Batzordearen Lehendakariari entregatu zaiola, Ullibarri de los Olleros-Uribarri Nagusia udalerrian ez dago erabiltzaileak adierazitako abizenak dituen hiritarrik erroldatuta”

*Ebazpena*

Horrela, erabiltzaileari jakinarazi diogu eta BITARTEKOTZA egin dugu kasu honetan.

##### **b) Gaitzespena**

- Hauteskunde Mahaien Zozketak (Erreg. zk: 398/04)

### *Erreklamazioa*

Biztanle bat Bulego honetara joan da zera aipatuz: hauteskunde mahaietan parte hartzeko azken bi zozketan, berari tokatu zaio Mahaiaren Lehendakariaren lana betetzea, beraz, eskatu du *hauteskunde zozketa-sistemari buruzko informazioa*.

### *Azterketa*

Biztanleak elkarrizketa bat izan du Auzoko Sindiko eta Defentsariarekin eta hori dagokionez, eta aipatu nahi dugu aztertu dugula Vitoria-Gasteizeko Udalak 2004ko uztailaren 8an bidalitako erantzuna. Horren arabera, aipatu behar diogu ez dagokiola udal eskumenari hauteskunde mahaien kideak aukeratzeko zozketen prozedura babesten duen Legea araupetzea. Udal honek bidalitako informazioari jarraiki, jarraitzen den prozesua hurrengo da:

*“Aipatutako zozketa honakoaren arabera egiten da:*

### **LEGE APLIKAGARRIAK:**

***Hauteskunde Mahaien kideak aukeratzeko prozedura, Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoak araupetzen du, eta hurrengo artikulua aplikatzen dira:***

#### ***25. artikulua.-***

- 1. Lehendakari batek eta bi Bokalek osatuko dute Hauteskunde Mahaia.***
- 2. Aldi berean hauteskunde bat baino gehiago ematen bada, Hauteskunde Mahaia berbera izango da hauteskunde guztietarako.***

#### ***26. artikulua.-***

- 1. Udalaren eskumena da Mahaiak osatzea, Bertako Hauteskunde batzar batzuen ikuskapenarekin.***
- 2. Mahai bakoitzaren Lehendakaria eta Bokalak zozketa publikoaren bidez aukeratuko dira dagokion Atalean erroldatutako guztien artean, hirurogeita bost urtetik beherakoak eta irakurtzen eta idazten badakite. Lehendakariak Batxilergoaren edo Bigarren Mailako Lanbide Heziketako titulua izan beharko du, edo subsidiarioki, Eskola Graduatua edo baliokidea.***
- 3. Era berean aukeratuko dira Mahaiaren kideen bi ordezkooak aukeratzeko.***
- 4. Goian aipatutako lehiaketak egingo dira deialdiaren ondorengo hogeita bosgarren eta hogeita bederatzigarren egunen artean.***

#### ***27. artikulua.-***

- 1. Hauteskunde Mahaien Lehendakarien eta Bokalen karguak nahitaezkoak dira. Ezingo dituzte hautagai direnek okupatu.***
- 2.- Hauteskunde Mahaien Lehendakariaren eta Bokalen izendapena interesatuei jakinarazi behar zaie hiru eguneko epean.....***
- 3. Hauteskunde Mahaietako Lehendakari eta Bokal izendatu dituztenek zazpi eguneko epea dute Bertako Hauteskunde Batzarrean, kargua betetzeko izan dezaketen edozein eragozpena (egiaztatuta eta dokumentatuta) aurkezteko. ....***

### **39. artikulua.-**

*1. Hautaketa bakoitzarentzat, indarreko Hauteskunde Errolda itxiko da deialdiaren aurreko hilabetearen lehenengo egunean.....*

### **ZOZKETAREN PROZEDURA**

*26. artikulua dioen bezala, zozketaren egintza jende aurrean adierazten da, eta horretarako tokia, eguna eta ordua adierazten duen iragarki bat ALHAOan eta Udal Iragarkien Taulan jartzen da. Baita tokiko prentsan eta irrastian ere.*

*Zozketa baliabide informatikoen bidez egiten da,*

*Hautesle bat aukeratzeko prozedura teknikoa zenbaki korrelatibo baten oinarrian egiten da. Zenbaki hori "Hautesle Zenbakia" deitzen da, eta bakarra da Hauteskunde Mahaiak bakoitzaren barruan. Fitxategia Mahaien zenbaki korrelatibo horren arabera antolatzen da, eta ondoren ausazko zenbaki bat ateratzen da. Zenbaki hori, besterik gabe, aukeratu da. Ez badira baldintzak betetzen, hurrengo hauteslerara pasatzen da, eta horrela, behin eta berriro, baliozko hautesle bat topatu arte. Ondoren, berriro hasiko da lehen hautesletik azkenekora iritsi arte.*

*Zenbaki bat aukeratzeko erabilitako formula honakoan oinarritzen da: zozketa egiten den orduetik ateratako lau digituetan: bertatik segundoak eta ehunenak ateratzen dira lau digitu lortu arte. Horiek kokatzailea kalkulatzeko oinarria izango dira, kokatzailearen lekua okupatzen duen pertsona mahai baten hautesle guztien artean hartuz.*

### **ZOZKETATIK SALBUESTEKO AUKERA**

*Hautesle Mahaiak atal batean erroldatutako pertsona guztiak osatu behar direnez (26. artikulua), eta hauteskunde prozesu bakoitzarentzat 39. artikulua zehazten duen indarreko errolda erabiltzen denez, ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten hautesle guztiak hauteskunde Mahaien kideak izan daitezke."*

*Ebazpena*

**GAITZESPENA** egingo da, kasu honetan udal esku-hartzea legaren arabera izan dela esan baitezakegu, eta horrek esan nahi du ezin dugula aurkeztutako kexa onartu.

### **2.3.9 OGASUN ETA ONDARE SAILA**

#### **2.3.9.1 DIRUZAINZTA-DIRU BILKETA**

##### **a) Gomendioa**

- Aurkeztutako Deskargu Pleguari erantzunik ez (Erreg. zk.:363/04)

*Erreklamazioa*

Biztanle batek kexa bat aurkeztu du. Beraren bidez, adierazi du Udal Administrazioak ez dizkiola erantzun aurkeztutako deskargu plegu batzuk.

#### *Azterketa*

Sindikoak bizilagunari egindako elkarrizketa batean, azken horrek dokumentazio bat entregatu du. Bertan, adierazten du duela sei hilabete bidali zituela Deskargu Plegua, eta oraindik ez duela erantzunik jaso.

Kasua aztertu ondoren, iruditu zaigu salatzaileak zioak esplikatzeko dituen erantzun bat jasotzeko eskubidea duela, hau da, nahiz eta labur izan, jakin behar du ea Administrazioak onetsi dizkion aurkeztutako deskarguak.

Gainera, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legeko 42.1 artikulua honakoa dio: *“Administrazioak espresuki prozedura guztiak ebatzi behar ditu eta horren berri eman, hasiera modua edozein dela ere”*.

#### *Ebazpena*

Beraz, ulertzen dugu, aurkeztutako salaketa eta alegazioa sakon aztertu gabe, aztergai dugun ondorioetarako **GOMENDIO** bat egin behar diogula Diruzaintza eta Diru-Bilketa Sailari, salatzaileari espresuki ERANTZUTEKO eta deskargu pleguaren salaketaren arabera, egindako eskaera onetsiko duen ala ez adierazteko.

Eragindako Sailak ONETSI du gomendio hau.

- Isuna zama-lanetarako gunean aparkatzeagatik (Erreg. zk.:501/05)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun bat gure Zerbitzura etorri da kexa bat aurkezteko. Bertan zera dio: *isun bat jarri ziotela dio bere ibilgailua zama-lanetarako gunean aparkatzeagatik. Baina berak uste du bere lege-hauste partziala izan zela, bakarrik ibilgailu erdiak okupatzen zuelako dena delako gunea. Era berean dio aipatutako salaketan ez dela agertzen isuna jarri zion Udaltzainaren identifikazioa.*

#### *Azterketa*

**Zama-lanetarako gunean aparkatzea arau-haustea da Hiri izaerako Bide Publikoen Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna araupetzen duen Udal Ordenantzaren arabera. Bertako 13. artikulua honela dio: *“zama-lanetarako lanak MERKANTZIEN GARRAIOETARAKO ibilgailuekin egingo dira. Ibilgailu horiek, inolaz ere, ez dira turismoak izango, eta horrenbestez, ezingo dira horretarako erresebatutako guneetan ezarritako eta dagokion seinaleekin adierazitako orduetan egon”*.**

Ezin da “araudiaren hauste partziala” baloratu, zama-lanetarako gunea okupatzeagatik. Gunea inbaditzen bada, arau-hauste osoa egiten da.

Bestalde, salaketa baliogabetzeko arrazoitzat hartu dezakegu, horren egitura oker egoteagatik, salaketaren buletinean agente salatzailearen datuak ez agertzea..

Dirudienez, salaketa buletina aurkeztutako Deskargu Pleguarekin batera entregatu zuen. Gertaera horrek ez digu balio gai hori egiaztatzeko, nolana ere, administrazio espedientean adierazi behar da eta Administrazioan adierazten da eta horren berri dauka.

Uste dugu, zehapen jardunaren eta administrazio poliziaren filosofia orokorraren arabera, Agente Salatzaileen eta Udal Administrazioaren asmoa ez dela, inolaz ere, dirua biltzea, baizik eta, administrazio praktika onak jarrera bermatzailea exijitu behar du, eta bertan lehentasuna eman behar zaio salaketaren kalitateari, kopuruari baino, zehapen prozeduraren segurtasun juridikoari eta funtzio zuzentzaileari lehentasuna emanez.

Honen jurisprudentziaren arabera, salaketa onargarria izan dadin, zehapen prozedura, agente salatzaileak salaketa buletina sinatu behar du eta identifikatuta egon behar da, salatzaileak zuzenean salatutako gertaeraren jabe dela eta administrazio polizialaren funtzioari jarraiki egin duela ziurtatzeko.

### *Ebazpena*

Aztergai dugun kasuan, salaketaren buletina sinadura ulertezin batekin izenpetuta dago, salatzailearen identifikaziorik gabe, bere zenbakirik gabe. Horregatik, ulertzen dugu, ez duela oinarrizko baldintza bat betetzen eta horrek babesik ez sortzen duela salatuarengan. Beraz, kasua horregatik eta aurretik, salatutakoak entregatutako buletinak ez duela salatzailearen zenbakirik egiaztatuta, honakoa **GOMENDATU** dugu:

SALAKETA BALIOGABETZEA, baldin eta agentearen salaketa buletinaren identifikazioa okerra dela egiaztatzen bada, aipatutako akatsa, baliogabetzeko zio bat delako, zuzendu ezina.

Gomendio hau osorik **onetsi** da.

### **b) Orientazioa**

- Gainbalioen Zergaren aplikazioa (Erreg. zk.:479/04, 486/04)

### *Erreklamazioa*

Hiritar bat Sindiko bulego honetara etorri da bere arazoa adieraziteko: 2005. urterako gainbalioen zerga aplikatu zaio, aurtengorako %1200 igo delako. Horrenbestez,

eskatu du araubide iragankorra aplikatzeko adostutako salerosketetan, bulego publikoan aurkeztutako kontratu pribatua izan arren.

#### *Azterketa*

Gertaera aztertu ondoren, eta erlazionatutako antzeko batean oinarrituta (479/04), salerosketaren kontratua zigilatu zaio funtzionario publikoen froga gisa.

#### *Ebazpena*

Era horretan erabiltzailea **ORIENTATU** da.

### **2.3.9.2 ONDARE ERANTZUKIZUNAREN UNITATEA**

#### **a) Gomendioa**

- Ibilgailuan sortutako kalteak galtzada egoera txarrean egoteagatik (Erreg.zk.: 372/04)

#### **Erreklamazioa**

Biztanle bat Sindiko bulego batera joan da bere salaketa jartzeko: babesik gabe sentitzen da bere ibilgailuarekin istripu bat izan duelako, galtzadaren egoera txarrak eraginda, kutxatila baten inguruan.

Eskatzaileak adierazi digu Udal honen Ondare Erantzukizuneko Unitateari idatzi bat bidali ziola bere ibilgailuan izandako kaltea erreklamatzeko, galtzadaren egoera txarrak eraginda, kutxatila baten inguruan.

Idatzia aurkeztu ondoren, honakoa erantzun zioten: erreklamazioa egin duenak aipatu duen kutxatila Eusko Jaurlaritzarena da, eta horregatik, adierazten zaio bere erreklamazioa Administrazio horri bideratu behar diola.

Udal honen Ondare Erantzukizun Unitate honek erabiltzailearen erreklamazio hau atzera bota du, aipatutako kutxatilaren ustezko titularitatean oinarrituz (horren inguruan zegoen egoera txarreko bidea).

#### **Azterketa**

#### **Administrazio ondare erantzukizunari buruzko teoria orokorra.**

Administrazioaren ondare erantzukizuneko hiritarren berme-erakunde bat da, Konstituzioaren 106.2. artikuluan adierazita. Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 139 eta 144 artikuluen bitartekoek (X. Idazpuruko I. Kapituluak), araupetzen dute aipatutako erakundea (aurrerantzean LRJ-PAC). Ondoren, partzialki aldatu zen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez, eta RPRP onesten duen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuaren bidez.

LRJ-PAC Legearen 139.1 artikulua abiapuntua da eta horren arabera: *partikularren dagokion Herri Administrazioaren diru-laguntzak jasotzeko eskubidea*

*izango dute, euren ondasunetan eta eskubideetan izandako kaltearengatik, ezinbesteko kasua izan ezik, katea zerbitzu publikoen funtzionamendu normalak edo ez ohikoak sortua bada”.*

Alegatutako kaltea eraginkorra, ekonomikoki ebaluagarria eta bereizita izan behar da, pertsona bat edo pertsona talde bati dagokionez (LRJ-PAC legearen 139.2 artikulua). Bakarrik kalte ordainak emango dira partikularri eragindako kalteek, partikularrek dena delako kalteak euren gain hartzeko betebeharr juridikoa ez dutenean, aipatutako Legeari jarraiki (LRJ-PAC Legearen 141.1 artikulua).

Kalte ordaina kalkulatu da nahitaezko desjabetzearen legeetan, lege fiskaletan eta aplikatu beharreko gainontzeko arauetan ezarritako balorazio irizpideen arabera. Dagokionean, merkatuaren balorazio nagusiak neurtuko dira. (LRJ-PAC Legearen 141.2 artikulua). Erreklamatzeko eskubidea preskribatzen da kalte-ordaina sortarazi duen gertaera edo ekintza edo bere eragin kaltegarria adierazi ondorengo urtean. (LRJ-PAC Legearen 142.5. artikulua).

Aipatutako jurisprudentziaren doktrinaren arabera [Auzitegi Goreneko Epaiak, 3. Sala (6.-atala) 1999ko urtarrilaren 28koa eta (7. Atala) 1999ko urtarrilaren 1 eta 25koa; eta 2000ko uztailaren 26ko Nafarroaren Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren epaia], Administrazioaren ondare erantzukizuna dela eta, kalte-ordainak jasotzeko baldintzak honakoak dira:

a) Kalteari dagokion ondare lesioak ez du irabazi asmorik eduki behar eta kaltea une horretan sortutakoa izan behar da. Kaltea erreala eta eraginkorra izan behar da, inoiz potentziala edo etorkizunean emango dena. Horretaz gain, kaltea ekonomikoki ebaluatzea eta bereiztekoa izan behar da, pertsona edo pertsona talde bati dagokionez.

b) Juridiko aurkako kaltea sortzen da, horren jabeak bere gain hartzeko betebeharr juridikoa ez duenean..

c) Administrazioari kaltea leporatuko zaio, kalte hori zerbitzu publikoen funtzionamendu normala edo ez ohikoaren ondorioa izan denean.

d) Egindako jarduera eta sortutako kaltearen arteko erlazioa kasualitatezkoa izan behar da.

e) Ez da ezinbesteko kasua izan behar.

Ondare erantzukizun hau erantzukizun objektiboa edo emaitzazko erantzukizuna da. Bertan, indiferentea da administrazio jarduera normala edo ez ohikoa izatea. Ondare Erantzukizuna aitortzeko, nahikoa da, kalte eraginkorra sortzea, ekonomikoki ebaluatu eta bereiztu daitekeena.



Kalte-ordaina erreklamatzeko duenari dagokio ondare erantzukizuna sortzeko beharrezko gertaerak frogatzea. Bestalde, **Administrazioari dagokio ezinbesteko kasua edo biktimaren arduragabekeria egon dela frogatzea, kasualitatearen lotura ez dagoela adierazteko.** (horrela gogoarazten du 2000ko uztailearen 13ko Auzitegi Goreneko Hirugarren Salako (6. Atala) Epaiak).

#### Kasualitateko erlazioa

Kasualitateko erlazioa nahitaezko baldintzetako bat da Administrazioaren ondare erantzukizuna emateko. Erlazio hori eman behar da zerbitzu publikoen funtzionamendu normala edo ez ohikoaren –kasu honetan hezkuntzakoa- eta kaltearen artean.

Aztergai dugun kasuan, kasualitateko erlazioa bide publikoaren titularitatearen bidez eman da, izan ere, zalantzarik gabe, udal titularitatea da, Toki Gobernu Modernizatzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 25.2 d) eta l) artikuluei jarraiki, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatu zuena. Honakoa dio: “*Une oro, Udalerriak eskumena izango du, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legegintzaren gaietan, honako hauei dagokionez:*

*d) Antolamendua, gestioa, betearazpena eta hirigintza diziplina; (...) **hiri bide publikoen zolaketa** eta landa bideen kontserbazioa.*

*l) Ur horniketa eta argiztapen publikoa; bideak garbitzeko zerbitzuak, hondakinak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuak, **estolderia** eta hondakin-uren tratamendua.”*

Dena delako kutxatila beste Administrazio batekoa izateak ez dio udal eskumenari bide publikoaren egoeraz salbuesten, dagozkion errepikapen ahalmenak alde batera utzi gabe.

#### Ordaintzeko kaltea

Erreklamazioa egin duenak aipatzen duen kaltea kalterik gabeko kasuaren baldintzen arabera dela, beraz, behar bezala egiaztatu beharko da administrazio fasean.

#### Ebazpena

Aurrekoan aipatutakoaren arabera, uste dugu adierazitako kutxatilaren titularitatea edozein dela ere, Udalak ezin duela alde batera utzi bide publikoaren titularitatea eta horren mantenuaren zerbitzuko erantzukizun objektiboa Udalari dagokiola. Hori guztia dela, Ondare Erantzukizuneko Unitateari **GOMENDATU** diogu, aztergai dugun kasuan, birjarpenezko errekursoaren fasean, erreklamazioa bere gain har dezala, uste baitugu, ez dela ez zuzenbidearen arabera, ezta Udal Administrazioaren praktika ona ere, bide publikoaren gain duen erantzukizuna baztertzea, dena delako kutxatila hori beste Administrazio batena dela esanez. Izan ere, azken finean, bide publikoaren zerbitzuaren mantenu eta zainketa zerbitzua Udal Administrazioaren eskumena da.

Sailak EZ du gomendio hori ONARTU, izan ere: “nahiz eta adierazitako kutxatila bide publikoan kokatuta egon, Eusko Jaurlaritzarena da, beraz, Administrazio

horri dagokio hura mantentzea. Bestalde, ez da Zuzenbidean onartu daitekeen inolako froga-baliabideren bidez egiaztatzen erreklamazioak jarri duenak istripu bat izan zuenik aipatutako tokian, eta espedientean bakarrik berak horri buruz aipatutakoa agertzen da.”

- Aurkeztutako idatziari erantzunik ez (Erreg. zk: 408/04)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko bizilagun bat gure bulegora joan zen honakoa salatzeko: Ondare Erantzukizuneko Unitateak ez dio erantzunik eman, berak, eragindako Sailak, 2004ko apirilaren 18an, bidalitako Ebazpenean egindako agindeiari erantzun ondoren.

#### *Azterketa*

Erabiltzailea Sindiko Bulego honetara joan da honakoa aipatuz, eta horri buruzko dokumentazioa aurketuz: “2004ko urtarrilaren 30ean, idatzi bat aurkeztu zuen. Beraren bidez, adierazi zuen 12:15etan inguru, bere bilobarekin zegoela Gerardo Armesto plazaren haur jolasen txirrista handian. Bertan, produkturen bat bota zuten, eta ondorioz, jantzitako arropa guztiak zikindu zitzaizkien.”.

2004ko martxoaren 5ean, Ogasun eta Aurrekontuen Sailak ondare erantzukizuneko administrazio prozedura ireki zioten, aurkeztutako eskaeraren arabera, eta 10 eguneko epea eman zitzaion izorratutako jantziak eta froga baliabide egokiak aurkezteko. Epea bukatu baino lehen, erabiltzaileak egindako agindeiari erantzun zion.

Ekarrirako frogak 2004ko martxoaren 23ko Izapide batean daude, eta Administrazioak, oraindik ez du erantzunik eman Hala ere, salatzaileak erantzun *zehatza* eta arrazoitua jasotzeko eskubidea dauka, eta Administrazioak, nahiz eta laburki egin, jakinarazi behar dio ea aurkeztutako karguak onesten dituen ala ez.

Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legeko 42.1 artikulua honela dio:

42.1. artikulua- *Administrazioak prozedura guztiak espresuki ebatzi eta jakinarazi behar ditu, hasiera-era edozein dela ere.*

**Administrazio isilunearen erakundeak honako hau du helburu: hiritarrei jurisdikzioa eskura jarri, baina ez du kanpo uzten hiritarren eskaerak eta idatziak espresuki erantzuteko eta ebazteko beharra.**

#### *Ebazpena*

Uste dugu, aurkeztutako salaketa eta erabiltzaileak egindako alegazioak sakon aztertu gabe, aztergai dugun ondorioetarako, Ondare Erantzukizuneko Unitateari,

**GOMENDATU** behar diogula, salatzaileari espresuki erantzutea, eta arrazoietan oinarrituz, salaketaren eta aurkeztutako frogen arabera, egindako eskaera onetsiko duen ala ez aipatzea.

### **Gomendioa onetsi da.**

- Soinekoa margotu berri den eserleku batean zikinduta (Erreg. zk.: 399/04)

#### *Erreklamazioa*

Biztanle bat Sindiko Bulego honetara joan da honakoa salatzeko: 2003ko ekainaren 15ean, *Vitoria-Gasteizeko Arriaga Parkeko eserleku batean esertzerakoan, (hain zuzen ere, arrosadiaren ondoan dagoena, orain eraikitzen ari diren errepiderantz begira), bere soinekoaren atzeko alde pinturaz zikindu zen. EZ zegoen adierazita zikintzeko arriskua zegoela.* .

Eskatzaileak gertaera xehetasunez deskribatu dizkigu eta aipatu du aurkeztu duela 2003ko ekainaren 23an lekuko froga. Hura bildu zen Udal honen Ogasuna, Ondarea eta Aurrekontuen Sailean aurkeztutako Instantziarekin batera (zk. 94066----57175), Ondare Erantzukizuneko Sailaren Izapidegileak egindako Izapide egokiaz gain.

Era horretan, dagokion kalte-ordaina eskatzen du, bere soinekoan izandako kaltearengatik, eseri zen eserlekuko margoa lehortu gabe egoteagatik..

2003ko irailaren 8an, Ondare Erantzukizuneko Unitateak prozedura bat ireki zuen (zk. 2003/HACRP00213) eta agindeia egin zitzaion izorratutako jantziaren faktura eta lekukoaren datu pertsonalak entregatzeko. 2004ko urriaren 24an, datuak bidali ziren, faktura berriz, ez zen entregatu ezin izan zuelako aurkitu.

2004ko urriaren 5ean, Ondare Erantzukizuneko Sailak Txosten bat idatzi zuen, erabiltzaileak, bere soinekoan izandako kaltea dela eta, egindako Kalte-ordainen Eskarari erantzuteko. Honela dio, hitzez hitz: *Arriaga parkeko eserlekuak ekainaren 13 eta 19 bitartean margotu ziren. Horretaz gain, ez da ezagutzen salatutako eserlekuaren egoera, izan ere, guztietan margotu berri zeudela adierazten zuen kartel bat ipini zen. Eserleku horrek ez du pinturaz zikintzen, beraz, ez da horri buruzko neurririk hartuko.*

#### *Azterketa*

LRJ-PAC Legearen 139.1 artikulua abiapuntua da eta horren arabera: *partikularren dagokion Herri Administrazioaren diru-laguntzak jasotzeko eskubidea izango dute, euren ondasunetan eta eskubideetan izandako kaltearengatik, ezinbesteko kasua izan ezik, katea zerbitzu publikoen funtzionamendu normalak edo ez ohikoak sortua bada*”.

Alegatutako kaltea eraginkorra, ekonomikoki ebaluagarria eta bereizita izan behar da, pertsona bat edo pertsona talde bati dagokionez (LRJ-PAC legearen 139.2

artikulua). Bakarrik kalte ordainak emango dira partikularri eragindako kalteek, partikularrek dena delako kalteak euren gain hartzeko betebeharr juridikoa ez dutenean, aipatutako Legeari jarraiki (LRJ-PAC Legearen 141.1 artikulua).

Kalte ordaina kalkulatu da nahitaezko desjabetzearen legeetan, lege fiskaletan eta aplikatu beharreko gainontzeko arauetan ezarritako balorazio irizpideen arabera. Dagokionean, merkatuaren balorazio nagusiak neurtuko dira. (LRJ-PAC Legearen 141.2 artikulua). Erreklamatzeko eskubidea preskribatzen da kalte-ordaina sortarazi duen gertaera edo ekintza edo bere eragin kaltegarria adierazi ondorengo urtean. (LRJ-PAC Legearen 142.5. artikulua).

Aipatutako jurisprudentziaren doktrinaren arabera [Auzitegi Goreneko Epaiak, 3. Sala (6.-atala) 1999ko urtarrilaren 28koa eta (7. Atala) 1999ko urtarrilaren 1 eta 25koa; eta 2000ko uztailaren 26ko Nafarroaren Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren epaia], Administrazioaren ondare erantzukizuna dela eta, kalte-ordainak jasotzeko baldintzak honakoak dira:

a) Kalteari dagokion ondare lesioak ez du irabazi asmorik izan behar, eta une horretan sortutakoa izan behar da. Kaltea erreala eta eraginkorra izan behar da, inoiz potentziala edo etorkizunean emango dena. Horretaz gain, kaltea ekonomikoki ebaluatzeko eta bereizteko izan behar da, pertsona edo pertsona talde bati dagokionez.

b) Juridiko aurkako kaltea sortzen da, horren jabeak bere gain hartzeko betebeharr juridikoa ez duenean..

c) Administrazioari kaltea leporatuko zaio, kalte hori zerbitzu publikoen funtzionamendu normala edo ez ohikoaren ondorioa izan denean.

d) Egindako jarduera eta sortutako kaltearen arteko erlazioa kasualitatezkoa izan behar da.

e) Ez da ezinbesteko kasua izan behar.

Ondare erantzukizun hau erantzukizun objektiboa edo emaitzazko erantzukizuna da. Bertan, indiferentea da administrazio jarduera normala edo ez ohikoa izatea. Ondare Erantzukizuna aitortzeko, nahikoa da, kalte eraginkorra sortzea, ekonomikoki ebaluatu eta bereiztu daitekeena.

Erreklamazioa egin duenak aipatzen duen kaltea kalterik gabeko kasuaren baldintzen arabera dela, eta ekonomikoki ebaluatu daiteke, nahiz eta faktura egokia ez aurkeztu, ezin izan duelako aurkitu.

Kasualitatezko erlazioa nahitaezko baldintzetako bat da Administrazioaren ondare erantzukizuna emateko. Erlazio hori eman behar da zerbitzu publikoen funtzionamendu normala edo ez ohikoaren eta kaltearen artean, -kasu honetan, bide publikoaren funtzionamendua eta kaltearen artean-.

Aztergai dugun kasuan, kasualitateko erlazioa bide publikoaren titularitatearen bidez eman da, izan ere, zalantzarik gabe, udal titularitatea da, Toki Gobernu Modernizatzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 25.2 artikuluari jarraiki, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatu zuena.

Era horretan, kasuaren ebazpenak gertaera ebaluatu dezake, erabiltzailearen arropak zikindu ziren kausari dagokionez. **Kausa hori ezin da identifikatu aurkako froga prozedurarik gabe. Erabiltzaileak eta bere lekukoek (behar bezala identifikatuta) aipatu dute ez zegoela kartelik eseri ziren eserlekuan. Horretaz gain, ziurrenik eserleku hori margotu berri zegoen, izan ere, Bide Publikoaren Sailaren txostenak dio eserlekuak 2003ko ekainaren 13 eta 19 bitartean margotu zirela, eta gertaera horiek eman ziren urte bereko ekainaren 15ean. Eta bestalde, Ondare Erantzukizuneko Sailak aurkeztutako txostenak dio kartelak zeudela, baina ez zekitela zein zen dena delako eserlekua. Hala ere, ondoren baieztatu zuten eserleku horrek ez zuela pinturaz zikintzen.**

Era horretan, isiltzen ari da espediente horretan adierazitako froga baliabide inpartzial bakarra (Lekukoek Frogak), eta Prozeduraren Ebazpena froga partzialetan oinarritzen ari da (Bide Publiko Sailak idatzitako txostena). Azken froga horiek ez dute frogatutakoa aurka jartzen besterik egiten, inolako frogarik eman gabe, aurkako frogarik aurkeztu gabe.

### ***Ebazpena***

Aipatutako aurrekoaren arabera, uste dugu, kasu honetan eta lekukoek frogaren bidez, behar bezala egiaztatu eta fede emateko moduan frogatu direla Konstituzioaren 106. artikulua, LRJAP eta PAC Legearen 139 eta gainerako artikuluek eta Jurisprudentziak exijitutako baldintza guztiak, Vitoria-Gasteizeko Udalaren ondare erantzukizuna egoteko (benetako kaltea, banakakoa eta ekonomikoki ebaluatzekoa, zerbitzu publikoen ez ohiko funtzionamendua eta kasualitatezko erlazioa). Nahita nahiez ebatzi egin behar da, **espedientearen egindako froga inpartzial bakarra isildu gabe, hau da: lekukoek frogak.** Froga horrek modu kategorikoan egiaztatzen ditu erabiltzaileak aipatutako gertaera guztiak, ez du zalantza-izpirik uzten Vitoria-Gasteizeko Udalak espediente honetan duen Ondare Erantzukizunari buruz.

Hori dela eta, Ondare Erantzukizuneko Unitateari **GOMENDATU** diogu, aztergai dugun kasuan (Esp. zk:2003/HACRP00213) **2004ko maiatzaren 11ko Ebazpena baliogabetzea, eta horren orde, erabiltzaileari egoki den kalte-ordaina ordaintzeko dioen beste bat egitea.** Izan ere, uste dugu ez dela Administrazioaren praktika ona bere erantzukizuna alde batera uztea, istripuan emandako gertaerak eta

kasualitatezko erlazioa behar bezala egiaztatu direnean. **Beraz, eskatu diogu egin diren froga inpartzialak ez isiltzeko (Lekuko Frogak).**

- Erantzun gabeko idatzia (Erreg. zk.: 491/05)

#### *Erreklamazioa*

Hiritar bat gure bulegora etorri da honakoa salatzen: Ondare Erantzukizuneko Unitateak ez dio erantzunik eman Konpentsazio Eskara aurkeztu ondoren, adin txikiko semeak, 2003ko abuztuaren 23an, izandako kalteengatik, nahiz eta dagoeneko administrazio prozedura ireki eta izapidegilea izendatu.

#### *Azterketa*

Erabiltzailea Sindiko bulego honetara joan zen, horri buruzkoa adieraziz eta dokumentazioa aurkeztuz: “Idatzi bat aurkeztu zuen. Beraren bidez, aipatu zuen 2003ko abuztuaren 23an, eguerdian, semea erori zela aske zegoen hesi baten kontra jarri zenean, San Prudentzio kalean. Horrek hainbat zauri eragin zion”.

**2004ko urtarrilaren 7an**, Ogasun eta Aurrekontuen Udal Sailak ondare erantzukizuneko administrazio prozedura ireki zion, aurkeztutako eskaeraren arabera. Oraindik ez du Administrazioaren erantzunik jaso. Hala ere, salatzailerak erantzuna zehatza eta arrazoitua jasotzeko eskubidea du.

Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legeko 42.1 artikulua dio:

42.1.artikulua- *Administrazioak prozedura guztiak espresuki ebatzi eta jakinarazi behar ditu, hasiera-era edozein dela ere.*

*.2- -Dagokion prozedura araupetzen duen arauak ezarriko du ebazpen zehatza jakinarazteko gehieneko epea. Epe hori ezingo da **sei hilabetetik** gorakoa izan, Lege maila duen arau batek epe luzeagoa ezartzen badu edo Europako araudi komunitarioak horrela ezartzen badu izan ezik.*

**Administrazio isilunearen erakundeak honako hau du helburu: hiritarrei jurisdikzioa eskura jarri, baina ez du kanpo uzten hiritarren eskaerak eta idatziak espresuki erantzuteko eta ebazteko beharra.**

#### *Ebazpena*

Uste dugu, aurkeztutako salaketa eta erabiltzaileak egindako alegazioak sakon aztertu gabe, aztergai dugun ondorioetarako, Ondare Erantzukizuneko Unitateari, **GOMENDATU** behar diogula, salatzailerari espresuki ERANTZUTEA, eta arrazoieta oinarrituz, salaketaren eta aurkeztutako frogaren arabera, egindako eskaera onetsiko duen ala ez aipatzea.

## **b) Gaitzespena**

- Ondare Erantzukizuneko erreklamazioari buruzko ebazpena, kalean erortzeagatik.  
(Erreg. zk.: 356/04)

### **Erreklamazioa**

Gasteizeko bizilagun bat Auzoko Sindiko eta Defentsari honen bulegora etorri da egindako Ondare Erreklamazioko Ebazpena egiteko denbora gehiegi erabiltzen duela adierazteko.

### **Azterketa**

Erabiltzailea Auzoko Sindiko eta Defentsariarekin izandako solasaldian, kexa gauzatu eta sinatu du. Bertan, kasua adierazi zuen eta aipatutako ebazpena entregatu zuen.

Hein berean, Ogasun Saileko ordezkariari eta Idazkari Nagusiari bidali dio Udaleko Ondare Erantzukizuneko Unitateari emandako dokumentazioa.

Falta dira Bide Publikoko udal zerbitzuen eta bizilagun horren erorketaren arteko kasualitateko erlazioa fedea emateko moduan egiaztatzekeko epai-elementuak, horregatik, ezin da erreklamazio edo errekurtsio bat behar bezala gauzatu, administrazioan onartu ahal izateko.

### **Ebazpena**

Beraz, **EZIN DA ONETSI** erabiltzaileak eskatutakoa. Hala ere, jakinarazten zaio beste edozein erreklamazio kontsultatu dezakeela.

- Alde Zaharrean erortzeagatik egindako kalteen erreklamazioaren atzera botatzea  
(Erreg. zk : 324/04)

### ***Erreklamazioa***

Vitoria-Gasteizeko bizilagun batek zera eskatu du: *bide publikoan erortzeagatik egindako Kalteen Erreklamazioaren atzera botatzea errebisatzeko.*

### ***Azterketa***

Bizilagunak solasaldi bat izan zuen Auzoko Sindiko eta Defentsariarekin. Bertan, adierazi zuen Alde Zaharrean erori zela bide publikoa egoera txarrean zegoelako, baina, hilabete batzuk igaro ondoren, konturatu zela aipatutako kalea ez zela berak adierazi nahi zuena.

Sindiko Bulego honetan aztertzen ari da Vitoria – Gasteizeko Udalak erabiltzaile honi, 2004ko urtarrilaren 2an bidalitako erantzuna, eta honakoa jakinarazi diogu:

1º) LRJ-PAC Legearen 139.1 artikulua araberak: *partikularren dagokion Herri Administrazioaren diru-laguntzak jasotzeko eskubidea izango dute, euren ondasunetan eta eskubideetan izandako kaltearengatik, ezinbesteko kasua izan ezik, katea zerbitzu publikoen funtzionamendu normalak edo ez ohikoak sortua bada”.*

2º) Administrazioaren ondare erantzukizuna dela eta, kalte-ordainak jasotzeko baldintzak honakoak dira:

a) Kalteari dagokion ondare lesioak ez du irabazi-asmori eduki behar eta unean sortutakoa izan behar da. Kaltea erreal eta eraginkorra izan behar da, inoiz potentziala edo etorkizunean emango dena. Horretaz gain, kaltea ekonomikoki ebaluatzekoa eta bereiztekoa izan behar da, pertsona edo pertsona talde bati dagokionez.

b) Juridiko aurkako kaltea sortzen da, horren jabeak bere gain hartzeko betebeharrak juridikoa ez duenean..

c) Administrazioari kaltea leporatuko zaio, kalte hori zerbitzu publikoen funtzionamendu normala edo ez ohikoaren ondorioa izan denean.

d) Egindako jarduera eta sortutako kaltearen arteko erlazioa kasualitatezkoa izan behar da.

e) Ez da ezinbesteko kasua izan behar.

**Kasualitate erlazioaren** baldintza nahitaezkoa da Administrazioaren ondare erantzukizunaz hitz egin ahal izateko. Erlazio hori zerbitzu publikoen funtzionamendu normala eta ez ohikoaren eta kaltearen artean eman behar da.

Erabiltzailek salatutako gertaerak eta kasualitate erlazioa, aztergai dugun kasuan, ez dira erabat egiaztatu, Ingurumen Saileko txosten teknikoaren arabera, izan ere, 2003ko urtarrilaren 4an, egiten ari zen obrak Antepara kaleari eragin zion, eta ez Barrancal kaleari, berak hainbat idatzitan adierazi bezala.

Kasu honetan dokumentatutako alegazioei eta aipatutako datuei jarraiki, bakarrik ondorioztatu dezakegu udal jarduera legearen arabera izan dela. Horrek esan nahi du ezin dugula aurkeztutako kexa onetsi. Uste dugu, ez dela betetzen kalte-ordainetarako eskubidea ematen duen nahitaezko kasualitate erlazioa. Horretaz gain, aipatu behar da, erabiltzaileak hainbat idatzitan adierazi zuela kalteak obrak egiten ari ez ziren kale batean sortu zirela (Barrancal kalea). Lekukoek ere horrela esan zuten.

Hori dela eta, erakunde honetan izandako konfiantza eskertuz, Auzoko Sindiko eta Defentsari honek jakinarazi du, gai honetan izandako esku-hartzea amaitutzat emango duela, informazio berriak aurkeztuz gero, gestio berriak alde batera utzi gabe.

*Ebazpena*

Adierazitako zioengatik, **GAITZESPENA** egin da.

- Kalteak Judimendi Parkingean (Erreg. zk.: 400/04)

**Erreklamazioa**

Vitoria-Gasteizeko biztanle bat Bulegora etorri da Judimendi aparkalekuan izandako kalteak eta egoera txarra salatzen.



### Azterketa

Eskatzailearekin izandako solasaldiaren ondoren, jakinarazi diogu Vitoria-Gasteizeko Udalak (Ogasun Sailaren bidez), 2004ko irailaren 30ean, hurrengo informazioa bidali digula, eta interesgarria iruditu zaigunez, horren berri ematen diogu, hitzez hitz:

*“...Hirigintzako Udal Sailaren Arkitektura Zerbitzua dokumentazio egokia izapidetzen ari da Judimendi aparkalekuan atzemandako eta kontratistari leporatzeko diren kalteen balorazio ekonomikoa egin ahal izateko. Hartara, aipatutako balorazioa egin ondoren, Ogasun Sailari atxikitako Kontratazio Zerbitzuak dagozkion izapide legalak hasiko ditu, kalteak konpontzeko obrak egin ahal izateko, behin betiko eraturako bermearen pentzutan. Aipatutako behin betiko bermea, bere egunean eratu zen, kontratuaren bete beharrei aurre egin ahal izateko.”*

### *Ebazpena*

Aztergai dugun kasuan, aipatu behar dugu administrazio esku-hartzeak aldatu ezinako prozesu batzuk bete behar dituela, eta oraingo honetan, indarreko legearen arabera izan da. Horregatik, kexa **GAITZETSI** dugu.

### **c) Erabiltzaileak itxita**

- Ibilgailuan izandako kalteak, Aiztogile kaleko mutiloak eraginda (Erreg. zk.: 397/04)

### Erreklamazioa

Bizilagun bat Sindiko Bulego honetara etorri da honakoa salatzen: 2004ko maiatzaren 12n, bere ibilgailuarekin istripu bat izan zuen, San Francisco eta Aiztogile kaleen arteko elkargunean kokatutako gontzetako baten kontra (eskuinekoa) jo zuelako. Bertan kokatuta dauden zabor bilketa pneumatikoaren bi edukiontziek ez dute aipatutako mutiloia ikusten uzten.

### *Azterketa*

Eskatzaileak, xehetasun osoz, honako hau deskribatzen digu: edukiontzien kokapeak gontza ikustea galarazi egiteaz gain, kartoiaren maldak ere gauza bera egiten du Aiztogile elkarguneko sarreran. Aipatutako gontzaren grisa kolorea ere ez da oso lagungarria.

Vitoria-Gasteizeko Udalan, 2003ko irailaren 23an, instantzia aurkeztu zuen. Bertan, irailaren 5eko jakinarazpenari egin zion erreferentzia, honako gai duelarik: “Prozeduraren Hasiera”. Eta bigarren ebazpenean eskatutakoa oinarri hartuta, konponketaren aurrekontua entregatzen du, eta istripuaren bi lekuko aipatzen ditu. Hori guztia egin ondoren, Ondare Erantzukizuneko Espediente bat irekitzeko eskatzen du, bere erreklamazioa barne sartzeko.

Sindikoko Bulego honi eskatu dio Ondare Erantzukizuneko Espediente bat izapidetzea gomendatzeko.

### *Ebazpena*

Erabiltzaileak ulertu du arazoa konpondu dela Sindikoko Bulego honetan horri buruzko izapideak egin aurretik, Kasuaren Izapidegilearen Dokumentua bidali digulako; beraz, **ERABILTZAILEAK ATZERA EGIN DU**.

#### **d) Idatzi lagunduta**

- Salaketaren jakinarazpenik ez (Erreg. zk.: 483/04)

#### **Erreklamazioa**

Biztanle batek salatu du ez duela ezarritako isun baten jakinarazpena jaso, hura ebatzi den arte.

#### *Azterketa*

Salaketa aztertu ondoren, idatzi bat idatzi dugu bere laguntzarekin:

Idatzi honen bidez, ERABATEKO DEUSEZTASUNA salatu dugu, erreferentziazko zehapen espedientearen, eta egin dugu ondorengo **ALEGAZIOEN** arabera:

1ª.- Gure aurreko idatzian alegatzen saiatu ginen bezala, erreferentziazko zehapen espedienteak ez ditu bete Administrazioari dagozkion jakinarazpen BETEBEHAR guztiak, izan ere, guk jaso genuen lehenengo jakinarazpena EBAZPENAZUZENEAN izan zen. 2004ko azaroan isuna jarri zen, hala ere, aurretik ez zitzaigun beste inolako izapiderik jakinarazi, horrenbestez, BABESIK GABE ikusten ditugu geure buruak, ezin izan dugulako adierazi gidaria nor zen, ez dugulako entregatu Deskarguen Pleguan, ezta Ebazpen Proposamenari buruzko dagozkion alegazioak ere.

2ª.- Aurkeztu dugun idatzi bakarra (“Deskargu plegua” deitzen duguna) dagoeneko irmoa zen Ebazpenaren aurka zian zen, espedientearen berri izan genuenean. Gainera, aipatu behar da ez dela onetsi espedientearen Hasi zela jakinarazi EZ zitzaigula kontuan hartzen ez duten arrazoi formalengatik.

3ª.- Espedientearen prozedura akatsek hausten dute azaroaren 26ko 30/92 Legeko 59 eta 135 artikulua.

4ª.- Aipatutako prozeduraren bizioak prozeduraren edozein unean salatu daitezke, prozeduraren ERABATEKO DEUSEZTASUNA direlako, 30/92 Legeko 62.1.a) artikuluari jarraiki, izan ere, zehapen prozedura batean babesik eza sortzen denean, konstituzioaren babesa beharrezkoa da.

Hori dela eta,

ESKATU DUGU idatzi hau aurkeztuztat eta aurretik egindako aipuak egitetzat ematea, eta horien arabera, erreferentziazko zehapen espedientea baliogabetzeko, konponketarik gabeko prozeduraren hainbat biziotan sartzeagatik.

*Ebazpena*

Horrela, aurkeztuztat emango du **IDATZI LAGUNDUA**.

### **2.3.9.3 ERAIKINEN MANTENUA**

#### **a) Gomendapena**

- Espainia Plazako Vitoria-Gasteizeko Udalaren erlojuko soinudun mekanismoak gaez deskonektatzeko eskaera (Erreg. zk: 352/04)

*Erreklamazioa*

Erabiltzaile batek kexa bat jarri du. Horren bidez, aipatu du Espainia Plazako Vitoria-Gasteizeko Udalaren erlojuak ordu laurdenero jotzen duela, eta bizilagunei kalte egiten diela, batez ere, atsedena hartzeko ordutegian.

Eskatu du erlojuaren soinudun mekanismoak deskonektatzeko 00.00 eta 8.00 artean.

*Azterketa*

Sindikoko Bulego honetan bilera bat antolatu da kexa sinatu duen erabiltzailearekin, eta eskatu da gaez soinu guztia kentzeko.

Alde batera uzten da erlojuaren seinale akustikoei sortutako zarata igorpen mailak legeak baimendutako alaxak gainditzen dituela eta 2000ko maiatzaren 19ko Zaratak eta Dardarak araupetzen dituen Udal Ordenantza hautsi dela.

*Ebazpena*

**GOMENDIO** bat egin da, interes orokorrak eta interes partikular legitimoak adiskidetzeko. Udalak egin behar duen Administrazio Praktika on bat da.

Udalaren Kultura Sailak Gomendioa **ONETSI** du (Ondasunen Inbentarioa).

### **2.3.9.4 ONDASUNEN INBENTARIOA**

#### **a) Orientazioa**

- Erregistratu ez den udal etxebizitza (Erreg, zk: 320/04)

*Erreklamazioa*

Biztanle batek dio bere senarrak Udalari erosi ziola bere pisua, duela urte batzuk. Etxebizitza ez zegoen Jabetza Ganberan erregistratuta, beraz, egungo etxebizitzaren maizterrek ezin dute horren eskriturak egin, ez dagoelako erregistratuta.

Eskatu du, ahalik eta lasterren etxea erregistratzeko, etxearen erosketa gauzatu ahal izateko.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileak solasaldi bat izan zuen Auzoko Sindiko eta Defentsariarekin eta bertan kexa egin eta sinatu eta dokumentazioa aurkeztu zuen.

Auzoko Sindiko eta Defentsariak, etxebizitzaren egoera legala ezagutzeko, bilera bat antolatu du Udal Ogasuneko Sailaren Zuzendariarekin eta jakinarazi du izapide egokiak egiten ari direla, abokatu baten bidez, etxebizitza eskritura publiko bilakatzeko. Udal Sail honek entregatutako informazioaren arabera, erregistratutako azken titularrak duela 30 urtekoak dira, Hipoteka Legearen 201 eta 202 artikuluei jarraiki. Erregistroaren datuen arabera, etxebizitzak bost jabe zituen, beraz, horien baimena nahitaezkoa da aipatutako etxebizitza eskritura publikoa bilakatzeko.

Aurreko Memoria amaitzerakoan, espedientea zabalik geratu zen, etxebizitzaren jabeak ez zirelako aurkitu horien baimena lortzeko etxebizitza eskritura publiko bilakatu ahal izateko.

Jakinarazi diogu prozesua aurrera doala eta hauek direla ematen ari diren pausuak, Gizarte Esku-hartzeko abokatuak emandako datuei jarraiki (Amaia):

Etxebizitzaren aurreko jabeek dagozkien jakinarazpenak egin zaizkie, eta horietatik bi hartu agiri jasotzeko gelditzen dira. Horiek jasotzen direnean, eta aipatutako jabeak ez badaude jarraitu beharreko prozesuaren aurka, *15 asteguneko proba aldi bat dago* Horren ondoren, *alegazioak aurkezteko 15 eguneko beste bat dago*,. Ondoren, Epailearen Autoaren zain egon beharko da. Horri dagokionez, espero dugu, goizenik, uztaila bukaeran iritsiko dela, eta agian iraila arte atzeratzen da, tartean oporrak daudelako.

Aipatutako prozesuaren datuak jakinarazten dizkiguten heinean, horren berri emango dizugu.

#### *Ebazpena*

Era horretan **ORIENTATU** da erabiltzailea.

### **2.3.10 FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA**

#### **2.3.10.1 ZUZENDARITZA**

##### **a) Gomendioa**

- [Administrazioko tratua gozatzea](#) (Erreg. zk.: 316/04)

### Erreklamazioa

Herritar batek iradoki digu udal langileek beren burua identifikatu beharko luketela administrazioarekiko harremanak gozoagoak izan daitezen.

### Azterketa

Eskatzaileak uste du udal langileekiko tratua hobea litzatekeela zerbitzuaren erabiltzaileei beren burua aurkeztuko baliote.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak egindako aldaketak aztertu ditugu. Lege horretako 35 b) artikuluan eskubide hau ezagutzen die herritarrei administrazio publikoekiko harremanetan:

*“Prozeduren ardura daramaten herri-administrazioen zerbitzuan diharduten agintariak eta langileak identifikatzeko eskubidea.”*

Hirian Giza Eskubideak Babesteko Gutuna (2000) ere aztertu da, zeinaren XXII. artikulua baitio: *“...tokiko agintariak zerbitzu publikoak eraginkorrak izan daitezen ziurtatuko dute eta herritarren beharrei egokitu dakizkien...”*

Identifikazioak ez du osoa izan behar, funtzionarioak ere bai baitu erreserbarako eskubidea, baina gutxienez ponte izena jakinarazi beharko luke, eta deituren inzialak beharrezkoa bada, zerbitzuan duen ardura mailaren arabera, interesatuak bere dosierra tramitatzean aldi bakoitzean norekin aritu den eta hartaz nor arduratzen den jakiteko beste.

Administrazioa, berez, formula burokratiko eta despertsonalizatuak erabiltzeko joera duen makineria da; hori dela eta, horri aurre egiteko neurriak hartu behar ditu, funtzionarioek eta arduradunek herritarrei beren burua aurkeztea, esaterako. Identifikazio betebeharrak hori funtzio publiko demokratiko baten berezko deontologiaren zati da.

### Ebazpena

Hori guztia kontuan izanik, **GOMENDATZEN DUGU** ezen funtzionarioak beren burua identifika dezatela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren Legea betetzeko eta herritarrek udal administrazioaren aldetik jasotzen duten tratua gozoagoa izan dadin.

Gomendioa **partzialki onetsi** da, izan ere, Udal Reprografia Unitatearen laguntzarekin, mahaia errotuluak dituzten udal langileak identifikatzen ari dira, eta gaurko datan, horiek dituzte HIRigintza eta Gizarte Esku-hartzea eta Funtzio Publikoaren Saitetan. Ondoren, pixkanaka, gainontzeko udal eraikinetara zabaldu nahi da.

## **2.3.10.2 GIZA BALIABIDEEN GESTIOA**

### **a) Gaitzespena**

- Udaltzaingoaren 2003ko LEP-an atzemandako irregulartasunak (Errg. zk.: 332/04; 333/04; 334/04)

#### *Erreklamazioa*

Hiritar batzuk, 2003. urterako, Vitoria-Gasteizeko Udalak eskaini dituen Udaltzaingoaren oposiziogile gisa, aipatu dute hautsi dela Udaltzaingoaren 2003ko LEP-ren oinarrietako 4.3 eta 4.4 oinarria. Berdintasun printzipioa hautsi da, izan ere, 4. ariketaren probak egunero berdinak ziren, 5 egunez, beraz, ondorengo egunetan probak egiten zituzten oposiziogileek ezagutzen zituzten aurretik.

#### *Azterketa*

Auzoko Sindiko eta Defentsaria, ahalik eta informazio gehiago ezagutzeko helburuarekin, ebazpena eman ahal izateko, elkarrizketa bat izaten du oposiziogileekin eta horiek euren kexa azaldu diete. Ondoren, Sindiko Bulego honek, Funtzio Publikoaren Sailari txosten bat eskatu dio, hau da: Udaltzaingoaren 2003 LPE-ren 2.a ariketa, eta galdetu diote ea, talde bereko barne sustapenarako deialdian egindako probak berdinak diren, oposiziogileek esaten duten bezala.

Funtzio Publikoaren Sailaren txostenaren arabera, probaren Hirugarren Ariketaren helburua deitutako izangaien gaitasun mentala neurtzea da: “Inteligentzia Orokorra” eta “Ahozko Arrazoinamendua”. Era berean, aipatzen da, proba hauek egiteko, izangaiak bi talde nagusietan banatzeak ez duela eraginik egiten Talde-barean lortutako emaitzetan, enpirikoki egiaztatu baita, hipotesiak kontrastatzeko frogan bidez.

Funtzio Publikoko Sailak igorritako txostenaren ondoren, (bertan aipatzen da ez direla probak ezkutuan eman), Alkate jaun Txit Gorenak komunikabideetan aitortu du probetan hainbat oker egon dela, beraz, Auzoko Sindiko eta Defentsaria aztertzeke gelditzen da, benetan, zeintzuk izan diren aipatutako LPE-ren irregulartasunak.

Aurreko Memoria bukatzean, prozesuan gelditu zen. Ondoren, kexa gaitzetsi da, honela:

Udaltzaingoaren oposaketan (2003 LPE), gainditu ez duten izangaien talde batek kexa bat aurkeztu du Auzoko Sindiko eta Defentsariaren bulegoan, hainbat kexa zio alegatuz. Kexa horiek ere hainbat errekurtsotan planteatu da administrazio bidean. Horiek Administrazioaren erantzuna jaso dute denbora eta eraren barruan. Interesatuek, berriz, horien aurka, dagozkion Administrazioarekiko Auzi Errekursoak planteatu dituzte.

Ginera, auzi hau ARARTEKOAREN aurrean planteatu da. Horrek, eskatzaileen nahia atzera bota du, udalaren jarduna zuzena izan dela adieraziz. Hala ere, *hainbat iradokizun egin da* etorkizuneko hautaketa-prozesuak hobetzeko, besteak beste:

1º.- Deialdiaren oinarrien izaera araututa indartu, *nortasun probei dagokiona* eta proba horien balorazio irizpideak arautuz.

Ikusi ( testak, zuzenketa automatikoko txantiloak...).

ARARTEKOAREN aurrean auzi hori planteatzeak eta erakunde horrek emandako erantzunak gure esku-hartzea berretsi du, baina gure aldetik kexari emandako erantzuna aztertu ondoren, onartu behar ditugu ARARTEKOAK emandako irizpideak, honako honi dagokionez:

1º.- Ez dago lege-biziorik proben legalitatean.

2º.- Hautaketa prozesuan, *komenigarria da* baztertzeko probak *aldez aurretik adieraztea*, izangaiek hautaketa prozesuaren proba guztiak aise gainditu ahal ez izateko, ondoren, prozesuaren amaieran baztertuak izateko.

3º.-Ahalik eta kontrol gehienak edukitzea, proben konfidentzialtasuna bermatzeko. Horrek bat EGIN DEZAKE aipatutako hautaketa proben zuzenketa aritzen eta sinplifikatzen dituzten teknika berriekin.

*Ebazpena*

Aurretik aipatutako guztia dela eta, kexa **GAITZETSI** da

### **2.3.11 SOZIJETATE ANONIMOAK ETA UDAL ERAKUNDE AUTONOMOAK**

#### **2.3.11.1 AMVISA**

##### **a) Gomendioa**

- Gaizki kokatutako kontagailua (Erreg. zk.: 436/04)

*Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko biztanle bat Bulego honetara etorri da bere salaketa jartzeko: *bere ur kontagailua gaizki kokatuta dago eta horrek okerreko irakurketak sortzen ditu, Salvador kaleko aipatutako etxebizitzan, maizter bezala daudenei arazoak sortaraziz.*

*Azterketa*

Erabiltzailearekin elkarrizketa bat izan ondoren, eragindako ur kontagailua dagoen lekura joan gara, ikuskatu ahal izateko, eta ikusi dugu zailtasun handiak daudela irakurri ahal izateko (argazkiak erantsi dira).

Gainera, kontuan hartu behar da, 2004ko uztailaren 27an, erabiltzaileak Amvisa enpresari egindako eskaera baten ondoren, txosten bat bidali zitzaioa: SALBADOR KALEKO KONTAGAILUAREN EGOERARI DAGOKION ERREKLAMAZIOARI BURUZKO TXOSTENA (2004ko abuztuaren 9a). Bertan, honakoa adierazten zaio: “Instalazioak honako arazoa dauka: ganberaren neurriak ez dira nahikoak, beraz,

kontagailua goiko aldetik oso gertu dago eta horregatik traba handia dago irakurketa egiteko. Irakurketa errazteko konponketa bakarrak ganberaren neurriak handitzea da...

Hori dela eta, "Uren Udalekotutako Zerbitzuari buruzko Araudiaren" arabera,

40. ART: "Kontagailuak normal irakurtzeko moduan eta jarreran ipiniko dira, eskura dauden lekuetan eta arloaz arduratzen direnek erraz irakur ditzaketen altueran eta kokapenean. Nolanahi ere, Udalaren langileek erabakiko dute zein den kokapen egokiena tokia eskurago izateko".

*Ebazpena*

Gure ustez, **komenigarria** da Uren Udalekotutako Zerbitzuari buruzko Araudiaren arabera eta AMVISA Zerbitzuak proposatutako konponbidea oinarri hartuta, Salvador kaleko kontagailua, eskura kokatzea hura modu errazean irakurri ahal izateko.

Gomendioa EZ da ONETSI, hau dela eta:

"Ura Hornitzeko eta Arazteko Zerbitzua Araupetzen duen Ordenantzaren 15-7. artikulua arabera:

< Barneko instalazio orokorra honakoan datza: tutueriak, gordailuak giltzak, makinak eta kontagailuak. Horiek, hartunetik abiatuz, barne instalazio partikularrarekin lotzen dira. Barneko instalazio orokorra hasten da bide publikoan kokatutako erregistro giltzan, erakinen kanpoan eta bertako jabeen erkidegoarena da. >.

Horretaz gain, 17. artikulua 5. paragrafoak dioena kontuan hartzen badugu:

< Hartunea higiezinaren jabetzaren zati bat da, nahiz eta mantenua AMVISA enpresak egin, eta horrenbestez, ezin da konexiorik egin erkidego honen titularren baimenik gabe. Aguas Municipales de Vitoria, S.A. enpresak berriz, mantenuaren lanen barruan egoteagatik, hurrengo lan hauek egin ahal izango ditu: ur-hartune bat beste berri baten ordeztatu, edo hartune zahar batzuk bakar baten ordeztatu, betiere zaharren edukiera hidraulikoa errespetatuz.>

Azkenik, 30. artikulua azken paragrafoa:

< Erregistro giltzatik hasita, instalazio guztiak eta lokalak, kutxatila edo tutueriak kokatuta dauden erregistroak, kontagailuak, etab. **KALORIFUGATUTA** egongo dira eta abonatuak horien kontserbazioaz eta mantenuaz, eta hirugarrenei egin diezazkien kalteez arduratu beharko dira, erakinen barruan edo bide publikoan badaude ere.>

Argumentu juridikoen arabera, honako ondorioak atera ditzakegu:

1.-Ikuskapen berri bat egin ondoren, AMVIS enpresaren teknikariek erabaki zuten kontagailua jarrera normalean zegoela, bertikalki. Irakurgailuek, beste lokaletan bezala, euren baliabide propioak dituzte irakurketak egin ahal izateko, izan ere



*irakurketa horiek sarritan egin dituzte. Azken finean, kontagailua modu deserosoan dago langilearentzat eta ez berriz, ordainagiriaren erabiltzailearentzat.*

*2.-41. artikulua honakoa dio, hitzez hitz:*

*< Kontagailuak mantentzeko, kontserbatzeko eta berritzeko gastuak abonatuaren kontura izango dira.*

*Abonatuaren iturgintzako instalazioen eta kontagailuak kokatuta dauden lokalak jabea da, eta horiek zaintzeaz eta kontserbatzeaz arduratu behar da. Horren kargura izango dira mantenuaren eta kontserbazioaren gastuak.*

*Nolanahi ere, AMVISA enpresaren langileak ikusten badu instalazioak egoera txarrean daudela, lokalean edo etxebizitzan bizi denari jakinaraziko diote, eta azken horrek, berehala konpondu beharko du. >*

*AMVISA enpresak, erabiltzailearen eskaeraren bidez, ikusi du instalazioak akatsak dituela, eta Sarearen Banaketa, Ustiaketa eta Mantenuaren Buruak 04/08/09an idatzitako txostenaren bidez, horren berri eman du.*

*Horrenbestez, kontagailua kokatuta dagoen ganberaren neurriak ez dira nahikoak, eta horregatik gomendatu da horiek aldatzea.*

*3.- Eta horixe bera egiaztatzeko, Ordenantzaren 42. artikulua dugu:*

*< Kontagailua beste normalizatu baten ordean aldatzeko agintzen zuten erreformak AMVISA enpresaren pentzutan izango lirake iturgintzan egin behar baldin balira. Bestalde, abonatuaren pentzutan izango dira, aldatetako aparatua kokatuta dagoen kutxatilan edo armairuan eta instalaziotik eratorritako obrak baldin badira..>*

*Abonatuari dagokio aparatuen kokapena aldatzeko edota hortik eratorritako gastu guztiak ordaintzea.*

*Beraz, aurretik aipatutako Ordenantzaren artikuluen arabera, AMVISA enpresak bakarrik kontagailuetan, eta ez horien lotutako barne instalazioetan egiten du lan. Beraz, abonatuari dagokio horiek egoera onean mantentzea.*

*Ondoren, ezaugarri bereko gai bati buruzko artikulua bat bidaliko diogu, izan ere, Erkidegoaren kontagailu guztiak gelan kokatuta daude eta erreparatu egin daitezke ordainketari buruz erabakitzerakoan, hau da: ea elementu komuna edo pribatua den.”*

## **b) Neurketa**

- Kontagailu independenteak ura kontsumoa handitzeagatik (Erreg. zk.: 354/04)

### *Erreklamazioa*

Erabiltzaile bat Bulego honetara etorri da bere salaketa adierazteko: *bere higiezinaren egoera salatu nahi du, bere erkidegoaren behegaineko jabeak etxadiko Taberna alokatu ondoren. Izan ere, aipatutako jabeak ur gehiegi kontsumitu du, baina ez du ordaindu nahi.*

### *Azterketa*

Bere kexa aztertu ondoren, eskatzaileari honakoa adierazi diogu: **Uren Udalekotutako Zerbitzuaren Araudiaren arabera, (AMVISA zerbitzuak egiaztatuta)**, hainbat uren kontagailu independente instalatu daiteke, eraikin berberaren barruan, zerbitzua tarifa desberdinen eta erabilera desberdinen arabera eman behar baldin bada (31. art).

Hala ere, esan behar diogu, kontagailu berri bat instalatzeko eskaerari dagokionez, aipatutako araudiaren 4. artikulua arabera, "... horrekin batera finkaren jabearen idatzizko baimena entregatuko duela, hura eta eskatzailea pertsona bera ez baldin bada."

Hau da, erabiltzailea bada instalazio hau eskatu duena, horrekin batera Tabernaren jabearen baimena entregatu beharko du.

Prozesu logikoa honakoa izango litzateke: Jabeen Erkidegoa osatzen duten bizilagun guztiak ados jarri kontagailu independenteen sistema berri bat instalatzeko, une horretatik aurrera, bizilagun bakoitza bere kontsumo propioez arduratzeko.

Erkidegoaren interesatuak ez balu adostasun hori lortuko, zuzenean jardun eta egungo kontagailua kendu beharko luke. Ondoren, bizilagun bakoitzak bere kontagailu propioak izapidetu beharko luke.

Azkenik gogorazi diogu Auzoko Sindiko eta Defentsari honen helburua: hiritarrak eta udalen erabiltzaileak informatzea eta orientatzea dela, aipatutako zerbitzuei buruz jarritako kexetan.

### *Ebazpena*

Bizilagunaren eta tabernaren jabearen arteko **BITARTEKOTZA** egin da, eta azken horri ere gutun bat bidali zaio.

#### **c) Gaitzespena**

- Uraren gehiegizko ordainagiria (Erreg. zk.: 353/04)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko bizilagun batek honakoa salatzen du: *2002. urteko bigarren hiru hilekoari dagokion ur kontsumoaren ordainagiria iristen zaio 1200 eurotan, eta bere ustez oker bat egon da, gehiegizkoa delako.*

### *Azterketa*

Horri dagokionez, erabiltzailearekin solasaldi bat eduki ondoren, lagundu diogu AMVISA enpresari bidali zitzaion Arbitraje Eskatera idazten, aipatutako gaia erreklamatzeko. Jasotako erantzuna aztertu ondoren, esan dezakegu Zerbitzu honen udal jarduera zuzena izan dela, beraz, horrek esan nahi du ezin dugula aurkeztu zigun kexa onetsi.

### *Ebazpena*

Kexa **GAITZETSI** da, administrazioak salaketan zuzen jardun duelako.

#### **d) Ukatzea/Ez onartzea**

- Kontagailuaren gehiegizko irakurketa (Erreg. zk: 428/04)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko bizilagun bat Sindiko Bulego honetara etorri da honakoa eskatzeko: *AMVISA enpresari erreklamazioa egin zitzaion arbitrajeko laudoa errebisatzeko, egon daitezkeen akatsak zuzentzeko.*

### *Azterketa*

Horri dagokionez, aipatu nahi dugu Auzoko Sindiko eta Defentsariari buruzko Araudiaren 26 e) artikularen arabera, ezin dezakegula kexa onetsi, “*dagoeneko Auzitegietan dagoen auzi bat delako*”

Dagoeneko, Kontsumoko Arbitrajeko Batzordeak aztertu du kasua eta Arbitrajeko Laudora eraman du, beraz, ezin dugu gehiagorik egin.

Arbitrajeko Laudora eramatearen erabakia hartzen bada, bi alderdiek, alde zurretik, onartu behartu dute ematen den Laudoaren emaitza, eta ezingo da horren kontra errekurtsorik jarri, dagozkion errekurtsio judizialak izan ezik. Horregatik, ezin dugu erabiltzaileak planteatutako auzian eskua hartu.

Hala ere, aipatzen diogu hitz egin dugula Nerea Rekalde Borde andrearekin (Arbitrajeko Laudoan erreklamaturako enpresaren ordezkaria, AMVISA). Rekalde andreak irmo eutsi zien bere egunean eginiko alegazioei eta adierazi zuen guztiz bat zetorrela arbitrajearen ondorioarekin, hau da: enpresa honi horri buruzko erantzukizun guztia kentzen dio.

### *Ebazpena*

Hori dela eta, **EZ DUGU** kexa.**ONARTU**

#### **e) Erabiltzaileak itxita**

- Gardelegi aldeko ura eramatea (Erreg. zk.: 446/04)

### *Erreklamazioa*

Erabiltzaile batek honakoa salatu du: Udalak ur-eramate bat burutu du bizitoki duen Gardelegi aldean, eta ondorioz, okerrak sortzen dira ur kontsumoaren kontagailuaren irakurketetan.

### *Azterketa*

Erabiltzaileak aipatutako gertaerak aztertu baino lehen, berak abisatzen digu egoera bideratzen lortu duela.

### *Ebazpena*

Horrela, **ERABILTZAILEAK** kexa **ITXI** du.

## **2.3.11.2 HIRI BERRIKUNTZARAKO ERAGINTEGIA**

### **a) Gomendioa**

- Irregularitasunak Etxebizitza Birgaitzeko jasotako Diru-laguntzan (Errg. zk. : 164/03)

### *Erreklamazioa*

Erabiltzailea gure bulegotik pasa ondoren, hainbat gomendio egin zen, aurkeztutako kexari buruz. Hiri Berritzen Agentzian horien berri izan zuten. .

Gomendio horiek Vitoria-Gasteizeko Aiztogile kaleko pisu baten jabe gisa Birgaitzeko Laguntza Ekonomikoaren Hitzarmenean izena emateari buruzkoak ziren. Honakoa zen Hitzarmena oinarritzen zen Aiztogile kaleko higiezinaren jabe GUZTIEN aho bateko adostasuna. Higiezin bereko beste bizilagun batzuek antzeko Hitzarmenak sinatu zituzten Hiri Berrikuntzarako Eragintegiarekin, helburu berekin eta dagozkion betebeharrekin, Aplikatu beharreko Arauaren 18. artikuluari jarraiki: “Egoitza Eraikinak Birgaitzeko Hiri Birgaitzeko eta Etxebizitzako Udal Agentziak ematen dituen Laguntza Ekonomiko guztiak Arautzen duen Araua”.

Horrela, aztertu ziren Birgaitzeko Laguntzen onuradunen artean egon zitezkeen desberdintasun guztiak, HORIETAKO BAKOITZAK bete behar zituen Hitzarmen honen bidez, Hiri Birgaitzeko Agentziarekiko hartutako betebeharrak pertsonal guztiak, Aplikatu beharreko Arauaren 18. Artikuluan adirazita: **Jasotako Laguntza Osoa Erabili dela Egiatzatu.**

Erabiltzaileak entregatutako dokumentazioaren arabera, 2001eko ekainean, ebazpena egin zen, eta Aiztogile kaleko etxebizitzak babestutako esku-hartzetzat jo ziren eta bertako bizilagun bakoitzari neurri finantzarioak eman zitzaizkion, ebazpenean aipatzen ziren baldintzen arabera. Beraz, egiaztatu da Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegiaren Atal eskudunak eman zizkiela Egoitza Eraikinak Birgaitzeko Laguntza Ekonomikoak Araupetzen duen Arauak ezartzen dituen laguntza guztiak.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileak entregatutako azken dokumentua aipatutako higiezinaren Jabeen Erkidegoari egindako ordainketa agindei bat da. Horren bidez, behartzen dituzte Arabako Aparejadoreen eta Arkitektoen Elkargo Ofizialari, hogeitau eguneko epean, fatxadan eta teilatuan eginiko zaharberritze lan guztiak ordaintzera.

Dokumentazio horrek egiaztatzen du hautsi dela *Egoitza Eraikinak eta Etxebizitzak edo Isolatutako Merkataritza Lokalak Birgaitzeko, Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak ematen dituen Laguntza Ekonomikoak araupetzen dituen Arauaren 18. artikulua*ren a) letra. **IZAN ERE, EZ DIRA LAGUNTZA OSOAK ERABILI EMAN ZIREN HELBURURAKO ERABILI.**

Horretaz gain, arau berberaren b) letrak dio *dagozkion lanak egin behar direla horretarako ezarritako epeetan, eta HIRI ETA ETXEBIZITZA BERRITZEKO UDAL AGENTZIAREN, S.A. IKUSKAPENAREKIN ETA KONTROLAREKIN.*

Era berean, Hiri eta Etxebizitzako Berritzen Agentziak S.A. interesatuak emandako proiektuak eta aurrekontuak egiaztatu behar zituen eta Laguntza egokien Behin-behineko Emakidan **EZARRITAKO ETAPAK ETA EPEAK BETETZEN ARI ZIRELA KONTROLATU ETA EXIJITU** (23 eta 25. artikulua). Honela dio:

- 2002ko azaroan Agentziari jakinarazi zitzaion obrak bukatu gabe zeudela. Gaurko egunean, oraindik bukatu gabe daude.
- Aurkeztutako azken idatzia (aurretik aipatu duguna) Aparejadorearen eta Arkitektoaren erreklamazio bat da, higiezinan egindako eta oraindik ordaindu ez diren lanak ordaintzeko.

#### *Ebazpena*

Uste dugu Hiri Berritzeko Agentziaren eginkizunetako bat diru-laguntzak ematen dituen etxebizitzak birgaitzeko obrak benetan egiten direla zaintzea dela, eta are gehiago, hiriko Alde Zaharra Birgaitzeko Planaren barruko proiektu bat denean.

Horrela aipatu du erreferentziazko ereduak: Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak ikuskatu eta kontratu beharko du edozein motako laguntza eman duen lanak egiten ari direla. **(18 a artikulua) Egoitza Eraikinak eta Etxebizitzak edo Isolatutako Merkataritza Lokalak Birgaitzeko, Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak ematen dituen Laguntza Ekonomikoak Araupetzen dituen Araua).**

Oraindik Aparejadorearen zerbitzu profesionalak ordaindu gabe egoteak argi uzten du anomalia larria egon dela egindako obretan, eta gure ustez, Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak ezin du gertaera hori baztertu.

Horregatik Eragintegi honi errebisatzea **GOMENDATU** diogu, aipatutako eskumenen ondorioetarako, Aiztogile kaleko Jabeen Erkidegoa birgaitzeko obrak emandako diru-laguntzaren espedientea eta jabe bakoitzaren espedientea, onuradunek dagozkien betebeharrak bete dituzten egiaztatzeko eta jasotako diru-laguntza ohikoa etxebizitza birgaitzeko erabili duten ziurtatzeko.

#### **b) Orientazioa**

- Etxebizitza garestia (Errg zk.: 216/03)

##### *Erreklamazioa*

Hiritar bat Bulego honetara joan da etxebizitza oso garestia izateak kezkatzen duelako eta informazioa eskatu du erakundeak arazo hau konpontzeko hartzen arin diren neurriei buruz.

##### *Azterketa*

Denbora batez Udalaren jarduna aztertu da, etxebizitzako politika desberdinak baloratzeko.

Azkenik, informazioa bidali diogu, eta horrekin batera aipatu diogu egungo gizartearen erronkarik nagusienetarikoa bat etxebizitza duin bat lortzea dela. Eskaintza eta eskaeraren arteko desorekak, eta azken urteotan, batez ere, egondako prezioen igoerak traba handiak jartzen dute hiritar askok eskubide hori lortu ahal izateko (batez ere gazteak).

Horri dagokionez, eta zehazki, Eusko Jaurlaritzak, bere Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saiaren bidez, hainbat neurri jarri du abian, desoreka horri aurre egin ahal izateko. Horien artean, azpimarratu behar dugu Lurzoruaren Euskal Legea eta Babes Ofizialeko Etxebizitzen eraikuntza (**BOE**), hala nola **Etxebide** bezalako zerbitzuen ezarpena. Aipatutako erakundeak babestutako etxebizitzaren atzipena gestionatzen du. Bestalde, **Bizigune** ere aipatu behar dugu, hau da hutsik dagoen etxebizitzaren atzipenaren gestorea. Hori guztia, Eusko Jaurlaritzak egin berri duen azterlan batean aipatutako erronkari aurre egiteko. Bertan, aipatzen da 100.000 etxebizitza berri gehiago inguru eraiki behar direla datorren hamar urtetan, Euskal Herrian.

Egoera hau konpontzen saiatzeko, Eusko Jaurlaritzak **Etxebizitzaren Plan Zuzendaria** planteatu du, baita Euskal Lurzoruaren Legea izenarekin ezagututa ere. Lege Proiektu honek azpimarratzen du lurzoruaren aprobetxamendua erabili behar dela babestutako etxebizitza eta lurzoruaren ondare publikorako.

Aipatu behar da 2002-2005 urterako Etxebizitzaren Plan Zuzendaria, bere ibilbidearen bi urtetan, helburu guztiak betetzen ari dela: urtez urte, eraikitzen ari diren

babestutako etxebizitzaren kopurua handitzen ari da, 2003.urte amaieran, merkatuaren kuotaren %40ra iritsi zen.

Gainera, azken bi urteotan, Arabako Batzar Nagusietan arau bat onetsi da. Beraren bidez, Ondasun Higiezinaren Zergaren (OHZ) %50a igo da hutsik dauden etxebizitzetarako eta etxebizitzaren inbertsioari onura fiskalak murrizten ari zaizkio espekulazioarekin bukatu ahal izateko, eta horrekin batera, etxebizitzaren prezioen igoerarekin.

Euskal Herria Espainian etxebizitza garestienak zituen erkidegoa izatetik bosgarrena izatera pasa da. Hori horrela izan da, besteak beste, eskaeraren zati bat etxebizitza asketik babestutako etxebizitzara bideratzen ari delako, eta horrela, eskaeraren presioak behera egiten du, prezioetan zuzeneko eragina eginez.

Zehazteko, udal mailan, jakinarazi behar diogu, **Vitoria-Gasteizeko Etxebizitza Bulegoak** bere gain hartzen dituela etxebizitzari buruzko hiriko aholkularitzari dagokion eskumen guztiak. Zerbitzu honek orokorrean eta pertsonalki barne hartzen ditu erosketa edo alokairuko prozesu guztia, lege eta izapidetzako, fiskalak, finantzarioak eta eraikuntzako alderdi guztiak aztertuz. Bere helburua higiezinaren merkatuen praktiketako etengabeko Behatoki bat bilakatzea da, Alde Zaharreko hotelen zerbitzua zerbitzua gero eta gehiago hobetzeko.

#### *Ebazpena*

Erabiltzailea etxebizitzaren prezio altuaren arazoa konpontzen saiatzeko dauden neurriei buruzko **ORIENTAZIOA** eman zaio.

- Etxebizitza birgaitzeko diru-laguntza (Erreg. zk.: 447/04)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun bat Sindiko Bulego honetara etorri da hiriko Alde Zaharrean duen bere etxebizitza birgaitzeko diru-laguntza jasotzeko buruz galdetzeko.

#### *Azterketa*

Edukitako elkarrizketan, aipatu digu bere asmoa DIRU-LAGUNTZA bat jasotzea dela Erkidegoaren elementu komunetan obrak egiteko, eta jakinarazi diogu egin dezakeela hurrengo alegazioei jarraiki:

1<sup>a</sup>.-2004ko irailaren 23an, lehen eskaera bat egin zuten eta Gune Historikoaren KONTSULTA gisa aztertu zuten.

2<sup>a</sup>.- Aipatutako KONTSULTAN esan zitzaizkien indarreko Erdi Aroko Aldeko BEPB-k etxebizitza "Intereseko Eraikin" gisa sailkatu duela (V.A.I.) eta berreskuratzen Ordenantza aplikatu behar zitzaizkiola (B.O.).

3<sup>a</sup>.- Hala ere, higiezinak bi altueretako atzera eramandako jasotze bat eta terraza-azalera dituen, biak kalera begira. Indarreko Plan Bereziak, horiek guztiak, jatorrizko hegalak desitxuratzen duten elementutzat jotzen ditu.

4<sup>a</sup>.- Eraikinaren zati bati bakarrik eragiten dio, gertaera honen arabera, (bakarrik atzera eramandako goiko bi solairuei), ezin da diru-laguntzarik lortu eraikinaren gainontzeko zatiarentzat, guztia Antolamendutik Kanpo gelditzen delako. Bi altuera horiek ezin diote eraikina osoari katerik egin, beraz, nolana ere, Planaren arabera Intereseko eraikina izaten jarraitzen du.

5<sup>a</sup>.- Hori guztia dela eta, birgaitze obrak egiteko diru-laguntza horiek bakarrik laugarren solairuraino eska daitezke, espresuki itxura aldatzen duten altuera horiek kanpo uzten dituztelako. Aipatutako altuera horiek, fatxaden lerrotik atzera eramaten direnez, banatu daitezke arkitektura eta ikuspegiari dagokionez, beraz, diru-laguntzak eskatu daitezke, honako honentarako:

- a) Diputazio kaleko fatxadaren saneamendua, laugarren solairurainoko behatokiaren elementu berekin egindako birgaitzea barne.
- b) Laugarren solairuko egiturako habearen ordezkapena higiezinoko segurtasunarengatik, (intereseko erakina dela gogoarazten dugu).
- c) Errementari kaleko fatxadaren saneamendua laugarren solairuraino.

6<sup>a</sup>.- Erreferentziatzko obren aurrekontuak aurkeztu.

Eta era horretan, ESKATU da intereseko erakinari buruzko laguntzen espedientea irekitzeko, eta horrela egiten ez bada, atzera bidaltzearen arrazoiak behar bezala azaltzeko.

#### *Ebazpena*

Horrela kontsultan ORIENTATU da.

#### **b) Jarduera/Esku-hartzea**

- Zaborren pilaketa Aiztogile kalean. (Erre. zk.:210/03)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko Alde Zaharreko Aiztogile kaleko bizilagun bat Auzoko Sindiko eta Defentsariaren Bulegora etorri da honakoa adierazteko: behe solairu batean bizi da eta bere etxebizitzako atzeko aldeak tutu batera begiratzen du. Bertan, zaborrak pilatzen dira eta ezin da aireztatu. Gainontzeko bizilagunek bere etxe ondoko tutuaren zati bat hartu dute, baina berari ez diote utzi. Gainontzekoa hormatuta dagoenez, Cespa enpresakoak bere etxetik pasa behar dira tutua garbitzeko.

Eskatu du Auzoko Sindiko eta Defentsariak bitartekotza egiteko arazoa konpontzeko eta bizilagunak tutuaren zati bat eskura izatea lortzea, zaborrak ez pilatzeko.

#### *Azterketa*

Auzoko Sindiko eta Defentsariak, kexa eginik bizilagunarekin hitz egin ondoren, Hiri Berrikuntzarako Eragintegiari informazioa eskatu dio Aiztogile kaleko tutuaren okupazioaren berri duen galdetzeko. CESPA enpresari informazioa eskatu zaio aipatutako tutua nola garbitzen duen adierazteko.



Agentziarekin bilera bat egiten da, eta bertan, aipatzen da proiektu bat dagoela tutura sartzeko. ARUko Zinegotzi Ordezkariari eta Udalari ere kontsulta egiten zaie horri buruzko informazioa eman dezaten.

Eragindako higiezinaren bizilagun batek udal tutuaren okupazioari buruzko informazioa ematen du.

Hirigintzako Zinegotziarekin hainbat bilera eduki eta Hiri Berrikuntzarako Eragintegiaren agindeiak egin ondoren, Vitoria-Gasteizeko Udaren txosten bat jaso genuen. Bertan, aipatzen zen hasi direla tutua inbaditzen duen solairu bateko egitura metaliko bat eraikitzen, kale horretan. Tuterako sarrera ia ezinezkoa da, urteen poderioz, bertako eraikuntza ugari okupatuz joan direlako. Obra gelditu da.

#### *Ebazpena*

Auzoko Sindiko eta Defentsariak erabiltzaileak planteatutako kexan **ESKUA HARTZEN** du, eta Udalari agindeia egiten dio arazoa konpontzeko eta obra gelditzen da.

- Dato kaleko eraikinaren birgaitzea (Erreg. zk.: 410/04)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko Dato kaleko biztanle bat bulegora etorri zen honakoa eskatzeko: Udalak Dato kaleko higiezin baten bizilagunen alde eskua hartzeko hura birgaitu ahal izateko.

#### *Azterketa*

Horrela, eta erabiltzailearekin hitz egin ondoren, jakinarazten zaio Vitoria-Gasteizeko Udalak, Eraikuntzen Araudi Juridikoaren Zerbitzuko teknikarien bidez, honako informazioen berri eman digula: dirudienez, eta azken ebazpenei jarraiki, Udalak teknikari baten txostena entregatuko du. Bertan, etxeko egurrezko egitura orokorra zundatuko da, batez ere, 4. solairuko teilatuaren forjatua.

Aipatutako txostena 2004ko abuztuaren 3an sartu zen Udalan, beraz, bizilagunekin harremanetan jarri ondoren, beharrezko laginak egiteko egunak zehazten ari dira, egitura nola dagoen ikusi ahal izateko.

Ikusi da bizilagunak beharrezko jarduerak burutzeko prest daudela, erakina birgaitu ahal izateko.

Sindiko bulego honek egindako izapideen eta bizilagunak adierazitako interesaren ondoren, Udala aldeko ebazpena egiten ari da.

#### *Ebazpena*

Jarduera erabiltzailearen eta Eragindako Zerbitzuaren arteko **ESKU-HARTZE** bat izan da.

- BOEren adjudikazioa minusbaliotasunarengatik (Erreg. zk.: 495/05))

#### *Erreklamazioa*

Erabiltzaile batek adierazi digu BOE bat adjudikatu ziotela seme minusbaliatua izateagatik, Alde Zaharreko bere pisuaren truke, eta orain ezin duela higiezin berriaren hipotekari aurre egin (berriaren prezioaren eta aurrekoaren tasazioaren arteko diferentzia).

#### *Azterketa*

Adierazi genion BOEn pisuak adjudikatzeko sistema ARAUPETZEN duen araudia, etxebizitza egokitzeko oinarritutako sektorearen **BOE Adjudikatzeko Oinarriak** direla.

OINARRI hauek irmoak dira eta ezin dira aldatu adjudikazioak egin ondoren. Horregatik Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak ezin du aurreko pisua eskainitako kopuruen gainetik baloratu, Oinarriak onesten dituen handienak direlako.

Aipatutako Oinarrietan, argi eta garbi adierazten da mota hauetako etxebizitzak sailkatzeko prozeduraren garapena, onuradunek zein betebeharrak dituzten eta zeintzuk diren Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak egin ditzakeen gehienezko eta gutxienezko balorazioak.

Hala ere, Hiri Berritze eta Etxebizitzaren Agentziarekin izandako elkarrizketaren ondoren, jakinarazi ziguten zure kasuan eragina izan dezaketean hainbat gai, horren ezaugarriak bereziak direlako.

Zure egoera berezi hori kontuan hartuta, dagoneko zure pisua OINARRIEK onesten dituzten gehienezko irizpideekin tasatu dela aintzat hartuta, hauxe bera da Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak egin dezakeena: erabilgarrien artean, adjudikatutakoa ez den beste etxebizitza bat aukeratzen uztea, hau da, balio gutxiko babes ofizialeko beste etxebizitza, aurre egin beharreko zama finantzarioak esfortzu ekonomiko gutxiago suposatu ahal izateko.

Uste dugu Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak zuzenbidearen eta erabakiaren arabera jardun duela, administrazioaren praktika onei jarraiki.

#### *Ebazpena*

Horrelako **ESKU-HARTZEA** egin du horri dagokionez.

#### **b) Gaitzespena**

- Erreklamazioa etxebizitzan izandako kalteengatik (Erreg. zk: 279/03)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek salatu du Errementari kaleko bizi den eraikina erortzeko zorian dagoela, bere etxe ondoko fatxadan hegal bat sendotzeko egin duten obraren ondorioz. Eskatu du Udalak berehala eraikina ikuskatzeko, egoera konpontzeko.

### *Azterketa*

Erabiltzaileak Auzoko Sindiko eta Defentsariarekin solasaldi bat eduki ondoren, eta kexa aztertu eta gero, gai honetan eskumena duen Hiri Berrikuntzarako Eragintegiari txosten bat eskatu zitzaion.

Agentzia honen Udal Arkitektoak espediente honi buruzko txostena aztertu ondoren, ikusi genuen, dirudienez, bizilagunek ezagutzen zutela eraikina arriskuan jartzen zuten kalte nagusiak: aurreko mendeko 50-60 urtetan erantsitako elementu bat eta ondoko eraikinaren obrak egin aurretik barruan zeuden bestelako kalteak.

Hori guztia ondorioztatu da arkitektoak kronologikoki zehaztutako nabaritasunak oinarri hartuta, 2000ko azaroaren 13an lehen ikuskapena egin zenetik 2003ko azaroaren 28an, Botatzeko Proiektu bat zegoela jakinarazi arte.

Kontsulta egin zenetik igarotako denbora eta eraikinaren egoera kontuan hartuta, ziur aski gertaera berriak egon dira, beraz, hobe da Bulego honetara berriro etortzea.

### *Ebazpena*

Hala ere, hasierako eskaera **BALIOGABETUTZAT JO DA** aurretik adierazitako arrazoiengatik.

- Gizarte Alokairuko Eskaera (Erreg. Zk.: 380/04)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko hiritar bat kexa bat adierazi du eta informazioa eskatu du beste etxebizitza bat alokatzeko aukerari buruz, izan ere, familiarekin bizi den oraingo etxebizitzaren egoera oso latza da. Eskatu du *egungo alokairu prezioaren antzekoa (480 €/hilabeteko) duen* beste etxebizitza bat. *Horretaz gain, etxe berria egoera berrietara egokitu behar da, ( seme-alaba berri bat bidean baitago), egungo etxebizitza hirugarren pisua delako, igogailurik gabe.*

### *Azterketa*

Erabiltzailea Bulego honek egindako deialdian agertzen da, xehetasun osoz, aurretik idatziz aurkeztutako salaketa azaltzeko. Bertan, adierazten du ez dagoela gustura egungo egoerarekin.

Sindiko Bulego honetatik aipatu behar diogu nabaria dela, egungo gizarteak aurre egin beharreko erronkarik zailenatariko bat dela denek etxebizitza duina izateko eskubidea betetzea. Eskaintza eta eskaeraren arteko desoreka eta azken urteotan, batez ere, egondako prezioen igoera direla eta, biztanle kopuru handiak ezin du eskubide hori aitortu (batez ere gazteak).

Horri dagokionez, erakundeek eta zehazki Eusko Jaurlaritzak, bere Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren bidez, hainbat neurri abian jarri ditu, desoreka horri aurre egiten saiatu ahal izateko. Horretarako, etxebizitza askea ematen ari da,

babestutako alokairuan jartzeko. Neurri horien artean **BIZIGUNE Programa** aipatu behar da: programa aitzindaria da Euskadin hutsik dauden etxebizitzak biltzeko eta merkatu askean etxebizitza bat erosteko baliabide ekonomiko adina ez duen jendearen eskura jartzeko. Ordainduko den gehienezko errenta ez da inoiz bizi-unitatearen diru-sarreraren %30a baino gehiago izango, eta gizarte etxebizitzaren alokairuko aukera honetan parte hartu ahal izateko, **Etxebiden** izena eman behar da eta bertan, aipatu behar da hutsik dagoen etxebizitzaren Programan parte hartu nahi dela. (*BIZIGUNEKO doaneko telefonoa: 900 251 251*)

Udal mailan, jakinarazi behar dizugu **Vitoria-Gasteizko Etxebizitza Bulegoak** bere gain hartzen dituela etxebizitzari buruzko hiriko aholkularitzari dagokion eskumen guztiak. Zerbitzu honek orokorrean eta pertsonalki barne hartzen ditu erosketak edo alokairuko prozesu guztia, lege eta izapidetzako, fiskalak, finantzarioak eta eraikuntzako alderdi guztiak aztertuz. Bere helburua higiezin merkatuen praktiketako etengabeko Behatoki bat bilakatzea da, gero eta gehiago hobetzeko. Bertan, Administrazio desberdinek (Estatukoak, Autonomikoak eta Tokikoak) etxebizitza bat erosteko, alokatzeko edo birgaitzeko ematen dituen laguntzei buruzko informazioa emango dute, eta bere helburua honakoan datza: etxebizitza bat alokairuan hartu nahi dutenak eta alokatu nahi dituzten etxebizitzaren jabeen arteko harremana sortzean. Horretarako jo dezake: *“Vitoria-Gasteizko Udalaren Etxebizitza Bulegora”, Espainia Plazan, 8 Behea bis.*

Azkenik jakinarazi behar diogu **VITALALQUILER** izeneko zerbitzu bat dagoela. Caja Vital-Kutzak gazteentzat prestatzen duen alokairuko etxebizitzaren sustapen bat da. Horri buruz, erakunde honek egin duen azken gestioa Vitoria-Gasteizko Udalari lurzoruko bi partzela erostea izan da Salburuan eta Zabalganen. Alokairuko etxeen sustapen berri hau osatzen duten 489 pisu horien batezbesteko errenta 250 € hileko inguru dira eta 35 urte beherakoentzat pentsatu da. Informazio gehiagorako, jo dezake *Caja Vital-Kutzak Vitoria-Gasteizen dituen edozein bulegora.*

*Esan diogun bezala, Vitoria-Gasteizko Udalak hainbat neurri du hiritarrek etxebizitza bat eskuratzeko aukera izateko, **baina ez du askatasun osoa pisuak egokitzerakoan.** Horregatik, **ezin dugu onetsi** Administrazio honi beste gizarte alokairuko pisu bat eskatzeko aurkeztutako kexa, izan ere, dagoeneko badaude erabiltzaileak aukeran dituen ekimen guztiak, mota horretako etxebizitzaren zozketetan parte hartzeko, egoera berberean dauden gainontzeko hiritar guztiek bezala.*

### *Ebazpena*

Hori dela eta, administrazioak behar bezala jardun du hiritarraren kexari dagokionez.

**EZIN DA ONETSI** erabiltzaileak aurkeztutako kexa,, behar bezala jardun duelako.

### c) **Baztertua/ Ez onartua**

- Hezetasunak BOE fatxadetan (Erreg. zk.: 311/03)

#### *Erreklamazioa*

Erabiltzaile bat Auzoko Sindiko eta Defentsari honen Bulegora etorri da salaketa bat jartzeko: Babes Ofizialeko hainbat etxebizitzaren fatxadetan hezetasun arazoak daude, eta horrenbestez, pisuen Enpresa sustatzaileari kalte-ordainak eskatzen dizkio bizioak ezkutatzegatik eta eraikuntzan desberdintasunak izateagatik. Horretaz gain, eskatu du Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak Enpresa Sustatzaileari agindei bat egiteko.

#### *Azterketa*

Horri dagokionez, erabiltzaileari jakinarazi diogu bere kexa baloratu eta ekarri zigun dokumentazioa aztertu ondoren, uste dugula kasua udal eskumenetatik kanpo gelditzen dela. Eta, batez ere, ulertzen dugu Hiri Berrikuntzarako Eragintegiaren betekizunen artean ez dagoela enpresa sustatzailearen betebeharrak betearaztea, hura jurisdikzio zibilaren aurrean exijitu beharrekoa baita, bidezkoa izanez gero.

Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak horrekiko helburu bakarra dauka: udal mugarteko etxebizitza banatzeko programa gestionatzea, bitartekaria besterik ez da partikularren eta etxebizitzaren enpresa sustatzailearen arteko salerosketan, baina ez da azken horien hausteez arduratzen.

Uste dugu ez dagoela zuzenean jardun dezakegun kexa zehatzik, beraz, ezin dugu baloratu kalte sortu dion Eragindako edozein Sail dagoenik.

#### *Ebazpena*

Auzoko Sindiko eta Defentsariari buruzko Araudiaren 26 d) artikulua arabera, ezin izan da kexarik izapidetu, bere eskumenaren kanpo dagoenelako. Beraz, kexa **ATZERA BOTA DA**.

- Hasierako eta Amaierako Aurrekontua Erakina Birgaitzeko (Erreg. zk.: 370/04)

#### *Erreklamazioa*

Sindiko Bulego honetan kexa bat jaso da. Horren bidez, salatu da **Babestutako Birgaitze Integratuaren** laguntza gisa, hasiera batean onartutako aurrekontu bat oinarri hartuta, erabiltzailea bizi den jabeen erkidegoak ur hartuneko obrak egin zituela higiezinan, eta hasierako aurrekontuan adierazitako kopurua igo zenez, obretan aldaketak egon zirelako, **amaieran ordaindu beharreko kopuruak ez du bat egiten hasierako aurrekontuan agertzen zenarekin, beraz, Udalak ez du bere gain diferentzia hori hartzen.**

#### *Azterketa*

Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumeneko sailburuordearen abenduko 26ko Aginduaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio laguntzak emateko baldintzak

betetzen direla errebisatzea. Aipatutako aginduak dio hasieran kopuru jakin bat zehaztu behar dela, ondoren, hori aldatu gabe.

Ulertzen dugu erabiltzaileak planteatu digun auzia, azken finean, Eusko Jaurlaritzak emandako araudiaren arabera dela, eta Udalak, aipatutako araudia betearazi besterik ezin duela egin.

Hori horrela izanik, ezin dugu esan Udal Sailik gaizki jardun duela, edozein kalte eraginaz.

Beraz, aurretik esandakoa dela eta, jakinarazi diogu, Auzoko Sindiko eta Defentsariari buruzko Araudiaren 26 d) artikulua arabera, *ezin dugula onetsi* planteatutako kexa, hurrengo arrazoiak dela eta:

*26. Art.*

...

*d) Bere eskumenetik kanpo dago*

...

*Ebazpena*

Beraz, kexa **ATZERA BOTA DA**.

**d) Itxita iraugitzeagatik**

- Etxebizitza truke, Nagusien Zentro bat eraikitzeagatik (Erreg. zk.: 235/03,325/04,326/04)

*Erreklamazioa*

Bi bizilagunek aipatu dute Vitoria-Gasteizeko Udalaren Hiri Berrikuntzarako Eragintegiarekin adostutako truke bat onetsita zutela, eta eten egin dela.

Informazioa eskatu dute, gaiaren egoerari buruz, patioaren jabeari buruz, eta trukeari dagokionez, Jabeen Erkidegoaren %60a izango balitz, erosteko prest egongo zirela aipatu dute. Horretaz gain, eskatu ditu Jabetza Horizontaleko Legearen arabera eskubideak.

*Azterketa*

Vitoria-Gasteizeko Udalak Nagusien Zentro bat eraikiko du Arriagako Atea kalean. Hura egiteko, ondoko etxebizitzetan eragina egingo du, beraz, Vitoria-Gasteizeko Udalaren Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak (hortaz arduratzen dena) eragindako bizilagunekin hitz egin du, euren etxebizitzak trukatzeko.

Erabiltzaileak etxebizitzak trukatzeko negoziazioak behar ez bezala egiten ari direla ikusirik, Auzoko Sindiko eta Defentsariaren Bulegora joan dira, bitartekotza egiteko. Horregatik, Udala eta eragindako bizilagunen artean egindako bilera batean, Sindiko Bulego hau begirale gisa egon da, bi alderdien artean etxebizitzak trukatzeko negoziazioak ikusteko.

Aurreko Memoriaren azken zatian, akordio batera iristeko gelditu ziren, beraz, kasua zabalik gelditu zen. Egun, itxi da IRAUNGI delako.

#### *Erreklamazioa*

Erabiltzaile bat Auzoko Sindiko eta Defentsariaren Bulego honetara etorri da zatitze fatxadetan hezetasun arazoak zeudela salatzen.

#### **2.3.11.3 TUVISA**

##### **a) Orientazioa**

- Autobuseko 9. Linea zabaldu (Erreg. zk. : 344/04)

#### *Erreklamazioa*

Erabiltzaile bat Bulego honetara etorri da bere kexa aurkezteko: Hiri Garraiobideko Zerbitzuak 9. Linea hobetu behar du, 500 metrotan zabalduz.

#### *Azterketa*

Berarekin izandako elkarrizketaren ondoren, jakinarazi diogu bertan egiten ari diren obrak eta aldaketak direla eta, ziur aski hiri autobusen ibilbidea aldatuko dela, beraz, uste dugu hobe dela itzarotea, erreforma nola gelditzen den ikusteko eta horren arabera jarduteko.

#### *Ebazpena*

Horrela **ORIENTATU** dugu erabiltzailea.

- Autobus geltoki berri baten eskera Euskaltzaindia plazan (Erreg. zk.: 300/03, 361/04,465/04)

#### *Erreklamazioa*

Hainbat bizilagunek kexa bat aurkeztu dute ez dagoelako autobus-geltokirik, Euskaltzaindia plazatik gertu, beraz, gaeuz gurutzatu behar da, eta horrek beldurra ematen die.

Eskatu dute beste geltokiak jartzeko Rafael Alberti kaleko hasieran edota bukaeran, Euskaltzaindia plaza ez gurutzatzeko.

#### *Azterketa*

Aurreko Memoria bukatzerakoan, espedientea zabalik zegoen. Baina, jakinarazi diegu, oraingoan, Vitoria-Gasteizeko Udalak sarritasunak jaitsi eta komunikabideak hobetu nahi dituela 2007. urtean sei linea berriak sortuz, Tranbiara egokitzeko. Horrek geltokiak eta ibilbideak aldatuko ditu.

TUVISA enpresaren Plan Zuzendariak hiru ibilbide berri jarri nahi ditu. Horien artean Laku-Unibertsitatekoa dago. Gainera, auzo berrien komunikazioa nagusi da dokumentu honetan, nahiz eta 2006. urtetik aurrera zerbitzu berriak izan, bertako biztanleen kopurua nabaria izango denean.

Hain zuzen ere, bere auzoari eragingo dioten 2007. urterako aurreikusitako bi lineak hauek izango dira: Salburua-Lakua: 12,5 Km , sarritasuna: 20 minutu eta Lakua-Unibertsitatea: 13,2 Km eta sarritasuna: 15 minutu.

### *Ebazpena*

Horrela erabiltzaileak **ORIENTATU** ditugu.

### **c) Gaitzespena**

- Diru-zorro txartelaren erreklamazioa (Erreg. zk : 386/04)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko bizilagun bat Bulego honetara etorri da eta eskatu du *lapurtzen edo galtzen diren TUVISA enpresaren diru-zorro txartelen diruaren xedeari buruzko informazioa. Hain zuzen ere, salatu du bere diru-zorro txartela lapurtu diotela 8 euroko saldoarekin eta diru-kopuru hori itzultzeko erreklamatzeko du.*

### *Azterketa*

Erabiltzailearekin izandako elkarrizketaren ondoren, eta egoera aztertuta, ondorioztatu dugu diru-zorroa elektronikoa diru kopuru txikiak ordaintzeko era bat dela, billete eta txanpon gutxiago erabiltzeko, eta modu seguru, arina eta eraginkorrean ordaindu ahal izateko. Txartel horiek txip bat dute, eta horiei esker, transakzioak egin daitezke oso modu errazean: bezeroak bere txartela kargatzen du bere bankuaren zerbitzarian, bere dirua diru-zorro “birtual” batera eramanez. Txartel hori erabiliko du txartel hori irakurtzen duen dispositibo batean ordaintzeko (TUVISA enpresaren billeteak saltzen dituen makina).

Horrela, txartel honen erabiltzaileak autobuseko billete bat erosi edo ordaindu nahi duenean, txartela sartzen du eta diru-kopuru zehatza lekualdatzen da bere diru-zorrotik zerbitzua eskaintzen dion garraio publikoaren dendara edo enpresara.

Erabiltzaileak prozesu hori jarraitu zuen Caja Vital-Kutxaren diru-zorro txartela kargatzeko, TUVISA enpresaren bonobusa gisa erabiltzeko, beraz, txartela galtzen edo lapurtzen badiote, diru hori esku-dirutan galdu edo lapurtu izan bazioten bezala izango da.



Kasu honetan ezin dugu esan udal jarduera zuzena ez denik, legearen eta administrazioaren praktika onen arabera izan baita: hiri autobusen TUVISA enpresak ez du onura bidegaberik atzeratzen diru-zorroak galtzen edo lapurtzen direnean, izan ere, txartel horiek garraio publikoan erabiltzeko eramaileen tituluak dira, beraz, TUVISA enpresak ezin du bere gain hartu aipatutako titulu horien galeren edo lapurreten erantzukizuna.

#### *Ebazpena*

Hori guztia dela eta, ezin dugu aurkeztutako kexa onetsi eta **ATZERA BOTA** da.

#### **2.3.11.4      21 ZABALGUNEA**

##### **a) Gaitzespena**

##### **b)**

- BOE Zozketen egokitze irizpideak (Erreg. zk. : 417/04)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko biztanle bat Bulego honetara etorri da zera salatzeko: *bere egoera Kooperatibako BOE zozketa batean parte hartu eta higiezin bat egokitu ondoren.*

#### *Azterketa*

Erabiltzaileak ekarri zigun dokumentazioa aztertu ondoren, eta gertaeren inguruan esandakoaren arabera:

\* Ekainaren 30ean, “Viviendas Alavesas” Kooperatibak Etxebizitzen zozketa egin zuen eta erabiltzaileari hirugarren postua egokitu zitzaion pisuetako bat adjudikatzeko itxaron zerrendan. Baina, zozketa aurretik, 2004ko ekainaren 17an, 21 Zabalguneko Batzordeak, dagoeneko, ezarrita zituen **behin betiko irizpideak** Gasteizen, azken 3 urtean erroldatuta izatearen baldintzak betetzen ez zituzten kooperatibistentzat: Vitoria-Gasteizen erroldatzeari dagozkion bi baldintza, eta berak, hasieratik betetzen ez dituenak, baldintza plegua aurkeztu zioten unean:

- *Gutxienez, azken urtean Gasteizen lan egitea.* Erabiltzaileak aitortzen du, lan arrazoiengatik Santikurutze-Kanpezu – Arabako Mendiko udalerrian erroldatu zela.
- *Maiatzaren 17an, Gasteizen erroldatuta egotea eta aipatutako udalerrian, gutxienez, azken hamar urtetako bost urtez erroldatuta egotea.* Erabiltzaileak egun horretan ez zegoen Vitoria-Gasteizen erroldatuta, Santikurutze-Kanpezun zegoelako. Eta denbora horretaz Gasteizen bizi izateak ez du esan nahi erroldatuta egon denik, aldi berean, bi lurraldeko onurak eskura izanik: bat erroldan agertzen dena: Santikurutze-Kanpezu eta, bestea bizi dena: Vitoria-Gasteiz.

Ulertzen dugu 21 Zabalguneko Zuzendaritza Batzordeak, baldintza plegua entregatzen zuenetik, zozketan parte hartzeko baldintzak ezartzen zituela: “Aurkezteko dokumentazioa: *Kooperatibista bakoitzaren eguneratutako errolda ziurtagiria edo dagokionean, erroldatzeko betebeharretik salbuesteko eskatu duen arrazoi justifikatua*”. Horregatik, nahiz eta berak beste baliabideen bidez frogatu Vitoria-Gasteizen bizi dela: *25 urte eta 2 hilabete Udal Erroldaren bidez egiaztatua (baina ez eskatutako datan) eta 5 urte eta 8 hilabete alokairu eta lan kontratuen bidez egiaztatuta*, ez da nahikoa Kooperatibaren BOE zozketan parte hartzeko, eta horietako pisu bat adjudikatzeko.

Esandako guztia dela eta, bere eskaera gaitzetsi dugu, **Ensanche 21 Zabalgune S. A. Kooperatibaren Administrazio Batzordeak eginiko babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan sartzeko irizpideak ez betetzeagatik. Beraz, bere jarduna indarreko legearen arabera izan da**, eta Administrazioaren esku-hartzea zuzena eta praktika onen arabera izan da, izan ere, zozketak egin AURRETIK ezarri dira horien adjudikazioduna izateko behin betiko baldintzak. Puntu honetan, jardueren hurrenkera kronologikoa erabakigarria da, horrek berak parte-hartzaile guztien segurtasun juridikoa bermatzen baitu.

Udalak babes publikoko pisuen adjudikazioduna izateko ezarritako beharrezko baldintzen ikuspuntutik, ulertzekoa da Erroldako baldintzak balio erabakigarria izatea, izan ere, baldintza formala izateaz gain, egoitza publikoko eta objektiboko aitorten bat da, eta horren aurrean, subjektiboak eta zirkunstantzialak izan zitezkeen iritziek ez dute lekurik.

*Ebazpena*

Horrela, ezin dugu kexa onartu, aipatutako arrazoiak direla eta, eta **GAITZESTU** egin dugu, baina, nolana ere, eskertzen diogu Auzoko Sindiko eta Defentsariaren erakunde honetan jarritako konfiantza.

Jakinarazi diogu gai honetan izandako jarduera amaitutzat jotzen dugula, gertaera berriak egiaztatuz gero, gestio berriak baztertu gabe.

- BOE Zozketaren baldintzen Plegua (Erreg. zk.: 425/04)

*Erreklamazioa*

Sindiko Bulego honetan kexa bat jaso da honakoa salatuz: *21 Zabalguneko Administrazio Batzordeak ez ditu zehaztu Kooperatiba araubidean BOE batera eskuratzeko baldintzak, eta eskatu du baldintza plegua entregatzen den unetik, BOE bat eskuratzeko baldintzak behar bezala argitzeko.*

*Azterketa*

Erabiltzaileak ekarri zigun dokumentazioa aztertu ondoren, eta gertaeren inguruan esandakoaren arabera:

1º) Lehenengo unean ohartarazi zitzaion ez zela onartu izan VITRA Kooperatibako etxebizitzaren bere eskaera, **ez zuelako erroldako baldintza betetzen**, beraz, une horretatik, baldintzen pleguaren 5. puntuak, dagoeneko, argi eta garbi azaltzen zituen zozketan parte hartzeko baldintzak: “ Aurkezteko dokumentazioa: *Kooperatibista bakoitzaren eguneratutako errolda ziurtagiria edo dagokionean, erroldatzeko betebeharretik salbuesteko eskatu duen arrazoi justifikatua*”.

2º) Ekainaren 3an, 21 Zabalgune Kooperatibak zera jakinarazi zion: “2004ko ekainaren 2an, *Elkarte honen Administrazio Batzordearen osoko bilkuran, aztertu zen entregatutako dokumentazioa eta lehen azterketa horretan honako irregulartasunak ikusi dira: C- Bestelako informazioa: 2004ko maiatzaren 17an, 3 urtetako erroldaren **baldintza ez betetzen duten kooperatibistak** eta aipatutako baldintzatik salbuesteko dokumenturen bat aurkeztu dutenak...*” Pertsona horien artean, erabiltzailea zegoen.

3º) 2004ko uztailaren 1ean higiezin zozketa egin zen eta VITRA EUSKADI S. Kooperatibak bertan parte hartzen utzi zion, eta pisu bata egokitu zitzaion, baina zozketa egunaren aurretik, 2004ko ekainaren 17an, 21 Zabalguneko Batzordeak, dagoeneko, behin betiko irizpideak ezarri zituen Gasteizen azken 3 urteko erroldaren baldintza betetzen ez zuten kooperatibistentzat. Hau da; Vitoria-Gasteizeko erroldari erreferentzia egiten dioten bi baldintza eta erabiltzaileak, baldintza plegua aurkeztu zioten unetik betetzen ez dituenak:

- *Gutxienez, azken urtea Vitoria-Gasteizen lan egitea.* Erabiltzaileak aitortzen du bere lana Oion udal mugartean dagoela.
- *Maiatzaren 17an, Gasteizen erroldatuta egotea eta, azken 10 urtetan, gutxienez, bost erroldatuta egotea.* Bera data horretan ez zegoen Vitoria-Gasteizen erroldatuta, Oionen baizik. Eta Gasteizeko hirian sufragio aktiboaren titularra izateak ez du esan nahi beharrezko baldintza betetzen duela.

Aurreko egoerak aztertu ondoren, uste dugu 21 Zabalgune S.A. Kooperatibaren Administrazio Batzordeak eginiko eskaera gaitzespena indarreko legearen arabera izan dela, eta Udal Administrazioaren jardueran, beraz, zuzena eta praktika onei jarraiki izan dela. Izan ere, zozketak egin AURRETIK ezarri dira horien adjudikazioduna izateko behin betiko baldintzak. Puntu honetan, jardueren hurrenkera kronologikoa erabakigarria da, horrek berak parte-hartzaile guztien segurtasun juridikoa bermatzen baitu. Gure ondorioa oso bestelakoa izango litzateke, adjudikaziorako behin betiko baldintzak ez balira behin betiko zozketak egin aurretik eman.

Udalak babes publikoko pisuen adjudikazioduna izateko ezarritako beharrezko baldintzen ikuspuntutik, ulertzekoa da Erroldako baldintzak balio erabakigarria izatea, izan ere, baldintza formala izateaz gain, egoitza publikoko eta objektiboko aitortpen bat da, eta horren aurrean, subjektiboak eta zirkunstantzialak izan zitezkeen iritziek ez dute lekurik.

*Ebazpena*

Horrela, erabiltzailearen kexa **GAITZETSI** dugu.

- Ez da minusbaliatuentzako plaza erreserbatzen Kooperatiban (Erreg. zk.: 496/05)

#### *Erreklamazioa*

Bulego honetan kexa bat jaso da, honakoa salatzeko: *Atxondo S. Coop. kooperatibaren kooperatibista gisako etxebizitza bat adjudikatu ondoren, 21 Zabalguneko Udal Agentziara dokumentazioa entregatzerakoan, ikusi zuten ez zirela minusbaliatuen plazak erreserbatu eta bere adjudikazioa atzera botata dute.*

#### *Azterketa*

Horri dagokionez, jakinarazi diogu minusbaliatuen plaza, mota honetako zozketetan derrigorrezkoa dela eta horrela ezartzen du 21 Zabalguneko Udal Elkarteak.

Etxebizitzen Kooperatiba sustatzailea bera da erreserba hori bete behar duen alderdia.

Aipatutakoaren arabera, ulertzen dugu ezin dugula aurkeztutako kexa onetsi, administrazioaren jardura zuzenbidearen eta praktika onen arabera izan delako.

Hala ere, egia da, zure kexan argi eta garbi ikusten dela Atxondo etxebizitzen kooperatibak ez duela betekizun bat bete, izan ere, bera sustatzailea den aldetik berak egiaztatu behar du minusbaliatuen etxebizitza erreserbatu dela zozketa egin baino lehen.

#### *Ebazpena*

Horrela **GAITZETSI DA** aurkeztutako kexa.

#### **c) Erabiltzaileak itxita**

- Kooperatibaren Arkupea lauzatu (Erreg. zk.: 470/04)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko biztanle bat Bulego honetara etorri da zera salatzeko: *gehiegizkoak izan dira Askarza Kooperatibari adjudikatutako Salburua 8. sektoreko M7S partzelan kokatutako etxebizitzen arkupea lauzatzeko kostuak.*

#### *Azterketa*

Horri buruzko Gomendio bat egiten hasi ginen, baina, erabiltzaileak eskatu zigun kasua eten egiteko.

#### *Ebazpena*

Horregatik **ITXI DUGU, ERABILTZAILERAK ESKATUTA.**

### **2.3.12 INONGO SAILERA ATXIKI GABEKO ZERBITZUAK**

#### **2.3.12.1 ZERBITZU JURIDIKOA**

## **a) Gaitzespena**

- Desberdintasunak Vitoria-Gasteizeko parking desberdinetara sartzeko (Erreg. zk.: 301-03)

### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek honako kexa jarri du: baldintza desberdinak dago Vitoria-Gasteizeko parking desberdinetara sartzeko.

Eskatu du baldintza berdinak jartzeko, eskuratu nahi den parking plaza edozein dela ere.

### *Azterketa*

Vitoria-Gasteizeko aparkalekuek eskuratzeko sistema desberdinak dituzte aparkalekuko plazak erosterakoan edo lagatzerakoan. Aparkalekuko plaza erosteko sistema desberdina da, bakoitzarentzat sinatutako Hitzarmenaren arabera.

Aurreko Memoria bukatzerakoan, espedienteaz aztertzeke gelditu zen, beraz, kasua zabalik dago. Baina Memoria honetan itxi da, era honetan:

## **1.- Kasuaren aurkezpena**

Hiritar batek adierazi du ez dela bidezkoa Zaldiaraneko parking plaza bat eskuratzeko hipotekaren finantza tresna erabiltzeko aukera ez egotea, eta, Udalak ere sustatutako hiriko beste parkingetan, berriz, badagoela.

## **2.- Gai juridikoak**

Planteatutako kexa oso interesgarria da eragindako pertsonentzat, izan ere, hipoteka bat eskuratzeko aukerak finantzazio errazagoa eta abantaila gehiago sortzen ditu..

Kontsultak egin ditugu Udalaren zerbitzu juridikoekin, enpresa pribatuekin eta TUVISA enpresarekin, eta esan dezakegu traba juridiko bat dagoela, eta horregatik ezin dutela eragindako eskaera onartu. Dirudienez, traba hori gaindiezina da.

Hipoteka bermea legalki araupetuta dago Hipoteka Legearen arabera. Honakoa dio:

106 artikulua.

*Hipotekatuko dira::*

1. *Inskribatu daitezkeen ondasun higiezinak.*
2. *Inorendu daitezkeen benetako eskubideak, ondasun horiei buruzko lege eta zergen arabera.*

107. artikulua.

*Horietaz gain, hipotekatuko dira:*

*Usufuktu eskubidea, hipoteka iraungi denean, usufuktu bera amaitzen denean, usufukitudunaren nahiaz kanpoko gertaera batengatik. Berak nahi duelako bukatuko balitz, hipoteka bere horretan mantenduko litzateke aseguratutako eginkizuna bete arte edo amaitu zuen gertaera eman izan ez balitz, usufuktu bukatuko zitzakeen epea amaitu arte.*

1. *Jabetza bera, horrelakoetan, usufuktua horrekin batera finkatuko balitz jabearengan, hipoteka mantentzeaz gain, usufuktu bertara zabalduko da, kontrakoa esan izan ezik.*
2. *Aurretik hipotekatutako ondasunak, berriro ez hipotekatzeko itunarekin egon arren.*
3. *Nahitaezko hipotekaren eskubidea, baina horren gainean eraikitzen den hipoteka eskubide beraren ebazpenaren menpe geldituz.*
4. *Azalera, larre, ura, egur eta izaera errealeko antzekoen eskubideak.*
5. *Meategien, trenbideen, ubideen, zubien eta zerbitzu publikoetan erabilitako administrazio emakidak, eta aipatutako zerbitzurako zuzenean soilik ez erabili arren, jabari publikoko eraikinak edo lurraldeak, obra horietara erantsita baldin badaude. Lehen kasuan, hipoteka emakidunaren eskubidearen ebazpenaren menpe gelditzen da.*
6. *Atzeratzeko itunarekin edo grazi kartarekin erositako ondasunak, erosleak edo bere kausadunak hipoteka mugatzen badu salmentan ebaztekotan, jaso beharreko kopurura, saltzaileari kontratuaren berri emanez, hartara, ondasunak atzera botatzen badira, hipoteka amaitu baino lehen, prezioa ez du itzuliko hartzekodunak jakin gabe, eta horretarako, agindu judiziala oinarri hartu gabe.*
7. *Atzeragin konbentzionalerako eskubidea. Hala ere, hartzekodunak ezingo du hipotekatutako ondasunak errepikatu aurretik zordunaren izenean atzera egin gabe, eskubidea duen denboran eta horretarako beharrezkoa zen kopurua aurreratuz.*

*Saltzaileak atzera egiteko eskubidea aitortzen badu, hipotekak bere horretan mantentzeaz gain, zuzenean, saltzailearengan eroriko da atzera egindako ondasunen pisua.*

8. *Auzitan dauden ondasunak, auziaren jatorrizko salaketa prebentiboki egin bada, edo inskripzioan aipatzen baldin bada hartzekodunak auziaren berri zuela, baina bi kasuetan, hipoteka auziaren ebazpenaren menpe geldituko da.*
9. *Ebazpen zehatzen baldintzen menpeko ondasunak. Hipoteka iraungiko da hipoteka egin duenaren eskubidea ebazterakoan.*
10. *Jabetza horizontaleko araubidean dauden eraikin baten pisuak edo lokalak, [8 artikulua](#) zehazten duen arabera inskribatuta.*
11. *Prozedura judizial batean enkantean emandako higiezinetan errematatzaileak duen eskubidea. Errematatzailearen prezioa ordaindu eta jabaria errematatzailearen alde inskribatu ondoren, hipoteka iraungiko da, pisua adjudikatutako ondasunetan zuzenean eroriz.*

108. artikulua. *Ezingo dira hipotekatu:*

1. *Zortasunak, prezio menperatzailearekin batera hipotekatzen ez badira, eta edozein kasutan, uretakoa izan ezik. Hura hipotekatu ahal izango da.*
2. *Usufuktu legalak, [Kode Zibilak](#) hildako ezkontideari emandakoa izan ezik.*
3. *Erabilera eta logela.*

### 3.- ONDORIOA

Lehen ondorioa honakoan datza: parking plaza erabiltzeko eskubidea, bere izaerarengatik, ezin da hipotekatu, eta are gehiago aldi baterako eta prezio txikiagoa bada. Zenbait kasutan, arazo hau konpondu da ADMINISTRAZIO EMAKIDA bat tartean dagoenean, eta beti ere, dagokion Erregistroak onartzen badu titular bakoitzak Emakidaren zati baten titularrak dela, emakidak hipotekatu daitezkeelako.

Zaldiaraneko Parkingaren kasuan, udal jabetzaren higiezin bat denez, eta horren gainean ez denez Administrazio Emakidarik arbitratzen, ezin da hipoteka bermerik onetsi erabileraren gainean.

*Aipatutako guztiarengatik, planteatutako arazoa ulertu arren, esan behar dugu udal jarduera eskubidearen arabera dela eta ezin dela beste jarduerarik exijitu, horretarako baliabide legalik ez dagoelako.*

Planteatutako kexa **GAITZETSI** egin da.

#### 2.3.13 BESTELAKOAK

##### a) **Baztertua**

- Arazoak berogailuarekin (Erreg. zk.:482/04)

### **Erreklamazioa**

Hiritar batek zera salatu du: bizi den Erkidegoko ikatzeko berogailua matxuratu zaio eta suhiltzaileak etorri behar izan ziren. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzak sistema itxi egin du.

### *Azterketa*

Aurkeztutako idatzia aztertu ondoren, aipatu diegu, kasua Sindiko Bulego honen eskumenetik kanpo gelditzen dela. Beraz, Auzoko Sindiko eta Defentsariaren 26 D) artikulua araberara, ezin dugu eskatutakoa onartu, ez baitago gure eskumen barne.

### Ebazpena

Aurkeztutako kexa **GAITZETSI** egin da.

## **3. PROZESUAN DAUDEN ESPDIENTEAK, MEMORIA HONETAN IREKITAKOAK**

Memoria hau ixterakoan, ikusi zen hainbat espediente, nahiz eta garai horretan ireki, itxi gabe gelditzen zela, arrazoi desberdinengatik. Arrazoi nagusia Udal Zerbitzuei edo Sailei eskatutako txostenen zain egotea da.

Ondoren, zabalik jarraitzen duten espedienteak biltzen dira, ixteko jardueraren baten zain daudenak:

- Alde Zaharreko Aparkalekua (Erreg. zk.: 388/04)

### *Erreklamazioa*

Alde Zaharreko bizilagun bat gure Bulegora joan da bere ibilgailua etxeo inguruetan aparkatzea izugarrizko arazoa dela aipatzeko.

Eskatu du Alde Zaharreko aparkalekua pribatizatzeko, bertan bizi direnek bakarrik erabili ahal izateko.

### *Azterketa*

Bere kasua aztertu eta TAO sistemaren berrikuntza errebisatu ondoren, Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko buruekin solasaldi bat izan da gaia aztertzeko.

### *Ebazpena*

Memoria hau ixterakoan BEPB planaren azterketen bilakaeraren zain dago, horregatik espediente zabalik gelditzen da.



- Telefono linea puskatzen duen udal obra (Erreg. zk.: 390/04)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek salatu du ezin duela Santa Ana Kantoia kaleko bere etxean telefono linea bat eduki, bertako Zaborren Bilketa Pneumatikoa instalatzeko obra egin zenetik.

#### *Azterketa*

Sindikoak Ingurumen Sailari informazioa eskatu dio 2003ko martxoan aipatutako obrak egin zituen enpresari buruz, eta bizilagunari eskaini dakioken aukerari buruz, egoera hori konpontzeko, enpresa hori arazoaren erantzulea izanez gero.

Sail honek jakinarazi digu obra hori ezagutzen duela, baina ez dakiela kanalizazioa egin zuen enpresa Udalak kontratatutakoa den edo azken horrek bakarrik jarduera lizentzia eman zion.

Horregatik, informazio hori Hiri Berrikuntzarako Eragintegiari eskatu diogu, eta horrek jakinarazi digu ez duela ezagutzen gai horren izapidetzearen egungo egoera, Udalaren Bide Publikoaren Sailak UTE batekin egin zuen obra bat delako. Eta *“Ingurumen Udal Sailari eta bere garaian, aipatutako obrak gestionatzeaz eta ikuskatzeaz arduratzen den Zerbitzu Arduradunari horren berri eman zitzaizela”*.

Ikusi da Sailek eta Zerbitzuek gaia deribatzen dutela erantzun argi bat eduki gabe.

#### *Ebazpena*

Horrela, erabiltzailearen agindeiaren zain gelditzen gara bildutako informazioa eta geroago garairi buruz egindako azterketa bat entregatzeko.

Memoria hau bukatu dela, espedientea zabalik gelditu da.

- CETIC-ren ikastaro baterako eskatutako dokumentazioa (Erreg. zk.: 427/04)

#### *Erreklamazioa*

Erabiltzaile bat guregana etorri da honakoa adieraziz: CETIC-en ikastaro batean aurkeztu denean, bere eskaera osatzeko, dokumentazio jakin baten kopia eskatu zaio. Berak uste du dokumentazio hori erakustearekin nahikoa dela, baina hala ere, informazio hori kopiatu behar du.

#### *Azterketa*

Bizilagunarekin edukitako solasaldi baten ondoren, egokitzen jotzen da Datuen Babesaren Euskal Agentziaren Zuzendariarekin horri buruz hitz egitea. Zuzendariak aukeran dauden soluzioei buruz orientatu gaitu.

#### *Ebazpena*

Memoria hau bukatu dela, espedientea ekarritako soluzioak aztertzeko zain gelditzen da.

- Goi Tentsioko Dorreak Lakuabizkarran (Erreg. zk.: 432/04, 433/04)

#### *Erreklamazioa*

Hainbat bizilagunek konponbideak eskatu du Lakuabizkarrako goi tentsioko dorreen arazoa konpontzeko.

#### *Azterketa*

Euren auzoko goi tentsioko dorrek sortzen dituzten anomaliak salatzen dituzten eskatzaileek adierazitako gertaeren arabera, Ingurumen Saileko Zuzendariari gari horren berri eman diogu.

Sail honetan jakinarazi digute hainbat neurketa burutzen ari direla gai honen inguruan egon daitezkeen anomaliak ikusteko. Neurketak eguraldiaren edota unean dagoen poluzioaren arabera aldatuko dira, beraz, aldian-aldian jarraipen eta kontrol bat egin behar da azken ondorioak fidagarriak izan daitezen.

Adierazi digute ordura arte egindako neurketak kutsaduraren mugatik behera daudela.

#### *Ebazpena*

Memoria hau itxi dela, espedientea aipatutako azterketa jasotzearen zain gelditzen da.

- Bere etxe ondoko inhibitzaileek sortutako trabak (Erreg. zk.: 449/04)

#### *Erreklamazioa*

Hiritar batek adierazi du bere etxebizitza traba fisiologikoak dituela, eta uste duela gertu daukan potentzia handiko telefoniako antena batek edo frekuentzia inhibitzaileek sortuta direla.

#### *Azterketa*

Ingurumen Sailari eskatu diogu aipatutako guneko mota horretako aparatuen erregistroari buruzko informazioa.

*Ebazpena*

Eskatutako txostena jasotzearen zain gaude. Horrela, espedientea zabalik gelditu da, Memoria hau bukatu dela.

- Txakurrak haurrentzako bakarrik diren parkeetan. (Erreg. zk.: 455/04)

*Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko bizilagun batek salatu du txakurrak daudela hori debekatzen duten parke publikoetan.

*Azterketa*

Parkeen eta Lorategien Zerbitzuari eskatu diogu parke hauei eta horien kokapenari buruzko informazioa.

Aipatu digute, egun ezaugarri hauetako bi gune daudela: Etxanobetarren Parkea eta La Magdalena Parkea. Horietan, erabilera erregulatuta dago.

Udaltzaingoari eskatu diogu aipatutako parkeetan jarritako salaketei buruzko txosten bat.

*Ebazpena*

Eskatutako txostena jasotzearen zain gaude. Beraz, espedientea zabalik gelditzen da, Memoria hau bukatu dela.

- Pintoneria kalean ibiltzen diren ibilgailuen abiadura (Erreg. zk.: 457/04)

*Erreklamazioa*

Bizilagun batek kexa bat jarri du, Alde Zaharreko Pintoneria kaletik ibiltzen diren ibilgailuen abiaduran handiari buruz.

*Azterketa*

Gunea ikuskatu dugu.

*Ebazpena*

Memoria hau itxi dela, BEPB planari buruzko azterketen bilakatzearen zain dago, beraz, espedientea zabalik gelditu da.

- Santa Ana Kantoiaren eskailerak (Erreg. zk.: 458/04)

*Erreklamazioa*

Santa Ana eta Parral kantoietako bizilagun batek salatu du ez dagoela arrapalarik umeen sehaskatxo eramateko.

*Azterketa*

Gunea ikuskatu dugu.

*Ebazpena*

Memoria hau bukatu dela, BEPB planaren azterketaren bilakaeraren zain dago, beraz, espedientea zabalik gelditu da.

- Erorketa gizarte etxean (Erreg. z.: 461/04)

*Erreklamazioa*

Erabiltzaile bat erori zen gizarte etxe baten aldageletan, kutxatila bat gaizki jarrita zegoelako. Horren ondorioz, zauri larriak izan zituen.

2004ko ekainaren 17an, ebazpen bat egin zen erabiltzailek Vitoria-Gasteizeko Udalan aurkeztutako Ondare Erantzukizuneko idatziari erantzuteko, eta entregatu zuen 2004ko uztailaren 9an eskatu zitzaion dokumentazioa (Ondare Erantzukizuneko Unitatea, kalteen erreklamazioa).

Erabiltzaileak aldeko gomendioa eskatu du, kalte-ordaina jaso ahal izateko.

*Azterketa*

Aztertu dira bere eskaerako aukerako konponbideak.

*Ebazpena*

Memoria hau itxi dela, espedientea zabalik gelditu da, egon daitekeen gomendio baten zain.

- Gune arriskutsua Lovaina Plazaren zirkulazioan (Erreg. zk.: 466/04)

### *Erreklamazioa*

Bizilagun bat Auzoko Sindiko eta Defentsari bulegora etorri da bere arazoa adierazteko: Lovaina Plazako “behin-behineko” autobus geltokia (Marianisten Eskolatik gertu) arriskutsua da eta Katedraleko Parkingaren sarrerak zailtasunak ditu.

Aukerak eskatu ditu arrisku gune hori ekiditeko.

### *Azterketa*

Bere eskaera konpontzeko hainbat aukera aztertzen da.

### *Ebazpena*

Memoria hau bukatu dela, espedientea zabalik gelditu da egon daitekeen gomendio baten zain.

- Jabeen Erkidegoen tutueriak libratzeko gastuak (Erreg. zk.: 477/04)

### *Erreklamazioa*

Kaltetutako bizilagunak Sindiko Bulego honetara etorri dira *Udalari zera eskatzeko: bere Jabeen Erkidegoko atarien tutueriak libratzeko gastuetan kolaboratzeko. Gorotz-uretako hustubideko tutueria horiek urez bete ziren, Errege kaleko 21. zenbakiko bere Erkidegoaren sotoan izandako uholdearen ondorioz.*

### *Azterketa*

Eskatu dute inplikaturako atariek edo Udalak berak sortutako gastuak euren gain hartzeko.

### *Ebazpena*

Memoria hau bukatu dela, espedientea zabalik gelditu da, aukerako ebazpen baten zain.

- Bide gune baten konponketa Galizia kalean (Erreg. zk.: 478/04)

### *Erreklamazioa*

Erabiltzaile batek adierazi digu Udalak ez duela bere gain hartzen udal eskumenekoa den bide gune baten konponketa.

*Azterketa*

Bide Publikoaren Zerbitzuko Buruarekin bilera bat egin zen, horri buruzko informazioa eskatzeko.

*Ebazpena*

Jasotako informazioarekin, Memoria hau bukatu dela, espedientea zabalik gelditu da egon daitekeen gomendio baten zain.

- LEPeK exijitutako funtzioak eta baldintzak (Erreg. zk.: 485/04)

*Erreklamazioa*

Erabiltzaile batek adierazi du Udalako LEP-etan ezin duela plaza batean baino gehiago parte hartu okerreko titulazioa eskatu dutelako.

Eskatu du LPZ aldatzeko, berezko titulazioa sartzeko.

*Azterketa*

Erabiltzaileak titulazio desberdinen azterketa entregatzearen zain gaude.

*Ebazpena*

Memoria hau itxi dela, espedientea zabalik gelditu da.

- Zaratak bizigarritasun lizentziarik ez duen lonjan (Erreg. zk.: 489/05)

*Erreklamazioa*

Bizilagun batek salatu ditu bizigarritasun lizentziarik ez duen biltegi zahar batetik sortzen ari diren zaratak.

*Azterketa*

Egoera aztertzen ari da.

*Ebazpena*

Memoria hau itxi dela, espedientea zabalik gelditu da.

- Zaratak Vertigo tabernan (Erreg. zk.: 492/05)

*Erreklamazioa*

Hainbat bizilagunek keak aurkeztu ditu Vertigo Tabernan sortzen diren zaratei buruz.

*Azterketa*

Ingurumen Sailari ahoz eskatu zaio aipatutako lokalean egindako esku-hartzei buruzko txosten bat.

*Ebazpena*

Memoria hau itxi dela, espedientea zabalik gelditu da, eskatutako txostenaren zain.

- Zaratek Barrancal Meskitan (Erreg. zk.: 493/05)

*Erreklamazioa*

Barrancal kaleko meskita kokatuta dagoen higiezinaren bizilagunen erkidegoak salatu ditu etengabe sortzen diren zaratak. Horiek uste dute zaratak meskitan egiten diren otoitzetatik datozela.

*Azterketa*

Elkarrizketara joan zen pertsonak ez zuen ezagutzen zarata sortzen zen ordutegi zehatza, horregatik, informazio hori jasotzearen zain gelditu gara.

*Ebazpena*

Memoria hau itxi dela, espedientea zabalik gelditu da, erabiltzailearen informazioaren zain.

- Euskaltel Enpresa Instalatzeko Proiektua (Erreg. zk.: 497/05)

*Erreklamazioa*

Bizilagun batek informazioa eskatu du Euskaltel instalatzeko proiektu teknikoari buruz eta bizi den gunean egingo diren Materialen Memoria.

*Azterketa*

Bide Publikoko Sailera txostena eskatu zaio eta honek bidali digu.

### *Ebazpena*

Memoria hau itxi dela, espedientea zabalik gelditu da, jasotako Proiektua aztertzearen zain.

- Minusbaliatuek aparkatzeko gunea (Erreg.zkia.: 499/05)

### *Erreklamazioa*

Hiritar bat kexa bat adierazi du honakoari buruz: dagoeneko, bere garaian salatu zuen bere etxebizitzaren inguruetan, Barrenkale Berria kalean, ez dago minusbaliatuek aparkatzeko plazarik. Eskatu zituen baina ez du horri buruzko erantzunik jaso.

### *Azterketa*

Hirigintza Sailari txostena eskatu zaio erabiltzaileak emandako informazioa egiaztatzeko.

### *Ebazpena*

Memoria hau itxi dela, espedientea zabalik gelditu da, txostena jasotzearen zain.

- Usoek eragindako trabak (Erreg. zk.: 503/05)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizeko bizilagun batek salatu du usoak daudela bere etxe azpian dagoen Pikolin-en lonjaren sabaian, eta oso zarata eta usain desatseginak sortzen dituztela, bizilagunei eta oinezkoei trabak eraginez.

Eskatu du Paraguay kaleko ingura garbitzeko eta usoei pasatzen eta habia egiten uzten dien zuloak ixteko.

### *Azterketa*

Demsac-i txostena eskatu zaio hiriko usoen errolda ezagutzeko eta gertaera horren berririk duten galdetzeko. Aipatutako txostena jaso da.

### *Ebazpena*

Memoria hau itxi dela, espedientea zabalik gelditu da, txostena aztertzearen zain.

- Prostituzio-etxe klandestinoak Gasteiz Etorbidean (Erreg. zk.: 504/05)

### *Erreklamazioa*



Gasteiz Etorbideko higiezin baten Jabeen Erkidegoak etxebizitza batean sortzen ari diren trabak eta zaratak salatu dituzte. Bertan, dirudienez, prostituzioan jarduten ari dira.

#### *Azterketa*

Udaltzaingoari txosten bat eskatu zaio, egoerari buruzko datuak eskuratzeko eta salatutako pisuan garatzen diren jardueren berri izateko.

#### *Ebazpena*

Memoria hau itxi dela, espedientea zabalik gelditu da, eskatutako txostena jasotzearen zain.

- Eraitsitako eraikina Hedegile kalean (Erreg. zk.: 507/05)

#### *Erreklamazioa*

Hedegile kaleko higiezin baten Jabeen Erkidegoak salatu du 2003. urtetik, ondoko eraikina eraitsi zenetik, euren etxebizitzetan datu asko sortzen ari direla.

Eskatu dute eraikinaren egoerari buruzko informazioa eta Udalak kasu honetan duen erantzukizuna zein den jakin nahi dute.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileekin hainbat solasaldi izan ondoren, kasuarekin aurrera egin ahal izateko hainbat informazio jasotzearen zain gelditzen gara.

#### *Ebazpena*

Memoria hau itxi dela, espedientea zabalik gelditu da, kaltetutako bizilagunen informazioaren zain.

- Isuna zama-lanetarako gunean aparkatzeagatik (Erreg. zk.: 508/05)

#### *Erreklamazioa*

Olagibel kaleko bizilagun batek kexa bat jarri du honakoa adierazteko: TAOko bere gunean aparkatzeko leku gutxi daudenez, baimendutako ibilgailuetako zama-lanetarako gunean aparkatu behar du.

#### *Azterketa*

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuari txosten bat eskatu diogu, erabiltzaileari Vitoria-Gasteizeko TAO gunek berriro antolatzeari buruz etorkizunean egingo den azterketa erakutsi ahal izateko.

#### *Ebazpena*

Memoria hau itxi dela, espedientea zabalik dago, aipatutako txosten hori jasotzearen zain.

#### **4. PROZESUAN DAUDEN ESPEDIENTEAK, AURREKO MEMORIETATIK BERRIZ IREKITAKOAK**

Memoria honetan, aurreko Memorian itxi ziren espedienteak berriro ireki dira, ia guztietan, erabiltzaileek beraiek eskatuta.

Espediente hauek zabalik jarraitzen dute, eragindako Sailei eskatutako txostenak jasotzearen zain, Bulego honek azterketa sakon bat egitearen zain, erabiltzaileek entregatu beharreko dokumentazio berria jasotzearen zain:

- Bide publikoaren inbasioa merkataritza helburuekin (Erreg. zk.: 152-03)

#### **Erreklamazioa**

Bizilagun bat Auzoko Sindiko eta Defentsariaren bulegora joan da, talde baten ordeztan, bere kexa adierazteko: ibilgailuak saldu eta erosteko kontzesionario bat dago, eta bertako ibilgailuek aparkatzeko gune publikoa okupatzen dute, erakusteko eta saltzeko jartzen dituztenean. Erakunde honi eskatu dio neurri egokiak burutzeko egoera horri amaiera emateko.

#### **Azterketa**

Erabiltzaileak Auzoko Sindiko eta Defentsariarekin solasaldi bat izan ondoren, gunean ikuskapen-bisita bat egin da, eta kexa aurkeztu duen erabiltzaileak esandakoa egiaztatu da.

Udaltzaingoari eta Bide Publikoaren Zerbitzuari txosten bat eskatu zaio, establezimendu horrek dituen isunei eta jarduera-motari buruz.

Eskatutako informazioa jaso da eta kasuak eragindako bizilagunen hiru ordezkariekin solasaldi bat izan da. Aipatutako bileran, honakoa orientatu zaie: salaketako idatzi lagundu bat Bide Publikoaren Zerbitzura bidaltzea, Udalaren Erregistroan aurkeztu ahal izateko. Beraz, horren jarraipenaren zain gelditu da.

#### **Ebazpena**

**ORIENTAZIO** bat egin da Udalaren Erregistroan aurkeztu beharreko idatzi lagundua idazterakoan. Kasua aztertzeke gelditzen da.

Hiritar horrek Vitoria-Gasteizeko Udalean idatzia aurkeztu ondorengo hiru hilabetetan, Bide Publiko Zerbitzuak Udaltzaingoak idatzitako txosten bat bidali zuen.

Txostena Udaltzaingoaren esku-hartzeri buruzkoa da, bide publikoan salgai eta erakusgai dauden ibilgailuak aparkatzeari dagokionez. Aipatutako txostenak dio esku-hartze bat baino gehiago burutzen egon dela. Bestalde, bulegotik jarraipen bat egiten da, ikuskapen baten bidez, eta argazkiekin egiaztatu da salgai dauden ibilgailuak gune publikoan aparkatzen jarraitzen dutela. Horregatik, salaketako **GOMENDIO** bat egiten zaio AIXAM AUTOMOVILES enpresari, erakusgai eta salgai dauden ibilgailuak gune publikoan aparkatzeagatik eta hura okupatzeagatik.

Udaltzaingoak eta Ogasun Sailak Gomendioa erantzun digute, **osoa ONETSIZ**. Hain zuzen ere, hauek dira aurreikusitako jarduerak: trafikoa esparruari dagokionez: ibilgailuek Trafiko, Motorreko Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasuneko Legearen araudia osoa eta euren arautako xedapenak betetzen dituzten egiaztatzea, batez ere, horien dokumentazioari eta motorreko ibilgailuen nahitaezko aseguruari dagokionez, aurkitzen diren arau-hausteak salatuz. Bestalde, bide publikoa okupatzeari dagokionez, ibilgailuak aparkalekuen bide publikoa okupatzen ari direla ikusten den kasuetan, “erakusleihoaren luzapen gisa”, salmentako kartel informatiboetan erakutsiz, Txosten bat egingo da, Udaleko Jabari Publikoko Ondasunen Erabilera Privatiboaren edo Aprobetxamendu Bereziaren Tasak Araupetzen dituen Ordenantzak ezarritako tasa fiskala kobratzeko, eta egokitzat jotzen bada, erabilera hori zigortuko da, udal lizentzia egokia ez bada.

*Memoria honetan espedientea berriro irekitzen da, erabiltzaileek eskatuta, deskribatutako arazoa bere horretan mantentzen delako. Abokatu bat kasua aztertzen ari da eta bere diagnostikoaren zain jarraitzen dugu.*

- Jabeen Erkidego baten hustubideak erreformatzeko premia  
(Erreg. zk.: 158-03;159-03;160-03)

#### *Erreklamazioa*

Jabeen Erkidego baten bizilagun talde bat gure Bulegora joan da laguntza eskatzeko, Bide Publikoko Zerbitzuak Erkidegoko hustubideak erreformatzeko eskatu dielako.

Idatzi bat idazteko laguntza eskatu duten birjarpenezko errekurtsua jartzeko.

#### *Azterketa*

Eskatzaileekin solasaldi bat eduki da. Bertan, jakinarazi digute Jabeen Erkidegoak jaso zuela Jabeen Erkidegoaren Salaketari buruzko Ebazpena, bide publikoan eraikitako saneamenduko etxeko hartuneko hiru kutxatila egoteagatik.

Aipatutako Ebazpena jaso baino lehen, ez zen erreferentziazko salaketaren berri jaso, beraz, Birjarpenezko Errekurtsu bat jarri nahi dute.

#### *Ebazpena*

Eskatzaileak idatzia **oinarri** hartu du, birjarpenezko errekurtoa jartzeko eta **KASUA IXTEN DA**.

*Memoria honetan espedientea berriro irekitzen da Bide Publikoaren buruekin hitz egiterakoan, kexari buruzko informazio gehiago ematen digutelako.*

- Judimendiko parking plazarako giltzen entrega atzeratu (Erreg. zk.: 162-03)

### Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizeko biztanle batek Udalari erreklamazio bat nola egin galdetu digu, Judimendi parkingaren giltzen entrega atzeratu delako eta horrek sortarazi dizkion trabengatik. Izan ere, giltzak esan baino hiru hilabete beranduago entregatu zituzten, eta erabiltzaileak beste parking baten plaza bat alokatu behar izan du, atzeratu den denboran.

### Azterketa

Erabiltzailea bulegora etorri da laguntza eske, Udalari erreklamazio bat egiteko, Judimendiko parkingaren giltzen entregaren atzerapena salatzeko. Horretarako erabiltzailea orientatu eta aholkuak eman zaizkio idatzia egiteko, eta horrek Vitoria-Gasteizeko Udalaren erregistroan aurkeztu du.

Erabiltzailearekin hitz egin ondorengo 4 hilabete igaro ondoren, beste kexa bat jarri du, Vitoria-Gasteizeko Udalak ez diolako erantzunik eman, erreklamazioa egin zuenetik.

Sindikoko bulego honetatik, uste dugu eskubidekoa dela, izan ere, Udala denbora asko hartzen ari da hiritarrari erantzuteko, beraz, horren eskaeraren aldeko GOMENDIO bat egin zaio Udalari, bizilagunak aurkeztutako eskaerari espresuki erantzuteko, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legeari jarraiki, izan ere, honela dio: *“Administrazioak ebazpen zehatza eman behar du prozedura guztietan, eta jakinarazi behar du, haren hasiera era edozein dela eta”*.

### *Ebazpena*

Aldeko **GOMENDIOA** egin da eta bertan udal administrazioari eskatu zaio erabiltzaileari espresuki erantzuteko. Aipatutako erabiltzaileak diru-kaltea eskatzen zuen erositako Judimendi parkingaren plazako giltzen entrega atzeratu zelako eta horrek hainbat traba sortu ziolako.

Gomendio oso **ONETSI** da, eta horri dagokionez, zera aipatu du: udal administrazioak Udalak aurkeztutako idatziari erantzun diola eta Kontratazio Zerbitzua ari dela Judimendi Parkingaren plaza baten atzerapena izapidetzen eta gutxi barru ebazpen bat emango dela. .

*Memoria honetan espedientea berriro irekitzen da, erabiltzaileak jakinarazi digulako Gomendioa Onesteko konpromisoa ez zela betetzen ari.*

- Familia arazoak eta hutsuneak etxebizitzan (Erreg. zk.: 170-03)

### Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizeko bizilagun bat Auzoko eta Sindiko Bulego honetara da hainbat salaketarekin (horiek guztiak zehaztu gabe) eta bere etxeko familia arazoan eta hutsuneen berri eman du.

### Azterketa

Auzoko Sindiko eta Defentsariari elkarrizketa bat izan du, eta bertan kexa egin eta sinatzen du, eskatzen duena zehaztu gabe.

Sindiko Bulego honek erabiltzailearen etxebizitza bisitatzen du. Ondoren, erabiltzailea bera behin baino gehiagotan itzultzen da dokumentazio desberdina ekartzeko.

Fiskaltzarekin bilera bat egiten da hainbat gairi buruz hitz egiteko, aztergai duguna esaterako, Gizarte Zerbitzuen bidez ezagutzera emanez.

Ondoren, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin beste bilera bat egiten da, eta bertan, jakinarazten digute erabiltzailearekin lan plan bat burutzen saiatu direla, baina ezin izan dela burutu, gai ez delako.

### Ebazpena

Kexa **GAITZETSI DA** erabiltzaileak ez dielako Gizarte Zerbitzuek burututako ebazpenei jaramonik egiten eta uste dugulako Administrazioak zuzen jokatu duela.

Administrazioak zuzen jardun duela uste arren, erabiltzailearen semearekin bilera bat egin da eta **ORIENTATU** zaio ASAFES elkartera –Senitartekoen eta Buru gaixoen Elkarte- joateko, erabiltzailea bertan tratatzeko. Izan ere, uste dugu laguntza behar duela, medikuen txostenei jarraiki. Hartara beharrezko izapide guztiak egin ahal izango dira erabiltzailearen erabateko ezgaitasuna aitortzeko.

*Memoria honetan espedientea berriro ireki da, erabiltzailearen beste kexa bat jaso dugulako, eta agindeia egitearen zain gelditzen gara.*

- Alde Zaharrear zoneko mistotik TAO gunera aldatzeko eskaera (Erreg. zk.: 205-03)

### *Erreklamazioa*

Alde Zaharreko bizilagun batek esan du aparkatzeko arazoak dituela TAO2 gunean, gune horretan oinezkoen kale asko daudelako.

Eskatu du arazo hura konpontzeko aukerak aintzat hartzeko eta proposatu du Alde Zaharreko gune mistoan aparkatzen uztea, 2 eta 5. guneak konbinatuz. Horretaz gain, eskatu du eguneratzeko TAO gune desberdinen kaleak ezartzen dituen kale-izendegia, zaharkituta gelditu baita, kaleak oinezkoentzat jartzeko prozesuaren ondorioz.

### *Azterketa*

Mugikortasun eta Trafikoko Zerbitzuaren buruarekin hitz egin da eta horri buruzko informazioa eman digute.

### *Ebazpena*

***Memoria honetan espedienteak zabalik jarraitzen du, jasotako informazioa aztertzearen zain.***

- Landatxoko Polikiroldegiko Proiektuaren Desadostasuna (Erreg. zk.: 287-03)

### *Erreklamazioa*

Bizilagun bat Bulegora etorri da zera adierazteko: ez dago ados BEPB planak barne hartzen duen Landatxoko Polikiroldegiko Proiektuarekin, bertako bizilagunei sortarazi dakizkiokeen arazoengatik.

### *Azterketa*

Hegoaldeko Landatxoko Polikiroldegiko Plan Zuzendaria aztertu ondoren, (Osoko Bilkuran onesteko zain eta Alderi Politikoek aztertze fasean dagoena), erabiltzaileari bertan egingo diren hirigintza esku-hartzearen programazioaren berri eman zaio.

### *Ebazpena*

***Memoria hau bukatu dela, espedientea zabalik gelditu da, Proiektua Osoko Bilkuran onestearen zain.***

- Eliza Ebanjelistaren instalazioa Lakuabizkarra aldean (Erreg. zk.: 319-04)

### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek dio Eliza Ebanjelista bat instalatzen ari dela Lakuabizkarra aldean. Informazioa eskatu du mota hauetako instalazioek lizentzia behar duten ala ez eta hura errespetatu den jakiteko.

#### *Azterketa*

Auzoko Sindiko eta Defentsariak informazioa eskatu dio Vitoria-Gasteizeko Udalaren Ingurumen Sailari, aipatutako jarduera instalatzeko izapidetze egokiak egin diren ala ez jakiteko.

***Memoria hau bukatu dela, ebazpen bat egitearen zain gaude, beraz, espedientea zabalik gelditu da.***

- Ikuskapena eta Zaintza ordutegiak ez betetzeagatik (Erreg. zk.: 335-03)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek kexa bat jarri du zera adierazteko: Lakuabizkarra eta Ehari-Gobeo mugatzen duen gune berdean zehar bidegorri bat eta oinezkoentzako beste bat dago. Jende askok gune hau aukeratzen du lasaitasunez paseatzera joateko edo eguzkia hartzeko, bankuetan.

Baina gune zehatz honetan arazo larri bat dago, bide horren gainean, aipatutako gune horren zehar goi tentsioko linea elektriko bat kokatuta dago, eta ondorioz, eremu elektromagnetikoen maila handia dago bertan. Artikulu ugari horri buruzko azterketez hitz egiten dute, eta eremu horiek kalte handia sortzen dutela aipatzen dute.

Eskatu du goi tentsioko linea hau lurperatzeko.

#### *Azterketa*

Ingurumen Sailari horri buruzko informazioa eskatu zaio.

#### *Ebazpena*

***Memoria hau bukatu dela, eskatutako txostenaren zain gaude..***

- Ikuskapena eta Zaintza ordutegiak ez betetzeagatik (Erreg. zk: 335-03)

#### *Erreklamazioa*

Diaz de Olano Margolariaren kaleko bizilagun batek bere kexa adierazi du: bere etxe azpian dagoen Pubak ez ditu mahaitxoan ordutegiak betetzen – 00:00 baino beranduago ixten du eta nahiz eta 3 mahaitxo ipintzeko baimena eduki 4 ipini ditu-. Gauean, ez du lokala ixteko ordutegia betetzen, eta ondorioz, bizilagunei zarata eta trabak sortarazten dizkie. Zarata behin eta berriro neurtu dute, eta guztietan baimendutako mugak gainditu dira.

Eskatu du lokala errebisatzeko, isolamendu akustikoko baldintza guztiak betetzen dituen ikusteko, eta beharrezkoak hartzeko. Eskatu du Udalak emandako ebazpenak burutzeko.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileak Auzoko Sindiko eta Defentsariarekin elkarrizketa bat izan du, eta bertan bere kexa egin eta sinatzen du. Horretaz gain hainbat dokumentazio entregatu du. Aipatutako dokumentazioan espresuki ikusten da bizilagunek behin eta berriro salatu dutela lokala. Horri dagokionez, Vitoria-Gasteizeko Udalak hainbat ebazpen egin du, eta horietan aipatzen da hilabeteko epean, 2001eko urriaren 22an, lokalaren arduradunak neurri zuzentzaileak hartu behar zituela, billarreko makilek eta altzarien mugimenduak sortutako zarata murrizteko, Zaraten Ordenantzarekin bat etorritz.

Erabiltzaileak, bestalde, Udaltzaingoan, salaketa ugari jarri ditu, lokalak ez duelako inoiz ixteko ordutegia betetzen. Horregatik, horri dagokioneko Oroigarri bat egin da, jarraipen bat egiteko lokalak araudiak ezarritakoa betetzen duen ala ez ikusteko.

#### *Ebazpena*

**GOMENDIO** bat egin da eta Udalari eskatu zaio 3 asteko jarraipen bat egiteko ixteko ordutegia betetzen duen ala ez ikusteko. Udaltzaingoak Gomendio osoa **ONETSI** du.

***Memoria hau egiten ari den bitartean, erabiltzaileak kexa berri bat jartzen du, hura jartzeko arrazoiak berriro eman direlako.***

- Taberna batek ez ditu ixteko ordutegiak betetzen (Erreg. zk.: 336-03)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek kexa bat aurkeztu du: bere etxeko etxabetan kokatutako tabernak ez du betetzen legeak ezarritako zaraten eta ordutegien araudia, eta horrenbestez, bizilagunei etengabe trabak sortarazten dizkie. Hura betetzeko neurriak hartzeko eskatu du.

#### *Azterketa*

Bizilagunek atsedean hartzeko eskubidea ezinbestekoa da, baita lokalak ixteko ordutegiari buruzko indarreko araudia betetzea ere.

Auzoko Sindiko eta Defentsariak erabiltzailearekin hitz egin ondoren eta bere kexa jarri ondoren, Sindikoak idatzi lagundu bat idazten lagundu dio, Udaltzaingoan aurkezteko. Bertan, aipatzen du 296/1997 Dekretuaren 14. artikulua bete behar dutela, ikuskapen, kontrol eta zehapen araudiari buruzkoa.



*Ebazpena*

Erabiltzaileari **AHOLKUAK** eman zaizkio, Udaltzaingoan aurkeztu beharreko idatzi lagundu baten bidez, Udaltzainek ikuskapen eta zaintza neurri egokiak har ditzaten, eta dagokionean, beharrezko isunak jar ditzaten, aipatutako ondorioetarako.

***Memoria hau egiten ari den bitartean, erabiltzaileak kasua berriro ireki du, kexa jarri zuen arrazoia bere horretan mantendu delako..***

## **5. JARDUERA ESPEZIFIKOAK**

### **5.1 Inmigrazioaren Tokiko Plana egiteko lankidetz.**

Inmigrazioaren fenomeno nabaria da gure hirian. Vitoria-Gasteizek aspaldiko esperientzia du etorkinak hartzen dituen hiri gisa.

Hala ere, etorreren intentsitateak, jatorrizko herrialdeen dibertsifikazioak eta etorkinen ezaugarriak fenomeno honen bilakaera eragin dute, eta ondorioz etapa berri batean sartu da.

Gure udalerrian, egun, inmigrazioa gizartean eragin handia izaten ari den fenomeno garrantzitsuenetariko bat bilakatzen ari da. Eta horregatik, gure erkidegoan, etorkinen kopuruak gora egiteaz gain, horren ondorioz, egoera berriak sortzen ari dira.

Auzoko Sindiko eta Defentsariaren bulegoak ondo ezagutzen du fenomeno hau, eta hiritarren eskubideen bermatzaile gisa, uste dugu garrantzitsua dela udalerriko bizilagunen guztien defentsaren alde egitea, batez ere, ahulenen defentsaren alde.

Gai honi dagokionez, eta Vitoria-Gasteizeko etorkinen errealitatea ezagutzeko azterketa-diagnostiko bat egin ondoren, 2004. irailean, Inmigrazio Foro bat sortzea pentsatu da, Inmigrazioaren toki planean Parte Hartzeko Prozesuaren garapenarekin kolaboratzeko. Eta Foro honetatik, Auzoko Sindiko eta Defentsariaren Bulego honi deialdia egin digute parte hartzeko.

Zortzi bileretan inguru parte hartu genuen. Bertan, proposamenak eta azterketak aditzera eman genituen Sindiko bulego honek Inmigrazioari buruz duen ikuspuntuan oinarrituta. Ondoren adierazi dugu Proposamena::

**INMIGRAZIO TOKIKO PLANA orientatu behar duten printzipioak**

**1.- ITP oinarritu daiteke Europako Giza Eskubideen Gutunean (Vitoria-Gasteizeko hiritarrak bertara atxiki ziren). Aipatutako gutunak zera dio: "Hiria gune kolektibo bat da eta bertako biztanle guztiena da, horrenbestez, biztanle guztiek errealizazio politikoa, soziala eta ekologikoa burutzeko baldintzak aurkitzeko eskubidea dute, nork bere gain solidaritateko betekizunak hartuz".**

**2.- Hiritar guztien eskubideen berdintasuna aitortu eta defendatu behar da. Horrekin batera, dagozkion betekizunak ere onetsi behar dira.**

**3.- Baztertze ekonomikoa, soziala eta politikoaren aurka borrokatu behar da, elkarbizitzako eta gizarte kohesioaren oinarritzko elementu gisa.**

**4.- Gure hirian bizi diren aukera-berdintasunaren alde egin behar da, hiritarren eskubideak aitortu ahal izateko.**

**5.- Edozein hiritarrek elkartzeko eskubidea dauka, baldin eta erkidego guztien kultura desberdinen adierazpen askatasunaren alde bada.**

**6.- Elkar bizi diren kultura eta balio guztien ezagutza eta elkar harremanaren alde egin behar da, guztiok herri beraren kide sentitu gaitzen.**


**7.- Elkarrizketa eta bitartekaritzako baliabide guztiak erabili behar dira elkar bizitzako harremanak sustatzeko eta gatazken gestio baketsua prebenitzeko eta bermatzeko.**

**8.- Informazioa bermatu eta baliabide publiko eta pribatuen atzipena eskura jarri behar da, hiritarren kontzeptutik abiatuz, bizitza-maila duinetan txertatzeko bidea errazteko.**

**9.- Guztien erantzukizuna sustatu behar da elkar bizitzarekin lotutako eremu guztietan, ikuspegi integral, estrategikoa, komunitarioa eta parte-hartzekoa abiapuntu hartuta.**







- 1) **Atzerritarrei Informazioa eta Aholkuak emateko Zentroaren jarduera.**
- 2) **Erkidego, etnia eta kultura desberdinen arteko harremanak.**
- 3) **Gatazka edo gatazka aurreko egoeren arreta.**
  - **Dokumentaziorik eta inor gabe dauden adin txikiko atzerritarren arreta.**
- 4) **Ingurune zabaleko hezkuntza euskarrien proiektuak (kaleko hezitzaileak).**
- 5) **Udal Zerbitzuetako planifikazioa, diseinua eta egokitzapena**
- 6) **Vitoria-Gasteizeko dibertsitate kulturalari buruzko azterketa sakona (egina dago).**
- 7) **Dibertsitate kulturala zeharka gestionatzeko mekanismoak.**
  - Etengabeko Batzorde bat sortu erabaki jakinak hartzeko egoera desberdinak konpontzeko.**

### **PLANAREN JARDUERA NAGUSIAK**

#### **1.- ELKAR BIZITZAKO BATZORDEA**

**Helburua: Elkar bizitza eraiki gehien eragindako auzoetan, aipatutako inplikaturako auzoetan lan egiten duten eta hiritar dinamiko zehatzen elkar erantzukizuna oinarri hartuta**

**\* Talde azterketak eta eztabaidak elkarbizitzako arazoei eta auzoan gertatzen diren beste batzuei buruz. (BARRENKALE)**

**2.- Hiriko berehalako esku-hartze ekipoak.**

**Helburua: arintasunez eskua hartzea edozein unean, edozein arazoan, arazo edo gatazkan, hiriko elkarbizitzari kalterik ez egiteko.**

**3.- Elkarbizitzari kalte egiten dizkioten jarduera irregularrak edota gogaikarriak direla eta, bizilagunek jarritako salaketak gestionatzeko protokoloa.**

**Helburua: salaketaren aztergai den egoera aztertu eta eztabaidatu eta konponbideak bilatu.**

**4.- Balioak eta informazioa transmititzeko sareak elkarbizitzarako.**

**\* Mezu positiboak sortu pertsonen arteko zuzeneko komunikazioan. Iritzi egoera bat sortu, elkarrizketaren eta elkarbizitzaren alde egiteko.**

**5.- Material informatiboak egin, diseinatu eta hedatu.**

**Informazio erabilgarria eta eguneratua hedatu, hiriari, elkarbizitza arauak eta Plan honekin erlazionaturako informazioei buruz.**

#### **EPE LUZERAGOKO JARDUERAK (2004 – 200...)**

- **Etorkinen integrazioa hiriko kultura desberdinen arteko elkarbizitza sustatu. Hiritar guztiei zuzenduta, Inmigratioaren Toki Planaren bidez.**
- **Erakundeen eta hiritarren elkar erantzukizunetik planteaturako jarduerak.**
- **Sustatu beharreko jarduerak (batzuk abian daude-):**
  - **Zerbitzuak zabaldu**
  - **Proiektu zehatzak garatu ( Norabide baliabideak, lehen harrerako pisua...)**

➤ **Berehalako esku-hartzeko ekipoa ( Gizarte Zerbitzuak)**

1. Jardueraren Enuntziatua				
Elkarbizitzako Batzordea. Helburua: Eragindako auzoetan elkarbizitza eraiki, inplikaturako aipaturako auzoetan lan egiten dutenen eta hiriko dinamiko zehatz...				
2. Jardueraren deskripzioa				
* Eragindako faktore guztiak bildu, elkarbizitzako arazoak sortzen direnean gune jakinetan, eragindakoek elkar ezagutu eta eztabaid... arazoei eta auzoko beste batzuei buruz eta harremana eta elkar ezagutza hobetzen duten ekimenak planteatzeko, esate baterako: Hitzarm... artean (komertzialak, ostalaritzakoak, maizterrak, errentariak, elkarteak...) edo Udalari eskaerak eta iradokizunak egin.				
3. Erlazionatutako Premia		4. Aurreikusitako zailtasunak		5. B...
Etorकिनak eta tentsioak ugariagoak diren auzo jakin batzuen elkarbizitzako arazoak.		Motibazio edo falta edo mesfidantza sektore jakin batzuetan parte hartzeko.		Udal bitar... Lokalen a... Batzuetar...
6. Agente publikoen eta pribatuen inplikazioa, jardueraren diseinuan, finantzazioan eta gestioan (X bat ipini)				
		Gobernua	Diputazioa	Udala
Inplikazio Eremuak	A. Inplikazioa diseinuan			Bai
	B. Inplikazioa finantzazioan	Bai	Bai	Bai
	C. Inplikazioa gestioan			Bai

➤ **Auzoetako elkarbizitzako batzordeak eratu (Barrenkale...)**

- **Elkarbizitzari buruzko esku-liburua egin bizilagunen erkidegoentzat. ¿?**
- **Protokoloak egin ikuskaritzak egiteko eta establezimenduen eta partzuergoen lizentziak emateko.**
- **Gida bat hiritarrentzat argitaratu (baliabideak).**
- **Heziketari buruzko gida bat argitaratu (hizkuntza desberdinetan).**
- **Diptiko informatiboak argitaratu (Hiesa...).**
- **Hizkuntza desberdineko tailerrak (Txinera, arabiera...).**

**Hezkuntza jarduerak Udaleko profesionalentzat eta**

**1. Jardueraren enuntziatua**

Gure bulegoan iradokizun edo eskaera bat jaso dugu, ume txinatarrei, etorkiei edo Vitoria-Gasteizen bizi diren adoptatuei mandarin-txineraren

**2. Jardueraren deskripzioa**

Baliabide higiezinak eskura jarri nahi zaizkie (Gelak...), Txinako erkidegoak idatziko eta ahozko mandarin-txineraren irakaskuntza etorkinentzat edo adoptatuentzat. Txinako erkidegoak irakasleak bilatu ditzake. Diru-laguntza emateko aukera kontuan hartu daiteke, gutxienez zailtasuna kontuan hartuta.

3. Erlazionatutako premia	4. Aurreikusitako Zailtasunak	5. B.
<p>Mandarin txinera oso hizkuntza zaila da, eta ume txinatar, etorkin edo adoptatu askok galtzen dute, horren araututako irakaskuntzarik ez dagoelako. Familian hitz egiten den txinera ez da nahikoa behar bezala igortzeko. Idatziko eta ahozko txinera ezagutzen duten pertsonak gero eta erabilgarriagoak izango dira herrialde horrekin merkataritzako, ekonomiaren edo kulturako harremanak izateko.</p>	<p>Printzipioz ez litzateke zailtasunik egon behar. Antzeko neurriak arbitratu dira beste Udaletan, esaterako: Bilbo edo Santa Coloma de Gramanet (bertan Txinako kolonia garrantzitsua dago). Sindiko Bulegoan iradokizun hau jaso dugu Vitoria-Gasteizeko Txinako koloniaren ordezkarien eskutik.</p>	<p>Lokalen a Batzuetan</p>

**6. –Agente publikoen eta pribatuen inplikazioa, jardueraren diseinuan, finantzazioan eta gestioan (X bat ipini)**

	Gobernua	Diputazioa	Udala
Inplikazio Eremuak	A. Inplikazioa diseinuan		Bai
	B. Inplikazioa finantzazioan	Bai	Bai
	C. Inplikazioa gestioan		Bai

**herrialde honekin harremana duten beste administrazioetako profesionalentzat.**

- **TOKI PLANAREN eztabaidak antolatu (hitzaldiak eta guneak gogoeta egiteko)**

- **WEB orria – Plana**

- **Inmigrazioaren behatokia ¿?**

- **Etorkinen laguntza eta lan txertatzeko programak.**



Balorazio, topaketa eta eztabaidako lan hau egin ondoren, Inmigrazioko Toki Plan bat eratu da. Bertan, Bulego honek inplikatu da eta ordezkatuta dago.

## 5.2 **Alde Zaharreko BEPB bileretara joatea.**

Auzoko Sindiko eta Defentsari Bulegoa ohartarazi da Alde Zaharreko bizilagunak direla kexa gehien aurkezten dituztenak, euren auzoko esku-hartzei eta Udal Zerbitzuei dagokienez.

Horri dagokionez, eta kexa kopuru handia aztertu ondoren, ikusi da, Alde Historikoak hutsuneak dituela aparkalekuari, zaratari, trafikoari, zamalanetarako guneari eta abarrari dagokionez.

Erakunde honek badaki Vitoria-Gasteizeko Udalak erabaki duela Gasteizeko Alde Historiko Osoa Erreformatzeko Plan Bereziari buruzko txostena abian jartzea, eta beste batzuetan ere egin izan dugun bezala, Gasteizeko biztanleekin lotutako gai interesgarriak aztertuko dituztela iruditzen zaigunean, bertara joan gara. Eta bizi-kalitatea hobetzearen alde, eta Bulego honek Alde Zaharra Indartzeari buruz duen balorazioa kontuan hartuta (uste baitu hau bide egokia izan daitekeela), erabaki zuen aipatutako lan-bileretara joatea begirale moduan.

Bertan, Plana idatzi duten teknikoei, Arkeologoei, merkatariari, bertako ostalariei, bizilagun elkartei, etab. entzuteaz gain, oso ondo iruditu zitzaizgun Udaleko Alderdi Politiko guztiak bat etortzea Alde Historikoaren bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko jarduerari lehentasuna ematearekin.

Bilera hauetan aztertu ziren Planari egindako alegazioak eta ondoren, gune horretarako aurreikusitako jarduerak zehaztu ziren. Horretaz gain, horietako bakoitzaren finantzazioa zehaztu zen.

Bilera horien ondorioz, Udalak erabaki zuen Alde Zaharraren irisgarritasunari lehentasuna ematea arrapalen edo eskailera mekanikoen bidez. Landatxoko aparkalekuan gauza bera egin zuen.

Aipatu behar da merkatarien eta bizilagunen BEPB planari buruzko balorazioa ona dela. Hala ere, orain aurreikusitako jarduera horiek abian jarri behar dira.

## 5.3 **“Hiriko Zarata eta bere Kudeatzaile Naturala:Udala” Biltzarraren Batzorde Antolatzailea**

2004. urtean, Auzoko Sindiko eta Defentsariaren bulegoan, Ingurumen eta Hirigintza Sailekin zuzeneko harremanean, baloratu ditugu bizilagunen kexak eta Hiri Zaratari buruzko Batzorde bat egiteko ideia. Batzorde honen gai nagusia gatazkatsua izango litzateke, eta horregatik hainbat erakunderen inplikazioa beharrezkoa izango litzateke.

Izan ere, zalantzarik gabe, hiriko zarata arazo larria izaten ari da hiriko bizitzarentzat. Gainera arazo hori okerrera doa, gero eta indartsuagoa delako eta gure eguneroko bizitzan gero eta toki eta denbora gehiago hartzen ari delako.

Horrela, hiritarraren etxebizitzako intimitateari eraso egiten ari zaio Ingurumeneko Zarata izena jarri diogun gonbidatu desatsegin baten bidez. Kutsatzaile hau iturri ugarietatik dator, baina batez ere, trafikoa, (bere adierazpen anitzetan), industria jarduera, herri lanak eta asteburuko olgetarako kontzentrazioen bidez agertzen da.

Baina Ingumen Zaratak hiri bizitzaren kalitatearekin bukatzen ari den harrapariaren ospea hartu baldin badu ere, arerio garrantzitsu bat dauka beste zarata iturri baten bitartez. Horrek ere kaltetuak biziki haserretzen ditu. Barne Zarataz ari gara, hau da, gure inguruan sortzen den zarata, gure bizilagunak sortzen duen zarata, bizi garen eraikuntzaren instalaziok, eta batez ere, gure etxebizitza azpian dauden merkataritza solairuak.

Bada, Batzorde honekin zarataren eta bere adierazpen desberdinen aurkako borroka antolatzeko prozedurak eta erak errebisatu eta eguneratu nahi ziren.

Horrela, Bulego honetan bururatu zitzaigun Batzorde hau bi norabidetan sortzea. Alde batetik, Auzoko Sindikoa eta Defentsaria izango litzateke kaltetuen babes legalari buruzko hitzaldiaren txosten jartzailea, eta bestalde, laguntzailea, Batzordea Antolatzan duen Batzarraren kide gisa.

Batzar hori 05eko martxoaren 9, 10 eta 11n antolatu zen Vitoria-Gasteizen, “Hiri Zarata eta bere Kudeatzaile Naturala: Udala” izenburupean.

Batzar honen antolaketari dagokionez, hainbat bilera egin zen. Bulego honetatik horietako 8ra joan zen, eta bertan, esku-hartze desberdinak egin ziren, esaterako: Batzorde Antolatzaille bera osatu (Kideak: Idazkaritza Teknikoa, Ingurumen Saileko Lehendakari-Zuzendaria, eta lau bokal: Ingurumeneko Azterketen Teknikariak, Ingurumeneko bi Teknikari eta Auzoko Sindiko eta Defentsariaren laguntzailea).

Lehen topaketa bat egin zen txosten jartzaileekin Batzordearen funtzionamendua zehazteko, gonbidatuen asistentzia baloratzeko, beste gai teknikoak, protokoloak eta ekonomikoak aztertzeke, prentsa, publizitatea..., eta Batzordearen beraren ebaluazio orokorra egiteko.

Bulego honek eta Antolaketaren gainontzeko kideek egindako saiakera positiboa izan da, izan ere, txosten jartzaileen kalitatea zein asistentziaren balorazioa oso altua izan da. Harrotzekoa da beraz.

## **6. AZTERTZEKO DAUDEN GAIAK**

## **6.1 “Etxeko Zaratak” Udal Ordenantzan sartzea**

Kexa ugari jaso dira “etxeko” zarata izena hartu duen arazoari buruz. Hiritar asko kaltetuak izan dira euren higiezinako bizilagunek sortzen duten zaratarengatik eta gizabide aurkako jarrera duen kaleko zenbait jendeak sortutako zaratarengatik (oso altu hitz egin, kantuak, hiriko altzariei tratu txarrak eman...)

Denak bat datoz esaten dutenean euren bizilagunek sortutako zarata desatseginak norberaren intimitate pertsonalaren eta familiarraren inbasioa dela, eguneroko jarduera normalen garapena eragozten dietela (adibidez: irakurri, ikasi, atsedena hartu...) arreta eta kontzentrazio arazoak sortarazten dizkietela, eta askotan lo egitea zailtzen dietela.

Batzuetan, egoera horiek behin eta berriro errepikatzen dira eta urduritasun eta estres egoera etengabeak sortarazten dituzte. Horiek, hein berean, trastorno psikofisikoak, gaixotasun kardiobaskularrak eta inmunitate sistemaren alterazioak sortzen dituzte. Etekin profesionalaren murrizpena, lan istripuak, zenbait jarrera antisozialak, higiezinaren balio galera eta abar badira ere ondorio larrienetariko batzuk.

Baina etxeko zarata da kontrolatzeko zailtasun gehienak dituen.

Zaratak hiritarren etxeetan sortzen direnean, legeak egitea zaila da, askotan ere froga zehatzak aurkitzea oso konplexua delako. Jarduera lizentzia behar duten merkataritza eta industria jardueretan, berriz, askoz errazagoa da.

**Horrela, jakinarazten dizugu bizilagunen jarduera gogaikarriak hiriko Zaratak eta Dardarak araupetzen dituen Udal Ordenantzan sartzeko aukeran lanean ari garela.**

Gainera, uste dugu poliziaren jardunak ez diola egungo udal ordenantzari etekin guztia ateratzen, izan ere, nahiz eta mugatua izan, aipatutako ordenantzak udaltzainei esku-hartze zabalagoa eta eraginkorragoa egiteko aukera ematen die.

Horrelakoetan, eta Ordenantza egiten edo indarrekoa aldatzen ez den bitartean, kontuan hartu behar dira Zarata eta Dardaren Udal Ordenantzaren artikulua, Hirigintzarren Zarata eta Elkarbizitzari eta Udal Esku-hartzeari buruzko gaiari dagokionez (29, 30. artikulua).

Beraz, udaltzainek jarrera aldatzeko eskatu behar diete, bai kalean eta bai euren etxeetan gizabidearen aurkako portaerak dituztenei, ondoko bizilagunei trabarik ez sortzeko. Ez badituzte Udaltzainen jarraibideak betetzen, garrantzitsua da horiek aipatutako jarrerak salatzea, dagozkion zehapen espedienteak eginez. Aipatutako

espedienteetan udaltzaingoaren testigantza pertsonala oso garrantzitsua da, izan ere, salatutakoak sortutako jarduera gogaikarriaren froga nahikoa izan daiteke

## **6.2 Gizarte eta osasuneko Guneen eskumeneko esparrua**

Denbora gutxi barru aztertuko da “Gizarte eta Osasuneko Gunea” izendatutako arazoa. Herri Botereek baliabide hauek jartzen dituzte medikuaren eta ospitalearen esparruan bakarrik adierazten ez diren patologiak dituzten pertsoneri, euren gaixotasunekin batera gizarte baztertzeko eta soziabilitateko arazoak dituztelako.

## **6.3 Pisueta Prostituzio-etxeak jartzearen inguruko araudia erregulatzea**

Urte honetan, kexa ugari izan ditugu gauez funtzionatzen duten prostituzio-etxeak instalatu dituzten higiezin bizilagunen eskutik. Helduen arteko prostituzioa, berez, ez da delitua, baina nolabaiteko delituekin estu lotuta dago, besteak beste: adin txikikoen esplotazio sexuala, indarkeriak eta etorkinen salerosketa. Eta hori guztia bizitoki den higiezin batean egiten denean, elkarbizitzako arazoak sortzen ditu. Horietako kasu askotan, pisu baten erabilera iruzurraren bidez lortzen da, hau da: pisua etxebizitza partikular gisa erabiltzen dela adierazten duten alokairu-kontratu faltsuen bitartez. Horrelakoetan, jakinarazi dizkiegu Hiri Alokairuko Legeak maizterren aurka eta Jabetza Horizontaleko Legeak alokatzailearen aurka dituen erantzunak. Nolanahi ere, prostituzioari buruzko arazo sozialetan murgildu gabe, gure ustez, etxebizitza bat izaera horretako jarduera bat garatzeko erabiltzen denean, eta are gehiago, sarrera publikoa baldin badu, nolabaiteko kontrola eraman behar dela, ostaturako beste jarduerak duten kontrolaren antzekoa, bederen.

## **6.4 Alde Zaharra: zaratak, trafikoa, pneumatikoak biltzeko ontziak...**

Erdi Aroko Aldea izan da kexa gehien aurkeztu dituen auzoa. Horregatik, hurrengo memorian arreta berezia eman diegu bertan planteatzen diren arazoei, ostalaritzako establezimenduek, trafikoak, biltze pneumatikoko postontziek... sortutako zaratei dagokienez.

## **6.5 TAOren birbanatze-zona Vitoria-Gasteizen.**

Hirian gero eta kale gehiago oinezkoentzat jarri dira, horregatik, TAO gune jakin batzuen aparkalekuen kopurua jaitsi da. Hori dela eta, bizilagunek eskatu dute hiriko TAO gunea berriro antolatzeko. Gai hau hurrengo Memorian aztertzeko gelditzen da.

# **7. 2004-2005 DENBORALDIKO KEXEN ETA KONTSULTEN GAINEKO ESTATISTIKA-AZTERKETAK**

## **7.1 2004-2005 MEMORIAREN ESTATISTIKA DATUAK**

Ondoren, erakusten dira Vitoria-Gasteizeko biztanleek planteatutako Bulego honetan jasotako kexei buruzko estatistika datuak, Memoria hau hasi genuenetik, 2004ko martxoaren 1ean, 2005eko otsailaren 28a arte.

Aipatu behar da landu den espediente bakoitzean ez dela zergatik ebazpen bakarra egon behar, aurkezten diren datuak ez baitira ikuspegi finko bat.

**Memoria honetan, guztira, 162 espediente berri ireki dira aipatutako datetan.**

**Bulego honek, eratu zenetik, 508 espedientetan egin du lan 2005eko otsailaren 28a arte. Horrek esan nahi du hirugarren urte honetan, jasotako espediente berriekin ez ezik, aurreko memorietan zabalik gelditu zirenekin eta honetan berriro ireki direnetik ere lan egin dela.**

### 7.1.1 KEXEN KOPURUA HILABETEEN ARABERA

2004-2005 urte honetan, guztira 162 espediente ireki dira. Kontuan eduki behar da, horietaz gain, aurreko urtean ebatzi ez ziren espedienteak ere landu direla, beraz, **guztira 216 espediente landu dira.**

Hurrengo grafikoan adierazten da Bulego honetan jasotako kexa berrien kopurua, hilabeteen arabera, 2004ko martxotik, Memoria hau bukatu zen egunera arte, 2005eko otsailaren 28a. Ikusten da, iraila izan dela Sindiko Bulego honetara erabiltzaile kopuru handiena etorri den hilabetea. Baina zabaldutako espediente hauek ez dute ez joera ez irizpide jakinik, erabiltzaile batek baino gehiago arrazoi berarengatik kexak aurkezten dituztenean izan ezik, adibidez: -prostituzio-etxe klandestinoen gaiak, haur hezitzaileen grebak...

2004KO MARTXOA	12
2004KO APIRILA	6
2004KO MAIATZA	23
2004KO EKAINA	16
2004KO UZTAILA	14
2004KO IRAILA	26
2004KO URRIA	15
2004KO AZAROA	15
2004KO ABENDUA	12
2005EKO URTARRILA	14
2005EKO OTSAILA	9




**GRAFIKO BARRUKOA: ESPEDIENTE BERRIEN KOPURUAREN ZERRENDA HILABETEEN ARABERA**

Ondoren, adierazten da hilabete bakoitzean itxi diren espedienteen kopurua. Espediente horiek ez dute zergatik memoria honetan irekitakoen kopuruarekin bat egin behar. Guztira, 179 espediente itxi dira:

Grafikoaren kurbadurak gora jotzen du eten gabe, Memoria honek aipatzen duen aldiaren erdialdetik, gutxi gorabehera. Fenomeno hori ematen da, besteak beste, Erakunde hau finkatzen doan heinean, espedienteen jarraipena sortarazten dituzten gaiak errepikatuz doazelako. Gaiak errepikatuak direnez, askotan, badugu dena delako Sailaren informazioa, aurreko antzeko kasuetarako eskatu dugulako, eta informazio hori bera erabiltzen dugu ondoren sortzen diren espedienteak ebazteko. Horrela, hilabeteak joan hilabeteak etorri, gero eta informazio gehiago lortzen dugu, eta ez diogu eragindako Sailari edo Zerbitzuari informazioa eskatu behar, eta era horretan, dena delako informazio horrekin itxi daitezkeen espedienteen kopurua nabarmen handitzen da.

5	2004KO MARTXOA
6	2004KO APIRILA
12	2004KO MAIATZA
18	2004KO EKAINA
19	2004KO UZTAILA
16	2004KO IRAILA
13	2004KO URRIA
18	2004KO AZAROA
17	2004KO ABENDUA
25	2005EKO URTARRILA
30	2005EKO OTSAILA

RELACIÓN Nº DE EXPEDIENTES CERRADOS POR MESES



GUZTIRA 179

**GRAFIKOAREN BARRUKOA: ITXITAKO ESPEDIENTEEN KOPURUAREN ZERRENDA, HILABETEEN ARABERA**

**7.1.2 JASOTAKO KEXEN KOPURUA, BIZILAGUNEN ETXEBIZITZEN ARABERA, VITORIA-GASTEIZEKO AUZOETAN.**

Taula honetan adierazten da Alde Zaharra dela kexa gehiago aurkezten diren Vitoria-Gasteizeko auzoa; guztira 28 izan dira. Bulego honetan jaso diren kexa kopuru gehien dituzten hurrengo gunek hauek dira: Zabalgunea- 19 kexa-, Arriaga Lakua – 15 kexa-, eta Zaramaga-, 12 kexa-.

AUZOA	ESP KOP.
ADURTZA	6
ABETXUKO	2
EHARI-GOBEO	2
ARANA	5
ARANBIZKARRA	5
ARIZNAVARRA	6
ARRIAGA-LAKUA	15
ALDE ZAHARRA	28
KOROATZEA	7
BABESGABETUAK	5
ANGLOA	4
PILAR	6
ZABALGUNEA	19

JUDIMENDI	4
LAKUABIZKARRA	1
LOVAINA	5
MENDIZORROTZA	3
SAN KRISTÓBAL	3
SAN MARTÍN	3
SANSOMENDI	4
SANTA LUZÍA	4
DONE JAKUE	6
TXAGORRITXU	4
ZARAMAGA	12
EKIALDEKO	
NEKAZARITZA	
EREMUA	2
HEGO EKIALDEKO	
NEKAZARITZA	
EREMUA	1

162

### 7.1.3 JASOTAKO KEXEN KOPURUA, ERABILTZAILIEN GENEROAREN ARABERA:

Ikus daiteke Sindiko honetan kexa aurkeztu duten pertsonen generoa nahiko parekoa dela.


Era berean, aurreko Memoriarekin konparatuz, igo da Bulegora euren kexak jartzera joan diren kolektiboen portzentajea. Dagoeneko finkatuta dauden erakundeak direla, eta horrenbestez, euren baliabide propioak dituztela sor daitezkeen premiak asetzeko kontuan hartuta, datu hau oso positiboa da.

**Gizonezkoak: 80 espediente (espediente berrien %50a)**

**Emakumezkoak: 75 espediente (espediente berrien %46a)**

**Kolektiboak: 7 espediente (espediente berrien % 9a)**

GIZONA	EMAKUMEA	KOLEKTIBOA
80	75	7





**GRAFIKO BARRUKOA: ESTATISTIKAK ERABILTZAILAREN ARABERA  
GIZONA, EMAKUMEA, KOLEKTIBOA, %4, %46, %50**

**7.1.4 VITORIA-GASTEIZEKO UDAL SAILETARA ZUZENDUTAKO  
EBAZPENEN KOPURUA, JASOTAKO KEXAK EBAZTEKO:**

GOMENDIOA	BITARTEKOTZA	GAITZESPENA	UKO EGITEA	ESKU-HARTZEA	IDATZI LAGUNDUTA	ORIENTAZIOA	BESTEAK (OROIGAL OFIZIOA)
1	1	1	1	0	0	0	1
2	0	1	2	3	0	2	3
0	0	1	0	0	0	1	0
5	0	2	1	0	0	0	0
0	0	3	0	0	0	0	1
1	0	0	0	0	0	0	0
1	0	3	0	0	0	0	0
8	0	3	0	0	2	2	1
1	0	7	3	2	0	3	2
8	3	7	0	5	0	4	4
0	1	1	0	0	0	0	0
1	0	1	1	0	0	0	1
13	0	2	2	8	1	3	2
0	0	1	0	0	0	4	0
13	0	10	0	5	0	5	4
0	0	1	0	0	0	0	1
54	5	44	10	23	3	24	20

Lauki honetan ikus daitezke Vitoria-Gasteizeko Auzoko Sindiko eta Defentsariaren Bulegoan egin diren ebazpenak, udal zerbitzuak hobetzen saiatzeko. Ebazpen horiek eragindako Udaleko Sailetara bidali dira.

183 ebazpen egin dira. Zenbaki horrek ez du bat egiten Memoria honetan itxi diren kasuen kopuruarekin, izan ere, espediente bakoitzak Sail bati baino gehiagori eragin diezaioke, edo izaera desberdineko ebazpen bat baino gehiago egin daitezke espediente bakar batentzat, edota, ondoren eragin handiena izan duena jaso.

Horrela egin dira:

- 54 Gomendio
- 5 Bitartekotza
- 44 Gaitzespen
- 10 Uko egite
- 23 Esku-hartze
- 3 Idatzi lagunduta
- 20 Besteak (Orientazioak, deribazioak...)

Aipatu behar da ere, ebazpen bakar bat baliozkoa izan daitekeela gai berdineko hainbat kexa aztertzeke.

Ikus daitekeenez, **Ingurumen eta Hirigintza Sailak** dira gomendio kopuru gehien jaso dituzten sailak, Memoria honek barne hartzen duen denboraldian zehar.

Era berean, azpimarratu behar da Udaltzaingoari ere gomendio asko bidali dizkiogula Sindiko Bulego honetatik, baina, hori normala da, izan ere, askotan, zeharka izanda ere, beste Zerbitzu askorekin lotuta dago, eta horregatik, beste Zerbitzu edo Udal Sailetara gomendioak bidaltzen ditugunean, eurek ere eragina izaten dute, kontrolatzen dituztelako edo eraginkortasunik eduki ez dutenez, eskua hartu behar dutelako, esaterako: tabernak ixteko ordutegien kontrola, Ingurumen Sailak eskuordetutako zaraten neurketak..., .

Azkenik, aipatu behar da **Elkarte Anonimoak eta Udal Erakunde Autonomoak** izan direla Sindiko honen esku-hartze gutxiena behar izan duten erakundeak.

### 7.1.5 VITORIA-GASTEIZEKO UDALAK ONETSITAKO EDO ONETSI EZ DITUEN GOMENDIOAK

GOMENDIOA	ONETSITA	PARTZIALKI ONETSITA	EZ ONETSITA	ERANTZUN GABE
	26	8	5	17
<b>56</b>				



### GRAFIKOAREN BARRUKOA: GOMENDIOAK, ONETSITA, PARTZIALKI ONETSITA, EZ ONETSITA ETA ERANTZUN GABE

Bulego honek Sail desberdinei egindako ebazpen guztietatik, adierazten da zenbat onetsi diren, zeintzuk ez, eta Memoria hau bukatu ondoren, oraindik horri buruzko erantzunaren zain gaudenak.

Memoria hau bukatu dugula, **Gomendioen %60 baino gehiago onetsi dira, %14 partzialki, eta oraindik ez dugu horietako %30ren erantzuna ezagutzen.** Beraz, **Sailek onetsi ez dituzten ebazpenak gutxienak dira, hau da: %10.**

#### 7.1.6 ESPEDIENTEEN EGOERA OROKORRA

IREKITA	ITXITA
33	183



### GRAFIKOARNE BARRUKOA: ESPEDIENTEEN EGOERA, IREKITA, ITXITA

Lauki honetan adierazten dira Memoria honetan landu diren espedienteak, 2004ko martxoaren 1etik, 2005eko otsailaren 28a arte.

**Horrela,**

- **33 irekitako espediente**
- **183 itxitakoak.**

Horrek esan nahi du Memoria honetan bakarrik %15a gelditu dela itxi gabe.

## **8. ZERBITZUAREN EBALUAZIOA, VITORIA-GASTEIZEKO HIRITARREN HITZETAN**

Euren kexen arabera, erabiltzaileei bidaltzen zaizkien ebazpenekin batera, aurreko urteetan bezala, galdetegiak entregatu dizkiegu, nahi duenak, izenik gabe, bueltan ekartzeko, gure esku-hartzea baloratzeko, eta beharrezkoa izanez gero, hiritarren arreta hobetzeko, zerbitzu hobea eskaini ahal izateko.

**179 galdetegi bidali dira, horietatik 24 itzuli dizkigute: 21 banakako eredukoak eta 3 kolektiboaren eredukoak. Horrek bakarrik totalaren %13a adierazten du, eta ez dugu uste horrek behar bezala adierazten duela Vitoria-Gasteizeko hiritarrek Bulego honi buruz duten iritzia.**

**Hala ere, modu orokorrean izanda ere, hurrengo datu soziologikoak kontuan hartu daitezke:**

**\* Emakumeek egindako 11 galdetegi; horietatik: 2 langabetu, 3 erretiratu eta 6 langile: adinaren batezbestekoa: 45 urte.**

**\*Gizonek egindako 9 galdetegi; horietatik: 3 langile, 6 erretiratu: adinaren batezbestekoa: 60 urte.**

**\*Kolektiboek egindako 3 galdetegi**

Erabiltzaileak positiboki baloratzen duen Bulegoaren jarduera, alde ebatzi zituen 10 galdetegitan.

Nahiz eta ebatzi ez diren, 14 galdetegietatik, erdia jarduerarekin bat dator.

Aipatu behar da ia kasu guztietan Bulego honetatik jasotako informazioa ondo baloratzen dutela.

## **9. PRENTSA DOSIERRA**

Auzoko Sindiko eta Defentsariak hainbat komunikabidetan hartu du parte (irratia, idatzizko prentsa), elkarrizketak eskaintzeko eta Bulego honetan garatutako jarduerari buruzko bere artikulua propioak idazteko.

Era berean, Memoria honek barne hartzen dituen hilabetetan zehar, idatzizko prentsan Erakunde honi, Vitoria-Gasteizeko hiritarrek egindako lanari eta bestelako jarduerari buruzko hainbat aipu azaldu da. Ondoren, hurrenkera kronologikoak adierazten dira:

### **IRRATIA.**

- 2004ko apirilaren 5ean. Elkarrizketa Gasteiz irratian.
- 2004ko apirilaren 13an. Elkarrizketa Araba irratian.
- 2004ko maiatzaren 21ean. Elkarrizketa Gasteiz irratian Udako Udalekuei buruzko gomendioa azaltzeko.
- 2004ko maiatzaren 24an. Elkarrizketa Gasteiz irratian Hiriko Zaraten Gaiari buruzko ikerketa azaltzeko.
- 2004ko ekaiaren 28an. Elkarrizketa zuzenean Gasteiz Irratian, 04-05 Memoria hau aurkezteko.
- 2004ko urriaren 8an. Elkarrizketa ONDA CERO irratian. 03-04 Memoriaren Aurkezpena.
- 2004ko urriaren 8an. Elkarrizketa COPE irratian. 03-04 Memoriaren Aurkezpena.
- 2004ko urriaren 13an. Elkarrizketa zuzenean Gasteiz Irratian. 03-04 Memoriaren Aurkezpena.
- 2004ko urriaren 18an. Elkarrizketa Irrati Nazionalean.
- 2004ko azaroaren 8an. Elkarrizketa SER irratian. Udaletxeko erlojuaren soinuari buruz.
- 2004ko azaroaren 8an. Elkarrizketa Gasteiz Irratian. FEMP Jardunaldiei buruz.
- 2004ko abenduaren 22an. SER Katean, deialdiaren laguntza: “2004. Urteko Balorazioa”
- 2005eko urriaren 27an. Gasteiz Irratia. Oto Hiribidearen Trafikoari buruzko Elkarrizketa.
- 2005eko urriaren 24an. COPE. Elkarrizketa: gaia: Kutsadura Akustikoa.
- 2005eko otsailaren 7an. SER. Elkarrizketa: gaia: Arkupeak, BEPB.

### **IDATZIZKO PRENTSA.**

#### **DIBULGAZIOZKO ARTIKULUAK**

[Guztiok zaraten kontra](#)

Industrializazioa hasi zenetik, eta ibilgailu motordunen erabilera zabaldu zenetik zer esanik ez, zarata presente dago gure ingurunean eta gure eguneroko bizimoduan. Izan ere, modernitatea zaratatsua da.

Gure entzumena ez dago prestatuik nahierara abiarazi edo eteteko, ezin ditugu belarriak itxi begiak ixten ditugun moduan. Gure belarriak beti irekita daude eta horrek itzuri ezin ditugun soinuak etengabe jaso beharra dakar. Budismoan Budaren irudiak begiak itxita ditu barrurantz begiratzeko, baina belarri handiak ditu, mundua entzuteko, isiltasuna ere entzuteko duen ahalmenaren adierazgarri. Zenbait hizkuntza erromantzetan (frantsesa, katalana) entzun adierazteko “sentir” hitza darabilte, entzumena zentzumen nagusitzat joko balute bezala.

Zorionez, entzuten dugun guztia ez da zarata. Zarataren kontzeptua ezinezkoa da beti objektiboki zehaztea, eta ez dago bakarrik bere bolumenaren menpe. Adibidez, nire alabentzat, rock banda baten zalaparta, euren logelan izugarritzko bolumenarekin entzuten dutenean, soinu atsegina eta estimulagarria izan daiteke, soinuari dagokionez, eta bere aitak, berriz, bizarra mozten duen bitartean, abesti bat kantatzen duenean, jasan ezin dute soinua da. Horregatik, aditu askok horrela definitzen dute zarata: “entzun nahi ez dugun soinu oro”.

Faktore askok eragiten dute gure hirietako zarata maila: aurrerapen teknikoa, askotariko makina mekaniko edo motordunak ekarri dituen; garraiobideak ugaritzea; auzo batzuetako jende pilaketa; gelen arteko banaketa nahiko ez duten etxebizitzak; kultur ohiturak eta gaueko aisialdia; askotan antolamendu egokirik gabe gertatu den hazkunde urbanoa...

Faktore horiek soinu ingurumena hondatzen lagundu dute, bai eta pertsonen eta inguruaren arteko harremanak hondatzen ere. Europar Batasunak aldi berean behin zaratarik buruzko ikerketak egiten ditu eta zehaztu du kide diren herri guztietan azken urteetan inguruko zarata hori bikoiztu egin dela giza jardueren eraginez, gaur egun kutsadura akustikoa kalte gehien sortzen eta gure bizi kalitatean eragin handien dutenetako bat bihurtzeraino.

Bada aintzat hartu beharreko beste datu bat: OCDEk (Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) landu duen txosten baten arabera, Espainia zarata maila handiena duen europar herrialdea da, eta munduko bigarrena, Japoniaren atzetik. Hain zuzen ere, tradizio estetikoan, literarioan eta mistikoan, isilunea izakiarekin topo egiteko inguru egokiena aukeratu duten bi herrialde.

Alderaketa horietan oinarrituz ondoriozta daiteke teknologiaren eta industriaren garapena antzekoa izan arren gizarte batzuk beste batzuk baino zaratatsuagoak direla, eta, beraz, kultura eta hezkuntza faktoreek eragin nabarmena dutela. Frantzia egon den eta bertako jatetxe batera joan den gutako edozein konturatuko zen solasaldien bolumena oso bestelakoa dela eta ez dagoela gure lokal publikoetan beti izaten den

giroko zarata hori. Argi dago, gure Frantziako bizilagunek zarataren eta isilunearen beste kultura desberdina dutela..

Txosten zientifiko ugari azaldu dute zaratak kalte larriak ekar diezazkiokeela osasunari: entzumena pixkanaka galtzea, haserrea, nekea, lo egiteko arazoak, estresa, errendimendua eta kontzentrazioa gutxitzea, agresibitatea, buruko minak, sabeleko arazoak, presio arterialeko gorabeherak, bihotz erritmoaren gorabeherak, sistema immunologikoa moteltzea (defentsa gutxiago), jariatze endokrinoaren maila aldatzea, baso-uzkurdura, arazo mentalak, depresioak, etab.

Gure erakunde juridiko gorenak ere (Auzitegi Gorena, Auzitegi Konstituzionala, Euskal Herriko Auzitegi Nagusia) hainbatetan adierazi dute eraso akustikoen oinarriko eskubide zenbait urratzen dituztela, esaterako, intimitate eskubidea, etxebizitzaren bortxa-ezintasuna, osasunerako eskubidea, osotasun fisikorako eskubidea, hots, pertsonen bizitzan eremu pribatu bat babesteko helburua duten eskubideak, bestek – direla aginte publikoak direla partikularrak– ezagutu eta esku-hartzerik ez duten eremua horretarako baimenik eman ezean (guztien erakusgarri, Auzitegi Konstituzionalaren uztailaren 22ko 144/1999 epaia (FJ 8) eta azaroaren 30eko 292/2000 epaia (FJ 6)).

Ingurumenaren kutsadura eragiten duen faktore gisa zaratak sortzen duen kezka gero eta handiagoa da. Esate baterako, 2003an Gorte Orokorrek zaratari buruzko lege bat onetsi zuten, zeinean aginte publikoek zaratatik babesteko eskubidea ezagutu baitzuten, besteren esku-hartzerik izango ez duen bizitza propiorako eremu bat izateko eskubidea, azken batean.

Eremu propiorako eskubidea estuki lotuta dago pertsonarekin berarekin, eta Konstituzioaren 10.1 artikulua ezagutzen duen pertsonaren duintasunean du oinarria (Auzitegi Konstituzionalaren azaroaren 8ko 202/1999 epaia (FJ 2) eta han aipatutako ebazpenak). Horrek esan nahi du badela eremu propio eta pribatu bat, besteren jardun eta esku-hartzeetatik aparte, eta, gure kultur jarraibideen arabera, eremu hori beharrezkoa dela giza bizitzak gutxieneko kalitatea izan dezan (uztailaren 10eko 186/2000, FJ 5).

Sindikoen edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoan gehien azaltzen diren kexen artean zaratarekin lotutakoak ditugu, dela jabe erkidegoetan partikularrek sortzen dituzten zarategatik, dela ixteko ordutegia betetzen ez duten edo musika aparailuen bolumen mugak errespetatzen ez dituzten gaueko aisialdiko lokalek sortutakoengatik, bai eta hiri hondakinak biltzean sortutakoengatik ere.

Gai honetan nagusi den gunetariko bat **Erdi Aroko Aldea** da. Bere kaleen egiturarengatik eta bertako eraikin zaharregatik, zaraten arazoak areagotu egiten dira bertan. Izan ere, arazo hau beste hirietako Alde Zaharretan ere ematen ari da, eta horregatik, zarataren ondorioz, hiritarrak bertatik ihes egiten ari dira, ezinezkoa delako bertan bizitzea.

Begi bistakoa da, bestalde, zaratarekin lotutako arazo horiek guztiek lotura zuzena dutela herritarren arteko elkarbizitzarekin, gure familia eta pertsonaren eremu intimoari egiten zaion erasotzat jotzen baitira.

Vitoria-Gasteizek urteak daramatza guztiontzat bizigarri eta abegikor izango den hiria sortu nahirik. Horrek zarata era eraginkorrez kudeatzea dakar, zarataren eragina ikuskatuz eta arinduz ez ezik alor horretan heziketa eta prebentzioa bultzatuz. Gure Udalak hori lortzeko maila handiko baliabide materialak eta giza taldeak ditu. Horretarako, hiritar guztiak biziki saiatu beharko dira, eta batzuetan guren interes propioak sakrifikatu beharko ditugu interes orokorraren mesederako. Baina buruan sartu behar dugu merezi duen esfortzu bat dela eta egin, egin daitekeela: beste hiri batzuek lortu dute.

### **Bortxazko artea**

Gure kultur tradizioaren barruan arte-jarduera ez da bakar-bakarrik begiari edo sormenari dagokion jarduera hutsa, nahiz eta ez dugun ahaztu behar zer balio hartzen duten “begiramen” edo “sorkuntza” hitzek. Arteak, maiuskulaz idatzita, esanahi handiago bat hartzen du: gure zerbitzuan jartzen da guk gauzak ulertu eta nolabait geure burua eraikitzeko, iragana kontatzeko, etorkizunari aurrea hartzeko, edozein gizartetan bizi-bizirik dauden kontraesanak erretratatzeko, gure pertzepzioak antolatuz eta besteei helarazteko; era horretan, sorkuntza estetikoaren bidez, gizartean indarrean dauden iritziak bateratzen dira, “ederra” zer den eta “ona” zer den adostuz.

Museoek izan behar duten hezkuntza-eginkizunari buruzko hausnarketa horiek Ilustrazioaren garaitik gutxienez egin izan dira pentsamendu modernoan, eta ez da kasualitatea noski, lehenengo museo-erakunde handiak (horietako asko errege-erreginen bilduma handiekin osatuak) Ortega y Gasset-ek “heziketaren mendea” deitu zion horretan sortu izana.

Beraz, Arteak ez da, gure tradizio kultural eta politikoan, aparteko mundu bereizi bat, Akademien eta gutxiengoaren esku dagoena, baizik eta baliabide publikoek sustengaturiko mundu bat, orokorrean herritarren eskura eta zerbitzura dagoena. Hala eta guztiz ere, zerbitzu eta eskuragarritasun hori ez zaigu herritarroi ezinbesteko zaletasun baten moduan ezartzen, gu adin txikiko bagina bezala; aitzitik, beti ezegonkorra den sedukzioaren bidetik eramaten gaitu, ez baitago gauza zorizkoagorik eta zalantza-koagorik norberaren desira segurtatzea eta hartutako zaletasunen inertzia eta kontsokratutako erosotasuna garaitzeko borondatea lortzea baino.

Hain zuzen ere gaur egungo Artearen eremuan hartzen du garrantzirik handiena inertzia eta erosotasun horren indarrak, eta heziketa-lanak ere oso ahalegin handia eskatzen du. Era berean, gaur egungo Artean, egileen sormenezko dinamismoak eta abangoardien ausardiak aurka egiten die “politikasunaren” leku komunei, eta heziketa-lana zehatzagoa da.



**Artium**-ek eskaintzen digun **Laocoonte devorado**. **Arte y violencia política** izeneko erakusketa berezi eta bikain honek aukera ematen digu hain mingarria den gai baten inguruan aldi berean estetiko eta etikoa den katarsi moduko bat bizitzeko, arte eta bortxakeria politikoari buruzko ikuspegi artistiko ugarien bitartez. Gasteizko herritarrak garen aldetik, eta oinarri politikoko indarkeriak oinazeturiko gizarte batean bizi garenez, aukera hori esperientzia terapeutikoa da.

Begiratzea ez da inoiz begiratze hutsa izaten, eta objektu artistiko bati begiratzen diogunean, are gutxiago. Arte-lan bati begiratzen diogunean, berak ere begiratzen digu. Gure begiradan gure aurreiritziak, gure itxaropenak, gure asmoak islatzen ditugu. Arte-lan bati begiratzeak esan nahi du interpretazio-ariketa zail bat egiten ausartzea, eta ariketa horretan isiltasunaren erdian topo egiten dugu aurrez aurre gurea ez bezalako esperientzia existentziala duen egile baten aurreiritzi, itxaropen eta asmoekin. Erakusketa honen bidez **Artium**-ek **Te Deum** laiko moduko bat eskaintzen digu indarkeria politikoaren biktima guztiengatik.

**Bourdieu** eta **Darbelek** iragan mendearen amaieran Europako museoetara eta beren ikusleei buruz egindako ikerlan soziologiko interesgarri batean, argi azaldu zituzten produktu artistikoen gozamenak berez dakartzan zailtasunak eta paradoxak; gure gizartean produktu horiek formalki mundu guztiari zabalik daude, baina hala ere gizarte, kultura eta hezkuntza mailako traba askori egin behar diete aurre.

Arteak indarkeria politikoaren gaia jorratzen duenean zaila izaten da esperientzia artistikoa edertasun hutsezko neurrietara mugatzea. Bestalde, iritzi komunaren arabera edertasunari buruzko ikuspegiak sarrera zuzena eta karismatikoa du artean, alegia “zerbait gustatzen zaigu edo ez zaigu gustatzen”, baina horrek ez ditu gure baldintza ideologikoak eta biografikoak kontuan hartzen, eta gainera egitate bat ezkututzen digu: ikuspegi estetikoak, gainerako ikuspegi guztiak bezala, gutako bakoitzak barruan ditugun irudi, kontzeptu eta esperientzien gainean eraikiak direla.

Azken batean, museo guztiak, eta Artium-ek argi erakusten digu hori, lehen mailako hezkuntza-erakundeak dira, eta Artea ezagutzeko aukera gure kultura birsortzeko eta horretaz jabetzeko ahaleginaren jarraipena besterik ez da, Eskolan hasi eta sekula amaitzen ez dugun prozesu baten barruan.

### **Aniztasunaren enigma eta abentura**

“Frantsesek grebari “grève” esatea onar liteke; animalari “animal” deitzea ere ulertzeko modukoa da, baina gaztari “fromage” esaten diotenean badirudi jendea zirikatuta nahian dabilzala”. Umorista batek kontatutako “pasadizo” horretan euskaldun batek beste hizkuntza bati buruz dituen tolerantzia-mugak eta mundua ulertzeko modua ageri zaizkigu, eta seguru asko, gauza bera gertatuko zaie frantziar batzuei gure hizkuntzari buruz ari direnean. Era batera edo bestera begiratuta, denoi iruditzen zaigu harrigarria edo deigarria gizakiaren aniztasuna. Kultura guztietan, Iparraldetik Hegoalderaino eta Ekialdetik eta Mendebalderaino, berezko joera dugu geure identitatea giza identitate osoaren kanon bihurtzeko.

Gizakia da animalia ontologiko bakarra, alegia, bere izaerari buruz galdera egiten duen animalia bakarra, bere ezagueratik kanpo dagoen identitate bat osatu beharrean aurkitzen da. Neketsua eta batzuetan arriskutsua izan daitekeen prozesu horretan beste identitate desberdin batekin topo egiten dugunean gizakiok erronka egiten digutela sentitzen dugu; esan liteke beste identitate bat egoteak berak egiten digula erronka. Identitate-ahultasun horrek traba ugari sortzen dizkigu besteen identitateak ulertzeko garaian. Eta arazoa are gehiago korapilatzen da gizakiaren plastikotasuna kontuan hartzen dugunean, plastikotasun horrek giza bizitzaren aldaera, desberdintasun, antagonismo eta konplexutasun ugariak erakusten baitizkigu, hainbat eta hainbat eratako gizabanako eta gizatalde desberdinetan ikus dezakegunez. Bartzelonako Forum aniztasun horren ispilu bikaina dugu.

Bartzelonako Kulturen Forum Unibertsala mundu osoko kulturetan eta arteetan oinarritutako lehen gertakaria da, eta bere helburua, hain zuzen ere, “kultura-zentrismo” desberdinek sortutako tirabirak gutxitzea da, elkarrizketa, eztabaida eta ospakizunen bitartez. Izugarritzko ahalegina egin da kulturen arteko topaketa- eta elkarrizketa-giro berri bat sortzeko, globalizazio ekonomiko eta politikorako joerei aurre eginez kulturen arteko lokarriak estutzeko eta elkarren berri jakiteko. Asmo horren zintzotasunak eta egindako ahalegin handiak gogotik laguntzera bultzatu behar gaitu denok.

Gainera Bartzelonako Forum 2004 hori Bartzelonako hiru administrazio publikoren (Estatuaren, Kataluniako Generalitatearen eta Bartzelonako Udalaren), hiriko erakundearen eta enpresen arteko lankidetzaren bikainaren emaitza dugu; gainera, horiek guztiek UNESCOren gerizpean egin dute lana.

Duela gutxi Bartzelonako Kulturen Forum Unibertsala 2004 ikusteko aukera izan dut eta esan behar dut egindako lanek benetan maila bikaina dutela, eta hasieran zalantza eta gorabehera batzuk izan badira ere, uste dut ibilbide eta amaiera arrakastatsua izango duela. Gainera, **Araba Kulturala** izeneko erakundeari esker (Arabako Foru Aldundia, Gasteizko Udala eta Caja Vital Kutxa) Gasteiz izan da Espainian Forumen lehenengo hiri laguntzailea.

Forumaren espazio fisikoa da alderdi erakargarrienetako bat, bakarra ez bada ere. Hiru arlo nagusitan banatua dago: Forum delakoa, duela gutxi garapen iraunkorraren irizpideei jarraituz berritutako gunea bat; Forumen elkarrizketa-gunea, nazioarteko 45 hitzaldi eta mintegi baino gehiago egiteko prestatua; eta Foru-Hiria, hainbat kultur jardueraren egiteko hiri-ingurunea.

Baina badira beste alderdi erakargarri asko, adibidez Forumeko elkarrizketak. Maila handiko kontzilio ekumeniko eta laiko baten antzera antolatuta dituzte, ikuspegi ideologiko eta espiritual guztietara zabalik, UNESCOk eta erakunde babesleek zehazturiko hiru gai hauen inguruan: **kultur aniztasuna** sustatzea, gizakiak berezkoa duen eta oso aintzat hartu behar dugun faktorea delako hori, aurreiritziak eta buruko trabak ahal den neurrian behintzat alde batera uzteko; **garapen iraunkorrerako** bideak

zehaztea, bai ingurumenaren arloan eta baita kultura, gizarte eta politika arloan ere, eta beraz **bakerako funtsezko baldintzak** finkatzea.

Herritarrek, artistek, intelektualek, gizarteko, ekonomia eta politika arloko agintariak, herritarren erakundeek, nazioarteko erakundeek... denok hitzordua dugu Bartzelonan irailaren 26 arte eraikin handi horren eraikuntzan laguntzeko.

Forumek gauza asko eskaintzen dizkigu baina horien guztien artean Elkarrizketak garrantzi handieneko gertakariak dira, horiei esker pertsona askok aukera izango baitute mundu osoko adituak eta “iritzi-eraikitzaileak” ezagutzeko, gaur egun garrantzitsuak diren eta gerora begira munduan eragina izango duten arazo nagusiez hitz egiteko, eztabaidatzeko eta aztertzeko. Elkarrizketa horietan parte hartzea sekulako aukera da denontzat.

Elkarrizketa horien bidez, hitzen eta kultura- eta arte-adierazpenaren bidez, gizakien, herrien eta kulturen arteko begirunea, elkar-ulertzea eta komunikazio-zubiak ezar daitezke. Elkarrizketa horretan gatazkak edo desberdintasunak ere agertuko dira, pertsona helduen arteko elkarrizketetan gure nortasunaren aldea iluna ere agertzen baita, baina hala eta guztiz ere elkarrizketarako borondatea hartzean elkarrekin komunikatzeko konpromiso tinkoa ere hartzen dugu, giza harremanetan hitzek gidari izan behar dutela diotenen jarrerak bultzatuz .

Forumaren arrakasta baldin badu, topaketarako ohitura berri bat sortua izango dugu denon artean, eta horri esker elkarrizketa instituzionalizatzeko egokiera izango dugu, Estatuaren bitartekotzarik gabe, taldeen eta gizabanakoen arteko harremanetarako benetako tresna izan dadin.

Bizitzea egokitu zaigun mundu hau aukera ugari mundua da, baina bestalde argi dago gatazka askoren mehatxupean dagoela. XXI. mendearen hasieran elkarrizketaren premia inoiz baino handiagoa da. Gainera unibertsalizaziorako joera dutenen eta identitate erlijioso, etniko eta kultural itxiak berpiztu eta finkatzeko joera dutenen arteko gatazkak eta tirabirak ugari egin dira.

Bartzelonako Kulturen Foru Unibertsala 2004ko Elkarrizketek helburu etiko ukaezina dute eta munduan zuzentasuna garatzeko, giza garapen iraunkorra sustatzeko, arazo unibertsalak aztertzeko eta gatazka kultural eta etnikoak erabiltzeko modu berriak ikertzeko aukera eman nahi dute.

Globalizazioa ezin da izan, besterik gabe, gertakari ekonomiko bat; aitzitik, kulturak ekonomiarekin eta politikarekin batera joan beharko luke gure bizimoduari tankera ematerakoan eta egungo mundua hobetzeko garaian. Estatu-Nazioen barruan, merkatuko legezko indarrekin batera elkartasuna eta legearen inperioa orokortzeko gauza izan garen moduan, era berean oreka-prozesu bera lortzen saiatu beharko genuke bizi garen planetako globalizazioaren esparruan.

Prozesu horretan hiriek bete behar duten eginkizuna Estatuak betetzen dutenaren parekoa edo handiagoa izango da; ez da kasualitatea Bartzelonak Kulturen I Forum hori antolatzeke lana bere gain hartu izana, eta Gasteiz hasiera-hasieratik proiektu horrekin bat egin izana.

EL PERIÓDICO DE ÁLAVA  
2004ko ekainaren 7an

### Herritartasuna eta kazetaritza

Erljioak, zientziak, zuzenbideak, teknikak eta baita erotismoak eta, nola ez, gastronomiak eta heziketa egokiak ere, naturaz haratago joateko xedea dute. Gizonak eta emakumeak naturaz gaindiko izakiak gara. Hain zuzen ere, gizakiak naturalizat hartzen du sinbolikoa dena, irudimenezkoa, gogoan erabilitakoa, kulturala.

Demokrazia ere artifiziala da, arte bat delako, hau da, materia gordina dagoen lekuan arrazionaltasuna sartu nahi duen artifizio bat delako; hala ere, gaur egun ondo dakigun bezala, faktore irrazionalen eragina kontuan hartzen duen arrazionaltasuna da arrazionaltasunik egokiena, baina ez faktore horiek onartzen dituelako, horiek menderatzen dituelako baizik.

Herritartasunaren kulturak, politika ulertzeko modu gisa hartuta, ezinbestean eskatzen du artifizio kultural bat, eta era berean eskatzen du norberak halako dohain bat izatea besteengana hurbiltzeko eta besteekin harremanak izateko, haien interesak, kezak, identitateak eta erreferentziak ezagutzeko, gureak ahaztu gabe noski, baina elkar ulertzeko bidea irekita uzteko aukera emanez.

Hiriak harreman eta elkarrizketarako eskaintzen digun gune horretan egunkariak funtsezko eginkizuna betetzen dute gaur egun; paperezko plaza publiko horretan elkartzen gara gure hirikideekin, beren iritziekin eta hiriaren memoria osatzen duten gertakariekin; jakina, hiri hori gure herrialdeko eta munduko mugetara zabalik dago, hiriak harreman eta irekitasunerako gune baitira.

Garai nahasi honetan, fundamentalismoa eta itxikeria erabat baztertzeko dituzten identitateak bakarrik izan daitezke bizikidetzarako baliagarriak eta gure postmodernitate publiko eta juridikoarekin bateragarriak. Alde horretatik, **Andrés Ortiz-Osesek Josexo Beriainen** “*La identidad Colectiva: Vascos y Navarros*” liburuari egindako hitzaurrean dioen hau proposatuko genuke: “*Entre la identidad absoluta o dogmática y la inidentidad vaciada o anulada, puede hablarse de una identidad simbólica, abierta y relacional*”

Harremanetan oinarritutako identitate ireki hori dinamikoa da, ez estatikoa; mestizoa, ez purista; elkarrizketaren aldekoa, eta ez tradizionala bakarrik.

Jokaleku hori eratu ahal izateko behar-beharrezkoa da informazioa izatea, iritziak askatasun osoz azaltzea eta herritartasunaren aldeko komunikazio zentzuzkoa eta eraikitzailea bultzatzea, hain erraz manipula daitezkeen sentimendu kolektiboak asaldatu eta desitxuratu gabe; gure gizarte irekien aniztasunetik abiatu arazoan muinera jo behar dugu, denon artean irtenbideak bilatu ahal izateko.

Eginkizun erakargarri eta garrantzitsu hori beteko duen egunkari berri bat dugu gure artean. Pozgarria da benetan prentsako beste hedabide izatea Gasteizko herritar guztien zerbitzuan. **Diario de Noticias de Álava: Ongi etorri.**

EL DIARIO DE NOTICIAS DE ÁLAVA  
2004ko azaroaren 24an.

## **Zer ospatzen dugu?**

IV. mendetik Gabonak kristautasunaren jai bat da, baina aurretik, jai paganoa zen eta gure gizarte aniztan, aspalditik, jai profanoa da, fededunak, fedegabeak, katolikoak eta protestanteak, bertakoak eta kanpokoak, helduak eta gazteak barne hartzen gaituen gertaera sozial bat. Gabonak berandu hasi ziren Kristautasunean ospatzen, izan ere, bere hastapenetan, jai nagusia, kristautasuna erlijio gisa sortu zuena, Berpizte Pazkoa zen. Kristautasuna erlijio menperatzaile eta hegemoniko bilakatu zenean, hasi zen neguko solstizioa antzinako jai paganoak kristautzen. “Munduko Argiarekin” edo “Justiziako Eguzkiarekin” identifikatutako Jesúsek senidetasun mitraikoen *eguzki invictus* ordezkatu zuen. Baina, zer ospatzen dugu gure gizarte aniztan Gabonak ospatzen ditugunean? Aniztasun ideologikoa, espirituala eta erlijiosoak, lehenik eta behin, barne hartzen du, Gabonak aparteko gertaera gisa ikusten duen kristautasun aitortzailea. Bere ustez, gertaera horren bidez, Unibertsoko Logosa gizakiaren bidez adierazi zen, gizakien hauskortasuna bere gain hartuz, gure hauskortasun propioarekin solidarizatuz, agian, denak, gure baimenik gabe, bota gaituzten existentziaren gogortasuna barkarazteko. Gure gizartearen aniztasunak ere barne hartzen ditu agnostizismoak eta ateismoak, ezkerreko eta eskuineko joerak, beste erlijioetako tradizioen fededunak eta kristautasun soziologiko izenarekin deitu genezaken talde bat: denek Gabonak familiako jai bezala hartzen dute, tradizionala eta komertzialaren artean, urte berriaren erritoekin nahasten den jai.

Gure artean, azkenaldi honetan jai horiekiko nolabaiteko mespretxua sortu da, agian kontsumismoaren presentzia oso nabarmena delako eta komunikabideetan eta telebistan gehiegizko ukitua eman diotelako. Hala ere, hori guztia eman arren, Gabonak atsegin dituen horietako bat naiz. Eta are gehiago; Gabonak indarra eta errotze berezia ematen dion zerbait duela esatera ausartzen naiz. Eta horrek guztiak, azken finean, oinarritzko eta funtsezkoena den gai bat adierazten duen jai baten errealitatearekin zerikusia dauka:

gure behartsuen izaeraren aitorpena, gure izaki urriaren aitorpena. Izan ere, defentsarik gabeko izakiak izan ginen eta izaten jarraitzen dugu, jaiotzerakoan besteek zaintzea behar izan genuen, eta ziur aski, horren beharra izango dugu hil arte. Bakoitzaren autonomiak lorpen handiak egin arren, izakiok besteen harrera eta onarpena behar dugu, eta hori gabe, ezin ditugu ezta gure gutxieneko helburu biologikoak ere lortu. Zentzuaren transferentzia baten bidez, gure seme-alabak Mendebaldeko Erregeek euren opariak ekarri zizkioten Jainko Umearen lekuan jartzen ditugu, baina transposizio-jolas horretan jolasterakoan, jabetuz edo jabetu gabe, gure haur izaera gogorazten dugu, hau da, afektuaren premian eta menpe eraikitzen den izaera bat. Eta azkenik, hartzen gaituen matrize bat aurkitu dugula ospatzen dugu, badaukagu non babestu eta bertan pertsona gisa gauzaten gaituen onarpen erremintak jasotzen ditugu. Hori da Gabonetan ospatzen duguna. Gabonetan, familiako eta gizarteko afektuen tartean – kobazuloan- biltzen gara, gure erkidego pertsonal eta lagunartekoan. Baina, horretaz gain, zabalagoak diren erkidegoetan ere elkartzeko gara, auzoan, hirian, erkidego nazionalen... gure oinen azpian dagoen lurra finkoa dela ziurtatzeko eta onartuak sentitzeko. Eta horixe berarengatik, besteekin lotura afektiboan bidez lotzeko premia duten pertsonak gara. Ez da gutxi, ez.

Egia da, horrekin batera kontsumismoaren, publizitatearen eta gizarte emulazioaren aurka borrokatu behar garela. Telebistaren komunikabideetako zarata eta saio bereziak jasan behar ditugu, azken horiek beti berdina direlarik: bere artifiziosko alaitasunarekin. Baina, ez gara harritu behar Gabonak, garrantzitsua den guztiak bezala, bere alde faltsua eta iluna duelako. Horrek ezin digu inolaz ere, alderdi nagusia baztertzera behartu. Gabonak maitasun gaua bezala. Zorionak!

EL PAIS  
2004ko ABENDUAREN 22a

## PRENTSAKO OHARRAK

### 2004ko apirilaren 23a

#### Giza Eskubideko Batzordea

Datorren astelehenean, 2004ko apirilak 26, **Sophie Thonon** Abokatu andrea Vitoria-Gasteizera etorriko da Euskal Herriko Kolonbiako errefuxiatuen Elkartearen kideekin batera, **Javier Otaola** eta **José Angel Cuerda**, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean, 2003ko Pariseko Iritziaren Nazioarteko Auzitegiaren Esku-hartzeak esplikatzen eta Euskal Ganbarari laguntza ebazpen bat eskatzeko.

Komunikabideren batek elkarrizketa bat egiteko interesa badu, Javier Otaolarekin harremanetan jarri, Auzoko Sindiko eta Defentsaria. Tfnoa: 945 162690.

#### **Sophie THONON WESFREID, Pariseko Eskolako Abokatua**

1.- L'association France Amérique Latine-ko Lehendakaria, 1970. urtean sortuta. Latin Amerikarekiko solidaritatea lantzen duen Frantziako elkarte zaharretariko bat da.

Bere helburua Frantzia eta Amerika artean solidaritateko ekimen guztiak garatzea da., kultura, politika, sindikoa... eta abarreko esparrutan.

l'Homme Giza Eskubideko Defentsan espezializatutako G.K.E. bat da.

2.- Elkartearen Lehendakaria: Droits Solidarité, 1990. urtean sortu zen, eta zuzenbideko profesionalak barne hartzen ditu nazioarteko antolaketa berri bat jartzearen alde lana egiteko. Gaur egun, globalizazio ekonomikoak sortutako arazoaren eta kalteen salaketarekin hartu du konpromisoa.

3.- Egun abokatua da Frantziako jurisdikzioaren hainbat prozesuetan, Latin Ameriketako Diktaduren biktimak eta desagertuak ordezkatuz, batez, ere, Hego Konoan.

4.- Pariseko Iritziaren Nazioarteko Auzitegiko kidea eta bozeramaile honek giza eskubideetako bortxaketak ezagutu ditu Kolonbiako Bolivar Hegoaldean, Francois Houtart-ekin batera, Apaiza, Lovaina Unibertsitateko irakaslea, Javier Otolá, Vitoria-Gasteizeko Auzoko Sindiko eta Defentsaria, Heinz Dieterich, Mexiko hiriko Unibertsitate autonomoaren eta metropolitarraren gizarte eta ekonomi zientzietako irakaslea, Luis Javier Garrido, Mexikoko Unibertsitate nazional autonomoaren zuzenbide fakultateko irakaslea.

## ARGITARATUTAKO ARTIKULUAK ETA ELKARRIZKETAK

### ARTIKULUAK

**-2004ko apirilaren 5a.**

**“El Periódico de Álava” “EB-IU alderdiak PP alderdiari galdetuko dio etxeko zaratari buruzko arau bat idatziko duen, Sindikoak eskatu duen bezala”**

**-2004ko apirilaren 20a.**

**“El Periódico de Álava” “Udalak dio etxeko zaratei buruzko araudi batek gatazkak sortuko lituzkeela bizilagunen artean”**

**-2004ko irailaren 30ean.**

**“El Correo” “Kooperatibistek hiru urtez erroldatuta egon beharko dute pisuen zozketetan sartzeko”.**

**-2004ko urriaren 6a**

**“Deia” “Sindikoak, tabernetan, ordutegiari buruzko kanpaina bat gomendatzen du”.**

**-2004ko urriaren 6a**

**“El Mundo” “Tabernen zaratek eta AES-en eskaerak Sindikoaren azken urteko kexa guztiak hartzen dituzte barne”.**

**-2004ko urriaren 9a**

**“Deia” “Aisialdiko zarata eta AES-en atzerapenak, Gasteizeko hiritarren kexa nagusiak”**

**“Auzoko Defentsariak iazko urtea bukatu zuen espedienteen %90ekin zabalik zituela”**

**-2004ko urriaren 9a.**

**“El Mundo” “Udalak onetsi du Auzoko Defentsariak zerbitzuko lehen bi urtetan izan duen gestioa”**

**-2004ko urriaren 9a.**

**“El Correo” “Sindikoak bitartekotza egingo du haurtzaindegien krisian, greba amaitu ahal izateko”**

**-2004ko urriaren 13a.**

**“El Correo” “Trafikoa eta Alde Zaharreko arazoak dira sindikoak ebatzi beharreko kasu nagusienak”**

**-2004ko urriaren 13a.**

**“El Correo” “Gizarte langileen %81k dio zerbitzuaren kalitatea oso baxua dela “gainezka” daudelako.”**

**-2004ko urria4**

**“La Gaceta Municipal, 42. zenbakia” “Auzoko Sindiko eta Defentsariaren bigarren urtea”**

**-Azaroaren 1. hamabostaldia.**

**“Vitoria Quincenal 16. zenbakia” “Zaratak, Ogasuna eta Hirigintza, gasteiztarren Sindikoari aurkezten dizkioten arazo nagusienak”.**

**-2004ko abenduaren 7a.**

**“Diario de Noticias de Álava” “Erdialdeko bizilagunak haserre daude prostituzio-pisuek eragindako kalteengatik”. “Sindikoak eskatu du bertara udaltzain gehiago bidaltzeko” .**

**2004ko abenduaren 30a**

**“EAJ alderdiak erreklamatu du birziklatze edukiontzien ordutegia aldatzeko, traba gutxiago sortzeko” Udalak hamar hilabete daramatza Sindikoak horri buruz egindako gomendio bat aztertu gabe.**

**-2005eko urtarrilaren 12a**

**“El Correo” “Sansomendik Oto hiribideko tragikoa moztuko du ez bada abiadura handia kontrolatzen. Huetos Montal Elkarteak bihar Sindikoarekin bilduko da bitartekotza egiteko eskatzeko.**

**-2005eko urtarrilaren 13a**

**“El Correo” “Sindikoak bitartekotza egingo du Oto hiribideko trafikoaren abiadura handiaren arazoa konpontzeko” Udalarekin bilduko da, Sansomendiko bizilagunei entzun ondoren, kalea moztearekin mehatxu egin dutenak.**

**-2005eko urtarrilaren 27a**

**“El Correo” “Sindikoak gomendatu du radar finko bat ipintze Oto Hiribidean, istripuak prebenitzeko”**

**-2005eko urtarrilaren 28a**

**“El Correo” “PP alderdiaren ustez ezin da edukiontziak biltzeko ordutegia atzeratu, zarata gutxiago egiteko” Arruabarrenak salatu zuen Ingurumen Sailak hamar hilabete daramatzala Sindikoaren horri buruzko gomendioa aztertu gabe.**

**-2005eko otsailaren 10a**

**“El Correo” “ Bizilagunen presioak eta Sindikoak lortu dute Florida kaleko prostituten pisu bat ixtea”.**

**-2005eko otsailaren 11.**

**“El Correo”. “50 gasteiztarrek, urtero, euren bizilagunak salatzen dituzte lo egiten ez uzteagatik”.**

**-2005eko otsailaren 19a.**



**“Diario Noticias Alava”. “ Sindikoak bizilagunekin bat egiten du eta alkateari Sansomendi plaza erreformatzeko eskatu dio”**

**-2005eko otsailaren 22a.**

**“Diario Noticias Alava” “Sindikoak, txosten baten bidez, bizilagunen kexak abalatu ditu, Paula Montal Plazaren egoera lartzari buruz”**

**-2005eko otsailaren 24a.**

**“Deia” “Sindikoa Campillo parkinga doan izatearen edo horren kostuaren azpiko prezioaren aurka jarri da”**

**-2005eko urtarrilaren 28a.**

**“Diario de Noticias de Álava” “Sindikoak zainketa gehiago erreklamatu du eskaleak Arkupetatik botatzeko.”**

**-2005eko martxoaren 1a.**

**“Diario de Noticias de Álava” “Sindikoa atertzen ari da pisuetako prostituzioa araupetzeko Ordenantza bat eskatzeko aukera”.**

**-2005eko martxoaren 3a.**

**“Diario de Noticias de Álava” “Sindikoak atzeman du Gasteizen ugaritu direla prostituzioko kasuak”.**

**-2005eko martxoaren 5a .**

**“El Correo” “Putetxeak eta sindikoa”.**

**-2005eko martxoaren 6a.**

**“Sindikoak Barrancal-en bizikleten parking bat jartzeari buruzko bizilagunen eskaeraren alde egin du”.**

## **ELKARRIZKETAK**

**-2004ko maiatzaren 30a.**

**“El Correo” Javier Otaola. “Gasteizek bere paralisia gainditu behar du 10 urteko bizi kalitatea jokoan duelako”**

**-2004ko abuztuaren 19a.**

**“Deia” Javier Otaola. “Beti administrazioaren isilunearen kausa ikertzeko kasuak daude”**